

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA
VASCA “JULIO DE URQUIJO”

International Journal of Basque Linguistics and Philology

XXXII-2

1998



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA "JULIO DE URQUIJO"
International Journal of Basque Linguistics and Philology
ASJU

Sortzaileak / Fundadores / Founded by
Manuel Agud - Luis Michelena (†)

Zuzendaritza Batzordea / Consejo de Dirección / Board of Directors

Lehendakaria / Presidente / Chairperson
Patri Urkizu (EI, Donostia)

Bokalak / Vocales / Members of the Board
Jon Kortazar (EI, Bilbo)
Joseba Andoni Lakarra (EHU, Gasteiz)
Ibon Sarasola (EHU, Gasteiz)
Xarles Videgain (EI, Baiona)

Zuzendaria / Director
Ibon Sarasola (EHU, Gasteiz)

Argitaratzailea / Editor
Joseba Andoni Lakarra (EHU, Gasteiz)

Idazketa Batzordea / Consejo Editorial / Editorial Board

Gidor Bilbao (EHU, Gasteiz)
Iñaki Camino (EHU, Bilbo)
Ricardo Gómez (EHU, Gasteiz)
Joaquín Gorrochategui (EHU, Gasteiz)
Miren Lourdes Oñederra (EHU, Gasteiz)

Javier Ormazabal (EHU, Donostia)
Jon Ortiz de Urbina (Deustua)
Iñigo Ruiz Arzalluz (EHU, Gasteiz)
Blanca Urgell (EHU, Donostia)
Koldo Zuazo (EHU, Gasteiz)

Aholku Batzordea / Consejo Asesor / Advisory Board

Jacques Allières (Toulouse)
Patxi Altuna (Deusto-Donostia)
Jesús Antonio Cid (Complutense)
M^a Teresa Echenique (Valencia)
EHU-ko E.F.S.-ko Burua (P. Goenaga)
Jean Haritschelhar (Euskaltzainburua)
José Ignacio Hualde (Illinois)
Bernard Hurch (Gratz)
Jon Juaristi (EHU, Gasteiz)
Itziar Laka (EHU, Gasteiz)

Jesús María Lasagabaster (Deusto-Donostia)
Francisco Oroz Arizcuren (Tübingen)
Jon Ortiz de Urbina (Deustua)
Beñat Oyarzabal (CRNS-Baiona)
José Antonio Pascual (Salamanca)
Georges Rebuschi (Sorbona III)
Rudolf P.G. de Rijk (Leiden)
José M^a Sánchez Carrión (Gasteiz)
Iñaki Segurola (Orotariko Euskal Hiztegia)
Juan Uriagereka (Maryland)

Idazkaritza Teknikoa / Secretaría Técnica / Technical Secretariat

Ainhoa Aranzabal (EI, Gasteiz)

José Ángel Ormazabal (EI, Donostia)

Eta Gasteizko Filologia Fakultateari atxikitako EHU-ko Euskal Filologia Saileko irakasleen laguntzarekin.

ASJU 1954ean sortutako euskal linguistika eta filologiazko nazioarteko aldizkaria da eta iker-eremu horietarako edo horietarako ere interesgarri izan daitezkeenetarik goi mailako artikulu, ohar eta liburu-iruzkinak argitaratzen ditu. Urtero bi zenbaki atteratzen direlarik, ASJU-k badu, orobat, GEHIGARRI sail bat non artikulu formatoaz gorako lanak argitaratzen diren, epe jakinik gabe.

Orjinalekiko hartzemanetarako ikus bitez zenbaki bukaerako EGILEENTZAKO OHARRAK. Harpidetza eta eskarietarako: Eusko Ikaskuntza. San Antonio, 41 - 01005 Vitoria-Gasteiz. Tel.: 945231552. Fax: 945148752. E-mail: eigasteiz@cempresarial.com.

ASJU es una revista internacional de lingüística y filología vasca fundada en 1954. Se publican en ella artículos, notas y reseñas sobre los campos mencionados y otros relacionados con, o de interés para los mismos, en la actualidad de periodicidad semestral. Sin regularidad pre establecida ASJU publica en sus ANEXOS trabajos de formato superior al de un artículo.

Para correspondencia relacionada con los originales véase la INFORMACIÓN PARA LOS AUTORES al final del número. Para suscripciones y pedidos: Eusko Ikaskuntza. San Antonio, 41 - 01005 Vitoria-Gasteiz. Tel.: 945231552. Fax: 945148752. E-mail: eigasteiz@cempresarial.com.

ASJU is a International Journal of Basque Linguistics and Philology founded in 1954. It publishes highquality papers, notes, squibs and reviews about the above mentioned and other related topics in two issues per year (up to a total of 700 pages). Longer works are published as SUPPLEMENTS to the regular issues of the ASJU.

For correspondence about papers see the INFORMATION FOR AUTHORS at the end of this issue. For subscriptions and order: Eusko Ikaskuntza. San Antonio, 41 - 01005 Vitoria-Gasteiz. Tel.: 945231552. Fax: 945148752. E-mail: eigasteiz@cempresarial.com.

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA
VASCA “JULIO DE URQUIJO”

International Journal of Basque Linguistics and Philology

XXXII-2

1998



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DONOSTIA

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA
SAN SEBASTIÁN

© Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»



EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS

Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Diputazioek 1918an sortutako erakundea
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - Tel. 943 - 31 08 55 - Fax 943 - 21 39 56 - 20007 Donostia
Internet: <http://suse00.su.ehu.es> - E-mail: ei-sev@sk.ehu.es

ISSN.: 0582-6152. Depósito Legal: S.S.-400/1967

Inprintategia: Michelena artes gráficas - Astigarraga (Gipuzkoa)

Belapeirez

PELLO AGIRRE

Abstract

Athanase Belapeire is the author of Catechima laburra (1696), one of the most important sources for the study of the Suletin dialect. He belonged to the prestigious Bela family, who were champions of Calvinism in the fighting that took place in Zuberoa during the XVIIth century. His father, the famous Jacques de Bela, was a Protestant all through his life but Belapeire is already a catholic priest. As vicar general, Bishop of Olorón's delegate in Zuberoa, he worked for the Counter reform.

Zuberoa belonged to the diocese of Oloron, but the conflict between vicar general Belapeire—who was supported by the Souletin priests and parishioners—and the bishop Salettes shows that the unity of the diocese is not a true one. Accordingly, Belapeire writes in Basque a catechism for the Basque part of the diocese and has it printed against the bishop's wishes. In 1706 the catechism by Joseph de Revol, written in French and translated to Basque and Bearnes, will be established for the whole diocese.

Several of the Catechima laburra's sources have been identified: the second part, explaining religious festivities, is a translation of Bossuet's 1687 catechism and six paragraphs are taken from the Dotrina Christiana by Materre.

0. Sarrera*

Athanase Belapeirek zubererazko dotrina bat izkiriari zuen, *Catechima laburra* (1696), euskalki horren historiaren lekuko garrantzitsua dena. Artikulu honetan, lehenik, idazlearen familiaz jardungo dugu, protestanteen buruzagi izan ziren Belatarrez, alegia. Aita Jacques de Bela, zubererazko atsotitzak utzi dizkiguna, higanauta izan zen bizitza guztian; Belapeire semea, aldiz, apaiz katolikoa, Kontraerreformaren ezarpenaren alde lan egin zuen bikario jenerala (erran nahi baita,

* Artikulu hau gure doktore-tesiko lehen kapitulua da funtsean, zertxobait moldatua. *Athanase Belapeire: Catechima laburra (1696)* izenburuko tesiak, 1996ko irailean amaitu eta 1997ko martxoan defenditu genuen. Eskerrak eman nahi dizkiogu, hasteko, Andolin Eguzkitzari, tesiaren zuzendaria. Eskerrak tesi epaitu zutenei: J. Haritschelhar, B. Oyarçabal, I. Camino, P. Salaberri eta E. Knörr. Eskerrak Edorta Zabaleta irakasleari, Martin Lasa, Joseba Intxausti, José Luis de Orella, Joxe M. Rementeria, Jean Louis Davant eta Joxemari Sestoraini, bibliografia eskuratu eta aholkuak eman zizkigutelako. Eskerrak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, tesi egiteko emandako dirulagun-tzagatik. Eta eskerrak Joseba Lakarra editoreari egindako ohar guztiengatik.

Oloroeko apezpikuaren ordezkaria Zuberoan). Artikulu honetan Oloroeko elizbarrutiko borrokez arituko gara, laborarien matxinadez, Zuberoako apaizen bizimodu larriaz, sorginez, Belapeireren bizitzaz eta historiari buruzko haren lanez... Azken atalean, luzeenean, mende haietako dotrinen berri ematen da (protestanteenak, XVII. mendeko katixima frantsesak, Euskal Herrikoak, Oloroeko elizbarrutikoak), *Catechisma laburra* sortu zeneko testuingurua ezagutzeko. Garaiko dotrina anitz irakurri eta testu horren bi iturri ediren ahal izan ditugu: bigarren parte osoa, festak azaltzen dituena, Bossuet-en kristau-ikasbidearen itzulpena da; bestalde, sei paragrafo Materren *Dotrina Christiana*-tik jasoak dira.

1. Belatarrak

Zuberoan baziren klase agintariaren baitan familia gutxi batzuk (Hosta, Arraing, Bela, Ezponda, Sibas, Etxarie, Maytie, etab.) ezkontzak zirela medio elkarren artean lotuta zeudenak. Aitonensemeez osatu familia horiek administrazioa zuzentzen zuten (Goiheretxe 1971: 11-12). Horietakoa zen Bela familia, Belapeirerena. Esan dezagun, bidenabar, garai hartan sortzez jauneriakoak ziren apaizen multzoa aipagarria dela (Bonetti 1986: 75).

Goiheretxek handikien familien inguruko giroa deskribatzen du. Albret-eko Joanak hedatu nahi zuen protestantismoari jarraiki zitzaien hauetako asko:

Gizaro jakintsua eta ikasia, beraz, hura: euskal letrak eta gizatartasuna elkarrekin sortzen, Kondaira eta Dretxoa ere elkarren osatzaile. Aisa konprenitzen da, hortaz, giro hori protestantismoarekiko oso idekia eta emankorra izatea: Albret-eko Jeanne-ren eragin bortitza eta sakona izan zen harten. Bere erlijio-kideen aurrerapidea erraztutzen zuen Administrazioa [...]. Enekot Ezponda-koa, 1594-an Donapaleun katoliko elkartuek ("Ligueurs"ek) erana, protestantismoaren martiri bat izan zen. Endrike eta Joanes, honen bi semeak, berandu arte ez ziren katolikutasunera itzuli (1971: 12-13).¹

Nobleziako familia gehienak Maulen bizi ziren, etxeko-jaunek han zutelarik ogibidea. XIII. mendeaz geroztik bere foru berezia zuen Maulek; bastida zen, hau da, hiriberri edo errege-hiria, eta administrazioari eta legediari dagokionez Zuberoatik

(1) Azurmendik (1985, 364) dakarren laburpena bere hartin aldatuko dugu hona:

"Higanautak (hugonoteak) iparraldeko Kalvinoren jarraitunei esan ohi zaie. 1530 aldera hasi da sartzen Euskal Herrian kalvinismoa. Joana Albretekoak 1560ko abenduaren 25ean aitoratu zuen ageriki konfesio erreformatua, behingoan Zuberoako zenbait aiton-seme, magistratu eta elizgizonek jarraitzen ziola. Apaizen batzuk Ginebrara bidali ziren, konfesio berria iturrian ikastera (Jean de Cheverry, adibidez, "La Rive" deitua, Donibane Lohizuneko, Leizarragari bere itzulpenean lagunduko diona, Landetxeberri, Tartas eta besteren batzuekin [badakigu hauetako batzuk zuberotarrak zirela] correcteurs et revisiteurs de la dite traduction). Aipagarria Pierre d'Urte kaputxinoa ere, donibandarra orobat. Kalvinistek euskarazko eskolak, elizkizunak, antolatzeko asmoa zuten, beren printzipioei zegokienez.

Aiton seme eta magistratuen artean Bertran Zalgizekoa eta Jakue Belakoa aipatu behar dira [...] Makina bat gerra eta txikizieren buruan, Hendrike IV (III).a, Frantzisko Koroa heredatu eta ("Parisek balio du meza bat"), katolizmora itzuli zenean, egin zen bakea. Lehen protestantismora bezala orain atzera katolizmora jarraitu zaizkion familien artean, Ezpondatarrak daude. Hendrike Gotzaina izango da (Joan izeneko hiloba bezala) eta idazle erlijioso oparoa latinez".

bereizirik zegoen, gehienik kanpotarrez osatua. Lextarren egiten ziren horregatik Ordako Biltzarra (Zuberoako hiru estatuek osatua, h.d. jauneriak, elizgizonek eta herriak) eta Justizi-Biltzarra. Herriarengandik aparte bizi ziren familia haietan:

Etniaz, eskubideaz, gizartea, giza-talde hura, hertsia eta batua, herritik at bizi zen. Pentsakerak, ikasketek, interesek, Zuberoa-ko herritik urrunten zuten —kontra jartzen ez zutelarik— eta, alderantziz, Biarno-ko erregetzara eta klase-nagusietara hurbiltzen. “Matalas”en matxinada ongi ulertzen da: *Herria! Herria!* oihukatzen zuen matxinada hura, herrikoia izan zen osoki, eta hiru etsairi oldartzen zitzaien batera: Erregeren zerbitzariei, protestantei eta *Maule-ko sorgintzarrei* (Goihenetxe 1971: 13-14).

Familia haitatik ongienik ezagutzen ditugunetakoak dira Belatarrena² eta Ezpondatarrena. Guk lehenengoengan jarriko dugu arreta. Bela familiakoek garantzi handia izan zuten XVI., XVII. eta XVIII. mendeetako Zuberoaren historian, bertako erakundeetan parte hartze nabarmena izan baitzuten. Gérard de Bela-rekin hasita zenbait belaunaldiz protestante izan zirelarik, XVI. eta XVII. mendeetako erlijio guduetan borrokatu ziren. Belapeirek, aitzitik, XVII. mendearen bigarren erdian, Trentoko Kontzilioaren ezarpenaren aldeko lanetan jardun zuen, Zuberoako bikario jeneral gisara.

1.1. Gratian de Bela

Etorkiz Belatarrak Biarnotik dator. Bela-ko Gratian, Saint Goin-go (Nabarrenkoze eta Oloroeren artean dagoen herrixkako) sendi batean sortua (1526),³ erregearen prokuradore-orde (1550) izan zen eta Zuberoako sindiko (1553). Sindikoak

(2) Belatarren inguruan berri gehiena dakarrena Clément-Simon (1894-1895) da. Familia hartako alaba batekin ezkondua (apud Peillen 1988, 97), Jacques de Bela-k utzitako *Tablettes* argitaragabeak eta familiako beste hainbat paper erabili ahal izan zituen. Cf., gainera, Menjoulet II, 293-296 eta Haristoy I, 405-407 eta II, 147-149.

(3) Belatarren etorkiari buruz kontuak argitu beharra egon da. Jean de Jaurgaini (1896, 7 eta ond.) jarraitzen gatzazkio. Abizena jatorriz *Belac* zen eta aldatu egin zuten. “Jacques de Bela ou de Belac, qui écrivait vers 1650, la remonta [Belatarren familia, alegia], paraît-il, jusqu’au patriarche Jacob, par Bela fils de Benjamin”. Hurrengo mendean Juan Felipe Belako zalduna apalagoa izan zen: “le chevalier Bela se contenta de rattacher Gracian de Belac à une très noble et très ancienne maison navarraise, en le faisant fils de don Garcia Belez (Velaz) de Medrano et de Marie du Domez de Cheraute”; frogatzera hiru akta (ezkontza agiri bat tartean) aipatzen zituen.

Jaurgainen ustez faltsuak lirateke hiru aktak, eta beste bi akta agertzen diru: “Plusieurs factums affirment qu'il [hots, Gratian] était fils de la maison roturière de Belac de Saint-Goin, en Béarn, et qu'il vint s'établir en Soule comme régent abécédaire. En effet, l'origine béarnaise des Belac est incontestablement prouvée par deux actes judiciaires”. Biotan Saint-Goin-eko Belacq familiakoek baiezteratzen dute Sohürtako Isaac Bela-ren aitona, Gratian de Belacq, Biarnoko herri hartakoa zela eta beraien aitonaren anaia.

Egia esan, Clément-Simon-en arabera (251 eta 2. oh.), Jacques de Bela berak, *Tablettes* obrako BELA sarreran, bere arbasoen artean Saint-Goin-go laborari familia aipatzen du, XIII. mendetik aurrera ezaguena eta XVI. mendean oraindik desagertu ez dena.

Baina, bestalde, 1297an, Foix-ko Margaritak, Biarnoa eta Zuberoako bizkontesak, Biarnoa eta Zuberoaren arteko mugak zehazteko aukeratu zituen epaileetako bat izan zen Saint-Goin-go Bernard de Bélac. Régnier-en ustez honek Belatarren jatorri xehea ezeztatuko luke (1985, 48-49).

eginbide garrantzitsuak zituen bere gain: Zuberoaren ordezkaria izan justizi arazoeitan, zergak jaso eta ordaindu, hiru estatuen erabakiak bete zitezen ahalegindu eta, gainera, Zuberoak zituen zerga abantaila eta eskubideak defendatu. Gratian katolikoa zen eta Maulen zeukan etxe batean luzaroan eduki zuen gorderik Claude Régin Oloroeko apezpikua (1556-1592), Albret-eko Joana Nafarroako erreginarengandik ihesi zebilena (Clément-Simon, 199).⁴

1.2. Gérard de Bela (1550-1633)

Gratian-en seme Gérard, legeetan lizentziaduna, Mauleko bailli⁵ izendatu zuen erregeak (1577). Urte berean Catherine de Johanne-rekin ezkondu zen, Jean de Johanne-ren (hots, Albret-eko Joanaren estatu-idazkari higanautaren) alabarekin. Gaztetan katoliko izana, higanauta bihurtu zen.⁶ Sorhuetako (egun Sohüta) Domec etxe noblearen nagusi bihurtu zelako (1588), Zuberoako *potestat* izan zen.⁷ Jean de Belsunce Zuberoako gobernaria eta Gérard de Bela *lieutenant-général* eta *bailli-a* izan ziren Zuberoan kalbinismoaren buruzagi eta Nafarroako Henri III.aren zerbitzari, erlijio-guduetan. Zuberoan katolikoak ziren gehienak; gainera, gazteluan konponketak egiteko, Belsunce-k zergak ezarri nahi izan zituen eta herriaren kexua sortu zuen. Katolikoak bi agintarien aurka borrokatu ziren, eta hauek gaur aginpidean bihar ihesi ibili ziren. Henri III.a, kalbinismoari uko egin ostean, Frantziako errege (Henri IV.a) izendatu zutenean, Gérard-en alde atera zen eta *bailli* izaten jarraitu ahal izan zuen.⁸

(4) Belako Zaldunaren *Histoire des Basques du iturri*, artxiboenetan zuen eskuizkribua (ik. 37. oh.). Protestante eta katolikoen arteko borrokak ikaragarriak izan ziren 1568 urtearen inguruan. Albret-eko Joana La Rochelle-ra joan zen babes bila, Biarnoan d'Arros baroia utzirik bere ordezkari gisara. Frantziako Charles IX.aren agindupean, Charles de Luxe katolikoa Nafarroa Beherearen eta Zuberoaren jabe egin zen. Terride bizkontea, berri, Biarnoaz jaberu eta eliza katolikoa berrezarri zuen. 1569ko uztailean Albret-eko Joanaren aginduz Montgommery konte higanautaren erasoa hasten da. Biarnoaz jabetu eta Zuberoan sartu zen Montgommery, eliza askori eta Maulera su emanez. 1570ean d'Arros higanautak ordenantza baten bidez erlijio katolikoa debekatzen du Biarnoan. Claude Régin eta bere kapituluko kalonjeak Maulera joan ziren orduan babes bila. Hogeita hamar urtez bertako Notre-Dame elizatxoa izan zen katolikoen katedrala (Régnier 1991, 185-189).

(5) Clément-Simon-en arabera (199-200), Gérard de Bela oraindik katolikoa zen, Henri III.ak *bailli* izendatu zuenean. Montgommery kontea buru zutela, higanautek 1569an Zuberoan egindako txiki-zioetan, Gérard-ek Mauleko etxeetan izandako galeren ordainetan eman zion erregeak kargua. Bailli-a erregearen ofizialeko bat zen. Erregeak edo bere ordezkariak, hau da, Zuberoako gobernatzaleak, izendatzen zituzten bi *bailli*-ak, iparraldeko eta hegoaldekoak. Ihesi zebiltzan gaizkile eta bestelakoak atzematea zen haien lana (cf. Goihonetxe 1973, 224).

(6) Protestanteekiko ezinikusia ezkutatzen ez duen Haristoy-ren ustez (I, 406), politikan aurrera egiteko bihurtu zen higanauta Gérard de Bela. Clément-Simon-en arabera, agian ezkontzak bultzatu zuen higanauta bihurtzera (199).

(7) Beraz, Zuberoako justizia zuzentzen zuen Lextarreko gortean bazuen bere lekua. Hamar ziren, gobernariarekin eta beste berrogeita hamarren bat aitonensemerekin batera, Lextarren sartzen ziren *potestat* deituak. Zuberoan noblezia eta armaría etxeari zegozkion, ez familiari; etxe noble baten jabe bihurtzen zenak (gurasoengandik jasoz, ezkontzaz nahiz erosketaz) etxeari atxikirik zeuden eskubideak eskuratzentzituen (erran nahi baita, Zuberoako erakundeetan parte hartzea).

(8) 1585ean Frantziako Henri III.ak bi ediktu eman zituen, bata baino hurrengoa gogorrago, higanauten kontra; elizara bihurtu edo Frantziako erresumatik alde egin beharko zuten. Zuberotar protest-

Bi seme izan zituen: Isaac eta Jacques. Aita eta bi semeak protestanteen alderdiko buruzagi izan ziren; beren etxeetan babesten zituzten apaiz higanautak, etxeak Erreformaren biltoki eta eliza bihurturik.⁹ Isaac (1585-1660), zaharrena zelako Sohütako etxean geratu zelarik, aitoren semeen ordezkari izan zen 1612-1660 bitartean. Isaac-en seme izan ziren André,¹⁰ zaharrena, eta Pierre, aurrerago Sohütako elizaren erretoretzaren inguruko auzia dela-eta aipatuko ditugunak (ik. 4.2.1).

1.3. Jacques de Bela (1586-1667)

Isaac eta Jacques-ek heziketa berezia izan zuten. Sohütan hasi ziren ikasten, etxe-an, aitak ordaintzen zuen irakasle batekin. Gero Jacques Lescar-a joan eta hamazazpi urterekin amaitu zituen ikasketa klasikoak. Hogei urte zituela, Tolosako unibertsitatean zuzenbide ikasketak egin eta doktore izatera iritsi zen; tesia latinez irakurri zuen. Bere aita Gérard bezala higanauta zenez, Lextarreko Gortean abokatu izateko katolikoengandiko oztopo handiak gainditu behar izan zituen. Baino bere lekua ira-

tante gehienak Biarnoa aldera joan omen ziren. Gérard, bailli eta “potestat juge-jugeant” zena, Lextarreko Gortea ediktua ez onartzearen aldeko zen. Jasses-a (Biarnora) ihes egin behar izan zuen, haur-dun zegoen emaztea utzirik. Garai hartan erdi zen Catherine Jacques-ez (1586-02-15) Maulen. Nafarroako errege Henri III.ak, Guyenne-ko *lieutenant général* baitzen, agindu zien Belsunce goberniari eta Belari beren aginpidea berreskuratzeko. 1587an Maulez jabetu ziren, Charles de Luxe uxatuz. Jean IV Belsunce-k gobernarrigoa berreskraturu zuelarik, bailli zen Gérard *lieutenant de robe longue* izendatu zuen (Menaud d'Arraing katolikoaren ordez). Betiere Nafarroako Henri III.aren (laster Frantziako Henri IV.a izango denaren) aginduak jarraituz, goberniariak zergak igo nahi izan zituen Mauleko gaztelua konpontzeko. Baino zuberotarrek ez zuten halakorik nahi. Katolikoak ugariago ziren Zuberoan eta Belsunce-ren administrazioaren aurkako ziren.

Bi taldeen indar neurketak Vervins-eko Bakera arte iraun zuen. Tarte hartan Belsunce eta Bela gaur agintari bihar ihesi ibili ziren. 1593an katolikoen taldeak Gérard hartu eta kartzelaratzeko dekretua agertzen da. Frantziako Henri IV.a Gérard-en alde atera zen; izan ere, bere manupear aritu zen hau (Cf. Clément-Simon, 200-202). 1598an, mauletar eta lehengusu ziren Menaud d'Arraing katolikoa eta Gérard de Bela higanauta elkartu eta banaketa egin zuten: aurrerantzean lehenengo *lieutenant de robe longue* izango zen, bigarrena *bailli*. ‘Arropa luzedun ordezkaria’ goberniariaren ordezkoa zen Lextarreko Gortean. Kargua 1550. urtean sortu zuen Bertrand de Haramboue Zuberoako gobernatzaileak (Régnier 1991, 235 eta ond.).

Ohar bedi Henri, Albret-eko Joanaren semea, 1572tik aurrera dela Nafarroako Errege. 1589an Frantziako erregetzara igotzen da, Henri IV.a izenarekin, Frantziako Henri III.a, bere lehengusua, hil eta gero. Handik hara, Henri IV.ak eta bere ondorengoak, Borboiak, Frantzia eta Nafarroako Errege izango dira (Goihernetxe 1985a, 52). Henri IV.a erlijio bakearen alde aritu zen. *Édit de Nantes* (1598) delakoak kontzientzi askatasuna ekarri zuen. Protestanteek Frantzian zituzten eskubideak onartu ondoren, Henri IV.ak *édit de Fontainebleau* (1599) delakoan sinatu zuen, Biarnoan katolikoei erlijio askatasuna eskuratzuz. 1599an Arnaud I de Maytie da Oloroeko gotzaina, eta kapitulua Mauletik Oloroera itzultzen da (Régnier 1991, 193 eta ond.).

(9) XVII. mendearren hasieran baziren oraindik protestanteak Zuberoan, Maule, Muntori, Zalgize eta Irurin, batez ere. Muntorin bazutenean eliza, baina gainerakoetan elizkizunak exeteetan egiten zituzten: Maulen Belsunce-ko Jean gobernatzailearen etxean, Irurin Aramits-eko Mariaren etxean (Peyré-ko jaunaren alarguna), Sohütan Belatarren etxean. Bela-Sorhoetako Isaac-ek bere etxean zuen artzainarentzat eta ondorengontzat 300 libera utzi zituen bere hilburukoan. Aitonaren semeen familiak ziren, batez ere, higanauta. Mauleko artzaina, Jacques de Bustanoby, izan zen (Matalasen gizonek hil nahi zutelarik) Arnaud-François de Maytie apezpikuak salbatu zuena (Régnier 1991, 196).

(10) André katoliko bihurtu zen. Gudukatuz irabazitako merezimenduengatik baroi izendatu zuen (1679) Louis XIV.ak (Clément-Simon, 207, lehenengo oh.).

bazi zuen, azkarra baitzen. 1622an zuberotarren ordari gisara Parisa joan zen, Zuberoa Bordeleko Parlamentuari, ez Pabekoari, atxikia gera zedila galdatzera.¹¹ Trois-Villes-en auzian ere (Matalas-en matxinada eragin zuenean) aritu zen zuberotarren aldeko lanean.

1614an ezkondu zen Arbideko Jeanne-rekin, Nafarroa Behereko Lacarre aitoren seme familiako alabarekin, eta hala Othegain etxeko jaun bihurtu. Jeanne katolikoa zen eta gorabeherak izan zituzten senar-emazteek.¹² Gero Mauleko Moures etxea lortu eta bertan tenplua jarri zuen. Izan ere, bere fedeari hil arte eutsi zion (1667), nahiz eta emaztea eta Athanase semea, besteak beste, aita katolikotzeko ahaleginetan aritu bide ziren.¹³

1.3.1. Belaren Tabletes. Euskal atsotitzak

Jacques de Belak euskal gramatika eta hiztegia¹⁴ idatzi zituen, baina, zoritzarrez, galdu egin dira, haren beste hainbat idazki bezala.¹⁵ Zorionez, haren lan argitaragabe zenbait iritsi zaizkigu. *Tabletes*, frantsesetan idatzia, entziklopedia gisakoa da: abc

(11) Louis XIII.ak 1620an Biarnoa eta Nafarroa Beherea Frantziako Koroari lotu zizkion, *Edit d'Union* delakoaren bidez. Bestalde, politika beraren ildotik, Goihenetxek azaltzen duenez: "Pauko Nafarroa-ko Parlamentora bildu zituen, baturik, bai Biarno-ko Kontseilu Nagusia, bai Nafarroa-ko Kantzileria (hau ordurarte Donapaleun egona); eta, bestetik, Zuberoa Bordale-ko agintepetik ateriaiaz. Pauko Nafarroa-ko Parlamento hau, bi herenetan, biarnotar legegizon protestanteek osatzen zuten. Biarno-ko imperialismoaren kontra jazartu behar izan zuten zuberotarrek; batez ere, Biarno-ko Bizkon-deak Nafarroa-ko Errege ere bilakatu zirenez geroztik, Zuberoa haien eskualdeen artean, geografia-gune bitxi bat zelako. Ikuusia dugu Gaston IV-aren harrapaketa-saioa [Biarnoko Bizkonde honek Mauleko gaztelua hartu zuen 1449an, baina gero Zuberoa berriro Frantziako koroara igaro zen]. Albret-eko Jeanne-k agindurik, XVI-gn. mende guzian barrena protestanteek su-ta-garretan erkatzatu zuten Zuberoa. Zuberotarren ustez, beraz, protestantismoa eta biarnotar imperialismoa gauza bera ziren. Halaz ere, protestante bat bidali zuten Paris-a beren ukazio gogorrak azaltzeko. Protestante bat, bai; baina prestua eta ezinago abertzalea. Jakes Bela-k (Mauleko Bailli) irabazi egin zuen hauzia; eta 1622-ko ekainaren 30-an, berriro ere Bordale-ko Parlamentoaren menpean ezarri zuen Erresumako Kontseiluak. Zuberoa ez zen berriz Pauko Parlamentora bihurtu 1691 arte, eta hau Louis XIV-ak bere buruz hala erabaki zuelako" (Goihenetxe 1971, 18-19).

(12) Arnaud-François de Maytie gotzainaren izeba zen Arbide-ko Jeanne. Belak berak aitortzen du zorigaitzekoa izan zela, bere sinismenagatik etengabeko erasoak jasan baitzituen emaztearengandik, semeengandik, auzoengandik (Haristoy II, 147-148). Ezkontzako kontratuau, Gérard aitak bera hil eta gero "bailli" izateko eskubidea eman zion Jacques-i. Gérard 1633an hil zen, baina katolikoak Jacques "bailli" izatearen aurka agertu ziren eta Bordeleko Parlamentuak debekatu egin zion kargua har zezan. Inoiz ez zuen lortu bere eskubidea gauzatzea, eta azkenean seme zaharrenari, Belaspect-i, pasa zion (Clément-Simon, 206).

(13) Aitari egin erasoek, eta berak eta, ondoren, Belaspect semeak jasandakoek asko lotu zuten Jacques bere erlijioarekin. Oso sutsua zen, baina borrokalarri baino gehiago pentsalari. 1620an higanautek Navarrenkoze hartu nahi izan zuten eta Jacques nahi zuten buru. Berak ezetz, ez zuen nahi gerlarik. Arnaud Maytie apezpikuua (Arnaud I) jakinaren gainean jarri zuen. Eta Louis XIII.a bera etorri zen higanauteen aurka egitera (Clément-Simon, 207 eta ond.).

(14) Zenbait gairi buruz nahasian ari den entziklopedia gisako zerbait dira Belaren *Tabletes*. 'Noms' sarreran aipatzen du bere euskal hiztegia. Bestalde, 'apprendre' sarreran *Compendium de grammaire et dictionnaire basque* delakoa aipatzen duenez, pentsa daiteke hiztegia eta gramatika batera zeudela.

(15) *Traité du compte ecclésiastique*, *Style pour un jeune avocat* eta *Traité de la mémoire locale*. Hauak idatzi izanaren berri *Tabletes*-etan, 'années', 'écoliers' eta 'memnologie' sarreretan, hurrenez hurren, egin-dako aipamenek ematen digute.

ordenean, hainbat sarreratan, teologia, moral, medikuntza, gai zientifiko eta abarrez nahasian ari da autorea.

Belaren obra nagusi hau sei liburuk osatua da, *in-quarto*, bakoitzak zortziehun orrialde inguru dituela. Paben (Arch. dép.) diren liburuok erabili ahal izan ditugu, baina hirugarren liburukia eta laugarrena falta dira (ikus bibliografia).¹⁶ Eskuizkribu luze honetako zenbait zati aukeratu eta argitara eman zituen Clément-Simonek.¹⁷ Honek bost liburuki zeuzkan eskuartean, hirugarrena falta zitzzion.

Bela atsotitz-zalea zen eta aipagai dugun lanean jatorri desberdineko esaerak sakabanatu zituen. Liburuetan barrena barreiatuta zeuden atsotitz euskaldunak eta gas-koinak bildu eta *proverbes* sarreran ezarri zituen Clément-Simonek (ik. 300-304 or.).¹⁸ Mitxelenak (*TAV* 183-187) aipatzen ez badu ere, Clément-Simonek ez zituen euskal atsotitz guztiak sartu: “Nous bornons nos extraits aux proverbes basques, béarnais et gascons que nous n'avons pas rencontrés dans les recueils imprimés” (300, oh.).

Beraz, Belaren errefrauek edizio berria eskatzen dute. Agertzen direneko testuin-guruak (hots, frantses testuak) atsotitzak ulertzan laguntzen duela kontuan izan behar da. Pabeko lehenengo liburukia irakurtzen jardun dugu, bai eta bertan bi erre-frau berri aurkitu ere: *Eytzac hounà hobiagàti* (*Affaires sarrera*; 44 recto); “Le Besoin qu'on a les uns des autres fesant aussi qu'on vive et compatisse ensemble, autrement qu'on ne feroit san cela; unde le Basque *Beharrac Gábárrá, Merkátúrá*. Tant la nature qui a entraîné les choses, à faict que l'une soit nécessaire à l'autre” (*Besoin sarrera*; 191 verso).¹⁹ Aurkitutako bi atsotitz berriak Oihenartengan ere agertzen dira: 476 *Vzac ona hobeagati*, 81 *Beharrac saharra mercatura*.

Bukatzeko, *Commentaire sur la Coutume de Soule*²⁰ aipatu behar da. Argitaragabea, baina oso ezaguna da. Iraultza arte, Belaren iruzkinak, zalantzazko xehetasunak argitzen zituelarik, foru idatzia adinako indarra omen zuen Zuberoako epaileen aurrean.²¹

(16) Clément-Simonek bost liburuki erabili zituen, bat bakarrik zelarik galdua, baina guri Paben lau bakarrik eskuratu zizkiguten. Peillen arabera (1988, 98), Pariseko BN-n badira beste bi kopia edo (?). Ez du ematen ordea erreferentziariak eta beldur gara oker ote dabilen.

(17) “Le Protestantisme et l'érudition...” artikuluan, Jacques de Belaren bizitza eta idatziez aritu ondoren, *Tablettes-étagatik* ateratako zenbait zati (“Extraits des tablettes de Béla”, 235-321) eskaintzen ditu Clément-Simonek: “Nous prenons dans l'œuvre de Béla les articles qui présentent un intérêt historique ou anecdotique pour la Soule ou le Béarn” (233).

(18) Oker ari da, beraz, Peillen ondokoan dionean: “[...] P-letra hor salbatü beita ‘Proverbes’ izen-bürü baten pian euskarazko berrogei ta lau erran zahar begiratü düütügü [...]” (1988, 98); zuzen, berriz, Mitxelena: “Los refranes vascos —con otros berneses, franceses, españoles y latinos, por lo menos— se hallan dispersos por las páginas de las extensas *Tablettes* [...] Han sido reunidos y publicados por G. Clément-Simon [...]” (*TAV* 183-184). Clément-Simon-ek atsotitzen frantses itzulpena eskaintzen du; euskarazkoak ulertzeko bi laguntzaile izan zituen: *Madame de la Villehélis* eta *M. l'abbé Inchauspé*.

(19) *Aurthen Amore Berriagatic Eztut utciren gabarra* (3. atsotitzan Mitxelenaren edizioan) *Amitié* sarreran da (92, recto); *Gossia Bera Jáqui* (27. atsotitza) *Boit* sarreran da (208, recto).

(20) *Commentaire* honen kopia ba omen da Bibliothèque Nationale-en (ap. Davant 1983, 20). “... est un in-octavo de plus de 600 pages bien serrées, où les coutumes du pays de Soule sont commentées” (Haristoy II, 148).

(21) Apud Clément-Simon, 219. Euskara eta gaskoia izan ziren Jacques-en gaztaroko hizkuntzak (229). Hainbat hizkuntzaz zekien irakurri eta idazten, hala nola latinez, frantsesetan eta espanieraz. (228). Literatura asko irakurri zuen, garai eta leku desberdinakoa, liburutegia ondo hornitua zuelarik. Euskal idazleen artean Etxeberri gustuko zuen (229).

2. Zuberoa Oloroeko elizbarrutiaren baitan

Belapeireren garaian Iparraldea hiru elizbarrutiren barnean sartzen zen:

- Baionakoan zeuden Lapurdi eta Nafarroa Behereko mendebaldea;²²
- Akizeko barrutiaren mendean zegoen Nafarroa Beherearen ekialdea: Amiküze, Landibarre eta Oztibarreko eskualdeak;
- Zuberoa Oloroeko elizbarrutiari zegokion.²³ Oloroeko barrutian talde euskalduna eta biarnesa zeuden. Gotzainaren ordezkaria Zuberoan bikario jeneralera zen. Bizkonderri ohian bazeuden fraideek sortutako zenbait komentu eta ospitale, baina garrantzi gutxikoak.²⁴

Santa Grazin, Leireren mendeko, eta Urdiñarbe eta Aiñharben, Orreagaren mende, agustinoak zeuden. Larrañen premontretarrak. Ospitale-pian Jerusalemgo San Joan ospitaleko anaiak.²⁵ Erdi Aroan izan ziren eraikiak komentutxo eta ospitale horiek.

Zuberotar familia nobleek beren semeak gotzaingora altxatzeko aukera izan zuten historian zehar (cf. Azurmendi 1985: 358). Belapeireren garaian Arnaud-François de Maytie mauletarra zen Oloroeko apezpiku. Aurretik familia bereko beste bi izan ziren Oloroeko gotzain, Arnaud I eta Arnaud II.a, hamazazpigarren mendean zehar denbora luzez Maytie-tarrak izan zirelarik Oloroeko elizbarrutiaren buru (XVIII. mendean Revol-darrak izango diren bezala). Hona hemen garaiko gotzainen zerrenda (Haristoy I, 115-117):

Arnaud I de Maytie (1599-1623),
 Arnaud II de Maytie (1623-1646),
 Louis de Bassompierre (izendatua, 1647),
 Pierre V de Gassion (1648-1652),
 Jean III de Miossens-Sansons (1653-1658),

(22) Bidasoaldeko herriak (Hondarribia, Irún, Lezo, Pasaia, Errenteria eta Oiartzun), Bortziriak, Baztan, Bertiz eta Leringo haranak eta Urdazubiko abadia Baionako elizbarrutiaren barnean egon ziren, harik eta 1566an Felipe II.ak, protestantismoak kutsa zitzakeelako aitzakia zela medio, Baionatik bereiztua lortu zuen arte. Cf. Goihenetxe 1985a, 34.

(23) Iparraldearen kristautzea berandu gertatu zen eta ez da oso ezaguna. Elizbarrutien sorreraz ezer gutxi dakigu. Goihenetxeren arabera, XI. mendetik aurrera argiago agertzen da, Iparraldeari dagokionez, Elizaren historia. Hiru elizbarrutien egoitzak Iparralderik kango sortzeak eta fraide-ordenek Iparraldean komentu gutxi izateak, bertan kristautzea apala izan zela erakutsiko lukete.

Frantziako Iraultzarekin aldaketak egiten dira elizbarrutiak eta departamentuak bateratzeko asmoz: “la Revolución francesa y el Concordato [1801eko] establecieron una diócesis única para todo el departamento de Bajos-Pirineos (Iparralde y Bearn) cuya sede fue primero Olorón y después definitivamente, Bayona, con el título de obispo de Bayona, Lescar y Olorón”. Cf. Goihenetxe 1985a, 34-35. Cf. Narbaitz 1981a, 1981b.

(24) Hala zen Iparralde osoan. “Las ordenes religiosas [...] se establecieron al margen del País Vasco [Iparraldea], no teniendo más que pequeños prioratos, hospitales, fundaciones, en el corazón del país” (Goihenetxe 1973, 220).

(25) “...plusieurs prieurés, plusieurs communautés monacales se trouvaient sur son sol [Zuberoaren]; certains de ces prieurés offraient un abri aux chrétiens marchant vers Saint-Jacques-de-Compostelle; l’Abbaye de Saint-Engrâce, dès le XI^e siècle, était elle-même un lieu de pèlerinage qui entretenait un hôpital” (J. M. Dejean de la Batie 1956, 130).

Arnaud-François de Maytie (1659-1681),
 François Charles de Salette (1682-1704),
 Antoine de Maigny (izendatua, 1704),
 Joseph de Révol (1705-1735).

Hamazazpigarren mendean, beraz, sei gotzain izan ziren Oloroен; denak zuberotar nahiz biarnes familietakoak (Gassion eta Miossens Biarnoko familia zaharrak dira). Bertakoak eta elizbarrutiaren ezagutzaile. XVII eta XVIII. mendeetako apezpi-kua kurrekoak baino jantziagoak izan ziren, Erreforma Katolikoaren bultzatzale ezinago sutsuak eta beren barrutiaren ezagutzaile finak. XVII. gizaldiko gotzainen egitekoa, aurreko gizaldiko katoliko eta protestanteen arteko guduena ondoren,²⁶ elizbarrutiaren egoera normaltzea izan zen:

Les évêques qui se sont succédés tout au long du XVIIème siècle ont donc reconstruit en quelque sorte leur diocèse; et ce, notamment dans la partie béarnaise qui a le plus souffert des troubles issus des *guerres de religion*. Ils ont de la sorte permis aux prélates du XVIIIème siècle de mettre en application les préceptes tridentins sans aucune contrainte de reconstruction matérielle (Bonetti 1986: 70).

Izan ere, XVI. mendean elizak eraso eta erre zitzuzten. Berreraikuntza lanak behatzekoak gertatu ziren. XVII. mendekoak dira gizonezkoen tribuna horietako asko eta asko, eta Golgotha mendiko hiru gurutzeak irudikatzen dituzten kanpandorre berezi eta ederrak (Régnier 1991: 230).

Louis XIV.ak Arnaud-François de Maytie²⁷ aukeratu zuen Oloroeko gotzaingorako 1659. urtean, zenbait hautagairen artean. Erregeak kontuan izango zuen Arnaud I eta Arnaud II.ak, gotzaingaiaren familiakoek, egindako lan bikaina.

Arnaud-François gotzain arduratsu eta langilea izan zen. Oloroeko elizbarrutia goitik-behera ezagutu zuen, bere ikustaldietan herri askotara iritsi zelarik.²⁸ Bere osaberen antzera, komentuak eraikarazi zituen: 1676an Maulen kaputxinoak jarriko dira. XVII. mendearren amaieran ordena zaharretako fraideen elkartek (agustinoak, etab.) ez zuten lan handirik eskuartean. Ordena berriek, aitzitik, beharretan zirenekiko izan zuten arretagatik herriaren onesprena izan zuten. Erregularrak Erreforma Katolikoaren ezarpenaren alde aritu ziren. Mauleko kaputxinoak langile on gertatu omen ziren.

(26) 1560an Erreforma ezartzen da Oloroен. Albret-eko Joanaren Biarnoa utzi eta Maulera datoz Claude Régis gotzaina eta apaiz katolikoak. Ez du horrek esan nahi Zuberoa guztiz katolikoa zenik. Jadanik aipatu da bertako jauneria, besteak beste, erreformazalea zela, hein batean. Dena dela, Bonetti-ren ustez (1981, 17) Erreformaren aurkako borrokak zuberotarren batasuna sendotu egin zuen. Zuberotar katolikoak Arnaud de Maytie-ren inguruari baru ziren (ez Maulen zegoen apezpi-kuaarenan) protestanteek pakean utz zitzatela eskatzean Bordeleko Parlamentuari. Bonetti-ren hitzetan: "L'hostilité à l'encontre de la Réforme s'est cristallisée non autour de l'autorité épiscopale mais au contraire autour d'une personnalité souletine". Beraz, ez zegoen elizbarruti batasunik eta apezpi-kua aginpidea ahula zen.

(27) Arnaud-François gotzainaz, irakur bedi Menjoulet, II, 276-301.

(28) Hamaseigarren mendearren amaieran hasten dira gotzainen ikustaldiak. Berauei esker apezpi-kua elizbarrutiaren egoeraz jabetzen da (elizak, eraikuntzak, zein egoeratan diren, etab.), eta apaiz eta fededunekiko loturak estutzen ditu. Zuberoaz den bezanbatean, 1672ko da dugun lehenengo berria: Arnaud-François de Maytie Zuberoan zehar ibili zen, eliza guztiak ikusten (Jaurgain 1903). Charles de Salettes Artuen izan zenean Tartasek egindako hitzaldia badugu (ik. Dubarat 1895). Egia esan, XVIII. mendeko Joseph de Revol izango da ikustaldien ohituraren ezarle nagusia.

3. Gotañeko jazarraldia (1631) eta Matalas-en matxinada (1661)

XVII. mendearen lehenengo erdialdean orokorrak izan ziren laborarien matxinadak Europako hego-mendebaldean. Hazten ari zen Estatuak zergak gehitu zituen, eta laborariak beren nortasuna gordetzen saiatu ziren (Desplat 1995: 155).²⁹ Zuberoan, Belapeireren garaiko giro gogorraren eta ekonomi egoera larriaren isipilu bi jazarralditan dugu. 1631ko interesgarria da, besteak beste, bikario jeneralak eta haren anaia Sohütako erretoreak bultzatua delako eta, gainera, biok Belapeireren amaren familiakoak direlako.

Belapeyre enfant, avait connu dans la paroisse de Chéraute un curé, frère de sa mère, ou tout au moins son proche parent, qui avait pris la tête d'un mouvement de protestation contre la levée de certains impôts (Laborde 1925: 13).

Aipatu urtean Passart funtzionarioa Gotañera iritsi zen, erregeak apezeriari ezaerritako hamarrenen bila. Baino orduko, Arnaud Arbidek, bertako erretore eta Oloroeko apezpikuaren bikario jeneral zenak, herritarra armak hartzera bultzatuak zituen. Bikario jeneralaren anaia, aipatu dugun Sohütako erretorea, gidari zutela gotaintarrek ihes eragin zieten zerga-biltzaileei (cf. Dubarat 1902: 209 eta 324).

Matalas-en matxinada, berriz, aski ezaguna da. Arrazoi bila atzera jo behar da. 1639ko martxoko ediktua salgai jarri zituen erregearen Zuberoako ondasunak, foruen arabera (*Coutumes*) herriarenak —ez erregearenak— ziren lur jabegabeak, besteak beste. Arnaud Peyer-ek, Oloroeko merkatari baten seme eta erregearen mosketeroen kapitain zenak, Zuberoako Bizkonderria erosi zuen, justizia eta zergak barne.³⁰ Erresuma-Kontseiluak salmenta deuseztatzea erdietsi zuten zuberotarrek, baina Peyer-ek (orain Trois-Villes-eko konte) erregeari eman dirua zuberotarrek itzuli beharko zioten. Beraiena zena berrerosi beharko zuten! Bestalde, erregearen aginduz desegin zen Mauleko gazteluko konponketak ere herriari ordainarazi nahi dizkio Toulongeon Gobernariak, armen bidez. Zuberoak 150.000 liberako sasi-zorra du bere gain.

Herriak erantzun egingo du:³¹ 1661ean, Mithikileko erretore zen Beñat Goihernetxe, *Matalas*,³² herritarren buru jarri eta Maule erretzekotan abiatu ziren:

[...] dès avant la fin de Juillet, les séditeux avaient détruit une maison de Chéraute parce qu'on y faisait le prêche, ils en firent autant à Montory; ils menacèrent

(29) Matalasen matxinadaren azalpen egokia eskaini du Desplatek (1995, 154-163).

(30) “Eta Peyer-ek zerga berriak erantsi nahi izan zizkien zuberotarrei gauzak erabil ahal izan ditzaten. Iruri eta inguruko hiru herriaka bilduz, *Trois Villes*-eko Konderria sortu zuen; eta, Lixarre-ko aspaldiko epailarien ordez, epailari berri bat izendatu zuen, gizarteko eta hilkintzako arazoak garbitzeko; baita Mauleko gaztelua hartu. Feudalismo xaharkote kutsua zerien ekintza hauei, eta Zuberoa kontra jarri zen” (Goihernetxe 1971, 21-22).

(31) Menjoulet eta beste zenbait historiagilek Belako Jacques-en *Journal de l'insurrection des Basques sous la conduite de Matalas* izenburuko eskuizkribua erabili zuten. Davanten arabera (1983, 22-23) egun Pariseko BN-n da. Pierre de Souhy mauletarrak bidali zion kopia eskuratu digu Davantek, eta irakurri ahal izan dugu.

(32) Bonetti-ren arabera (1986, 76 eta ond.), ez dakigu zein zen matxinada hartan *Matalas* apaizaren benetako pisua, baina Zuberoako apaizen eta fededunen artean zegoeken lotura estuaren adierazgarri litzateke gertaera.

Bustanoby, ministre protestant à Mauléon [...]ils bloquèrent la ville et le château, obligèrent les gens du roi à faire union avec eux dans des processions solennelles et enfin brûlèrent le presbytère du curé d'Aïnharp (Menjoulet II, 280).

Matalas ospetsuaren matxinada piztu bezain laster, Maulera joan zen Maytie apez-pikua bakearen aldeko lana egitera. *Matalas* eta bere jarraitzaileek Maule armaz hartu nahi zuten, eta gotzaina hauek lasaitzen saiatu zen hasieratik. Büztanobi artzain protestantea Ühaitzandi errekara jaurti nahi zuten herritarrek; haiei eskuetatik kendu eta gotzainak ezkutuan gorde behar izan zuen. Mauleko jauneriaren izenean eskaintzak eginez, matxinaturekin tratuan aritu zen Arnaud-François, eta azkanean lortuko du hauiek baretzea.

Baina Zuberoak zeukan diru-zor ikaragarriak zegoen zegoenean jarraitzen zuen, baita herri bakotzak zorretik zegokiona kitatzeko herritarrei egiten zitzaien presioa ere, eta herriak armak hartu zituen harzara. Bordeleko Parlamentuak matxinatuaren aurka bidali zuen Calvo kapitainak, bertako jauneriak³³ lagunduta, *Matalas* eta haren gizonak garaitu zituen.³⁴ Arnaud-François gotzainak lortu zuen Calvo geldiaraztea, honek borrokan parte hartutako parroquia guztietara hedatu nahi baitzuen bere mendekua; gainera, 1661eko abenduan, erregearengandik erdietsi zuen bigarren mailako kondena guztiengarriaren barkamena.³⁵

Sohütan garaitu zituen Calvok matxinatuak, haien artean sohütar asko. Zein izan zen, ordea, Belapeireren jokaera gertakizun hauetan guztieta? Hasteko, Belapeire al zen 1661eko urrian Sohütako erretorea? Bere aita Jacques hil aurretik (1667) lortu zuen Sohütako erretoretza (ik. 4.2.1), baina ez dakigu zein urtetan. Bere hitzen arabera, 1665 urtearen inguruan egin zen apaiz, zeren, *Catechima laburra*-ren hasieran datorren 1695eko ordenantzian, ondoko idazten du Belapeirek:

[...] uscara ihian eta arguian, hoguei eta hamar ourthez honat goure Artçain eguinibider ahalaz onsa iarraikitiac urgatci gutian beçanbat [...] (I, 21).

Elizari dagokionez, Desplaten arabera, “erret zergaren kontrako zuberotarren etsaigoak iduri du zenbait alderditan Elizaren zergak ere ukitu zituela, baina ez zituen zalantzak ipini hamarrenak eta apezpikuaren agintea” (1995: 159). *Matalas* apaiza izanik, elizako tribunalak, hots, ofizialak, bazuen zeresanik haren epaiketan (Desplat 1995: 161).

(33) Sohütako Bela-ko André-ren etxea eraso zuten matxinaturek. Hilabete batzuk geroago, Calvo, zaldunekin etorri zenean, Sohütara joan eta André-k gazteluan hartu zuen. Sohütako parrokiakoek eta beste hainbat herritakoek eraso zioten eta André matxinatuaren aurka borrokatu zen, harik eta erregearen ordezkariek garaipena lortu arte (Cf. Clément-Simon, 307, 2. oh.).

(34) “El Parlamento de Burdeos mandó contra él [*Matalas*] a 400 jinetes que, después de sufrir una derrota, saquearon el país e hicieron una matanza de 400 zuberoanos en Cheraute. *Matalas*, capturado en Gentein, fue degollado en Lextarre el 8 de noviembre de 1661, uno de sus partidarios fue ahorulado y dos condenados a las galeras [...]” (Goihernetxe 1985a, 67-68).

(35) Cf. Haristoy II, 161. Bazen arrazoirik erregearen barkamena etortzeko: “Esta derrota provoca tal éxodo de los zuberoanos, que el rey tiene que mandar cartas de abolición en diciembre de 1661” (Goihernetxe, 1985b, 235).

4. Athanase de Belapeire³⁶

4.1. Jacques de Belaren semeak

Jacques de Bela legegizonaren zazpi seme-alabetako bat zen Belapeire. Anaien artean Salomon —de Belaspect deitua— eta Philippe —de Bélapoey deitua— aipa daitezke. Salomonek zaharrenak, Maulen erregearen *bailli* izateko eskubidea jaso zuen aitarengandik. Aita bezala higanauta zelako, erasoak jasan behar izan zituen.

Philippe de Bélapoey-k Othegain etxea jaso zuen aitarengandik. Ofiziala izana gatzaroan, Italiako Gerletan zauritua gertatu zen, eta anaietako bat ere haitan hil zen. XVIII. mendean, besteak beste, hizkuntza anitzeko hiztegitxoa utzi zigun Jean-Philippe *Belako Zalduna*-ren aitona da Philippe.³⁷

Aipagarria da Jacques-en seme-alabetako bakoitzak abizena luzatu izana: Bélapreyre, Bélaspect, Bélapoey, Bélaperitz, etab. Peyrer nahiz Peyré abizena ('hargina') biarnesa da (apud Haristoy II, 92).

Jacques de Bela higanauta hil zen, baina Athanase, bere ama katoliko sutsuaren eraginaz edo, kalbinismoari uko egin eta katoliko bihurtu zen. Belapeireren ama Jeanne d'Arbide, Lacarre familiako anderea, Arnaud-François de Maytie-ren ama Madeleine-ren ugazahizpa zen; beraz, 1659-1681 tartean Oloroeko apezpiku izan zena eta Belapeire ahaideak ziren.³⁸

(36) Belapeireren bizitzari buruz dakiguna ondoko iturri hauetatik jasoa da: Clément-Simon 1894-1895, 212 eta 2 eta 3. oh.; V. Dubarat 1887 eta 1903; Vinson-Urquijo 1984, 139-142; Menjoulet II, 291-294 eta 330; Ph. Bonetti 1986, I 139-143; Jaurgain 1903; Belako Zaldunaren *Histoire des Basques* eskuizkribua (ik. 4.3.1).

(37) Jean-Philippe Belako Zalduna gerlari aparta izan zen eta idazle oso oparoa, Jacques de Bela birraitonaren antzera. Zuberoa eta Biarnoaren historiari buruzko bere idazlanak argitaragabe geratu dira. Clément-Simonek eskuartean izan zituen eskuizkribuak. Zaldunaren lanetatik hiru aipatuko ditugu:

Histoire des Basques: Pariseko BN-n (*Nouvelles acquisitions du fonds français* izenekoetan) dago. Batetik, folio neurriko hiru liburuki daude (20.053-20.055 zenbakia), autorearen eskuko diratekeenak. Bestehun orrialde baino gehiago ditu bakoitzak. Bestalde, badago XIX. mendeko kopia bat: 12 liburuki (20.058-20.069 zenbakia). Peillenek (1983, 127) eskaizten dituen 2055 eta 2069 zenbakia zuzendu egin behar dira, bada. Eskuizkribua argitaratzeko Zaldunak egin zituen saioez ikus Dubarat 1923. *Mémoire aux Etats sur les services rendus au Pays de Soule par la maison de Béla*; cf. Clément-Simon, 213 eta 2. oh.

Mémoires militaires du Chevalier de Béla, publiés par E. Ducré précédés d'une biographie par J. de Jaurgain; argitaratua: A. Lamaignère, Baiona, 1896.

Histoire des Basques lanaren barnean (hirugarren liburukian, hain zuzen ere) hizkuntza askoko hiztegia dator: "Dictionnaire Abbregé Par Lettres Alphabetiques, des langues des peuples qui ont commercé avec les Basques". Hiru euskalkiri ("1. Dialecte du Basque", "2. Dialecte du Basque", "3. Dialecte du Basque") dagoenkeri zerrendez gain, beste zenbait hizkuntzarakoak ere ageri dira bertan ("français, hébreu, grec, Celtique ou armorique, Arabe, latin, goth-Allemand, Espagnol, Italien"), denak ere parekatuak. Baino Peillen (1983) zubererazko zerrendak eta frantsesekoak editatzera mugatu zen, eta, beraz, beste edizio baten beharra dugu.

(38) Cf. Haristoy II, 147 eta 158. Bela eta Maytie-tarren arteko ahaidegoaz Clément-Simon-ek zera diosku: "Madeleine de la Carre, soeur de Jeanne, avait épousé Pierre Arnaud de Maytie, chevalier de Saint-Lazare, mais les Béla et les Maytie étaient parent d'autre part" (208, oh.). Madeleine eta Jeanne d'Arbide ama desberdinaren alaba ziren berez, Jean d'Arbide Lacarre-ko jauna bi aldiz ezkondu baitzen. Madeleine lehenengo ezkontzatik sortua zen; Jeanne, aldiz, bigarren gotik (242, 4. oh. Clément-Simonek iturria aipatzen du: "Généalogie manuscrite de la maison de Lacarre par M. de Jaurgain").

Arnaud François de Maytiek Belapeireri bidali gutunetan, sinatzean "vtre. tres affectionne prelat et cousin" ezartzen du (ik. eransk. lehenengo bi gutunak).

4.2. Belapeire Sohütako erretore

4.2.1. Sohütako erretoretzaren inguruko auzia

Dubarat-ek (1903) bi “mémoire”, bi “factum” inprimatu aurkitu zituen, izenburu nahiz datarik gabeak, eta horiei esker iritsi zaigu auziaren berri. Belapeirek berak adierazten du, inprimaki bietako batean, teologian batxiler egin zela Tolosako Unibertsitatean. Behin apaiztu eta gero, Zuberoako eliza garrantzitsuenetan predikatzen ibili ondoren, Sohütako erretore izateko izendatu zuela bere lehengusu André de Bela-k, Domec-eko gehienak. Isaac de Bela-ren beste semeak, hots, Pierre-k, Conget abizeneko beste apaiz bat hautatu zuen Sohütako erretoregorako, eta auzia izan zen.

Conget-ek protestante izana egotzi omen zion Belapeireri, eta ondorioz inolako benefiziorik ezin jasoa aipatu. Kalbinismoari uko eginaren agiria (“acte d’abjuration”) erakutsi zuen Athanasek, nonbait, zortzi urte aurrerago egina. Bere aita protestanteari dagokionez, Belapeirek aipatzen du beraren eta amaren ahaleginez katoliko bihurtzeko bidean dela (beraz, 1667ko maiatzaren 28a, Jacques-en heriotza data, baino lehenagoko kontuak dira hauek).

Ondoren Belapeirek familiaren ospea eta bere teologia ikasketak aipatzen ditu. Gainera, berari esker katoliko bihurtu eta suntsitu omen zuen André de Bela-k, bere aurkezleak, Domec-ean (auziaren arrazoi den elizaren ondoan) zuten erreformazaleen tenplua. Sohütako Domec-eko jaunak, aspalditik, bertako elizako patroi ziren (Haristoy 408 eta ond.).³⁹ Belapeirek adierazten du, André de Bélac (bere aurkezlea) etxearren jabea denez, bere izendapena dela kontuan izan beharrekoa.

Bigarren inprimakian auziaren jarraipena dugu. Badakigu Belapeire azkar ibili zela: Aita Santuarengandik titulu bat lortu bezain laster, Moumour-eko jauregira joan zen apezpikuaren gana, honek onar ziezaion, eta segituan erretore eginbideei lotu zitzaien. Belapeireren arabera, patroi izateko eskubidea Isaac de Bela-k jaso zuen bere amarengandik, eta honengandik hartu zuen André de Bela bere izendatzailak; Ganbararen arrasta batek ondasunak banatu zituen bi anaien artean eta André-ri eman zion etxea; honi atxikia den *potestat* izateko eskubidea André-rena da eta bera da Sohütako benetako patroi:

... il n'est pas contesté [dio Belapeirek] que la qualité de Potestat, qui est un droit attaché à la maison du Domec, ne soit joué et exercée par led. Andre de Belac, sans que led. Pierre n'a jamais contribué à l'offrande du pain que le patron est obli-

(39) “[...] el patronato es un derecho espiritual que se refiere á la colación de un beneficio, designando legítimamente la persona que, mediante la institución del superior, ha de ocupar y ejercer el correspondiente ministerio [...] este derecho limita en algun tanto la facultad de los Prelados, que no pueden ménos de dar la colación al presentado, cuando es persona idónea y reune las condiciones que los cánones y la fundación exigen.

[...] El que hace donación graciosa de una cosa, como sucede al patrono, no puede reclamar nada en justicia, lo que se dá es por puro reconocimiento”.

Sohütako elizari patronato laikoa dagokio: “*Laical* es el [patronato] que se erige de bienes laicales no transferidos en su fundación á la iglesia, ó de otra manera, es el que vá anejo á un acto puramente civil, vr. gr., la sucesión en alguna familia”. Cf. Alonso Perujo, Pérez Angulo, *Diccionario de Ciencias Eclesiásticas*, s.v. *patronato*.

gé d'envoyer tous les dimanches, ny pris part à la redevance de douze pains que le curé est obligé de bailler au patron chaque feste annuelle,⁴⁰ led. André ayant seul, depuis led. arrest, porté lad. charge et receu las. redevance, tant it est vray qu'il est reconnu pour le vray et seul patron, à l'exclusion de son d. frére.

Auzia amaitu eta gero, ez Belapeirek ez Conget-ek, bietako inork ez du irabaziko. Lau hilabeteren buruan elizbarrutiko gotzainari dagokio izendapena, eta honek uztailaren 22an Belapeire izendatzen du Sohütako erretore.

4.2.2. Zuberoako apaizen bizimodu larria. Detxema eta primiziak

Bi apaizon arteko borroka ulertzeko, garaiko zuberotar apaizen egoera kontuan izan behar da. Zuberoan herritarrak ez ezik jauneria ere behartsua zen. Oloroeko gotzainak berak ere ez zituen irabazi handiak eskuratzent. Elizbarrutia behartsua zela-rik apaiz gehienen ekonomi egoera larria zen.⁴¹ Jakina da eliz benefizioen jabeek detxemak jasotzen zitzuela, baina Zuberoan gutxi ziren halako benefiziorik zuten apaizak. Benefizioaren jabeak, parrokiaz ezin denean arduratu, detxemaren zati bat ematen dio zerbitzua egiten duen apaizari (“portion congrue” delakoa). Zuberoako apaiz gehienen egoera halakoa zen, detxemaren zati batekin bizi behar zuten.⁴² Gainera, benefizioen jabe ziren patroi laikoek detxemaren ahalik eta zatirik txikienda emango diete parrokiaz arduratzent diren apaizei. Apaizak kexatu egiten dira, baina detxemazaleek biztanleen gogo gaitza dute aitzakia. Egia esan, ez zen estakuru hutsa, zeren herritarrak uztaren zati bat izkutuan gordetzen saiatzen baitziren, eta, jakina, uztaren araberakoa zen hamarrena. Orduan, apaizek lortuko dute parrokiako fededunek zuzenean ordaintzea, primizien bidez (fruitu edo garauen 1/30 edo 1/31, ardoen 1/46, etab.).

Bonetti-k erakusten duenez (1986: 156), zenbait parrokiatan apaizari primizien bidez ordaintzen zioten, ez ordea beste zenbaitetan. Azken hau bi egoeratan gertatzen zen: edo apaiza bera zenean detxemazalea, h.d. benefizioaren jabe, edo elizgizon indartsua zenean detxemazale (hauek, nonbait, apaizari zintzo ordaintzen zioten). Beraz, detxemazale laikoak zegokiona ebatsi edo egiten zion apaizari, eta primizien

(40) “Quizá el rasgo más característico de la vida eclesiástica del Alto Medievo es la apropiación de las iglesias por parte de los laicos [...] la influencia del propietario no pasaba más allá de intervenir en el nombramiento del clérigo ‘sirviente’ de la iglesia. [...] Los siglos XII y XIII verán la transformación de la iglesia propia en un derecho de patronato desnudo o unido a diezmos de laicos o a ciertas prestaciones y censos particulares, que perduraron a veces hasta las leyes desmortizadoras liberales [Espainiaz ari da]”, *Diccionario de Historia Eclesiástica de España*, Quintín Aldea, Tomás Marín, José Vives (zuzendarriak), CSIC, Madrid, 1972, s.v. *iglesia propia*.

(41) Charles de Salettes, Zuberoara ikustaldiak egitera etorri zelarik, Arüen izan zen. Tartasek, apaizeriaren ordezkari gisara, gotzainari egin hitzaldian ondoko dugu: “[...] La seconde et très humble prière que je vous fais, c'est de soutenir ce pauvre et infortuné clergé de Soule qui est aux abois et réduit à la mendicité, et nous sommes sur le point de prandre chascun une besace pour aller chercher nostre pain partout où nous pourrons le trouver [...] TARTAS, prebstre, jadis curé d'Aroue, et doyen du clergé de Soule. D'Aroue, ce 21^e may 1683” (Dubarat 1895, 14-15).

(42) “Les prêtres officiant en Soule sont pour la plupart à la congrue [...] En outre, l'évêque n'a pas la nomination à tous les bénéfices de son diocèse. La plupart en Soule lui échappent et dépendent d'un patron laïc qui en use à sa guise” (Bonetti 1986, 154).

bidez ordaintzen zitzaiten.⁴³ Egoera latza, beraz, apaiz zuberotarrena. Halere, salbuespena biztanle asko zituzten⁴⁴ parrokietako apaiz benefiziodunak ziren; Maule, Sohüta, Barkoxe eta Domintxinekoak, esaterako (Bonetti 1986: 162). Hauen ekonomi egoera lasaiagoa zen. Ez da, beraz, harritzeko Belapeire eta Conget Sohütako erretoretza zela-eta borrokan gogor aritzea.⁴⁵

4.2.3. Marie Errecalt-en eskaera gotzainari

Vinsonek, Mauleko Larrieu doktoreari esker, Belapeire erretoreak izandako gorabehera baten berri dakar. Marie Derretal (Errecalt) jostunak, Sohütako parrokian bizi zenak, eskaera (*requeste*) zuzendu omen zion Oloroeko gotzainari, eskatuz Belapeire erretoreak pronoetan, sermoietan, ez zezala bera gehiago aipa eta gaitzerran, eta, halaber, aitortzan har zezala eta sakramentuak eman (Vinson-Urquijo 141).

4.3. Belapeire Maytie gotzainaren bikario jeneralra

Belapeire “Çuberoaco official” eta bikario jenerala izan zen, Oloroeko gotzainaren ordezkaria. Noiz izendatu zuten? Tartasen *Onsa hilceco bidia* (1666) irakurri ondoren fede katolikoaren araberako eta inprimatzeko egoki dela baiezatzen dutenen artean, “A. DE CONGET, Atarraçeco Erretor, eta çuberoa herrico Vic. Generala, eta Officiala” agertzen da. A[rnaud] de Conget-ek Juan de Sansons Oloroeko gotzainaren aginduz egin zuen irakurketa, eta inprimatzeko baimenak 1657ko data darama. Ohar bedi, bikario jeneralaren garrantzi eta zereginen erakusgari dugula hor. Izan ere, Tartasen liburua argitaratzeko baimena Joannes apezpiakuak ematen du Baionako elizbarrutiari dagokionez, D. Irumberry Nafarroa Behereko bikario jeneral eta ofizialak Akizeko elizbarrutiari dagokionez, eta A. de Conget Zuberoako bikario jeneral eta ofizialak (B. Iaureguiberry, Idauzeako eta Mendiko erretorea lagun duela) Oloroeko elizbarrutiari dagokionez.

Bestalde, badakigu Arnaud de Conget Arnaud-François gotzainaren bikario jeneralra izan zela: “[...] Arnaud de Conget, ancien curé de Tardets, chanoine de Sainte-

(43) “Les habitants de Garindein réclament la suppression des prémices: cette dernière a été établie, principalement dans les endroits où les dîmes sont inféodées, pour servir à l'entretien des prêtres. Ceux de Troisvilles énoncent que le droit de prémice, droit onéreux et dont l'usage n'a été établi en faveur des ecclésiastiques que pour les indemniser de la dîme que les nobles avaient usurpée, soit supprimé en fixant aux curés une rente suivant leur état” (Bonetti 1986, 156-157).

(44) Sohüta Zuberoako herri populatuenetarikoa zen. 1820ko datuak baditugu: Barkoxe 1921 biztanle, Sohüta 1494, Santa-Grazi 1275, Muntori 1269, Maule 1054, e.a. Ik. Pierre Hourmat, “Maule eta Zuberoa XIX. mendean”, *Zuberoako Historia*, P. Bidart (biltzailea), Donostia, Gaiak arg., 229-230.

(45) Gatazka handiak izan ziren elizgizonen artean nahiz apaizoen eta laikoen artean ondasunen jabetzak zirela eta. Adibiderik egokiena Urdiñarbeko *Commanderie* delakoa izan daiteke. Agustinoak ziren bertan, Orreagako monasterioaren mendeko. Egoera aldatuz, 1590ean Oloroeko gotzainak Arnaud de Maytie izendatzen du *commandeur*, eta Bordeleko Parlamentuak (1592) legeztatu egiten du bereizketa. Baina Orreagakoek ez dute halakorik onartzten. Arnaud Oihenart Zuberoako sindikoa ere izango da tartean, Orreagako kalonjeek, atzerritarra izanik, ezin dutela Zuberoan beneficiorik eduki argudiatuz. Herritarrek ere izan zuten parte, Orreagakoek urdiñarbetar eta muskildiarrak beren alde jarri baitzitzuten. Azkenean Bordeleko Parlamentuak (1627) behin betiko bereizketa gauzatzten du.

Auzia apaizaren eta artaldearen artekoan ere izan zitekeen: 1775ean, esaterako, santagraztarra prozesuan dira erretorearekin errenta batzuk direla eta. Halako gatazkek, zer esanik ez, elizbarrutiko erlijio giroa astintzen zuten (cf. Dubarat 1887 eta Bonetti 1986, 148 eta ond.).

Engrace, était vicaire-général d'Arnaud-François de Maytie, pour la partie de la Soule" (apud Haristoy II, 160, oh.). Beraz, pentsa dezakegu Arnaud-François gotzainak (1659-81) hautatu zuela Belapeire, bere ahaidea, bikario jeneral eta ofizial izateko (Arnaud de Conget-en ondoren?).⁴⁶

Belapeire bikario jeneral eta ofizial izateak zer esanahi du:⁴⁷ XVII. mendean Oloroeko gotzainak elizbarrutian bertan bizi dira, parrokietara joaten dira ikustaldiak (*visites pastorales*) egitera eta aginpidea ere irabazi dute. Gotzainak aholkulariak dauzka inguruan, administrazio bat zuzentzen du. Gotzainaren laguntzaile dira bikario jeneral eta ofiziala. Talde honek Erreforma Katolikoaren aldeko lana egiten du.⁴⁸

Bikario jenerala apezeria eta apezpikuaren aginpidearen arteko zubia da. Batetik, Zuberoako apezeriaren ordezkari da Belapeire; beragana jotzen dute arrangura, galto eta salaketekin. Baino bestetik, gotzainari eskutitzak bidaltzen dizkio, harekin biltzen da, haren ordezkari ere bada, Arnaud-François de Maytiek Belapeirerri bidali gutunetan ikusten denez:

"je receu hier vostre lettre, vous me parlés de la decime de soule et des autres affaires que mon clergé de bearne a avec celluy de soule" (ik. eransk. 2. gutuna). "lundy lon se doit ressembler a leveché" (ik. eransk. lehen gutuna).

Lanbide berezia, beraz, bikario jeneralarena. Ph. Bonetti-ren hitzetan:

Dans leurs fonctions, le contrôle épiscopal est quasi-permanent. En tant que représentant du clergé, le vicaire général de l'ex-vicomté peut dans certains cas estimer

(46) Bikario jeneralaren aginpidea izendapena eman zion gotzainarenarekin amaitzen zen oro har. Cf. *Diccionario de Ciencias Eclesiásticas*, Alonso Perujo et al., s.v. *vicario general*. Dena dela, ez zen beti hala jazotzen. Badakigu Belapeirek, esaterako, bikario jeneral izaten segitu zuela, Maytie-ren heriotzaren ondoren ere. Berdin gertatu zen Arnaud de Conget-ekin ere testuan azaldu dugunaren arabera.

(47) Gogora ditzagun Orella irakaslek (1987) Etxeparez aritzean idatzi zituenak. Donibane-Garazin baten *Vicario Generalado de Sant Johan* izenekoa:

"[...] que tenía como fin la administración de justicia, corrección de los eclesiásticos, prohibición de juegos y otras disoluciones.

[...] Conocemos varios casos de jueces eclesiásticos que residen en el mundo vasco y que imparten justicia en asuntos aun civiles. [...] En San Sebastián y dependiendo de la diócesis de Pamplona tenemos al "oficial foráneo", juez eclesiástico dependiente del obispo de Pamplona. Existía igualmente oficial foráneo del obispo de Pamplona en Uncastillo. A este cargo ciertamente se alude cuando se cita que Bernat era "Vicario Generalado" como sustituto de don Pedro de Mendicoaga. En el nombramiento de este cargo intervenían en primer lugar el Obispo de Bayona y en su caso el Vicario General del obispo o el Capítulo de la Iglesia Catedral de Bayona; además debían ser atendidas las exigencias del rey, ya que se le consulta en las sustitución del que ejerce el cargo, lo mismo que los privilegios de la villa y tierra de San Juan y sus presiones ejercidas por medio de sus jurados. El ámbito de actuación de esta autoridad judicial era San Juan, en su villa y tierra, y 'otros del obispado de Bayona'." (xii-xiii).

(48) "El vicario general y el oficial [...] estos ministros compartieron plenamente su responsabilidad en la empresa de la restauración. El vicario general [...] vino a ser poco a poco el representante del prelado en todo lo relativo a la jurisdicción, entre los dos no forman más que una persona moral, hasta el punto que no existe recurso de uno contra otro. Su acceso al poder quedó consagrado por las decisiones de Trento (ses. xxiv, c. XII). Pero no existe ninguna legislación uniforme que determine el campo de su autoridad en las diversas diócesis. Tampoco existe uniformidad en las atribuciones del provisor [h.d., ofiziala], jefe de lo contencioso, cuya competencia él asume muchas veces. Salvo rara excepción, estos grandes empleados del episcopado fueron sus fieles colaboradores" (Willaert 1976, 71).

plus légitime de passer outre les volontés de l'évêque pour soutenir l'ensemble de ses pairs. Pour prendre une image du vocabulaire courant, le vicaire général peut dans quelques circonstances se trouver pris 'entre le marteau et l'enclume'. Sa double fonction le place au point de rencontre de deux volontés opposées: celle de son prélat qui souhaite agir de plus en plus unilatéralement et celle des prêtres qui désirent participer à l'élaboration de certaines mesures (1986: 140).

Kexuak bikario jeneralari igortzen zaizkio. Ik. 1683ko eskutitza (eransk. 3. gutuna): Omizegañiako herritarrek kanpotarra den apaizarekiko duten jarrera dela eta, haren senide batek Belapeireri idazten dio lagunza eske.

Bikario jenerala, bestalde, Zuberoako erakundeetan arituko da. Jauneria, eliza eta herria biltzen dituen *Cort d'Ordre* delakoan parte hartzen du. 1520ko foruak sinatzen dituztenen artean agertzen da. 1672an, epaileen soldatua erabakitzeko Lextarreko Gorte-an biltzen direnen artean, Belapeire agertzen da (cf. Larrieu 1892, *tarif de justice en Soule*).

4.3.1. Sorginkeri salaketa eta auziak

Belapeire bikario jenerala zen sasoian, salaketa eta heriotzak izan ziren sorginateria eta aztikeria zirela eta. Lescar-eko elizbarrutiko ehule batek akelarre batean izana aitorru zuen; bertan, Deabruak aurpegian eta ezkerreko begian egindako seinaleez ezagut zitezkeen gizon emakume asko ikusi omen zituen. Azti eta sorginak agertzen hasi ziren edonon, eta Gaskoinia eta Akitania osoa salaketa eta epaikez bete ziren. Pertsonen arteko gorrotoak eragiten zuen salaketa. Belapeirek berak idatzi zuenez (eta Belako Zaldunaren *Histoire des Basques-i* esker dakigunez), justizia zibilaren gogorkeriatik ihesi, Elizara jotzen zuten azti, sorgin omen zirenek barkamen eske. Zurbil eta dardaraka agertzen ziren Belapeirerengana, eta honek hobengabe zirela erakutsi behar izaten omen zien:

"Ils venaient à moi dit ce grand vicaire [Belapeire] pales, tremblants, n'osant pas dire qu'ils n'étaient pas criminels et je devais les persuader de leur innocence. Mais tous cela n'est rien en comparaison d'un autre récit de ce respectable Ecclesiastique. J'ai vu en vérité ajoute le même auteur, dans ce temps pitoyable et plein de confusion, que les maris et les femmes s'accusaient réciproquement et que les voisins se chargeaient avec tant d'animosité qu'ils en sont venus aux meurtres, surtout en Béarn. J'atteste devant le public, avec les magistrats de Mauléon, qu'ayant fait porter, par plusieurs de ces accusés des crapauds qu'ils m'avaient présentés, ils confessèrent devant les magistrats, qu'ils les avaient reçus du démon en gage de leur alliance avec lui. Pour comble d'infamie, beaucoup de femmes et de jeunes filles se sont confessées d'avoir malversé au sabbat avec Satan d'une manière si froide qu'elles en étaient glacées. Est-il possible que l'égarement de l'esprit puisse inspirer de telles imaginations?" [letra etzanaz dagoena Belapeirek idatzia da] (Belako Zalduna, BNP, NAF 20.055, 188/189).⁴⁹

Sohütan jazotako gertaera bat orduko giroaren erakusgarri bikaina dugu. Neska-me batek salaketa asko egin omen zituen, bera ere sorgina zela aitortuz. Bat-batean dena gezurra zela esatean, herritarren haserreña piztu zuen. Neskamea hartu eta pla-

(49) Belako Zaldunak, bada, Belapeireren Zuberoako historiari buruzko eskuizkribuak erabili zituen. Liburuki bereko 195. orrialdean, zergak zirela eta, zuberotarren eta erregearen ordezkarien arteko gorabeherak aipatzen dira eta iturria ondokoa da: "Mem. MSS. de Bela-peyre official de Soule". Sorginkeri auzi hauez, ikus Menjoulet II, 291-293, Dubarat 1892 eta Haristoy 1892.

zaren erdian herriaren kontura egiten zen suan erretzekotan zirela, Belapeire agertu ei zen. Gajoa ospitale batean bizitzera behartu zuten (cf. Menjoulet II, 292-293).

Azkenean, 1671ko urriaren 19an, Louis XIV.ak agindu zuen Lescar aldeko ehulea, sasiari su eman ziona, atzman zezaten eta epaiketa guztiak bertan behera utz zitezen. Aztikeriaren aitzakia zela medio espetxeratu guztiak askatu egin zituzten.

4.3.2. *Maytie apezpikuaren ikustaldia (1672)*

1672an Maytie gotzaina Zuberoako eliza, apaiz eta fededunen berri jakitera etorri zen. Belapeirek frantseset “pour servir de mèmoire” utzitako idatzia Jaurgainek (1903) aurkitu eta ezagutzera eman zuen:

Monseigneur l’Evesque d’Oloron accompagné de MM. Morlas son aumonier, Delosc sous secrétaire, des R.P. Bergoin et Gastelussar, jésuites missionnaires, et ses autres domestiques s’estant randu au bourg de Montory le samedi 8 d’octobre 1672. M. Suhando, son promoteur, et moy Belapeyre, son vicaire général, et officiel en Soule, et curé de Cheraute, l’y ayans joint le même jour, et M. Beloscar, son greffier, le lendemain, il y auroit comancé sa visite de ce pays de Soule le lendemain neuvième et a suite [...] (1903: 26).

Urriaren 9an hasi Liginaga-Astuen eta Lextarreko elizan abenduaren 27an bukatu, Maytie gotzaina Zuberoako eliza guztietañ izan zen. Bere ibilaldian egunero eliza bat edo bi ikusten zituen, eta gauetan herrietañ lo egiten (askotan aitonen semeen etxeetan: Atharratzen Hegobururen etxeen, Irurin Trois-Villes-enean, Ündüreiñen Belaspect-enean, e.a.). Belapeirek eguna, ikusitako eliza(k) eta lolekua dakartz. Ikustaldiaren helburuetako bat gotzainak elizen egoera materialaren berri jakitea da; abenduaren 26a Maytiek Garindañen eman zuen, “et dans le cours de l’examen des contes de toutes les fabriques remises à Mauléon à cause de leur longue discussion”. Ia beste hilabete bat gehiago ere egon zen Maytie Zuberoan:

Et les affaires ayant été bien réglées au possible Monseigneur d’Oloron s’est retiré de Mauléon dans son palais épiscopal le 23 janvier 1673.

Signé: Belapeyre (1903: 27).

4.3.3. *Urdiñarbeko ospitalearen errrenten inguruko prozesua (1679-1682)*

Belapeirek Urdiñarbeko ospitaleko⁵⁰ commandeur-aren aurka izandako prozesuañen berri damaigu Dubarat-ek (1887: 85-87), bikario jeneralak berak frantseset utzi-

(50) Urdiñarbeko ospitalearen buru izatea Orreagako kalonje bati zegokion (1592an independen-tzia lortu baino lehen, behintzat). Honi *commandeur* deitzen zitzaien eta ospitaleari *commanderie*. Hura Orreagako monasterioko priore-nagusiak (*prieur-général*) izendatzen zuen eta guzitiz haren mendeko zen. *Commandeur*-ak hiru parroquia eta haien *anexe*-etako errrentak jasotzen zituen, besteariak Muskildi eta Urdiñarbe; Idaube eta Mendi; Bildoze eta Garindañe. Urdiñarbeko *commandeur*-ak eskubide garrantzi-tsuak zituen Zuberoako erakundeetan: gobernatzaila, Oloroeko gotzaina edo bikario jeneralra ez zeude-nean berari zegokion Zuberoako Estatuaren (h.d. Ordako Gortearen) lehendakaritza; gainera, Lextarreko Gorteko epaile zen. Ez zuen apaiz lanik egiten: parroki eginbideak Muskildiko erretoreari zegozkion (Urdiñarbe Muskildiren *annexe-a* zen). XI. mendearen amaiera aldera sortua, ospitalea zen, h.d. erromesen babesleku. Baina Belapeireren garairako, egia esan, ez du ospitale lan handirik egiten. Errrentetatik ezer gutxi jasotzen dute behartsu eta erromesek, eta ospitalea Donejakue bide nagusitik, h.d. Donapaleutik Donibane-Garazira doanetik, kanpo dago. Cf. Dubarat 1887, 17-19.

tako idazki batez baliatuz. Belapeireren testu hura ere eskaintzen du, gainera.⁵¹ Urdiñarbeko ospitalea, Orreagako ospitalearen mendeko aspaldidianik, bere buruaren jabe dugu Bordeleko Parlamentuaren 1592ko arrasta dela medio.⁵² 1673-1690 bitartean Sans de Bonnecaze⁵³ da *commandeur*. 1592ko arrastaren arabera, ospitalearen errentak partitzeko hiru urtetik behin administratzaleak izendatu behar dira; errenta guztietatik *commandeur*-ak 280 libera jasoko ditu urtero, gainerakoa erromesen eta behartsuen janarietarako, eta ospitaleko eta hiru parrokietako eraikinetan behar diren konponketak egiteko erabiliko da. Baina, banaketa egin ordez, *commandeur*-ak errenta guztiak bereganatzeko ohitura zuen garai hartan. Belapeire ez zegoen ados eta, behartsuen interesak defendatu nahian, nonbait, bi administratzale izendatzera bultzatu zuen Lextarreko Gorteko *arropa luze karia* (edo *lieutenant de robe longue*), Hegoburu. Arnaud de Béhéty eta Jayme de Jaury izango dira administratzaleak, baina Sans de Bonnecaze *commandeur*-ak aurreko egoerari eutsi nahi dio, eta hiru urte iraungo zuen prozesua hasi zen.⁵⁴ Lextarreko Gorteak eta Guyenne-ko Gorteak Bonnecaze-ren aurka agertu ziren, baina honek de Bouillon kardinalea, Frantziako *grand aumônier* zena, bere alde jartza lortu zuen. Kardinaleak Urdiñarbeko ospitalearen administratzale izendatu zuen Bonnecaze. Baina Belapeire ez zegoen geldirik, Parisera joan eta bertan aritu zen luzaz prozesua irabazteko ahaleginetan. Azkenean, 1682aren uztailaren 24an erregearen *conseil privé* delakoak behin betiko arrasta emanen du: aurrerantzean Bonnecaze-k banatu egin beharko ditu errentak.⁵⁵

4.4. De Salettes gotzaina eta Belapeire ofiziala

Belapeire⁵⁶ Maytie apezpikuarekin ondo konpondu zen, nonbait. Arnaud-

(51) Cf. Dubarat 1887, 251-260: "Mémoire d'Athanase de Belapeyre, vicaire général de Soule sur les origines d'Ordiap et le procès de Bonnecaze de 1682. Arch. B.P., G. 226". Vinson-ek ere badakar prozesuaren berri (cf. Vinson-Urquijo 141).

(52) Oloroeko gotzainak, ospitalea bereganatu nahirik, Arnaud de Maytie (h.d. geroago Arnaud I.a gotzaina izango zena) izendatu zuen Urdiñarbeko *commandeur*. Orreagako ospitaleak ez zuen onartu halakorik. Baina Bordeleko Parlamentuaren arrastek (1592koak eta ondoren 1623koak) banaketa legez-tatzen dute. Handik hara Urdiñarbeko ospitalea ez da Orreagako ospitalearena izango, baina, errenta bikainak jasotzen dituelarik, bi mendeetan zehar prozesu anitz izango dira hauen inguruan (cf. Dubarat 1887, 53 eta ond.).

(53) Arnaud François Maytie apezpikuaren aginduz *Arima penitentaren occupatione devotaq* (1672an inprimatuko zena) irakurri ondoren, 1668an, inprimitzeko egokia dela baieztagaten duten bi elizgizone-tako bar Sans de Bonnecase da, Mauleko erretorea (*aip. lib.* 20-21).

(54) Belapeire ofizialak sutsuki jardun bide zuen prozesuan. Basile de Bonnecaze, Sans-en anaia eta abokatua, Mauleko epaileei bidalitako gutun batean, kexatu egiten da Belapeirek jo zuela adieraziz. Bestalde, Belapeire gaizki esaka aritu zen, Bonnecaze-ren alde agertu ziren Louis XIV erregearen eta de Bouillon kardinalearen aurka, aipatu abokatuaren esanetan (cf. Dubarat 1887, 86 eta Vinson-Urquijo 141).

(55) Cf. Dubarat 1887, 250-251: "Arrêt du conseil privé qui condamne Sans de Bonnecaze et le réduit à la portion congrue. Obtenu par Athanase de Belapeire, vicaire général de Soule, le 24 juillet 1682. (Arch. B.-P., G. 224)".

(56) Belapeirek *Çuberoaco Official* sinatzen du (cf. Alonso Perujo et al., s.v. *oficial, oficialidad*: "en Francia se da en la actualidad [1885] el título de *oficial* al Vicario general"). Bera bikario jenerala eta ofiziala zen aldi berean. Beste elizbarruti barzuetan bikario jenerala eta ofiziala bereizten ziren, lehenengoari *jurisdicción voluntaria* delakoa zegokiola eta bigarrenari, *jurisdicción contenciosa* delakoa. Egia esan, bere ardurapean elizbarruti osoaren zatia baino ez zuenez, ez zegoen bi epailleren beharrak.

Apezpikua, oro har, ez dago ofizial nahiz bikario jenerala edukitzera behartua, "mas todos los auto-res convienen generalmente en que el Obispo está obligado á establecer un vicario: [...] 3º [...] cuando

François hiltzean (1681), ofizial izaten jarraitu zuelarik,⁵⁷ arazoak izan zituen Mgr de Salettes haren ondorengoarekin. Arraziok ez ditugu zehazki ezagutzen, baina gotzainaren eta ofizialaren arteko ezinikusia sortu zen. 1685ean gotzainak Belapeire kendu egin nahi izan zuen ofizialgotik:

Le sieur de Bellapeyre appela comme d'abus de sa destitution [dio Larrieu doktoreak eskuartean zuen dokumentuak], & comme c'estoit longtemps avant la declaration de mil sept cens, & que celle de Louis XIII sur ce sujet n'auoit pas été enregistrée au Parlement de Guienne [hots, Bordeleko Parlamentuan], Monseigneur l'Eveque d'Oleron y perdit son procez avec depens & le sieur de Bellapeyre fut maintenu dans son employ d'official (*Procez Verbal de l'Assemblée Générale du Clergé de France*, Parisen izana, 1705. urtean; eskuizkribu bilduma; cf. Vinson-Urquijo 141).

Gorago (ik. 48.oh.) aipatua dugu gotzainaren eta bikario jeneralaren artean ez zela bata bestearen aurkako errekurtsorik, pertsona moral bakarra osatzen zutela. Egia esan, oro har, bikario jeneralak gotzainen laguntzaile zintzo izan ziren (Willaert 1976: 71). Aipagai dugun arazoan, Belapeirek Bordeleko Parlamentura jo zuen:

Comme l'archidiaconé de Soule était un bénéfice spécial, dont la collation appartenait au roi de France, Belapeyre fit appel de la décision épiscopale devant le Parlement de Bordeaux qui cassa la sentence comme d'abus et maintint Belapeyre dans ses fonctions qu'il garda, non sans soulever de nouveaux conflits (Laborde 1925: 15).⁵⁸

Aipatutako *procez verbal*-aren arabera, auzia irabazi ondoren Belapeire bere kasa aritu zen lanean Zuberoako eliza administratzen, eta gotzainak berriro auzitara era-man zuen; baina Belapeire hil egin zen:

Le sieur de Bellapeyre enflé de ce succès ne garda plus aucune mesure & se donna la liberté d'exercer indifféremment la juridiction gracieuse et contentieuse jusques la que Monseigneur l'Eveque d'Oleron ayant interdit un ecclésiastique pour crime, le sieur de Bellapeyre leua l'interdit, fit beaucoup d'autres actions aussi hardies et alla même jusqu'à donner des dispenses qui ne pouvoient être accordées que par le pape. Ce qui obliga Monseigneur l'Eveque d'Oleron de l'attaquer de nouveau; & pendant qu'il le poursuivait vivement, le sieur de Bellapeyre étant venu à mourir, toutes poursuites cessèrent (cf. Vinson-Urquijo 141).

Zernahi gisaz, Ph. Bonetti-k erakusten duenez, arazoa ez zen Belapeire eta gotzainaren arteko borroka hutsa. Bordeleko Parlamentuaren erabakiaren ondoren, Charles

hay en una diócesis diversos idiomas y varios usos, el Obispo debe establecer vicarios en los diversos puntos en que hay un idioma ó ritos particulares" (cf. Alonso Perujo et al., aip.). Zuberoaren berezitasunak eskatzen zuen, bada, ofiziala, eta XVI. mendearren hasieran ezarri zen herrialdeko eliz-administrazioaren buru bikario jenerala (cf. Menjoulet II, 293).

(57) "Vicaire-général de Mgr Arnaud François de Maytie, ses fonctions lui furent conservées par nomination du chapitre, le 7 juillet 1681" (Dubarat 1887, 86).

(58) Clément-Simon-ek ere (212) eskaintzen du Belapeire eta gotzainaren arteko gorabeheren berri: Athanase, dit de Bélapeyre [...] il eut de vifs démêlés avec son évêque, Charles de Salettes, et se maintint dans ces dignités, contre l'agrément de ce prélat, par autorité du Parlement. C'était un homme d'énergie et de grande instruction. Tant qu'il vécut, il empêcha la suppression de l'officialité de Soule qui fut détruite après sa mort, au grand désavantage du pays.

de Salettes-en erantzuna etorri zen; *Assemblée du Clergé de France* delakoaren aurrera deitzen du Belapeire:

Mgr l'évêque d'Oleron a parlé d'un procès qu'il a contre le sieur Athanase de Bela-Peyre, prestre au sujet de l'officialité dont il l'a destitué. La compagnie a résolu qu'il donnera ses mémoires à Messeigneurs comme des plaintes des provinces qui en rendront compte à l'Assemblée (Bonetti 1986: 142).

Bonetti-ren arabera, ofizialaren inguruan Zuberoako apaizeria eta fededunak biltzen dira: ohar bedi probintzia kexatzen dela (“plaintes des provinces”). Maytiek Belapeireri 1695ean bidali eskutitzean agertzen denez (ik. eransk. 4. gutuna),⁵⁹ gotzainarekiko gorabeheretan bikario jeneralaren aldeko da Maytie kalonjea (“vous ne devés pas douter que je ne suis celuy qui m'intéresse le plus en tout ce qui vous regarde”). Gutun berean azaltzen da apezpikuak ez duela onartzen bikario jeneralaren ordenantza bat, eta berak ezarri eta aldatu nahi dituela (parroquia eskoletako) irakasleak. Gotzaina bere aginpidaren aldeko borrokan ari da, bada.

Gainera, Laborde-ren arabera (1925: 15-16), zuberotar apaizak izan ziren, bereziki Pierre de Chamalbide (promotorearen ordezkarria), Belapeire *Catechima* idazteria bultzatu zutenak. Apaizek ez zuten apezpikuaren gana jo, ofizial zuberotarraren inguruan batu ziren, protestanteekiko 1590eko arazoetan Arnaud de Maytie zuberotarraren inguruan (eta ez Claude Régis gotzainarenan) bildu ziren bezala (cf. Bonetti 1986: 63 eta 142). Mende bat igaro da bi ekintzen artean, eta elizbarrutiaren bata-sunak ez dirudi benetakoa. Zuberotarrek beren kontuak beraiek garbitu nahi dituzte, gotzainaren gana jo gabe. Apezpikuak ezin zuen, jakina, halakorik onartu. Erreforma Katolikoa elizbarrutian ezarriko bida, batasuna behar da, aginpile indartsu eta bateratzailea. Baino zuberotarrak ‘zuberotar’ dira lehenengo, eta ez dute erraz onartzen beren lurraldea Oloroeko elizbarrutiari atxikita egotea.⁶⁰

Belapeire hiltzearekin ez da ezer konpontzen, eta XVIII. mendean zehar hainbat eztabaidea izango da Oloroeko apezpikuaren eta apaiz nahiz fededun zuberotarren artean.⁶¹ Eta gotzainak ez du aurrean izango gizabanakoa, Belapeire bikario jenerala,

(59) Gutunaren zati bat eskaintzen du Bonetti-k (1986, 141); ez oso zehazki (“ny votre ordonance” ezabatzen du, e.a.). *Maitie* batek sinatzen du; Bonetti-ren ustez, Jacques de Maitie da gutunaren igorlea.

(60) Cf. Ph. Bonetti 1986:

Il semble que le *Pays* reste la dimension géographique majeure. Ils sont souletins avant d'être diocésains (143).

Les souletins, tan prêtres que fidèles, ont mal supporté le centralisme diocésain voulu par les prélat oloronais. La conscience d'appartenir à une entité très précise —le *pays*— les a empêché de raisonner en terme d'unité diocésaine. Un blocage paraît se constituer dans l'application de mesures épiscopales dès que l'uniformité d'action des prélat est confrontée à un particularisme souletin. Il serait trop simple de réduire ce verrou à des simples querelles de clocher. Il traduit simplement une constante de l'histoire des mentalités de la France d'Ancien Régime. On est basque, béarnais, breton ou normand avant d'être français (144).

(61) 1724an Santa Graziko ospitaleko ondasun eta errenta guziak Oloroeko apaizgaitegi sortu berriari atxikitzen dizkio Joseph de Revol apezpikuak. Zuberotarrek ez dute onartzen halakorik. Beren buruan geografi unitate oinarrizkoa Zuberoa da, ez elizbarrutia. Zuberoako errentak bertakoentzat nahi dituzte. Beste adibide bat: Oloroeko Kapituluan ordezkaritzagatik egokia eskatzen dute zuberotarrek. Kapituluak sei mila libera jasotzen ditu Zuberoatik. Beraz, Mauleko diputatuaren arabera, “il est juste qu'il [Zuberoak] ait le privilège d'avoir trois basques souletins dans le corps dudit chapitre” (cf. Bonetti 1986, 143).

apaiz multzoa baizik. Erreforma Katolikoaren ezarpena porrot egiteko arriskuan da; ez dago Elizako hierarkiaren mailen artean harreman egokirik: apaizen parte hartze-ko gogoen aurrean, gotzainaren aginpide ikaragarria altxatzen da (Bonetti 1986: 143-147).

Belapeire hil eta gero, Oloroeko gotzainak (gorago aipatutako *proces verbal-ak* dakarrenez) ez omen zuen nahi ofizial berririk aukeratu. Zuberotarrek ofiziala izenda dezan eskatzen diote. Bitartean, Zuberoa Bordelako Parlamentuaren mendetasunetik Pabeko Parlamentuarenera igaro zen, eta Charles de Salettes gotzainak ez zuen ofizialik nahi izan, Pabeko Parlamentuak bere erabakia onartu zuelarik (Menjoulet II, 330). Apezpikuak ez du nahi haren gogoaren aurka ari daitekeen zuberotar ofizialik. Eta, bide batez, Zuberoako apaiz eta fededunek kexuak agertzeko zeukaten bide nagusia mozten du.

Menjoulet-ek Belapeire 1695an hil zela baiezttu arren,⁶² Athanasek 1696ko apirilaren 2an sinatzen ditu katiximaren II. partearen sarrera nahiz liburu amaierako oharra. Laborde-k dio 1696an hil zela (1925: 15). Dena dela, Sohütako herriko etxe-an ediren idazkiaren arabera, 1698ko martxoaren 10ean zendu zen (Davant 1996: 64). Aipa dezagun, bestalde, Clément-Simonek (212, 3. oh.) Belapeireren hilburukoa izan zuela eskuartean, 1693ko martxoaren hamarrean egina.

5. Belapeireren histori idazlanak

Belapeire gizon ikasia zen. Teologian batxilerra.⁶³ Eliz-zuzenbidea ezagutu behar-ko zuen ofizial, hots, elizako epaile izateko.⁶⁴ Aita Jacques-ek bezala garaiko gertae-rez idazteko ohitura zuelarik, bere gain zuen ofizialgoak lekuko bikain bihurtzen zuen, ezpairik gabe.

Dubarat-ek (1887: 87) Belapeireren bi ataleko idazki bat aipatzen du. Lehenengo atalean Zuberoaz orokorrean ari da, baina testu hau galdu egin da.⁶⁵ Bigarrenean ofizialak Urdiñarbeko ospitalearen sorrerari buruzko bere iritzia agertu eta *commandeur-*

(62) "Il mourut, en état de révolte contre son évêque, dans le cours de l'année 1695, au moment où le pays de Soule venait d'être soumis au parlement de Pau. M. de Salettes refusa, malgré les instances des Souletains, de donner un successeur à Béla-Peyre et la cour de Pau reconnut son droit à cet égard, par la raison que, depuis la réunion, elle pouvait connaître des affaires ecclésiastiques de la Soule, aussi bien que de celles de la partie béarnaise du diocèse" (Menjoulet II, 330).

(63) Belapeire Tolosako unibertsitatetik "Theologian Bachelor" atera zen. Garai hartan unibertsitatean egin zitezkeen ikasketen multzoa *Studium generale* deitzen zen. *Universitas*, berriz, osagaien multzoa zen, hots, batxiler, lizentziatu eta doktoreak. Frantzian hainbat teologi-fakultate ("sacra theologiae Facultas") garrantzitsu, Parisen (Sorbona), Orléans-en, Bordelen, Tolosan. Tolosan unibertsitateari jesuiten ikastetxea artxeki zitzaison (XIII. mendetik aurrera erlijiosoen ikastetxeak unibertsitate-eta sartzen dira, apaizen gogoaren aurka) eta fraideak, domingotarrak bereziki, ziren irakasleen artean nagusi (cf. Willaert 1976, 193 eta ond.).

(64) Bikario jenerala izateko baldintzen artean: "(...) 3º Que sea doctor ó licenciado en Derecho canónico ó en Teología, ó de otra manera sea idóneo en la ciencia jurídica" (Alonso Perujo et al., s.v. *vicario general*).

Ciertamente no erraríamos demasiado, si dijéramos la necesidad de tener *licentia ubique docendi in utroque iure*, impartida por una facultad en derecho, para poder ejercer este cargo (Orella 1987, xiii).

(65) Lehenengo atalaren berri Belapeirek berak damaigu bigarrenean: "[...] comme j'ay déjà dit dans mon 1^{er} liure chap. 9 art. 4 [...] (259), "[...] comme je l'ay rapporté cy dessus dans la vie d'Etienne de Mauléon Evêque d'Oleron [...]" (259).

aren aurka izandako prozesuaren berri damaigu. Dubarat-ek bigarren atal hau eskaintzen du (1887: 250-260). Idazkiak erakusten duenez, Belapeirek Zuberoako elizaren historiaz bazuen berririk: Zuberoa garai batean Akizeko elizbarrutiaren mende egon zela aipatzen du (bere ustez lapurreta zela medio) eta baita ondoren Oloroeko elizbarrutiari atxikia izan zela ere (“sa matrice eglise”); Oloroeko gotzain izan zen Etienne mauletarraren bizitzaz ere ari da.⁶⁶ Urdiñarbeko ospitalearen historia ezagutzen du: nola aspaldi Orreagari zegokion (252), Arnaud de Maytie izan zela *commandeur* XVI. mendearren amaieran eta Bordeleko Parlamentuaren 1592 eta 1623ko arrastek ospitala Orreagaren mendetik askatu zutela (253), zein izan zen 1592ko arrastak egin zuen errenta banaketa (253-254), etab. Dubarat-en hitzetan, “un excellent travail” (88).

Clément-Simon-en arabera (212, 3. oh.), hilburukoan Athanasek bere iloba Jean de Bélagrace teologi ikasleari eskatzen dio Zuberoari buruzko bere idatziak, berak “Une histoire et bonnes remarques sur la nation basque et le présent pays de Soule” deitzen dituenak, inprimaraz ditzala. Clément-Simon-ek dio, nahiz eta zenbait auto-rek aipatu duen, ez dela lan hau aurkitu ahal izan. Gorago esan dugunez, Belako Zaldunak erabili zituen Belapeireren eskuizkribuak; 1671ko sorgineriaren inguruko gorabeherak aipatzean, esaterako.

Egia esan, Gérard de Bela-ren ondoren Belatar gehienek izan zuten idazteko ohi-tura, baita gerlari izan zirenak ere. Jacques, Belapeireren aita, eta XVIII. mendeko Belako Zalduna izan dira idazkirik garrantzitsuenak utzi dizkigutena, baina Bela-Sorhuetako Isaac, bere seme André eta honen seme Philippe, Bélapoey-tarrak, Belapeire, Bélaperitz-tarrak, denek zeuzkaten familiaren liburuak eta gertaera historikoez idatzi zuten. Clément-Simon-en hitzetan, “Le château de Chéraute renfermait les véritables archives de Soule”. Han ediren zituen Clément-Simon-ek Belako Zaldunak euskaldunen historia idazteko erabili zituen paperetatik gehienak (214).

6. *Catechima laburra* (1696)

6.1. Protestanteen katiximak

Protestanteak katolikoen aitzindari⁶⁷ izan ziren: 1522tik aurrera Luther-ek aginduta hainbat saiakera argitaratu ziren (cf. DTC 1907); Luther-en katixima txikia eta

(66) X. mendean eliz erakundeak laikoen mende agertzen dira Frantzian. 978an Guillaume Sanche Gaskoiniako dukea *episcopus vasconiae* da; Akize, Aire, Baiona, Lescar, Oloroe eta Bazas-go elizbarrutiak administratzen ditu. Baino 1056ko Tolosako kontzilioak bere buruaren jabetza berreskuratzan dio elizbarruti bakoitzari. Mauleko Etienne izendatzen dute Oloroeko apezpiku. Berak lorruko du Zuberoa Oloroeko elizbarrutiaren barnean izatea (1058). “On ne connaît qu’obscurement les divers incidents d’un fait si remarquable” (Dubarat 1888, 47). Amat, Etienne-n ondorengoa, Akizeko gotzainaren aurka borrokatu zen. Gregorio VII.ak Zuberoa Oloroeko elizbarrutiaren baitan gera zedila onestea lortu zuen Amat-ek (Bonetti 1986, 48 eta ond.).

(67) “Les protestants avaient mis au point, pour diffuser la foi nouvelle, une série de petits ouvrages faciles à lire et destinés à convaincre. L'un des plus célèbres, mais l'un des plus radicaux aussi, fut la *Brève instruction chrétienne* que Zwingli publia à Zurich en novembre 1523. Luther rédigea un Grand et un Petit catéchismes, maintes fois réédités [...]. Il y eut aussi l'extraordinaire diffusion de la littérature de propagande religieuse, vendue sous le manteau par des colporteurs, qui *sous couleur de piété, a séduit l'âme confiante des personnes simples*, comme le dira la Préface du catéchisme romain [...]” (Loew eta Méslin 1978, 286-287).

handia 1529an kaleratu alemanieraz eta edizio asko izan zituzten; Calvin-ek bi katixima idatzi zituen (1537 eta 1542), frantseset (DTC 1909). Moldiztegiaz baliatzeaz gain, protestanteen berrikuntza izan zen herriak ulertzen ez zuen latinarekin batera lekuaren lekuko hizkuntzak erabiltzen hastea. Calvin-ek irakasle eta ikaslearen arteko elkarritzeta moduan antolatzen du bere katixima. Metodoa ez zen berria, baina ahaztuxea zuten garairako. Protestanteen ekarria ondokoa izan zen, bada:

[...] ce qui était nouveau et inédit c'était la composition et la diffusion parmi le peuple d'un petit manuel imprimé en langue vulgaire, où la doctrine était présentée avec brieveté et simplicité, plustôt par interrogatoires et responses que par un discours continué tout d'un fil, pour employer la formule d'un vieil auteur (Laborde 1925: 7).

6.2. Fededunen heziketa katolikoen artean. Frantzia

Erreformaren indartzeak katolikoak mugiarazi zituen eta mota guztietako katiximak ugaldu ziren protestanteei aurre egiteko, Alemanian, Frantzian, e.a. (DTC 1913-1917). Canisius ospetsuak hiru katixima idatzi zituen, bakoitzak jakintza maila bat egokitua. XVII. mendearren amaieran Frantzian argitaratu katixima askoren egitura Canisius-en liburuetan oinarritzen da.⁶⁸

Gotzain eta apaizek erdi ahaztuta zeukaten herria hezi beharra eginbide nagusitzat eman zuen Trentoko Kontzilioak.⁶⁹ Hargatik, kristau ikasbide bat idazteko agindu zen, hainbat naziotan dotrina erakusteko erabiliko zen liburua. 1563tik aurrera idazten aritu zen taldeak ez zuen bukatu ahal izan Kontzilioaren amaiera baino lehen, eta Pio IV.ak bere gain hartu zuen jarraipenaren ardura (25. lan-saioa).

Azkenean, 1566an argitaratu zuen Errroman Pio V.ak *Catechismus Romanus* deitua izan dena, Kontzilioaren agindupean egindako dotrina: *Catechismus ex decreto concilii Tridentini ad parochos Pii V jussu editus* (in-folio).⁷⁰ Dotrina liburu moderno guztien

(68) "La pluspart de ceux [katixima frantsesak] publiés à la fin du XVI^e siècle s'inspirent du schéma de Pierre Canisius qui avait publié coup sur coup en 1555-1557 un *Catechismus minimus*, un *Catechismus minor* et une *Somme de la doctrine chrétienne*, et comportent trois parties bien distinctes correspondant à une catéchèse progressive" (F. Lebrun 1980, 162). Beraz, zenbait katiximak hiru zati izango ditu, haur txikienetaraz lehenengoa, gazteentzat bigarrena (7, 8 urte ingurukoentzat, esaterako) eta apaizentzat eta gehiago sakondu nahi durenentzat hirugarrena. Ez da halakoa Belapeirerena.

(69) Cf., adibidez, Sauvage 1963, I, 336 eta ond. Italian bazeen erlijio gaien inguruko ezjakintasunaren aukako kezka. Milaren sortu eta laster hedatu zen Kristau-Dotrinaren Konpainiak eskolak sortu zituen haurrentzat. Ondoren, Trentoko Kontzilioan, 5. lan-saioan (1546) irakaspenaz era predikatzeaz arituko dira: teologia ikasketak bultzatu behar dira; gotzainen eginbide nagusia predikatza da; apaizek igande eta besta-egunez predikatu egin beharko dute.

Hamazazpi urte geroago, 24. lan-saioan gai beretara itzuliko dira: apezpiku eta apaizek kristau-doktrina azaldu edo, gaitasunik ez badute, azalaraziko dute, gutxinez igande eta jai-egunetan; orainoan haurren heziketaz arituko dira bereziki. Italiako katekesi-mugimenduaren oihartzuna dira, nolabait, irakaspenaren inguruko dekretuak. Kontzilioaren ondoren, gorago aipatu Konpainiaren eskolak asko ugaldu ziren, batez ere, Milano Carlos Borromeo ereduzko artzaezpikuaren arrangurari esker.

(70) Trentoko Kontzilioko partaideak banandu zirenean, benetako argitalpen egitasmoa aurkeztua zuten. Lehenik burutu zen liburua katixima izan zen (1566). Ondoren *Breviario* delakoa (1568) eta *Misal-a* (1570) atera ziren. 1592an *Vulgata* delakoaren testu zuzendua argitara zuten. Hurrengo egitekoa liburu hauek hedatu eta erabilaraztea izan zen. Cf. H.J. Martin 1969, I, 10.

oinarrian dago, eta apaizentzat prestatutako kristau-dotrina osoaren azalpen laburtua zen. Ondoren, herri xeheari zuzendutako galdera-erantzunez osatu esku-liburu errazagoak ondu beharra zegoen.

Italian XVI. mendean katekesi-mugimenduak indar handia izan zuen, baina besterik esan behar da Frantzia. Erlilio-guduek ez zuten lagundu, jakina, eta XVII. mendearren hasieran egoera ez zen txalotzeko modukoa (Broutin 1956: I 28 eta ond.). Bain XVII. mendean, bereziki zenbait elizgizon handiri esker (Vicente de Paul, Bourdoise, Olier, de Bus, e.a.)⁷¹ egoera orokorra aldatu egingo da: “Un intenso movimiento catequístico sacudirá a Francia durante el siglo XVII” (Sauvage 1963: I 410). Italiari jarraituko zaio, eta Carlos Borromeo izango da katekesi iraultzaren eredu.

Irakaspenen behar gorriaren kontzientzia agertzen da Frantziar, herriaren ezjakintasuna eta protestanteen katekesi zaletasun nabarmena direla medio. XVI. mende amaierako probintzi-kontzilioek dotrina irakasteko agindu zuten, Trentoko katixima gomendatuz. Gotzainak, estatu sinodalen bidez, eta argitaratu ostean apaizen artean banatu zitzuten dotrina-liburuak zirela medio, irakasprena zabaltzen saiatu ziren.

Frantziako elizbarrutietan, XVII. mendearren bigarren erdian hasi ziren haurrei katixima sistemmatikoki irakasten. Autun-go barrutian, esaterako, 1652an de Ragny apezpikuak haurrei igandero irakaspenak egiteko agintzen du (Delumeau 1973: 244). Aurrerantzean Autun-go zenbait apezpikuk isunak ezarriko dizkie katixima irakasten ez duten apaizei. Santu guztiengunetik ekainaren 24a arte irakatsi behar zuten, igandero eta “ordurik egokienean”. 1690ean, oraindik, elizbarrutiko apaiz gehienek ez dute katixima azaltzen Abendu-aldiko nahiz Garizumako egun batzuetan baizik. Bestalde, gurasoak ere gogatu behar izan ziren, mehatxuak ere tartean zirela, haurrek katiximara bidaltzen. Umeak eta zerbitzariak ikastera igortzen ez zitzuten aita-amek ez zuten aitortzeko nahiz jaunartzeko aukerarik izango. Delumeau-k azpimarratzen duenez, katixima irakasteko ohitura oso emeki indartu zen:

Estos hechos [Autun-goek] nos demuestran hasta qué punto la enseñanza del catolicismo era una práctica nueva y de qué modo conmocionaba los hábitos del clero parroquial y de los fieles (Delumeau 1973: 245).

Beraz, dotrinaren irakasprena pixkanaka zabaldu zen. Zenbait ohitura hedatu ziren:

Los manuales de pastoral y los tratados de aquel tiempo concuerdan al describir la manera cómo se daba casi universalmente el catecismo. Se daba en la Iglesia, después de misa o de vísperas, según la comodidad, y se invitaba a él no sólo a los niños, sino también a las personas mayores. Estas últimas estarán en el fondo, y se evitará preguntarles, si no se está seguro de su conformidad, para no arriesgarse a humillarlos delante de los niños (Sauvage I: 449/450).

(71) Vicente de Paulek misioak bultzatu zituen. Bourdoise-k S. Nicolás du Chardonnet-en elizgizonak katekesirako prestatu zituen. S. Sulpice-ko erretore zen Olier apezgaiez baliatu zen inguruko auzoetan katekesi sare bat hedatzeko. Cesar de Bus-ek “doctrinaires” direlakoak sortu zituen, h.d., zergin nagusitzat dotrina irakastea zuen ordena berria.

Katiximek kristau dotrinaren laburpena eta azalpena dakarte. Ulertzen ez dituelako, misteriotsu agertzen zaizkion zeremoniak adierazi egin behar zaizkio herriari:

Il faut expliquer les actes qui entourent le culte afin de leur conférer une valeur théologique et missionnaire qui se surimpose à celle rituelle et semi paganisante dénoncée par le concile de Trente (Bonetti 1986: 115).

Kristauaren fedeari indarra, *sinesgarritasuna* eman behar zaio, dotrinaren hainbat puntu zehazki adieraziz. Horregatik kristau ikasbideak bakun eta gardenak izango dira. Egituraketa garbia, irakurketa errazteko moduko. Lekuan lekuko hizkuntzaz egindako dotrinak bultzatuko dira katolikoaren artean ere. Euskal Herriari dagokionez, kristau ikasbide ugari agertzea ez da harritzeko, euskalki eta azpieuskalki desberdin multzoa kontuan hartzen badugu.⁷² Dotrinenetan erabili hizkera, herriak darabilenek hurbil, erraza izango da, eta azalpenak garbi eta sinpleak, herritarrek jasotzeko modukoak.

6.3. XVII. mendeko frantses katiximak

Trentoko katiximak eta, batez ere, Belarminorenak izan zuten oihartzuna XVII. mendeko frantses katiximetan, ez hainbeste Canisiok (Fdez. Magaz 1968: 16). Edu-kia, egitura, idazlea eta hartzailea kontuan izanik, hiru multzotan sailka daitezke garaiko kristau-ikasbideak.

1. Eskola-katiximak eta parroquia-katiximak. “Petites Écoles” direlakoetan (ik. 6.5.1 eta ond.) irakasteko esku-liburuak, irakurleei zegokien legez, labur eta errazak ziren, eta, ardura, idazleen izena ez zen ezartzen. Hauekin oso loturik agertzen zaizkigu parroquia-katiximak. Zenbait izen aipagarri dira: Cesar Bus, San Vicente de Paul (*Le petit Catéchisme de la Mission*, 1640), Jacques Olier (erretore honek taldea osatu zuen katixima irakas zezaten), Adrien Bourdoise (Saint-Nicolas du Chardonnet parrokiako erretore ezagunak hainbat dotrina-liburu idatzi zituen), e.a.

2. Elizbarruti-katiximak. Eskola katiximak aitzindari izan ziren eta esku-liburu xehe haietara jo zuten apezpikuek argi bila, Trentoko Katixima egokitutu egin behar baitzen herriarengana iristeko moduko. Beren gain zuten zamak ez baitzien astirik uzten, ez dira asko elizbarruti-katixima beren eskuz idatzi zuten apezpikuak.⁷³ 1670. urtea arte apezpiku gutxik ezarri zuen elizbarruti-katixima (“pour être seul enseigné dans la diocèse”). 1670tik aurrera ugaltzen hasten dira.⁷⁴ Trento,

(72) “Gure artean hain Kristau Ikasbide asko argitaratu bada, herri bakoitzak erabiltzen duen euskarari egokitzeko gurariak eraginda izan da, batez ere. Badago herri bat, aldi batez behintzat, bere dotrina ukana zuena; eta bailarak, ugari” (Rementeria 1975, xx).

(73) “Sus cargas pastorales no les dejan el reposo que su composición requiere. Un buen ejemplo nos lo ofrece Richelieu. La calma que le procuró el destierro de Aviñón le permitió pensar en el alimento espiritual de sus sacerdotes y fieles, para los que escribe *L'Instruction Chrétienne*” (Fernández Magaz 1968, 18).

(74) Sauvage-ren arabera (1963, I 445), “penetrar en el campo de los *manuales* de catecismo del siglo XVII es aventurarse en una selva aún inexplorada”; “en el siglo XVII los catecismos se multiplican en Francia, quizás con exceso” (I 446). Frantses katiximen zerrenda eta sailkapenak aurkitzeko, ik. E. Mangenot, *Catéchisme sarrera*, DTC II, 1895-1968 zutabeak; Hazard, *Histoire du catéchisme depuis la naissance de l'Eglise jusqu'à nos jours*, Paris, 1900, eta R. Girault, “Quatre siècles de catéchisme”, in *Lumière et Vie*, 35, 1957 (543-569).

Canisius eta Belarmino itzultzen dira (Sauvage I, 446). Claude Joly Agen-go apezpi-kuaren *Les Devoirs du Chrétien* (1672) esku-liburuak itzal handia lortu zuen.⁷⁵ Bossuet-en liburuaz beherago jardungo dugu; Belapeirek idatzitako katiximaren bigarren partea, izan ere, gotzain ezagun hark ondutakoaren hirugarren atalaren (“Traite des Festes & autres solennitez de l’Eglise”) itzulpena baita.

Gehienetan apezpikuak testua idatzarazi egiten zuen eta ondoren aztertu, onetsi eta ezarri, idazlearen izena gehienetan ixilpean geratzen zelarik. Zernahi gisaz, aipagarri da Le Puy-ko apaizgaitegiko zuzendaria, Charles Louis de Lantages, 1674tik aurrera Le Puy eta Clermont-eko elizbarrutietan irakatsi zen *Le grand Catéchisme de la foi et des moeurs chrétiennes* idatzi zuena.

3. “Catéchismes privés” direlakoak. Atal honetan, La Salle-k bere ikasleentzat idatzi lanak edo jesuitenak sar daitezke, esaterako. Claude Fleury ezaguna dugu (*Catéchisme historique, contenant en abrégé l’Histoire Sainte*).

Laster ahaztu zuten elizbarruti-katiximen idazleek norentzat ari ziren, eta laburpenak egitea beharreko gertatu zen. Canisius-ek argitara zituen hiru katiximen ildotik, esku-liburu mailakatuak agertzen dira: jakintza maila desberdinei dagozkien hiru katixima batzen dira liburu bakarrean. Halakoa da, besteak beste, La Rochelle, Luçon eta Angers-eko apezpikuek elkarrekin argitaratzen dutena, hiru gotzainen izena dela-eta *Catéchisme des Trois Henri* (1676) deitua.⁷⁶

Elkarren ondoan zeuden elizbarruti batzuetako apezpikuen batasun ahalegina aipagarria da. 1676an Saintes eta Périgueux-en esku-liburu bera kaleratu zuten. Urte berean hiru Henri-ek batera argitaratu katixima aipatu berri dugu.

Iturri beretatik edaten dutenez (aipatu diren Trento, Canisio, Belarmino) antzekotasun asko aurkitzen dira frantses katiximetan. Mendearen bigarren erdian hainbat esku-liburuk ospea lortu eta garaikideengan eragingo du. Zenbait apezpikuk beste elizbarruti bateko liburua hartuko du berean erabilia izan dadin. Dena dela, oro har, bertako testua izatea nahiago da. Bossuet-ek bere liburuari ezarri “Avertissement” delakoaren hasieran honela dio:

Il y a long-temps qu'on nous demande de tous costez & de toutes les Paroisses, que selon l'exemple de la plusplart des Evesques, nous ayions aussi à donner à nostre Diocese un Catéchisme un peu plus ample & plus expliqué que celuy dont on s'est servi jusqu'à présent.

(75) Cf. Broutin I, 287 eta ond. “[...] certains manuels connaissent un grand succès et son adoptés par de nombreux diocèses soit voisins, soit éloignés. Il en est ainsi du catéchisme d’Agen de Claude Joly (1677) adopté par de nombreux évêques du Sud-Ouest, de celui de Meaux de Bossuet (1687), de celui de Bordeaux de Bazin de Bezons (1704), et d’autres. [...] Mais il arrive aussi qu’un nouvel évêque, ne partageant pas les idées de son prédécesseur, s’empresse d’interdire le manuel qu’il trouve en usage et d’en faire publier un nouveau, souvent en copiant plus ou moins ouvertement celui d’un autre diocèse” (F. Lebrun 1980, 163).

(76) Honako hiru atalak ditu: “Petit catéchisme ou abrégé de la doctrine chrétienne pour l’instruction des petits enfants” (28 orrialde), “Catéchisme ou doctrine chrétienne pour l’instruction des jeunes gens qui se disposent à leur première communion” (94 orrialde), behin 7 edo 8 urte betez geroz ikasi beharrekoa, eta “Catéchisme ou doctrine chrétienne” (382 orrialde), gehiago jakin nahi dutenentzat eta, bereziki, apaizentzat.

Testu berean, Bossuet-ek Fleury-ren katiximaz baliatzeko aholkatzen die apezei, beren buruak jazteko. Eta “elizbarruti” katiximez gain, Trentoko katiximaren ildoari jarraituz, zenbaitetan aski luzeak diren erretoreei zuzendutako testuak ere argitaratzen dira (cf. Sauvage I, 448).

6.4. XVI eta XVII. mendeetako katiximak Euskal Herrian gaindi

Erabiliaren erabiliaz edizio asko galdu egin direla kontuan izanik⁷⁷ (cf. Mitxelena, *HLV*, 63-65 eta H.J. Martin 1969: 789), Euskal Herria bere baitan hartzen zuten elizbarrutietan Trentoko Kontzilioaren ondorioz argitaratutako lehen euskal katixa-ma katolikoak,⁷⁸ XVI eta XVII. mendeetakoak, aipatuko ditugu ondoren.⁷⁹

1. Calahorrako elizbarrutiari dagokionez, ezagunak dira bi apezpikuk, Don Pedro Manso-k 1600. urtean eta Don Pedro Lepe-k 1698an, agindutako Konstituzio Sinodalak, herrialde bakoitzeko euskaraz idatzitako dotrinak inprimatzeko agin-duz.⁸⁰ Pedro Manso gotzainaren aginduz Betolazak dotrinaren itzulpena egin zuen (*Doctrina christiana en romance y basquense*, Bilbo, 1596).⁸¹ Kapanagak Ripaldaren

(77) Iparraldeari dagokionez Iraultzaren ondorioz galdu ziren asko eta asko: “les livres de piété et en particulier les catéchismes furent aussi de pauvres victimes sacrifiées par la Terreur; les autorités révolutionnaires les condamnèrent au bûcher et voilà pourquoi les livres d’église antérieurs à la Révolution sont chez nous une denrée assez rare et par suite précieuse” (Laborde 1925, 22).

(78) Euskaraz idatzitako dotrina protestantea da Joannes Leizarragak, Kalbinoren irakatsiekin, ondu zuena: *ABC, edo Christinoen instructionea* (La Rochela, 1571).

(79) XVII. mendeko Pariseko liburugintza aztertu duen H.J. Martin-en arabera, 1643-1665 bitartean katixima liburu ugari kaleratzen da (1969, 619-620). Baino produkzio hori anarkikoa zen, nolabait. Ugaltzen ari ziren karitateko eskoletan dotrina erakusten zen. Kongregazio eta misioak beren liburu bereziak zabaltzen saiatzen ziren. Mendearen amaierakoa da katixima sistematikoki erakusteko benetako ahalegina. Egoera hobetzeko, irakastea bateratzeko, gotzainek elizbarruti-katiximak ezartzen dituzte; haueratik asko Parisen inprimatu zituzten (1969, 789). Joseph de Revol-ek 1706an damaio barruti osoko lehenengo kristau-ikasbidea Oloroeko elizbarrutiari.

Martin-en arabera, “la plupart de ceux qui sont parvenus jusqu’à nous, et qui se présentent sous l’aspect de volumes in-12 ou in-8° de plusieurs centaines de pages, restent des livres du maître, à l’intention des catéchistes —plus encore que des catéchisés— sauf peut-être dans le cas des Nouveaux Convertis. Mais ce fait n’exclut pas que les catéchisés aient pu avoir entre les mains des impressions —bien plus minces celles-là: feuilles de catéchisme dans la région de Mons qu’il fallait rendre aux prêtres à la fin de chaque semaine; *petits catéchismes* que les prêtres du diocèse de Meaux recommandaient de conserver soigneusement lors de la première leçon en les distribuant; ou encore minces livrets précédés d’un alphabet qui étaient imprimés pour les fidèles du même diocèse” (1969, 790).

“Dotrinak, testua elkarriketa eran tajaturik, abadeentzar, batez ere, inprimatzzen ziren, elizarrei esanera errepikatu edo kantatu eragiteko” (Altzibar 1992, 40).

(80) Kristau ikasbideak inprimarazten dituzte, “en lenguaje acomodado a las Provincias”, “para que los curas tengan cartillas en la lengua propia de cada provincia” (1600). Ez dago kristau ikasbiderik “que uniformemente pueda servir en todas las tierras, en donde se habla este idioma, por la mucha diferencia que ay del Vazquense de unos lugares a otros”; horregatik agintzen da “que se haga una breve explicación de ella, por persona docta, en cada una de aquellas partes, en donde es comun, y sin obice alguno el Idioma Vazquense” (1698). Cf. Rementeria 1975, xviii.

(81) Egungo edizioak: *Euskera* 1986 (511-526), faksimile edizioa; *Mitxelenarena*, BAP 1955 (83-100) nahiz *ASJU* 1955 (52-60). Harrigarria da, eta J. de Urquijori ere hala iruditzen zitzaison, *Betolaza* (1596) eta *Kapanagaren* (1656) dotriñen arteko beste liburu inprimaturik ez ezagutzea (Altzibar 1992, 42).

dotrinaren itzulpena egin zuen, jatorrizko testuarekin batera argitaratu zutelarik (*Exposición breve de la Doctrina christiana*, Bilbo, 1656). XVII. mendekoak dira bizkaieraz idatzitako “Viva Jesú” hitzakin hasten dena⁸² eta Nikolas Zubiarena (Donostia, 1691).⁸³

2. Iruñeko elizbarrutian erabiltzeko atera zen Sancius de Elso-ren *Doctrina Christiana* gazteleraz eta euskaraz (Iruñea, 1561). Ez da alerik aurkitu ahal izan.⁸⁴ Badaigui Martín Yáñez de Arrietak 1609an Ripaldaren itzulpena prestatu zuela, gipuzkeraz; baina diru kontuak zirela medio ez zen argitaratu.⁸⁵ Beriainen *Doctrina Christiana*, elebiduna, 1626an atera zen Iruñean.

3. Baionako elizbarrutiak bazituen, XVII. mendean, zenbait katixima euskaraz idatziak. Materre frantziskotarraren *Doctrina Christiana* (Bordele, 1617) aipatu behar da lehenik, Axularren baimena izanik 1623an arrainprimatu zena. 1693ko edizioak Duronea apaizak gehitutakoak daramatza.⁸⁶ Silvain Pouvreau, Materre bezala Euskal Herritik kanpo jaioa zenak, Richelieu-ren *L'Instruction du Crestien* dotrinaren itzulpena ondu zuen: *Guiristinoaren Dotrina*, Paris, 1656.⁸⁷ Argaignarats-ek bertsoz idatzi zuen *Devoten Breviarioa*-ren amaieran (Baiona, 1665), “*Dotrina Christiana*” dator;⁸⁸ zoritzarrez amaiera falta zaio ezagutzen den ale bakarrari.⁸⁹ Bestalde, XVII. mendearren azkenean, Léon de Lalanne Baionako gotzainak beste dotrinatxo bat idatzarazi zuen, euskaraz.⁹⁰

4. Akizeko elizbarrutiaz den bezanbatean, ez dugu ezagutzen XVI. eta XVII. mendeetako euskarazko dotrinarik. 1745 inguruan, Luis-Maria de Suárez d'Aulan Akizeko gotzainaren aginduz *Catichima edo fediaren eta guiristino-eguien explicacione laburra* atera zen (Vinson-Urquijo 60. a), “choila haren Diocesa gucian eracaxia içaiteco”. Dotrinarekin batera argitaratutako manamenduan (1740-03-02), go-

(82) Cf. Mitxelena, “Textos vascos antiguos. Un catecismo vizcaíno del siglo xvii”, BAP 1954 (85-95).

(83) José de Lezamiz-en *Vida del apóstol Santiago* (México, 1699) liburuan datozen zatiei esker ezagutzen dugu Zubiaren katixima (apud Mirxelena, HLV, 65, 10. oh.). Betolaza, Kapanaga, Zubia eta Arzadunen doctrinez ik., besteak beste, Altzibar 1992, 40 eta ond.

(84) “Más adelante, una provisión fechada a primeros de 1608 de don Antonio Venegas de Figueiroa, obispo de Pamplona, asegura que la doctrina se ha hecho imprimir en vascuence y en las demás lenguas que se usan en este obispado”, Mitxelena, HLV, 63.

(85) Cf. S. Insausti, 1958, “El primer catecismo en euskera guipuzcoano (?)”, BAP 14 (78-83).

(86) *Bouqueta Lore Divinoena bereciac eta Duronea apezat Aita Materren liburuari emendatuac*, Baiona, 1693. Urquijoren liburutegian bada ale bat.

(87) Katixima hau erabilia izan zen Baionako elizbarrutian, zeren Jean d'Olce Baionako apezpikuaren baimena baitarama, 1655ekoa (Laborde 1925, 9, 3. oh.).

(88) Rementeria-k dioenez, “[...] edozenbat debozio-liburutan ere agertzen da Kristau Ikasbidea, haien zati bat bezala; eta, alderantzik, Kristau Ikasbide asko debozionario batez osatua agertzen zaigu” (1975, xx). Bigarren aukera honen adibide Materreren katixima da, batez ere 1693ko edizioa (h.d. Duroneak gehitutakoak dakartzana).

(89) Cf. Vinson-en faksimile ed. (Donostia: Hordago, 1978; lehenengoa: Chalon-sur-Saône, 1910). Ikuvin Vinson-en “Avertissement” (ii) eta “*Dotrina Christiana*” (94 eta ond.).

(90) *Doctrina Christiana Bayonaco Leoni illustrissimo eta reverendissimo Ipizpicuaren manuz bere diocesaco eguna. Bayonan, Antonio Fauvet, Gure imprimatçaillea baithan.* 36 orrialde baino ez ditu (in-4º) eta mende amaierakoa izan behar du zeren Léon de Lalanne 1688-1700 bitartean izan baitzen apezpiku (cf. Laborde 1925, 10 eta oh.).

tzainak adierazten du apaizek eta herritarrek aspaldidanik zutela doctrina hau eduki-tzeko gogoa.⁹¹

6.5. Katixima Oloroeko elizbarrutian

Frantziako hegomedebaldean, Oloroeko elizbarrutia protestanteen Erreformaren eraginpean sartu ziren lehenetakoia izan zen. 1539-1555 bitartean Gérard Roussel —Calvin-en laguna— dugu gotzain. Nafarroako Margaritak, Albret-eko Henri II.aren emazteak, ezarri zuen apezpiku. Haurren heziketak asko kezkatzen baitzuen, Calvin-en antzera, katixima bat idatzi zuen (*Familière exposition du simbole, de la loy et oraison dominicale, en forme de colloque*), 1550ean Sorbonne-k gaitzetsia (Laborde 1925: 7-8).

Zuberoan ere protestanteek hartu zieten aurre katolikoei: Jakes Buztanobi zuberotarrak 1626 eta 1631k mugatzen duten tarteko urteren batean argitara zuen egun galduzat jotzen den euskal doctrina bat.⁹²

Katolikoez den bezanbatean, Trentoko Kontzilioaren ezarpena berandu gertatu zen elizbarrutian. Ez zen bertan dotrinarik agertu eta aldameneko elizbarrutietako liburutxoak erabili ziren, ziurrenik (Laborde 1925: 10). XVII. mendearen amaieran agertzen dira bertan bereziki erabiltzeko idatzitako lehenengo katiximak (1686koa eta Belapeirerena hain zuzen). Bestalde, *Catechisme laburra* (1696) zuberotarrentzat idatzia da, ez elizbarruti osoarentzat. 1706koa, Joseph de Revol gotzainarena, da Oloroen lehenengo elizbarruti-katixima.

6.5.1. Charles de Salettes-en ordenantzak (1686). Parrokia-eskolak

F. Charles de Salettes gotzainak sinodora bildu zituen 1686an bere apaizak. “Il y publia, sous forme d'*Instruction*, une ordonnance synodale, où l'on traite des vertus et des devoirs du prêtre, soit dans la vie privée, soit dans les fonctions de son ministère” (Menjoulet II, 317). Ehun orrialde ditu agiri luze honek, eta lau zatitan dago egitura-tuta.⁹³ “Des Ecoles” kapituluan (*tit. 2, chap. 5*) beren parrokietai eskola publikoak ezarrazteko agintzen die apaizei; haietan, irakasleak ikasleei nagusiki kristau dotri-

(91) “Hartacotz manatcen tugu ertor eta Bicari guciac, eta ganneratico gure autoritatiaren pian populien instrucioniaz cargatiac direnac, catichima haur choilqui, eta berce guciac utziric, eracax edo eracaxaazi deçaren [sic] parropietan eta herietan, eta hori eguinenei da hanbatenaz guehiago fruturequin, cenbatenaz baita desiratia aspaldian arçainez eta populiez” (164).

Darabilgun alea Bonaparterena zen eta egun Chicagoko Newberry Library-n da. Gasteizko Filologi eta Historia Fakultatean den mikrofilmeaz baliatu gara. Collins-en katalogoa 1297. zenbakia darama. Aleak hasierako lau orrialdeak falta ditu, baina Vinsonek deskribatzen duen 1786ko edizioari dagokio (cf. Vinson-Urquijo 60. c), itxura guztien arabera. Bestalde, Collins-en katalogoa 1298. zenbakia ere katixima bera da (hau ere 1786koa).

(92) P. Urkizuren arabera (1989, 36-37), “bere euskal doctrina hura, xubereraz inprimaturako lehera izango zena, seguruen, ez da oraingoz inondik agertzen, edo hobe esan, ez guk, ez Haag, frantses protestantismoaren ikerle handiak [*La France protestante*, 2. arg., Paris 1886] ez dugu inon bere urratsik aurkitu”.

(93) Titre I “Des Devoirs des Curés, Vicaires & autres Ecclesiastiques, envers Dieu, & eux-mêmes” (1-22), II “Des Devoirs envers leurs Parroissiens” (23-70), III “Des Devoirs des Curez Envers leurs Egli-ses” (71-80), IV “De Plusieurs Chefs Importans qui concernent la Discipline Ecclesiastique” (81-100). Pabeko Udal liburutegian den aleaz (Ee 2655) baliatu gara.

na irakatsiko die. Beste kapitulu batean (*tit. 2, chap. 1*) agintzen da apaizek igandero egin beharko dutela pronoa, eta igande eta festetan doctrina irakatsi. Bestalde, astean zehar ikasitako doctrina esanaraziko diente apaizek haurrei. Cf. Belapeireren 1693ko maiatzaren 27ko ordenantza, *Catechima laburra*-ren hasieran.

Hurren erlijio heziketa apaiz eta maisuen eginbeharra izan zen, bada. Katiximaren hartzaleak haurrak eta zerbitzariak ziren, batez ere. Gotzainek apaiz eta maisuak elkarlanean jarri zitzuten, haurrek meza eta gainerako kristau ekintzetan parte hartzeko gutxieneko gaitasuna izan zezaten. Pronoan eta dotrinan eskainitako irakaspennak eskolan osatzen ziren, zuzenean, katixima irakasten baitzen, eta zeharka, eskola hauen izaeragatik.

Izan ere, “petites écoles” direlakoetako maisuak elizak ezarritako zenbait baldintzaren pean arituko dira:⁹⁴ erlijio katolikoaren ekintzekiko errespetua bultzatuko dute ikasleengan (Bp I, 168); mezetara, prozesioetara joaten erakutsiko diente (Bp I, 10); elizan direnean jokaera eredugarria izango dute maisuek. Erlijio heziketari garbiro lotzen zaizkion ekintzez gain (meza, otoitzak, aitortza,⁹⁵ jaunartzea), irakurketa eta idazketa lantzen ziren, baina hauetan ere erlijioaren inguruko adibideak eskaini behar zizkien irakasleak (François de Revol-en ordenantzteran hala agintzen da XVIII. mendean; cf. Bonetti 1986: 118). *Catechima laburra*-ren hasieran datorren ordenantzian garbi adierazten du Belapeirek eskola hauen izaera:

Enfin qu'en toutes choses, ils travaillent avec plus de soin à leur avancement spirituel, qu'à l'étude des lettres (Bp I, 10).⁹⁶

Irakasleek eliz-agintarien onespena behar zuten izan. Eta apaizek, eta bereziki zinegotziek, bultzatu behar zuten eskola hauen ezarpena. Eskola hauetan herritarrek ordaindu behar zitzuten eta, batez ere, katolikotu berriak (“nouveaux convertis”) zeuden herrietan bultzatzea komeni zen, kalbinismoari aurre egin behar baitzitzaien. Zuberoan Pierre de Chamalbide, promotorearen ordezkoa, da Belapeirek emandako ordenantza (1693-05-27koa) bete dadin ahalegindu behar dena. Sohütan ez da oraindik eskolarik ezarri eta Chamalbidek Jacques d’Aroix zinegotzi eta diputatuari ezar dezatela agintzen dio:

néammoins ledit Jurat ni ses successeurs n'ont tenu aucun conte d'y obéir, non plus que ceux de diverses autres Paroisses dudit pais (Bp I, 13-14).

(94) Iku *Catechima laburra*-n datorren “Proffession de Foy” (I, 176), irakasleok egin beharreko zina, Eliza Katolikoaren barrutitik sahesten den doctrina oro (bereziki Luther era Calvin-enak) gaitztersiz. Gainera, beren lanean jarraitzeko urtero lortu beharko dute Elizako agintarien baimena (Bp. I, 10).

(95) “Quand les Enfans doivent preparer le Sacrement de Confirmation, les Regens les y doivent preparer par des instructions particulières, & les mettre en état de repondre sur le Catechisme precedent. Ils doivent aussi instruire particulierement sur le Baptême, dont ce Sacrement confirme la grace, & puis leur apprendre ce que c'est que la Confirmation” (*Catechima laburra* I, 175).

(96) Cf. Lebrun 1980: “Cette esquisse [La Rochelle-ko apezpikuaren 1710eko gomendioetan agertzen dena] des devoirs d'un bon maître n'évoque que la seule instruction religieuse. [...] L'apprentissage de la lecture et de l'écriture pour elles-mêmes est non seulement accessoire, il peut être dangereux, si par exemple curés et maîtres ne prennent garde à ce que leurs élèves ne lisent pas chez eux de mauvais livres, tels que seraient, précise l'évêque de La Rochelle, des livres hérétiques ou des livres déshonnêtes, comme romans, comédies et semblables [...]” (165).

Arazoak izan ziren, bada, eskola hauen sortzean. Ziurrenik, parrokiek ez zutelako bere gain hartu nahi irakaslea izateak zekarren zama ekonomikoa. Dena dela, notario aktetan eta ezkontza erregistroetan, sinatzen dakitzen kopurua handituz doa XVII eta XVIII. mendeetan Zuberoan, Bonetti-ren arabera.⁹⁷ Eta alfabetatze maila hazkor horrek erakutsiko luke jendea eskoletarra joaten zela. Beraz, katoliko zahar eta berriek beren erlijioaren oinarrizko egien ezagutza lortzeko aukera izan zuten eskoletan.⁹⁸

6.5.2. Oinarrizko ikasketak Frantzian XVII. mendean

Herriaren alfabetatzearen eta eskolaren historia Erreforma / Kontra-Erreforma borrokari loturik azaldu behar da. Erreformazaleak izan ziren aitzindari, baina katólikoak azkar asko jarraiki zitzaitzien.

Erreformak irakurtzen jakin beharra plazaratzen du, ahoz-ahoko hedapenaren ordez, norberak Liburura zuzenean jo beharra. Beraz, jendea eskolatzeko, Erreformazaleek eskolak sortzen dituzte. Inprintak liburua demokratizatu egin du, eta irakurketa eginbide espirituala da. Handik hara idatzia nagusitzen da mundu modernoan.⁹⁹

Katolikoek ere parroquia-eskolak ezartzeari ekingo diote (cf. Sauvage I, 453-487). XVII eta XVIII. mendeetako estatutu eta ordenantzetan eskolak behin eta berriro aipatzen dira. Haurrarengan gaitza ongia baino errazago sustraitzen dela azpimarratzen da, eta baita haurtzaroan jasotako irakaspenen garrantzia ere. Bi helburu gurutzatzen dira: haurrarengan ortodoxia katolikoa sartzea eta, manu bakunetz osatu morala barneratuz, gizarte jokabidea arautzea (gurasoekiko begirunea izaten irakatsi, gaitzari ihes egiten, ohitura garbiak izaten, etab.).

Eskolak Elizaren mendeko dira. Zein da, ordea, Estatuaren jarrera? Monarkia ez da eskolez arduratzen. XVI eta XVII. mendeetan, haren egiteko bakarra heresiaren aurkako borrokan katolikoen alde agertzea izan zen. Azkenean Baliogabetze Ediktuaren 7. artikuluak eskola protestanteak debekatzen ditu. 1698ko *Déclaration* baten ondoren, intendenteek epaile bezala hartuko dute parte eskola arloan. Baino, XVIII. mendean zehar, gotzaina eta apaiza intendentea baino gehiago kezkatzen dira oinarrizko heziketaz. Badu, gainera, Estatuak eskolen aukako arrazoirik: jendea letretara bide-

(97) Cf. Bonetti 1986, I, 120-121: “[...] il semble que les régents aient difficilement accepté la pression que le corps ecclésiastique exerce sur le contenu de leur enseignement et le contrôle clérical sur leur mode de vie.

Cependant cette algarade ne paraît pas en mesure de diminuer le rôle effectif joué par les petites écoles. A la fin du XVIII^e siècle, le nombre de personnes sachant lire et écrire rapporté à celui des personnes ayant souscrit un acte notarié ou ayant signé le registre des mariages, a triplé pour les hommes et doublé pour les femmes comparativement à la situation existante au début du XVII^e siècle. Ainsi 25% des hommes signent le registre à l'occasion de leur mariage alors que 5% des femmes sont en mesure de la faire.”

(98) Lebrun-en arabera, dena dela, “si les petites écoles du siècle des Lumières ont contribué à l’instruction élémentaire des jeunes Français et, secondairement, des jeunes Françaises, il est beaucoup moins sûr qu’elles aient joué le rôle pourtant primordial, voire exclusif, que leur assignaient évêques et curés, à savoir le prolongement et l’approfondissement de l’enseignement du catéchisme” (1980, 167).

(99) “Luther rend nécessaire ce que Gutenberg a rendu possible: en plaçant l’Écriture au centre de l’eschatologie chrétienne, la Réforme fait d’une invention technique une obligation spirituelle [...] Au Moyen Age, même la culture savante est toute pénétrée d’oral; à partir du XVI^e siècle, même la culture populaire est dominée par l’écrit” (Furet eta Ozouf 1977, I, 71).

ra daiteke, Estatuaren ondasun iturburu diren nekazaritza eta merkataritzaren kaltean; irakurtzen eta idazten jakiteak gizarte hesiak ireki ditzake.¹⁰⁰

Elizak goitik behera eragiten duen bezala, hiri eta herri komunitateek behetik gorako indarra egiten dute eskolen sorreran. Oro har, XVII. mendean hirietan geratzen da eskolen ugaltze nagusia, eta XVIII.ean herrietan. Irakasleek eliz-agintarien onespena behar bazuten ere, herritarren ordezkariek egiten zuten aukeraketa, gehienetan. Eskolak ezarriko baziren, haurrei ikasketak emateko borondatea behar zen izan, goitik etorritako eskaintzari behetik etorritako eskaera gehitzea. Parroquia asko eta askotan, Zuberoan ikusi dugunez, ez dago haurrak eskolatzeko gogorik ez irakasleei ordaintzeko dirurik.

Lehen mailako eskolek ez zuten talde homogeneorik osatzen, ez baitzegoen inolako eskola-legedi baturik. Ikasketen iraupena, edukia, metodoak, irakasleen gaitasuna, e.a. aldatu egiten ziren batetik bestera.¹⁰¹ Katiximaz gain, irakurtzen, idazten eta oinarrizko ariketa aritmetikoak egiten ikas zezakeen haurrak; aipatu ikasketek hiru maila desberdin osatzen zituzten.¹⁰² Batzuek irakurtzen baino ez zuten ikasten. Nahiz eta ezagutza beretan izan oinarri, idaztea irakurtzea baino zailagoa zen, luma eta gainera-koak eskatzeaz gain benetako ariketa teknikoa baitzen (ik. Agirre 1997: 71). Salbatze-ko Jainkoaren hitza irakurtzen jakin behar zenez, herri xeheak irakurtzen ikasi behar zuen, baina ez idazten. Irakurtzea erlijioari, moralari zegokion; idaztea besterik zen.

Ordenantza eta gainerako eliz-legeetan, sexua baztertzeko ahalegin ikaragarria agertzen da: mutilek (irakasle gizon batekin) eta neskek (emakumezko batekin) gela desberdinetan ikasi beharra nahitaezko baldintza da; etxean neska-mutilek ezingo dute elkarrekin lo egin, ez eta gurasoekin ere; etab. Bestalde, nesken eskolatzea bigarren mailakotzat jotzen denez (irakurtzen ikastea nahikoa dute), mutilak dira ikasteko aukera duten bakarrak eskola bat baino eskain ez dezaketen herrietan.¹⁰³

(100) “[...] nombreux sont les administrateurs —intendants notamment— qui, se faisant l'écho de la pensée des Lumières, dénoncent l'inutilité et le danger de l'instruction élémentaire des classes populaires” (Lebrun 1980, 166).

(101) “La prépondérance de l'enseignement religieux et le contrôle constamment exercé par l'Eglise représentent le seul facteur d'unité. Dans la plupart des écoles, les régents pratiquent une méthode individuelle dont l'emploi est légitimé par le rassemblement d'élèves d'âges différents, l'irrégularité de la fréquentation scolaire et la rareté des manuels. [...].”

Tandis que les maîtres ecclésiastiques reçoivent une initiation pédagogique dans les noviciats des congrégations, les laïcs se bornent généralement à effectuer un stage pratique auprès des régents qui les ont formés” (Léon 1967, 45).

(102) Ikerrek aurreratuenek latin pixka bat ere ikas zezaketen, ikastetxeetarako igarotzea errazteko. Dena dela, kontuan izan behar da, garai hartan, aipagai ditugun eskolak eta ikastetxeak ez zirela prozesu beraren bi maila, zeharo bereizita zeuden bi mundu baizik. “Petites écoles” direlakoetan oinarrizko ikasketak osatu zituenak ez zuen ikastetxeetan ikasten jarraitzen.

(103) “Les objectifs de l'enseignement élémentaire tendent cependant à se laïciser et, au cours du XVIII^e siècle, plus particulièrement après 1750, quelques moyens de formation technique s'offrent, dans les villes, aux anciens élèves des petites écoles” (A. Léon 1967, 46).

Aipamen berezia merezi dute Jean-Baptiste de la Salle-ren eskolek: ikasketa bereziak jasotzen dituzte irakaslegaiek, egun osoan jardungo dute irakasten, ikasle talde homogeneoek irakaspen bera jasotzen dute elkarrekin (ez banaka banaka), etab. Ikerlek kristau on bihurtu eta salbatzen laguntzea da xedea, baina “déjà, l'accession des pauvres à la lecture et à l'écriture est plus explicitement pensée en termes d'insertion sociale, et de bien public” (Furet eta Ozouf 1977, 93).

6.5.3. Belapeireren katixima (1696)

Zuberoan apaiz gehienek beren betebeharraak egiten ez dituztenez,¹⁰⁴ Belapeirek 1693-05-27ko deklarazioa (frantses idatzia) eta 1695-10-20ko ordenantza (euskaraz idatzia) ezartzen ditu, eta *Catechima laburra*-ren hasierako orrialdetan argitartzen, apaizei beren eginbeharraak gogorarazteko. Belapeirek berak idatzitako doctrina erabili beharko dute apaiz zein irakasleek. *Catechima laburra* euskaraz idatzi du (“en langue Basque, vulgaire du présent pays”) Trentoko Kontzilioaren ildoari jarraituz (“Concile de Trente, sessio 5. cap. 2 & sess. 24. cap. 4 et 7”). Belapeirek agintzen die “Herri hontaco erretor, edo Vicari orori, Jesus-Christen doctrina uscaraz eracax eta enthelega eraci diecen bere Parropiacoer”. Apaizek aurretik prestatu beharko dituzte erakutsi beharrekoak, besteak beste, “amorecatic uscaraz onsa ecin minçatciaren penac guibel” ez ditzan lan horretatik.

1693ko martxoaren 10eko hilburukoan, Belapeirek adierazten du bere euskal dotrinari ez ziola Oloroeko apezpikuak (Charles de Salettes) baimena sekula eman nahi izan, bien arteko arazoak zirela medio.¹⁰⁵ Gotzainaren eta ofizialaren arteko borroka areagotu egin omen zen Belapeirek euskaraz idatzitako doctrina aurkeztu zueean.¹⁰⁶ Azkenean, 1696an inprimatu zuten, gotzainaren onespenik gabe: ez dauka *Catechima laburra*-k izenburuan ohikoa zen “X apezpikuaren manuz” (frantses, “par le commandement de Monseigneur [...]”, “par l’Ordre de Monseigneur [...]”) edo antzekorik; ezta katiximen hasieran ezarrria agertzen den gotzainaren mandement-a ere. Gorago aipatu denez, Pierre de Chamalbide eta beste apaiz zuberotar batzuk bultzatu zuten Belapeire katixima idaztera (Laborde 1925: 15-16).

1693rako idatzia zuena *Catechima*-ren lehenengo partea zen: kristauak sinetsi, eskatu, egin eta hartu behar dituenak, hots, dotrinaren oinarrizko irakaspeneren azalpena. Bigarrena, festa nagusiez ari dena, 1695aren urrian prestatzen ari zen oraindik. Izan ere, *Catechima laburra*-ren hasieran datorren 1695eko ordenantzian, ondokoa idatzi zuen Athanasek:

[21] [...] gomendatcen dericiegu cerbutcha citeyen, cien urgazteco eta concien arhinceco aguer dericiegun Catechisma labur honçaz, çoin onhezten baducie, agüian horrec gogaturen gutu emaitera herri honi, çonbait besté lan, haren hobena gatic adelatcen duguna, Ginciac [22] hala nahi badu, Besta saintietan gaignen.

(104) “[...] la pluspart des Curés dudit pays obmettent toujours de répandre ces consolations salutaires à leurs peuples, parce qu'ils n'ont jamais eu le soin de faire établir des Maîtres d'Ecole dans leurs Paroisses, pour disposer d'avance les enfans chaque semaine d'apprendre le Catechisme, distribué pour le Dimanche en suivant, pour le reciter publiquement dans l'Eglise” (Belapeire I, 8).

“[...] bihotz min handi bateki ikhousten dugu, batciec [hau da, apaiz batzuek] bekhan eta herabereki Catechima eracasten diela, eta bestéc eztiala hora behinere aipatzen” (Belapeire I, 19).

(105) Apud Clément-Simon 1894-1895, 212, 3. oh. 1693ko maiatzaren 27ko *Declaratio-an*, idatzi duen katiximaz ari da Belapeire: “... la connaissance de ses Saints Mysteres, compris au Catechisme du présent Diocese, que nous avons composé en langue Basque, vulgaire du présent pays” (Bp I, 8-9).

(106) Bonetti-ren hitzetan, “l'opposition est accentuée en 1686 par le fait que le vicaire général présente un catéchisme en langue basque” (1986, 141). 1686an? Ordurako Belapeirek katiximaren lehenengo partea idatzia ote zuen? Bonetti-k, bestalde, ez du iturririk aipatzan.

Aurretik izan zen beste euskal doctrina bat Zuberoan. 1695eko ordenantzaren berrian, Zuberoako apaiz gazte batek (“bere lanian icena gorde diana” I, 21) euskarara itzulitako *Catechima* (1686) aipatzen du Belapeirek, apaiz zuberotar gehienek gaitzetsia. Ofizialaren ustez, autoreak huts asko egin ditu hala doctrina azaltzerakoan, nola euskara erabiltzean.¹⁰⁷

6.5.4. Joseph de Revol-en katixima (1706)

Laster ordezkatu zuten *Catechima laburra*,¹⁰⁸ gotzaingora igo berria zen Joseph de Revol-ek Oloroeko barruti osoan erabiliko zen lehenengo kristau ikasbidea argitaratu baitzuen 1706an.¹⁰⁹ Berak idatzi zuen, herritar gehienek ulertzen ez zuten frantsesez, eta euskara eta biarnesera itzularazi (Menjoulet, II, 335-336). Euskal itzulpena Jacques Maytiekin¹¹⁰ egin zuen, Oloroeko katedraleko kalonje eta Zuberoako bikario jeneralak.¹¹¹ Euskarazko itzulpenerak ondoko izenburua du (apud Vinson-Urquijo, 142):

Catechima / Oloroeco Diocezaren / cerbutchuco / ecinago Ylustre eta oboragarri / Messire Joseph de Revol hanco / Aphezcupiaren manuz eguna. / Eta Zuberoa herrico uscadunen / amorecatic uscarala utzulia Messire / Jacques de Maytie Oloroeco Calon- / giaz eta hanco Vicari Generalaz / {Pauven}, Jérôme Dupoux, 1706. [In-12]

(107) Vinson-ek (41) doctrina hau Belapeireren aipamenagatik bakarrik ezagutzen du. Biarnoko moldiztegiaren historia idatzi zuen Louis Lacaze-k eta Xavier Lavagne-k aurkitu ahal izan duten katiximariak zaharrena *Catechima laburra* da (cf. Lavagne 1980).

(108) “J’ai entendu dire [idatzen du Vinson], mais je n’ai pu vérifier le fait, que, dans l’édition originale du *Catéchisme* de Revol (n° 44 ci-après), il se trouve une défense expresse d’enseigner celui de Belapeyre” (Vinson-Urquijo, 142).

Joseph de Revol apezpikuaren 1706-9-13ko ordenantzari, katiximaren aurretik doanari, hasierako orrialdea(k) falta zai(zki)o Bonaparteren alean (cf. beherago). Gorde diren bi orrialdeetan ez da halakorik irakurtzen. Bestalde, ordenantza hau Joseph de Revol-en 1712ko ordenantza-bilduma inprimatuaren agertzen da (Paben, Arch. Dép., bada alea). Vinson-ek irakurri zuen eta beste zati bat eskaintzen du (Vinson-Urquijo 420-421) eta bertan apezpikuak argi uzten du bere katixima izango dela eliza eta eskoletan irakatsiko den bakarra.

Edozein gotzainek kristau-ikasbide berria plazaratzen duenean, hori, eta ez besterik, irakats dadin nahi du. François de Revol-ek, esaterako, 1743 inguruan berea (Vinson 44. b eta ond.) argitaratu zuen, ondokoa idatzi zuen *Mandamentia-n*: “Hartaco gincocaren icen saintia invocaturic, enthelegatcen dugu Diocesa hontan goure Catechima baicic ezuela eracaxia içanen [...]”.

(109) “L’evêque voulait que chaque enfant eût son exemplaire. Il réunissait les élèves des diverses écoles de la ville épiscopale et établissait comme un concours sur le catéchisme; il agissait de même dans ses tournées pastorales et donnait des récompenses à ceux qui avaient le mieux répondu. Les curés devaient lire chaque dimanche au prêtre un chapitre du catéchisme et les maîtres d’école devaient faire réciter ce manuel” (Laborde 1925, 19).

(110) Arnaud-François de Maytie gotzain izandakoaren iloba txikia zen Jacques Maytie, bere amaren aldetik. Bere bi anaia ere katedraleko kalonje ziren. Beren benetako abizena Hegoburu zen (Atharratzeko familia ezaguna), baina aita Mauleko Maytie etxearen jabe zenez, Maytie deitura hartu zuten. Jacques Maytie teologian doktore zen; Añharbeko priore, kalonje eta Zuberoako bikario jeneralak izan zen.

“Il jouissait de toute la confiance de Mgr. de Révol, mais il y eut plus tard quelques nuages entre eux à propos d’un nouvel office de Saint-Grat que l’évêque voulut imposer. Les trois chanoines de Maytie, avec quelques autres membres du Chapitre, firent une longue opposition à cette réforme liturgique [...]” (Laborde 1925, 18).

(111) “On voit qu’il [Joseph de Revol-ek] avait rétabli la *chancellerie ecclésiastique* de Mauléon, supprimée par M. de Salettes” (Menjoulet, II, 336, oh.).

Ezagutzen zen ale bakarraren jabeari, Bonaparte printzeari, argibideak eman izana eskertzen dio Vinsonek. Ale hori, Bonapartek bildu liburu asko bezala, Chicagoko Newberry Library-n da.¹¹² Gasteizko Filologi eta Geografi-Historia Fakultatean bada horren mikrofilme bat.¹¹³ Xabier Lavagne-n arabera (1981: 47) bada bigarren ale bat ere; honen kokalekua ondokoa litzateke: "Troyes, Bibliothèque Municipale, T 5020". Egun ez da ezagutzen lehenengo edizioko biarnes eta frantses alerik.

Lavagne-k (1981) biarnesezko beste bi edizio (1707 eta 1711) eta frantsesezko beste hainbeste (1713 eta 1727) aipatzen ditu.¹¹⁴ Euskal katiximak ere izan zuen, gutxienez, beste edizio bat, Vinsonek bakarra ezagutzen bazuen ere. Jérôme Dupoux berak argitaratu zuen 1723an, Joseph de Revol zelarik gotzain. Lavagne-i zor diogu honen berri jakitea:

Catechima Oloroëco diocezaren cerbutchuco,... Messire Joseph de Revol hanco apezcupiaren manus equina. Eta çuberoa herrico uscaldunén amorecatic uscarala utçulia Messire Jacques de Maytie Oloroëco calongiaz eta hanco vicari generalaz. - Pauven: Jérôme Dupoux, M.DCCXXIII. - In-12.

[Alearen kokalekua]

(Dublin, Trinity college library) (1981: 57).

Katiximaren itzulpenek Oloroeko elizbarrutian ziren hizkuntz arazoen berri eskaizteko bide ematen digute. Gorago aipatu dugu apaiz zuberotarrek beren egin-bideak euskaraz egiteko duten zaitasuna. Baino bada bestelako arazorik ere. De Revol apezpikuak, kanpotarra izanik, ez daki ez euskara ez biarnesik.¹¹⁵ Garai honean frantsesa da goimailako elizgizonek darabilten hizkuntza: gotzainek ordenantzak

(112) Bonaparte hil eta gero berak bildutako liburuekin gertatu zenaz, ikus Arana Martija 1989, 21-22.

(113) Bonaparteren liburuak saltzeko Victor Collins-ek egindako katologoa (1894) ondokoa irakurtzen dugu:

"1295. [CATECHIMA] Oloroeco Diocezaren cerbutchuco ecinago Ilo. eta ohoragarri Messire Joseph de Revol hanco Apezcupiaren manuz equina. No place, 1706. 8vo, vellum.

The title and several other pages have been restored in manuscript. From the fragments of another copy I have added, as far as possible, complete leaves for those restored, without, however, removing the latter" (64).

Beraz, Bonaparte printzeak ale bat eta beste baten zenbait orrialde zituen (hamarren bat edo, mikrofilmean ikusten denez). Egia esateko, ez dakigu orrialde solteak alearen edizio berekoak diren, hots, konposizio tipografiko berari dagozkion. Ezetz esango genuke; baina hala balitz bi edizioek antzekotasun ikaragarria lukete: orrialdeak ez ezik lerroak ere hitz berarekin hasi eta bukatzen dira, oro har (salbuespna: 28. orrialdeko 2-7 lerroak dira). Badira, bestalde, desberdintasunak: 28 *Jesusen* (or. soltean) / *Jesuzen*, 28 *Personnari* (or. soltean) / *Personari*, 31 *bil onduan* (or. soltean) / *bil cen landan*. Dena dela, antzekotasun dela eta, ezin dugu oraingoz guztiz baztertu edizio berekoak izatea eta gaztelerez *variaciones de estado* deitzen direnak egotea (cf. J. Moll 1979).

(114) 1707ko biarnesezko alea: Dublin, Trinity college library; 1711koa: Troyes, B.M., T 5021. 1713ko frantsesezko alea: Dublin, Trinity college library; 1727koa: Troyes, B.M., T 5022. Denak in-12 eta Jérôme Dupoux-eanen inprimatuak (aipatu den azkenak semearen izena darama: Jean Dupoux).

(115) 1706/09/13ko ordenantzan zera dio apezpikuak: "[...] Dieu n'ayant pas voulu que nous eussions la consolation de pouvoir instruire une partie de nos Diocessains desquels le langage Nous est barbare, et ausquels le notre l'est peut être aussi [...]" Kontuan izan behar da Joseph de Revol etorri berria zela. Poitiers-go bikario jeneralena zen Oloroeko gotzain izendatu zutenean. 1706ko apirilean sartu zen Oloroen (Laborde 1925, 17).

nahiz manamendua frantsesez idazten dituzte;¹¹⁶ frantsesa darabilte Belapeireri bidali gutunetan Maytie kalonjeak eta Maytie apezpikuak, eta Omizegañiako apai-zaren senideak (ik. 4.3, 4.4 eta eransk.). Baino herritar gehienek ez dakite frantsesik.¹¹⁷ 1706ko dotrinaren hasieran datorren ordenantzian (1706-09-13), apezpikuak ondokoa dio:

[...] notre presente Ordinance, de laquelle ils feront la lecture dans le Prone de la Messe Paroissiale de leurs Eglises [...] ou en expliqueront la substance à ceux qui n'entendent pas notre langue.

6.5.5. François de Revol eta Oloroeko dotrina eraberritua

1743aren inguruau, François de Revol-ek¹¹⁸ (1742-1783 bitartean Oloroeko gotzain izan zenak) 1706koa berritz (zenbait galdera kentzen dira, beste zenbait ordezkatzen, ordena aldatzen da, beti ere erraztasuna bilatuz) kristau-dotrina berria inprimarazten du. Frantsesez, euskaraz eta biarnesez agertu zen liburua. Euskal itzulpenaren izenburua ondokoa da: *Catechima Oloroeco diocesaren cerbutchuco Ioseph de Revol, hanco Apphezcupiaz eguna, emendatia eta berris imprimatia François de Revol, Oloroeco Apphezcupiaren manuz* (In-8o, Vinson 44.b).¹¹⁹ Lehenengo edizio honetaz gain, besterik ere izan zen François de Revol gotzainaren agintaldian: 1746koa (In-8o, Vinson 44.c) eta 1770eko bi (biak in-8o: Vinson 44.c.d —Urquijok bazuen— eta 44.d); 1788. urtea dakarren edizioa (in-8o, Vinson 44.f) 1778koa dateke (ikus Vinson-Urquijo 420).

J.-B. Auguste de Villoutreix de Faye gotzainak (1783-1792) bere aurrekoaren dotrina bere hartan hartu eta inprimarazi zuen, izenburua bakarrik aldatuz, François de Revol-en 1743ko “mandamentia” ere katiximaren hasieran gordeaz (Laborde 1925: 22). Frantziako Iraultzaren aurretik atera zen edizioa: zehazki zein urtetakoan den ez dakigun *Catechisma Oloroeco diocesaren cerbutchuco berris imprimatia Joanne-Baptista-Augusta de Villoutreix de Faye, Oloroeco Apphezcupiaren manuz* (Vinson 44.e: “de 1784 à 1787”; “je ne connais aucun exemplaire”).

(116) Aipagarria da Belapeirek frantsesez idatzi 1693ko ordenantzaren edukia 1695ekoan, oraingoan euskaraz, errepikatzea.

(117) Herritar gehienek beren hizkuntza bakarrik dakitela itzultzen dira eliza liburuak euskara. Maister-ek, *Jesu-Kristen Imitacionia* itzulpenean (1757), François de Revol Oloroeko gotzainari zuzendutako sarreran honela dio:

“Eta noula çoure carguian, eta escupian den diocesesaren pharte-batec ecin escola houn hoyetaric ajuturic ukheiten beitcian, bere sortcepeneo lengouagia baicic etçakialacoz: hartacoç hanco içalec ere, bes-tec hebentic idokitzen dutien abantalletaric, ukhen lecen pharte, hen uscarala utçuli içan den librugnou hau [...]” (iii-iv).

Notari-aktek erakusten dute hirutik batek ez dakiela frantsesez hitz bakar bat ere: “Le notaire qui a rédigé le testament en français écrit à la fin de l’acte *le luy ay lu et relu ainsy que traduit ou ay fait lecture en basque*” (Bonetti 1986, 114).

(118) Joseph de Revol gotzain izandakoaren iloba txikia zen François de Revol-ek euskara eta biarnes pixka bat ikasi nahi izan omen zuen, ikustaldietan haurrei katiximari buruzko galderak egiteko adina (Laborde 1925, 21).

(119) “Je ne connais de cette édition, si c'est bien elle, qu'un exemplaire très incomplet” (Vinson). Lavagne-k (1981, 64) ez du aipatzten alerik.

Iraultzan katixima asko eta asko erre egin zituzten. Concordat-en Loison Baionako (h.d. Frantziako Iraulta aurreko elizbarrutiak elkartuz sortutako Baiona, Lescar eta Oloroeko elizbarrutiko) gotzainak elizbarruti zaharretan aurretik erabili katiximak irakasten jarraitzeko agintzen du. Baino, Napoleon-ek behartua, Loison-ek *Catéchisme de l'Empire* delakoa ezartzen du elizbarrutian (1807). Imperioa bukatu ondoren katixima zaharretara itzultzen dira. Michel Cluzeau Baionako inprimatzialeak Villoutreix de Faye-ren edizioak berrargitaratzeko baimena lortu zuen. Baino baime-nik gabeko argitaralpenak ere jalgiz ziren:

Il y eut d'autres réimpressions, faites sans autorisation de l'autorité ecclésiastique, à Limoges et à Toulouse, et deux libraires d'Oloron mirent en vente des exemplaires antidatés, paraissant ainsi appartenir à un ancien stock et firent concurrence à Cluzeau, imprimeur de l'Evêché (Laborde 1925: 24).

Vinsonek azken urteetako hiru euskal edizio aipatzen ditu. Bi lehenengoek 1788ko data daramate: Vinson 44.g (Urquijok bazuen; Tolosan inprimatu eta Oloroeko Supervielle-k saltzen zuen) eta Vinson 44.fg (Vinson-Urquijo 420); "les deux éditions sont certainement antidatées".¹²⁰

Hirugarrena Tolosan A. Hénault-ek inprimatua da (Vinson-Urquijo 44.h; Urquijok bazuen). Urquijok dioen legez, Oloroeko dotrinaren edizio guztietatik ale gutxi iritsi zaizkigu, eta, gainera, aurkitu direnek orrialdeak falta dituzte (Vinson-Urquijo 144).¹²¹ Parisen badira bost ale: "Cinq exemplaires du *Catéchisme Oloroeco* de Joseph de Revol, sans date, figurent à la Bibliothèque nationale, sous les cotes Z basque 551 à Z basque 555" (Lavagne 1981: 47).¹²²

(120) Lavagnek 1788ko ale bat aipatzen du: "un exemplaire, de format in-12: Bayonne, Grand séminaire" (1982, 11).

(121) Julio Urquijoren liburutegian bost ale daude (parentesi artean egungo signaturak): 1770eko ediziokoa, Vinson 44.c.d (J.U. 4774); 1788ko ediziokoa, Vinson 44.g (J.U. 4775a); Tolosan A. Hénault-ek inprimatutako bi edizioren ale bana, datarik gabeak: bataren izenburua Urquijok eskaintzen du (ik. Vinson 44.h) (J.U. 4775b); besteak (J.U. 5265) liburuarela eta 119. orrialdea, azkena, falta ditu, baina izenburua ondokoa zuen:

Catechisma / Oloroeco Diocezaren / Cerbutchuco / Berri imprimatia Jouanne-Baptista / Augusta de Villoutreix de / Faye, Oloroeco appezcupiaren manus / A Toulouse, / De l'Imprimerie d'Augustin Henault, / près les Changes.

Aipatzen dugun izenburua Bonaparterena zen aletik jaso dugu (ale oso hau egun Newberry Libraryn da; Collins 1894, 1296. zenbakia). Chicagotik Gasteizko fakultatera bidalitako mikrofilmetik ateratzen kopia erabili dugu erkaketak egiteko.

Bosgarren aleari (J.U. 6763) hasierako orrialdeak (izenburuarena eta François de Revol-en mandamentuan hasierakoak) era 76. orrialdetik aurrerakoak falta zaizkio, eta, edizio bereko beste alerik ikusi ez dugunez, ezin esan zein ediziorti dagokion. Alean eskuz idatzia agertzen den susmoak ez du balio; izan ere, 1743koa ote den dio Revol-en mandamentia dakarrelako, baina testu hau edizio guztiak dakkarte, baita Villoutreix de Faye gotzainaren pean argitaratuek ere. Edizio zaharreko dela frogatzeko izan daiteneke beste biderik: kontuan izan behar da edizioetan inprimatze hutsak gehituz doazela dirudiela, eta honek ez duela hainbeste huts (dotrinaren testuaren hasieran datorren izenburua ondo ezarria daraman ale bakarra da, bosten artean: *CATECHISMA / OLOROECO DIOCESACOUA. / CHRISTIEN EXERCICIOUAC*; bestalde, s altxatua erabiltzen da grafiaz den bezanbatean (ikusi ditugun katixima honen 1788tik aurrerako edizioetako aleetan s borobilera idazten da ingurune guztietan). Ikerketa zehatzagoa eskatzen dute, jakina, ale hauek. Eta egun diren gainerakoekiko erkaketa.

(122) Biarnes eta frantses edizioez cf. Vinson-Urquijo 145 zein 562 eta Laborde 1925, 21 eta ond. Bonetti-k Paben (Arch. Dép.) den 1788ko frantsesezko ale bat darabil (1986, 8).

1820an Baionako gotzain aukeratua izan zen Mgr d'Astros-ek, elizbarrutiko dotrina zaharrak baztertu eta 1823an argitaratua ezarri zuen dotrina bakar (Vinson-Urquijo 145).

6.6. *Catechima laburra*-ren egitura eta edukiaz

Belapeireren katiximaren lehen zatia (dotrinaren azalpena) ez da izenburuak adierazten duen bezain laburra. Garaiko frantses katixima mailakatuekin alderatuz gero, erdi mailako luzera eta zailtasunari dagokio, h.d. lehen jaunartzea egitera abiatzen direnentzat prestatutako testuari. Arruntak ziren, garaian, "abrége de la Doctrine Chrestienne", "Petit Catechisme" bezalako izenburuak, baina, gehienetan, lehen zailtasun mailari ezañiak.¹²³

Liburuak bi parte dauzka (aurrerantzean I eta II); bakoitzak bere izenburua darama.

I.

Izenburua (I, 1); Belapeireren 1693-05-27ko "declaratio" a parrokietan ezañi behar ziren eskolei buruz, frantsesez (I, 3-11); Chamalbide-ren "imploration" a (aipatu eskolen ezarpenaren inguruan) eta Lextarreko gorteko Hegobürüren 1695-11-12ko erantzuna, Erregearen Prokuradorearen erabakia ontzat emanez, frantsesez (I, 11-16).

Zuberoako apaizei Belapeirek zuzentzen dien 1695-10-20ko ordenantza, euskaraz (I, 17-26); Pio V eta Gregorio XIII.ak Katiximaren ohoretan emandako induljentziak (I, 26-27); dotrina galdera-erantzunez (I, 28-154).

Arnaud-François de Maytie Gotzainaren 1675-05-14ko ordenantza, frantsesez (I, 155-166); meza nola lagundu behar den, frantsesez (I, 167-168); *Reponses à la messe*, apaizak esango duena eta haurrek erantzungo dutena, latinez (I, 169-175); irakasleek egin beharko duten *Profession de foy* delakoa, Eliza katolikoa onartu eta gainerakoei uko eginez, frantsesez (I, 176).

II.

Izenburua: *Catechimaren bi garren partia, besta guebienen eta Eliçaco eguinbidé saintien eçagutceo* (II, 1); Belapeireren 1696-05-2ko gutuna Zuberoako apaizei zuzendua (II, 3-6); kristau dotrina, galdera-erantzunez osatua (II, 7-134); azken oharra, Belapeirek 1696-04-02an izenpetua (II, 135-136).

Lehenengo partea

28. orrialdean hasten dira galdera-erantzunak. Kapitulutan banatzen da katixima, bakoitzaren hasieran bere edukia adierazten duen izenburua eta, askotan, eduki horri dagozkion erreferentziak daudela (esaterako, *LEHEN CAPITULIA / Gincoaz, eta mundiaren Creacioniaz. / Deut. 6. Ecles. 1. Apoc. 1.*). Berrogei kapitulu dira; azkenak ikasgai guztien laburpena dakar.

(123) Laborderen ustean, Belapeirerenak ez da haurrentzako esku-liburua, liburutegietako liburua baizik (Laborde 1925, 16). 1706ko katixima haurrentzat egokiagoa da: "Le catéchisme de Révol était vraiment le manuel populaire qu'il fallait. C'était un petit in-12 d'une centaine de pages partagées en chapitres brefs, par demandes et réponses courtes et simples. Ce livre était à la portée des enfants et ils pouvaient le mettre dans leur poche" (Laborde 1925, 19).

Bi urtetan zehar ikasteko da lehen partea, eta igande bakoitzean haurrak elizan esan beharko duen zatia (batzuetan kapitulu osoa, beste batzuetan kapituluaren zatia) garbi dago bereizita. Azaroko lehen igandean hasi behar da esaten.¹²⁴

Izenburuan bertan adierazten da edukia: *Batbederac ikbas deçan cer sinhixi, galthatu, egin, eta hartu behar dutian Gincoa ganic* (I, 28). Izan ere, Trentoko Kontzilioaren dotrinaren lau zatiak horiek dira: sinetsi behar dena, hots, *Credo-a*; eskatu behar dena, hau da, otoitzak; egin behar dena, hots, manamenduak; jaso behar dena, hau da, sakramentuak. Gaia antolatu eta zatitzerakoan desberdintzen dira katiximak, baina sakonean eduki bera dute. Egia esan, badira kristau-ikasbide bereziak, lau atalak ez dakartzatenak.¹²⁵ Belapeirerenak kristau dotrinaren adierazpen osoa dakin.

Belapeirerenak Pio V.aren dotrinaren lau zatiak ez dira, esaterako, Asteterenean bezain garbi agertzen.¹²⁶ Baina, lehenengo lau kapituluak, izenburuetan adierazten ez bada ere, *Credo*-aren azalpena dira, azken finean. Ondoren, bosgarrenean *Credo-a* dator, Aita Gurearekin batera. 12-20 kapituluetan Sakramentuak azaltzen dira. 21-30 kapituluetan, berriz, Jainkoaren manamenduak eta elizarenak adierazten dira, banaka-banaka. 31-39 kapituluak, nagusiki, otoitzaren ingurukoak dira.

Bigarren partea

Bossuet-en “Catéchisme des fêtes” delakoaren itzulpena da. Hirugarren urtean esan behar da, azaroko lehenengo igandean hasirik. Garbi adierazten da kapitulu bakoitza noiz ikasteko den, kapituluaren edukia egun horretako edo gertuko bestaz ari baita. Lehenengo bi kapituluetan igandeaz, meza nagusiaz eta kristauek horietan egin beharrekoez aritu ondoren, *Jesus-Christ goure Jaunaren bestac* datoz hurrengoetan.

Jarraian *Heren Partia. André Dana Mariaren, eta hanitz Sainturen bestetaco* dator (II, 87-110). Hasteko, sarrera orokorra, urtean lau aldiz esan beharrekoa. Ondoren zazpi kapitulu, bakoitza Mariaren besta bati (kontzepzioa, anuntziazioa, etab.) eskainia. Amaitzeko, Santuen bestak ikasi behar dira (*Laur garren partia. Saintien Besten*, II, 111-134).

6.7. Belapeire Bossuet-en itzultziale

Zuberotarraren katiximaren bigarren zati osoa Bossuet-en liburuko “Catéchisme des fêtes et autres solennités et observances de l’église” izenburudun zatiaren itzul-

(124) Lehen urteko 37 igandeetan 1-28 kapituluak ikasi behar dira. Bigarreneko lehen 20 igandeetan 29-40 kapituluak ikasi behar dira; hurrengo 17 igandeetan, lehenengo 17 igandei zegokiena erre-pikatuko da.

(125) Chartres-go elizbarrutiko *Instructions morales, en forme de Catechisme, sur les Commandemens de Dieu* (1693), esaterako, manamenduen inguruau ari da (264 orrialde).

(126) Asteterenean garbi bereizten dira lau atalak:

- *Primera parte de la Doctrina Cristiana, en que se declara el Credo y los artículos de la fe.*
- *Segunda parte de la Doctrina Cristiana, en que se declara lo que se ha de pedir y las oraciones de la Santa Madre Iglesia.*
- *Tercera parte, en que se declara lo que se ha de obrar.*
- *Cuarta parte, en que se declaran los sacramentos que se han de recibir.*

pena izatea ustegabekoa izan da, Belapeirek ez baitu ezer adierazten. 1695eko ordenantzan ondokoa dio:

[...] horrec gogaturen gutu emaitera herri honi, çonbait besté lan, haren hobena gatic adelatcen duguna, Gincocac hala nahi badu, Besta saintietan gaignen (I, 21-22).

Adelatze hori itzultza zen. Kontu jakina da garaiko idazleen ohiturak ez zirela egungoena bezalakoak. Ohikoa zen, esaterako, beste batengandik hainbat pasarte bere hartan hartza, iturriaren inolako aipamenik egin gabe (Fdez. Magaz 1993: 179); baina Belapeirek ehun orrialde baino gehiago itzultzen ditu.

Harrigarri gerta dakigu ke, bestalde, Belapeirek Meaux-ko katiximara jo izana, Paris ondoko elizbarrutia Zuberoatik zein urrun dagoen kontuan hartuz gero; ez, ordea, Bossuet apezpikuaren ospe eta itzalaren berri badugu.

Jacques-Bénigne Bossuet (1627-1704), apaiztu ondoren (1652), Metz aldera joan eta, protestanteekin izandako borroketan, dotrina azaltzeko artea landu zuen. 1659aren inguruau Parisen bizi da eta bere predikari ospea handituz doa. 1670-1680 bitartean erregearen semearen irakasle izan zen, eta Frantziako Akademiako kide izendatu zuten. Erregeak Meaux elizbarrutiko apezpikugoa eskaini zion (1681). Gotzain langilea izan omen zen; horren erakusgarri, idatzi zuen katixima.

Garaiko borroka eta korronte teologikoen barruan aritu zen Bossuet. Jansenismoaren¹²⁷ auzia zela eta, Port-Royaleko erlijiosoak komentitzeko negoziaketetan esku hartu zuen. Galikanismoaren inguruko tirabirétan ere izan zuen parte;¹²⁸ 1673an Louis XIV.ak “droit de régale” izeneko¹²⁹ elizbarruti guztieta hedatu zuenean Aita Santuak gogorki erantzun zuen, azken finean biok eztaba idatzzen zutena ondoko baitzen, Frantziako apezeria erregearen ala Aita Santuaren peko zen. Frantzia Errromatik bereiztekotan izan zen, gotzain gehienak erregearen alde atera baitziren. “Sur l’unité de l’Eglise” hitzaldian Bossuet bitartekari gisa agertzen da. Le Brun-en arabera (1980: 613), bestalde, Bossuet garaiko gotzainen egoera bereziaren adibide dugu, aldi berean erlijio erreformaren eta Errege Txit Kristauaren handitasunaren alde ari baita.

(127) Jansenismoa Jansenius-en eta Saint-Cyran-en hausnarketatik abiatu zen. Argitaratu orduko eztabaidea sutsuak piztu zituen *Augustinus* lanean, Jansenius-ek gizakiaren izate ahul eta ustela azpimarratu zuen, Jainkoaren graziaren beharra salbaru ahal izateko. Jansenius-en alde atera zen Port-Royal-eko Antoine Arnauld (1643), aitorzte eta jaunartze erraz eta usua salatuz. *Augustinus*-a bost proposizioan laburtua izan zenean istilu anitz izan zen: Inocencio X.aren gaitzespena (1653), proposizioak berez liburuan direla Arnauld-ek ukatzea, proposizioak kondenatuz apaiz eta erlijioso orok sinatu beharreko formularioa. Gatazkan, jansenismoaren aurkako zen Luis XIV.ak, Aita Santuak, hainbat apezpikuk eta jansenista ziren Port-Royal-eko erlijiosoek esku hartuko dute. Jansenismoari buruz irakur bedi, esaterako, Delumeau 1973, 119-155 (galikanismoaren inguruau 132 eta ond.).

(128) Frantziako Elizak Aita Santuarekiko gehiegizko mendetasunetik askatu nahi du, baina baita apezpikuak hautatzeko eskubidea duen erregearenetik ere (eliz-galikanismoa). Luis XIV.aren inguruko galikanismo politikoak, berriz, aurrekoarekin bat egiten du Errromarekiko askatasuna aldarrikatzean, baina erregearen nagusitasuna bultzatu nahi du Frantziako eliz-arazoetan.

(129) “Depuis longtemps, pour les diocèses du Nord, l’usage était établi que, durant la vacance d’un évêché, le roi touchait les revenus et conférait les bénéfices à la disposition de l’évêque: tel était le droit de régale” (E. Germain 1988, 21, 25. oh.).

Katolikoen esparruan izandako gatazketa ez ezik,¹³⁰ protestanteekikoetan ere jardun zuen. Bossuet-ek elizen arteko batasuna lor zitekeela uste zuen, katoliko eta protestanteen arteko eztabaidagaiak ez zirela garrantzizko. Haren *L'exposition de la foi catholique*-k (1671) Turenne erreformazale ospetsuak bere fedeari uko egitea lortu zuen. Bere erresumako protestantismoa deuseztatzearren, Luis XIV.ak Nanteseko ediktua baliogabetzen zuen Fontainebleau-koa (1685) sinatzean, Bossuet-ek “Constantino berria” goraipatzen du.

Bossuet-ek bere lekua du literatura frantsesean: “C'est la postérité qui devait découvrir dans l'orateur le poète quasi involontaire, et dans l'expression d'une foi dogmatique et traditionnelle, l'originalité d'une nature”.¹³¹

Katiximaz den bezanbatean, 1685ean bukatu zuen idazten, eta 1687an argitaratu zen *Catéchisme du diocèse de Meaux*. Katixima mailakatua da, bere baitan hiru kati-xima dituena: lehenengoan dotrinaren laburpena dator hasiberrientzat; bigarre-nean dotrina zabalagoa, lehen jaunartzea jasoko dutenentzat; hirugarrenean festen azalpena, aurreratuengentzat. Edizio asko izan zituen: 1687, 1688, 1689, 1691, 1701, etab. (ik. bibliogr.).¹³² 1689an hainbat otoitz gehitu zituen autoreak (“Prière ecclésiastiques”).

6.8. Lehen partearen zenbait iturri: Materre, Bossuet

Catechima laburra-ri, hots, liburuaren lehen zatiari dagokionez, aurreko euskal katiximetara eta garaiko zenbait frantses dotrina ospetsutara (ik. bibliogr.) jo eta ez dugu ediren Belapeirek itzuli edo moldatuko lukeen iturri nagusirik, baina pasarte zehatz batzuk Materrerren *Dotrina Christiana*-tik jasoak dira. Zatitxo hauek zubereratu egin zituen Belapeirek: esaldien egiturari eutsi egiten dio, oro har, eta mailegu zenbait baztertu; inoiz edo behin, zubereratu gabe uzten du hitzen bat: *lekhüiko* ('lekukoa, zerbait ikusi nahiz entzun duelako horren berri eman dezakeena') bere har-tan uzten du, liburuan gainerako testuinguruetañ adiera hori duen hitza *jakile* bada ere; ik. gure edizioan Materrerren testua eta egin ditugun oharrak (Bp I, 56-57, 83-84, 86, 87-88, 89), eta BpHizt erask. b.2.

Materrerren dotrina-liburuak zenbait argitalpen izan zituen (ik. Vinson 11): 1617, 1623 (“othoitza eta oracino batçuez berreturic” atera zena), c. 1648, 1693, 1704. 1693ko edizioak (*Bouqueta lore divinoena bereciac eta Duronea apeçac T.P.S.V. Aita Materren liburuari emendatuac iduquicen dituelaric* (...)) Materrerren dotrina bere baitan du, eta, haren aurretik eta ondoren, Duroneak idatziak gehitzen ditu. Belapeirek katixima izkiariatu zuen garaikoa den edizio honetan, Materrek idatzia bere hartan hartzen da (1623ko ale batekin erkatu dugu): bada, zernahi gisaz, grafia aldaketaren bat (ik. Agirre 1997: 294).

(130) Kietismoaren inguruan Bossuet-ek eta Fenelon-ek izandako eztabaidea ospetsua ere aipagarri da.

(131) Thérèse Goyet, *Dictionnaire Biographique des Auteurs*.

(132) “Le cardinal de Bissy en fit une réduction, et le catéchisme de Bossuet fut usité à Meaux, sous l'une ou l'autre de ses deux formes, jusqu'en 1822. L'évêque de Mâcon l'adopta en 1744, et son diocèse le conserva jusqu'en 1828. La réduction du cardinal de Bissy fut acceptée à Châlons-sur-Marne en 1727” (DTC 1935).

Belapeireren eta Bossuet-en dotrina osoak parekatu ditugu, eta zuberotarraren liburuko lehen parteko pasarte jakin batzuk ere frantses testuaren itzulpen dirakteke-ela agertu da; baina oro har ez da zordun frantses testuarekiko. Aipatu pasartea gure edizioan eskaini genituen: ik. Bp I, 25, 53, 75-77, 122-123 eta 167-168.

Badirudi, beraz, garai hartan ohikoa zenez, zenbait liburuz baliatu zela Belapeire katixima idazteko. Besançon-go katiximaren izenburua aipatu ohituraren erakusgatxi da: *Catéchisme ou Instruction de la Doctrine Chrétienne, où l'on apprend à devenir bon chrétien et à faire son salut qui comprend et renferme tout ce qui est contenu dans les plus célèbres catéchismes de France, principalement ceux du diocèse de Lyon, Paris, Sens, Châlons en Champagne, Agen, et dans plusieurs catéchismes particuliers*. Katixima ontzerakoan nahikoa zen jada idatzia zegoenari jarraitzea, eta ez zen komeni, ziurrenik, berritzairen izatea. Amiens-go apezpikuari zuzendutako gutunean (1693), elizbarrutiko eskuliburuaren hasieran, esaterako, idazleak (C.G.) onartzen du bera ez dela berez autorea, gaiak aukeratu eta ordenatu egin dituela, ez besterik, zenbait hausnarketa tartekatuz.¹³³

Bibliografia

Eskuizkribuak:

Archives départementales des Pyrénées-Atlantiques:

- 1 J 29/5: Affaires ecclésiastiques
- 1 J 62/2: Jacques de Belaren *Tablettes*: I (Aage-Créanciers), II (Créanciers-Exemples), V (Officiers-Revolté), VI (Revolté-Zwingle).

Bibliothèque Nationale de Paris:

- N.A.F. 20.053-20.055 (3 liburuki): Belako Zaldunaren *Histoire des Basques* ("ms. autographe", BN-ko katalogoaren arabera).
- N.A.F. 20.058-20.069 (12 liburuki): aurrekoaren kopia (XIX. mendekoa, BN-ko katalogoaren arabera).

Agirre Sarasola, Pello, 1996, "Belapeireren *Catechima Laburra*-ri buruzko ohar jakingarri zenbait", *Euskera* XLI, 1-2, 67-71.

_____, 1997, *Athanase Belapeire: Catechima laburra* (1696). *Autorearen garaia, nortasuna eta idazlanak. Grafiak eta fonologia. Edizio kritikoa eta biztegia*. Doktore-tesi argitaragabea.

Alonso Perujo, N. eta J. Pérez Angulo, 1885, *Diccionario de Ciencias Eclesiásticas*. Barcelona: Librería de Subirana Hermanos editores.

Altzibar, Xabier, 1992, *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: Nortasuna, Idazlanak, Grafiak*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.

Andurain de Maytie, A., 1992, "Une catastrophe publique à Mauléon de Soule en 1679", *Revue de Pau et du Béarn* 19, 115-123.

Arana Martija, Jose Antonio, 1989 [1984], "Prólogo" in C. González Echegaray eta Arana Martija, *L. L. Bonaparte. Eskuizkribuak-argitarapenak, Manuscritos-Publicaciones*, Euskal-Tzaindia, Bilbo (7-26).

(133) "Je reconnois que je n'en suis pas proprement l'Autheur. Comme c'est un précis de toute la Religion, je n'ay eu garde d'y mêler mes foibles lumières, ni d'y avancer quelque chose de singulier & de nouveau. Toute la part que j'y puis avoir, est le choix & l'ordre des matières, & quelques réflexions" (A Monseigneur Feydeau de Brou, évêque d'Amiens). BN de Paris D 29206 darabilgu.

- Argaignarats, Pierre d', 1665, "Dotrina Christiana", in *Devoten Breviarioa*. Baiona. (Vinsonen ed. darabilgu: Chalon-sur-Saône 1910; facs. Donostia: Hordago, 1978. (95-109).
- Azcona, Tarsicio de, 1985, "La Iglesia en la Edad Media", in *Euskal Herria. I. Historia eta Gizartea. Historia y Sociedad*, J. Intxausti (zuz.). Lan Kide Aurrezkia. Oiartzun (337-342).
- Azurmendi, Joxe, 1985, "Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herriko historian", in *Euskal Herria. I. Historia eta Gizartea. Historia y Sociedad*, Joseba Intxausti (zuz.). Lan Kide Aurrezkia. Oiartzun (357-386).
- Bayaud, Pierre, 1958, *Archives Départementales des Basses-Pyrénées. Répertoire numérique de la sous-série 4E. Registres Paroissiaux conservés aux Archives Communales et Départementales*. Pau: Imprimerie Commerciale des Pyrénées.
- Bela, Jacques = TAV (183-187).
- Belapeire, Athanase, 1696, *Catechima laburra eta Jesus-Christ Goure gingo jaunaren ezagutzia, Salvatu iñateko {...}*. Pabe: Jérôme Dupoux.
_____, ik. Davant.
- Bonetti, Philippe, 1981, "Le fidèle au centre des préoccupations de la Réforme Catholique: l'exemple souletin", *Revue de Pau et du Béarn* 9, 15-26.
- _____, 1986, [1978], *La vie religieuse en Soule (1598-1789), Mentalités et comportements*. T.E.R., Ch. Desplat eta J-P. Labatut-en zuzendaritzapean. I Liburukia eta Liburuki Gehigarria. Université de Pau & des pays de l'Adour (idazmakinaz, ale fotokopiatua).
- Bossuet, Jacques-Bénigne, 1687, *Catéchisme du Diocèse de Meaux. Par le commandement de Monseigneur l'Illustrissime & Révérendissime Jacques Benigne Bossuet Evesque de Meaux {...}*. Paris: Sébastien Mabre-Cramoisy. BN, D 28524. Edizio berekoa da BN, D 28525 (izenburu orrialdea dute desberdin: Pariseko inprimatzaleaz gain honakoa hau aipatzen da: "Et à Meaux, chez Veuve de Claude Charles [...]").
- _____, Bossuet-en katiximaren beste zenbait edizio ere izan dugu eskuartean: 1688 (BN, D 28527), 1691 (baina hirugarren partea 1687ko edizioko du: Sébastien Mabre-Cramoisy; BN, D 28528), 1701 (BN, D 28529). XIX. mendeko edizio batez ere baliatu gara:
- _____, 1860, *Catéchisme de Bossuet évêque de Meaux. Nouvelle édition contenant Le Petit Catéchisme ou abrégé de la Doctrine Chrétienne, Le Catéchisme pour les enfants que l'on prépare à la Première Communion, et le Catéchisme des Fêtes*. Poitiers: Henri Oudin.
- Broutin, P., 1956, *La réforme pastorale en France au XVII^e siècle*. I eta II. Paris.
- Camino, Iñaki eta Ricardo Gómez, 1992, "Bonaparteren argitaratzeko irizpideez: Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko dotrinak (I)", *ASJU XXVI-2* (453-577).
- Catechima Oloroeco diocezaren cerbutchuco ecinago Illustre eta ohoragarry Messire Joseph de Revol hanco apiezcupiaren manuz eguna. Eta guberoa herrico uscaldunen amorecatik uscarala utxulia Messire Jacques de Maytie Oloroeco Calongiaz eta hanco Vicari Generalaz*. [Pabel]: Jérôme Dupoux, 1706.
- Catechisma Oloroeco diocesaren cerbutchuco Joseph de Revol hanco Appiezcupiaz eguna, emendatia eta berris imprimatia François de Revol Oloroëco Appiezcupiaren manuz*. Pabe: Jean Dupoux, 1770 [lehenengo edizioa 1743 ingurukoa dela, guk Vinson 44.c.d. ediziotik aipatzen dugu].
- Catechisme de la Doctrine Chrétienne Dressé par le Commandement de Messire Toussaints de Forbin de Janson, Evesque & Comte de Beauvais {...}*. 1681. Beauvais: Estienne Vallet. BN, D 14347.
- Catechisme de la Foy et des Moeurs Chretiennes; dressé par l'Ordre de Monseigneur l'Illustrissime & Reverendissime Messire Gilbert de Veny d'Arbouze Evêque de Clermont {...}*. 1674. Clermont: Nicolas Iacquard. BN, D 28222.
- Catechisme dogmatique et historique, à l'usage du Diocèse d'Amiens ou instructions chrétiennes pour la Jeunesse après la première Communion {...} Nouvelle Edition, Corrigée & augmentée*. 1693. Paris: L. Roulland fils. BN, D 29206.

- Catechisme Nouveau, Dressé en faveur de la Jeunesse du Diocèse de Besançon (...) par Ordre de Monseigneur l'Illustrissime & Reverendissime Antoine Pierre de Grammont (...).* 1687. Besançon: Loûis Rigoine. BN, D 28131.
- Catechisme ou Abregé de la Doctrine Chrétienne Imprimé par l'Ordre de Monseigneur l'Illustrissime & Reverendiss. P. P. Archevêque de Bourges.* c. 1688. Bourges: François Toubeau. BN, D 28164.
- Catechisme ou Abregé de la Foy & des Veritez Chrétiennes, fait par l'ordre de Monseigneur l'Illustrissime & Reverendissime François de Harlay, Archevêque de Paris.* c. 1688 (Mandement-aren data: "dernier Octobre 1687"). Paris. BN, D 28712.
- Catechisme ou Abregé de la Foy et des Veritez Chrestiennes. Fait par l'Ordre de Monseigneur l'Illustrissime & Reverendissime Gabriel de Roquette. Evêque d'Autun.* 1703. Moulins: Denis Vernoy. BN, D 14307.
- Catéchisme ou Doctrine Chrétienne imprimé par ordre des Messeigneurs les Evesques d'Angers, de la Rochelle, et de Luçon. Pour l'Usage de leurs Dioceses.* 1678. Paris: Veuve Jean Dupuis. BN, D 14267.
- Catechisme ou Doctrine Chrétienne; imprimé par ordre de Monseigneur l'Archevêque Duc de Reims (...).* 1692. Paris: Antoine Dezallier. BN, D 28824.
- Catechisme ou instruction chrestienne pour le diocese de Sens (...).* Seconde Edition. 1670. Sens: Loûis Prussuot. BN, D 28961.
- Catechisme ou sommaire de la doctrine Chrétienne (...) par l'Ordonnance de Monseigneur l'Illustrissime Archevêque de Cambray (...).* 1692. Cambray: Mairesse. BN, D 28179.
- Catecismo del Santo Concilio de Trento para los Párrocos, ordenado por disposición de San Pío V traducido en lengua castellana por el R. P. M. Fr. Agustín Zorita (...).* 1905. Madrid: Compañía de Impresores y Libreros.
- Catichima edo Fedia Laburki, Paul-Thérèse-David d'Astros, Bayounaco Jaun Appbezcupiac imprima eraciric; (...).* c. 1860 [urte honetako da inprimatzeko baimena]. Baiona: Lasserre.
- Catichima edo fedia eta guiristino-eguien explicacione laburra,* Charles-Auguste Le Quien de Laneufville, Aquiceco Juan Apetzicu (...). 1786 [c. 1741]. Akize: G. René Leclercq. (Chicagoko ale baten kopia darabilgu: Collins 1297).
- Clément-Simon, Gustave, 1894-1895, "Le Protestantisme et l'érudition dans le Pays Basque au commencement du XVII^e siècle. Jacques de Béla. Biographie. Extraits de ses Oeuvres inédites", in *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau* 24, 197-321.
- Clermont, François de, 1691, *Catechisme composé par Monseigneur l'Eveque, Comte de Noyon, pair de France, (...).* Saint-Quentin: C. Le Queux. BN, D 28687 bis.
- Collins, Victor, 1894, *Attempt at a Catalogue of The Library of the late Prince Louis-Lucien Bonaparte by Victor Collins.* Henry Sotheran & Co.
- Davant, Jean Louis, (arg.), 1983, *Belapeyre (Athanase). Catichima laburra eta Jesus-Christ goue Ginco jaunaren ezagutzia salвату içateco* (Euskararen lekukoak, 7). Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____, 1996, "Athanase de Belapeyre. Haren familia, bizitzea eta lana", *Euskera* XLI, 1-2, 61-66.
- Dejean de la Batie, J. M., 1956, "La Soule et ses anciennes institutions", *GH* III, 129-138.
- Delumeau, Jean, 1967, *La Reforma.* Colec. Nueva Clío; la Historia y sus problemas, 30. liburu. Barcelona: Labor [berezi, *Naissance et affirmation de la Réforme*. PUF].
- _____, 1973, *El catolicismo de Lutero a Voltaire.* Colec. Nueva Clío; la Historia y sus problemas, 30 bis. Barcelona: Labor [berezi, *Le catholicisme entre Luther et Voltaire*, PUF].
- Desplat, Christian, 1995, "Zuberoa Aro Modernoan", *Zuberoako Historia*, Pierre Bidart (biltsailea), Jaxinto Setien (itzultzalea). Donostia: Gaiak Argitaldaria (137-173) [berezi, *Le Pays de Soule*, ed. Izpegi, Baigorri].

- Dictionnaire Biographique des Auteurs.* Laffont - Bompiani. I (A-J: Bossuet sarrera). 1957. Paris: S.E.D.E.
- Dictionnaire de Théologie Catholique.* Tome Deuxième. Première Partie. Baader-Buzetti (*Bossuet sarrera*). 1923. Paris: Librairie Letouzey et Ané.
- _____, Tome Deuxième. Deuxième Partie. Cabados-Cisterciens (*catéchisme sarrera*).
- Doctrina Christiana, Bayonaco Leoni Illustrissimo eta Reverendissimo Ipizpicuaren manuz bere Dioce-saco eguiña.* Baiona: Antonio Fauvet.
- DTc.* Ikus *Dictionnaire de Théologie Catholique*.
- Dubarat, Victor Pierre, 1887, *La Commanderie et l'Hôpital d'Ordiap: dépendance du monastère de Roncevaux en Soule (Basses-Pyrénées)*. Pau: Léon Ribaut; Paris: Alphonse Picard.
- _____, 1888, "Notices historiques sur les évêques de l'ancien diocèse d'Oloron", *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, II^e Série, xvii, 37-128.
- _____, 1892, "Les sorciers en Béarn", *Études Historiques et Religieuses du diocèse de Bayonne*, lehen liburukia (468).
- _____, 1895, "Un discours de visite pastorale à Aroue en 1683", *Études Historiques et Religieuses du Diocèse de Bayonne*, 4. liburukia (12-15).
- _____, 1902, "Synode à Oloron; troubles en Soule et en Béarn (1631-1632)", "Dîmes de Soule et émeute à Gotein (1631)", *Études Historiques et Religieuses du Diocèse de Bayonne*, 11. liburukia (209 eta 324).
- _____, 1903, "Origine protestante d'Athanase de Belapeyre vicaire général de Soule au XVII^e s.", *Études Historiques et Religieuses du Diocèse de Bayonne*, 12. liburukia (473-475).
- _____, 1923, "Notes sur le chevalier de Béla", *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, II^e Série XLVI, 76-79 eta 95-102.
- Etchecopar-Echart, Jean-Louis, 1992 [1989], *Histoire du Pays de Soule. Recueil de références*. Mauleon: Imprimerie de Arce.
- Fernández Magaz, Manuel, 1968, *Un catecismo del Gran Siglo francés Los deberes del cristiano de San Juan Bautista de La Salle*. [Tesiaren laburpena]. Madrid: Imprenta, Juan Bravo, 3.
- _____, 1993, "Devoirs d'un Chrétien". *Thèmes Lasalliens*, lehen liburukia. Roma: Frères des Écoles Chrétiennes (178-190).
- Furet, François eta Jacques Ozouf, 1977, *Lire et écrire. L'alphabetisation des français de Calvin à Jules Ferry*. Lehen liburukia. Paris: Les éditions de Minuit.
- Germain, Elisabeth, 1988, "Etude historique", in *Catéchismes, mémoire d'un temps: 1687. Les manuels diocésains de Paris et de Meaux (Bossuet)* (Cahiers de l'Institut Supérieur de Pastoral Catéchétique, 1). Desclée (13-52).
- Goienetxe, Eugenio, 1971, "Arnaut Oihenarte. Gizona, kondairagilea, eta abertzalea", *Atsotitzak eta Neurtitzak. Oihenarte*, Larresorok prestatutako edizioaren hitzaurrea. Donostia (9-28).
- _____, 1973, "Instituciones administrativas del país vasco-francés en la Edad Media". *Anuario de Historia del derecho español* XLIII, 207-262.
- _____, 1985a, *Historia de Iparralde. Desde los orígenes a nuestros días*. Donostia: Txertoa.
- _____, 1985b, "Iparraldeko historiografiaz. Aspectos de la historia de Iparralde", in *Euskal Herria. I. Historia eta Gizartea. Historia y Sociedad*, Joseba Intxausti (zuz.). Lan Kide Aurrezkia. Oiartzun (228-238).
- Harietoy, P., 1983-84, *Recherches historiques sur le Pays Basque*, I-II, Baiona-Paris; facs. Marseille: Lafitte Reprints, 1977.
- _____, 1892, "Les Sorciers au Pays Basque", *Études Historiques et Religieuses du diocèse de Bayonne*, lehen liburukia (517-525 eta 577-579).
- _____, 1901, "Les paroisses du Pays Basque pendant la période révolutionnaire", *Études Historiques et Religieuses du diocèse de Bayonne*, 10. liburukia (ikus Chéraute parroquia, 390-391).

- Instructions morales, en forme de Catechisme, sur les Commandemens de Dieu. Tirées de l'Ecriture Sainte. Avec l'Approbation de Monseigneur Paul de Godet des Marais, Evêque de Chartres.* 1693. Chartres: René Bocquet.
- Jaurgain, J. de, 1884 eta 1885, "Les capitaines chatelains de Mauléon gouverneurs de la vicomté de Soule", *Revue de Béarn, Navarre et Lannès*, 1884-tome second (113-141 eta 241-341) eta 1885-tome troisième (13-84).
- _____, 1896, "Notice sur le chevalier de Béla", *Mémoires militaires du chevalier de Béla publiés par E. Ducéré* (Baiona: Lamaignère) liburuaren hitzaurrea (7-25).
- _____, 1903, "Une visite pastorale en Soule au XVII^e s.", *Études Historiques et Religieuses du Diocèse de Bayonne: comprenant les anciens diocèses de Bayonne, Lescar, Oloron et la partie basque et béarnaise de l'ancien diocèse de Dax*, 1903-urtarrila. Pau: G. Lescher-Moutoué (26-27).
- _____, 1908, *Journal de Pierris de Casalivety, notaire royal de Mauléon de Soule*. Jaurgainen edizioa. Paris: Honoré Champion; Auch: Léonce Cocheraux.
- Joly, Claude, 1674⁵, *Les Devoirs du Chretien, dressez en forme de Catechisme, par Monseigneur l'Illustrissime & Reverendissime Pere en Dieu Claude Ioly, Evêque & Comte d'Agen {...}*. Agen: Antoine Bru. BN, D 39442.
- Joncheray, Jean, 1988, "Approche Sociologique", in *Catéchismes, mémoire d'un temps: 1687. Les manuels diocésains de Paris et de Meaux (Bossuet)* (Cahiers de l'Institut Supérieur de Pastoral Catéchétique, 1). Desclée (71-102).
- Labarre, Albert, 1990 [1970], *Histoire du livre* (coll. Que sais-je?, 620). Paris: P.U.F.
- Laborde, J.-B., 1925, *A propos du "Catéchisme à l'usage du Diocèse d'Oléron"*. Pau: Imprimerie Catholique.
- _____, 1931, "L'évêché d'Oloron", extr. de *Revue historique et archéologique du Béarn et du Pays Basque*.
- Lacaze, Louis, 1884, *Les Imprimeurs et les Libraires en Béarn (1552-1883)*. Pau: Léon Ribaut, libraire-éditeur.
- Lanoë-Mesnard, M., 1689, *Catechisme du Diocèse de Nantes. Par le Commandement de Monseigneur l'ILLUSTRISSEME & REVERENDISSEME Messire Gilles de Beauvau Evêque de Nantes. Composé par le Sr. Mesnard, Prêtre, Directeur du Séminaire de Nantes. Chez Michel Mareschal*. BN, D 14404.
- Lavagne, Xavier, 1980, *Impressions paloises et béarnaises 1541-1789*. Pabeko udal liburutegian 1980-12-11 eta 1981-02-07 bitartean izandako liburu erakusketaaren katologoa.
- _____, Recension des impressions paloises et béarnaises 1541-1789. 3 liburuki. Pau: Bibliothèque municipale, 1981, 1982, 1982.
- Lavieuville, P., 1736 [1732 edo 1733]. *Guiristinoen doctrina laburra haur gastei irakasteco, Piarres de Lavieuville, Baionaco Jaun Apbezicuaren manuz imprimatua {...}*. Baiona: P. Fauvet.
- _____, 1985, *Lavieuville-Harosteguy. Bayonaco Diocesako bigarren Catichima*. Villasanteren edizioa. (Euskararen Lekukoak 11). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lebrun, François, 1979, "La prédication au XVIII^e siècle", in *Histoire vécue du peuple chrétien*, II, Jean Delumeau (zuz.). Toulouse: Ed. Privat (43 eta ond.).
- _____, 1980, "L'enracinement (1670-1770)", in *Histoire des Catholiques en France du XV^e siècle à nos jours*, F. Lebrun (zuz.). Toulouse: Ed. Privat (147-214).
- _____, 1980, "Siglo XVII", in M. B. Bennassar et al., *Histoira Moderna*. Madrid: Akal editor (387-720).
- Léon, Antoine, 1967, *Histoire de l'Enseignement en France*. Paris: P.U.F.
- Loew J. eta M. Meslin, 1978, *Histoire de l'Église par elle-même*. Librairie A. Fayard.
- Maister, Martin, 1757, *Jesu-Kristen Imitacionia Ķuberouako uscarala, berri beraurtako apbeç bateq, bere Jaun apbeçcupiaren baimentuareki utçulia*. Pabe: Dugué eta Desbaratz.
- Mandrou, Robert, 1973, *Francia en los siglos XVII y XVIII*. Colec. Nueva Clío; la Historia y sus problemas, 33. liburukia. Barcelona: Labor [berezi, *La France aux XVII^e et XVIII^e siècles*. PUF].

- Martin, Henri-Jean, 1969, *Livre, pouvoirs et société à Paris au XVII^e siècle (1598-1701)*, I eta II. Thèse pour le doctorat ès lettres. Genève: Librairie Droz.
- Martin, Gérard, 1993 [1968], *L'imprimerie*. Coll. Que sais-je?, 1067. Paris: P.U.F.
- Materre, Estebe, 1623 [1617], *Dotrina Christiana Bigarren impressionean debocinozco otboitz eta oracino batuez berreturic (...)*. Bordel: Jacques Millanges (Oxfordeko alearen kopia darabilgu).
- _____ eta Duronea apaiza, 1693, *Bouqueta lore divino ena bereciac eta Duronea apeçac T.P.S.V. Aita Materren liburuari emendatuac (...)*. Baiona: Piare Dussarrat.
- Menjoulet, 1861-69, *Chronique du Diocèse et du Pays d'Oloron*, I- II. Oloroe.
- Mercy, Alexis, 1780, *Andere Dona Maria Scapularicouaren Confrariaco, Bulla, Decreta, Statutac, eta Maniac edo Chediac (...)* (Frantzesetik itzulia). Paube: J.P. Vignancour.
- Mitxelena, Koldo, 1964, *Textos arcaicos vascos*. Madrid: Minotauro [= L. Michelena - I. Sarasola, *Textos arcaicos vascos. Contribución...*, Donostia, Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", 1989 (ASJU-ren gehigarriak, 11)].
- _____ 1988a [1955], "La Doctrina Cristiana de Betolaza (1596)", *SHLV* 824-837.
- _____ 1988b [1960], *Historia de la literatura vasca*, Madrid: Erein.
- Moll, Jaime, 1979, "Problemas bibliográficos del libro del Siglo de Oro", *BRAE* 59, 49-107.
- Montclos, Xabier de, 1990, *Histoire religieuse de la France*. Coll. Que sais-je?, 2428. Paris: P.U.F.
- Mozos Mujika, Iñaki, 1994, *Jean de Paris pastorala: eskuzkribuen azterketa eta iturriaren moldamoduak*. Tesi argitaragabea.
- _____ 1995, Tesiaren eranskina: Hegiaphaltarren eskuizkribua.
- _____ Jean de Paris pastoralaren A eskuizkribuaren transkripzioa (argitaragabea, Mozosek eskuratu dizkigun orrialdeak, makinaz idatzia).
- Narbaitz, P., 1981a, "La cristianización del País Vasco-Francés". *I Semana de Estudios de Historia Eclesiástica del País Vasco*. Victoriensia, vol. 42. Gasteiz: Teologi-fakultatea (43-67).
- _____ 1981b, "Geografía eclesiástica del País Vasco-Francés". *I Semana de Estudios de Historia Eclesiástica del PV*, aip. (229-230).
- Nussy Saint-Saënz, M., 1938, *Le pays de Soule*. Bordele.
- Ordonnances et instructions synodales faites par Monseigneur l'ILLUSTRISIME & REVERENDISSIME Évêque d'Oloron [F. Charles de Salettes] pour le Clergé de son Diocèse (...)*. Pau: Jean Desbaratz, 1686.
- Orella, José Luis, 1987, "Mosen Bernart Dechepare". Patxi Altunak paratu edizioan (Euskal-tzaindia, Bilbo), (vii-xv).
- Peillen, Txomin, 1983, "Belako zaldunaren Zuberotar hiztegia, XVIII. mendean", *FLV* XV, 125-45.
- _____ 1988, *Zuberoako itzal-argiak (Euskarako jakilegoak)*. Leben aldia: XV., XVI., XVII. mente zabarrak. Donostia-Baiona: Elkar.
- Pouvreau, Silvain, 1656, *Guiristinoaren Dotrina Eminentissimo Iaun Cardinal Duke de Richelieu eguna. Silvain Pouvreau apeçac escaraz emana*. Paris: Jean Roger.
- Preclin, E. eta E. Jarry, 1977, *Luchas políticas*; in *Historia de la Iglesia* (XX. liburukia), A. Flizche eta V. Martin (zuz.). Valencia: Edicep.
- Pronus Singulis diebus Dominicis clarè & distinctè immediatè post Euangelium populo legendus [aleak izenburu orrialdea falta du; ezartzen dugun izenburua lehenengo orrialdearen goienean dator]*, c. 1676.
- _____ 2. ed.: *Les prières de Prone en basque (dialecte souletin) publiées par M^{sr} Arnauld-François de Maytie évêque d'Oloron, en 1676*. Antoine d'Abbadie (arg.). Baiona: M^{me} Veuve Lamaignère, 1874.
- Régnier, Jean-Marie, 1985, "Les Béla, de Mauléon et Chéraute", *Ekaïna* 13, 48-51 eta 14, 111-6.

- _____, 1991, *Histoire de la Soule I - Des origines à la Révolution*. Ekaïna, Hitzak.
- Rementeria, Joxe M., 1975, "Euskal Kristau Ikasbideen historia laburra", in *Kristau Bidea (Nimegako Katekesi Institutua. Lurralde Beheretako Gotzainen arduraapean)*, euskal itzulpenaren zuz. Paulo Agirrebalzategi. Oñati: Jakin (xvii-xxiv).
- Ressegue, P., 1758, *Sacramentu-Saintiaren aurhidegouaco maniac eta chediac. Esquiulaco parropia eliçan, (...) Oleronco Jaun Apphezcupiaren manu eta baymentieki. Franceseti, Uscarala utçulia, Aurhidegouaren manuz*, P. Ressegue bestela Mercy, Aurhidegouaco Prioreaz edo guebienaz. Pabe: Isaac Charles Desbaratz.
- Sauvage, Michel, 1963, *Catequesis y laicado. Participación de los laicos (...)*. I eta II. (Colec. Sini-te, 6). Madrid, Tejares-Salamanca: Instituto Pontificio S. Pío X. (berezi: *Catéchèse et laïcat. Participation des laïcs au ministère de la Parole & mission du Frère-enseignant dans l'Église*. Paris, 1962: Ligel).
- Tartas, Jean de, 1666, *Onsa hilceco bidia*. Orthez: Jacques Rouyer. RIEV-en ed. (1907-1911) darabilgu: RIEV I eta ond.
- Tellechea Idígoras, J. Ignacio, 1985, "Del Concilio de Trento a la Ilustración", in *Euskal Herria. I. Historia eta Gizartea. Historia y Sociedad*, J. Intxausti (zuz.). Lan Kide Aurrez-kia. Oiartzun (342-345).
- Urkizu, Patrizio, 1989, *Pierre d'Urteren biztegia, Londres 1715*. I eta II. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.
- UZEI, 1987, *Erlizioa. Hiztegia*. I eta II. Paulo Agirrebalzategi (zuz.). Donostia: Elkar.
- Vinson, Julien, 1984, (J. Urquijoren alean oinarritutako edizioa) [1891]. *Bibliographie de la langue basque (Volúmenes I y II). Con unas palabras sobre la presente edición de Luis Michelena, ASJU-ren gehigarriak 9*, Donostia.
- Willaert, L., 1976, *La Restauración católica (1563-1648)*, in *Historia de la Iglesia*, XX. liburu-kia, A. Fliche eta V. Martin (zuz.). Valencia: Edicep.

Eranskina

Belapeireri bidali zizkioten lau gutunen transkripzioa

Eskuizkribuak Pabeko Archives Départementales des Pyrénées-Atlantiques izenekoetan daude (1 J 29/5 Affaires ecclésiastiques). Lau gutunak data kronologikoaren arabera eskaintzen ditugu. Arnaud-François de Maytie apezpikuak igorritakoak, lehen biak, transkribatzea ez da erraza. [] ikurrek gure transkripzioaren hutsuneak (eta orriren batek duen zuloa) adierazten dituzte. Jatorrizko grafiak bere hartan utzi ditugu, oro har. Ohikoa denez, transkripzio aurretik data kronologikoa eta topikoa ezarri ditugu, eta Belapeireri nork zeri buruz idazten dion laburtu.

I.

1677ko uztailaren 23a

Moumour-eko jauregia¹

A.-Fr. de Maytie apezpikuak idazten dio: apezpikutegian elkartuko dira; Supervieille² baten eskutitza (ik. hurrengo gutuna) aipatzen da.

A Monsieur

*Monsieur belapeire mon grand vicaire et official en soule et curé de cheraute
a cheraute { }³*

Monsieur

*lundy lon se doit ressembler a leveché pour lors vous aurés de mes amples nouvelles, je vous
envoy la lettre de sr Supervieille qu'il m'escrit sur vostre lettre, { } le prevendier je ne le point
veu, quant il viendra a moy je fairay ce qu'il faust cependant Je suis*

vtre. tres affectionne prelat et cousin

Maytie. E. d'oloron

Monsieur

au chateau de Moumour

le 23 juillet 1677

II.

1678ko azaroaren 18a

Oloroe

A.-Fr. de Maytiek idazten dio: jaso zuen Zuberoako detxema eta beste arazo batzuei buruzko gutuna; Bordele aldean den Supervieille itzulean, Belapeiregana bidaliko du aferak konpon ditzaten. Belapeireraren beste arazo bat da aipagai amaieran.

A Monsieur

Monsieur belapeire mon grand vicaire et official en soule et curé de cheraute

Monsieur { }

*je receu hier vostre lettre, vous me parlés de la decime de soule et des autres affaires que mon
clergé de bearn a avec celluy de soule, sy le sr supervieille estoit en cette ville je vous l'aurais envo-*

(1) Hots, barrutiko jauregia (Ress 9 *Aphezcupugouaco Palaciona*). François apezpikuak Momourreco goure Jaureguian sinatzen ditu bere idatziak (Mercy 9 eta 18). Ressegue eta Mercyren liburuetan agertzen denez, Oloroeko François de Revol gotzaina Mo(u)mourreco Barou-a da (Ress 9, Mercy 10). (2) Supervieille familiako batek saltzen du Oloroeko dotrinaren mende amaierako edizioetako bat (Vinson 44.g: 1788?) Oloroen. (3) Gutunaren azalean datorren oharra ez dugu transkribatu. Gutunak apezpikuaren eta bikario jeneralaren elkarlana erakusten du.

yé aussi tost que cette lettre pour terminer toute chose avec mon clerge de soule, je le a bordeaux ou a saintes auprés de M. l'intendant pour des affaires tres importantes que mon clerge de bearn a, des qu'il sera icy je le mettray en { } pour terminer entierement les affaires de soule, je l'attans tous les jours il ne peust point retarder longtemps, je { } escrive de ma part a mr. d'arrits l'aduf { } sur vostre affaire, { } que son frere est arrivé il faust terminer cest affaire, cependant je suis

Vtre tres affectionné cousin et prelat

Maytie. E. d'oloron

Mons{ }r a oloron le 18 nobre 1678

III.

1683ko urriaren 19a

Omizegañiako erretorearekiko bertakoek duten jarrera dela eta, haren ahaide batek laguntza eske idazten dio.

A Monsieur

Monsieur de Bellepeyre official de Soule et curé de cheraute

A cheraute

Monsieur

Je voy avec bien du chagrin la persecution que la famille d'Abense donne a leur curé, mom parent, et leur allié fort proche, il me semble qu'il est de la generosité de la nation de ne pas traitter avec tant de cruauté un estranger, qui quitte son païs, pour aller habiter dans le vostre. Faittes donc sil vous plaist Monsieur que Monsieur de Puyoü puisse par le moyen de l'honneur de vostre protection joüir paisiblement des effects de la grace qu'on luy a faist de luy procurer un benneffice dans votre païs vous ne sauriés obliger plus sensiblement celluy, qui sera toujours { } destime et de consideration pour vous et qui n'aura point de passion plus forte que celle destre avec les mesmes sentiments

Monsieur

o s^{te} marie le 19 octobre 1683

Vostre très humble et très obeissant serviteur

{ }

IV.

1695eko abendua

(Jacques de) Maitie kalonjeak idazten dio Meharon bikarioaren alde, honek erretorearekin arazoak baititu. (Ch. de Salettes) gotzainaren eta Belapeire ofizialaren arteko arazoak ere aipagai dira.

A Monsieur

Monsieur de Belapeyre ptre curé de Cheraute et official de Soule

A Cheraute

Je n'ay pû refuser, Monsieur, un mot de recommandation au sr. de Meharon notre parent, lequel se voit attaqué par son curé auprés de Mons. gr l'eveque et dans votre tribunal; il a gagné son procès pour la continuation de son vicariat, et je croy que ses interets vous sont trop chers

pour ne pas luy eviter les effets de la mauvaise humeur de son curé. Je say qu'il ne faut pas vous recommander vos proches parceque tous ceux que vous conoissent vous doivent rendre cette justice que vous êtes peut-etre une des personnes du monde qui voulés la plus les soutenir. Ainsi, Monsieur, je conte que ma sollicitation est dans cette occasion bien inutile.

Au reste, Monsieur, votre lettre ny votre ordonance n'ont pas été trop bien recües de Mr. l'eveque, vous savés sa mauvaise humeur contre vous, et l'on voit que non potest tibi quidquam pacifici loqui. Il se fonde sur la derniere déclaration du Roy qui semble laisser aux evesques le droit d'establir et de changer les regens, mais vous luy faities voir assés visiblement qu'il n'a que faire de regratter sur vos ouvrages puis que vous les soutenés avec tant de gloire pour vous et tant de plaisir pour vos amys, vous ne devés pas douter que je ne sois celuy qui m'interesse le plus en tout ce qui vous regarde, comme celuy qui est avec le plus de passion, Monsieur, votre tres humble et tres obeissant sertr

Maitie

De s^{te} marie le { } decembre 1695

Hiztegi Hirukoitza eta Diccionario de Autoridades erkatuaz (II): sarreraren edukia¹

BLANCA URGELL
UPV/EHU

Abstract

An important issue in the comparison of a dictionary and its model is the structure and content of lexical entries: what type of information do they provide, and which way is it usually expressed. We already know (see Urgell 1998a) that the two dictionaries which are being discussed as examples, differ considerably from each other as far as their graphic presentation is concerned. Accordingly, we must first analyze how these divergencies affect the general structure of entries. Secondly, we will try to define the essential components of entries in the two dictionaries, that is to say, the elements which are regularly part of any of the dictionary's entries, be it a simple or a complex entry.

The main part of this paper is devoted to the supplementary information which can be found in the two dictionaries, leaving aside for the time being both entries in Spanish and definitions as well as the Basque and Latin equivalents. It thus deals with grammatical information, explanations added to definitions for words, examples and popular sayings. We will try to see what is it that Larramendi takes /does not take from the rich and bountiful dictionary of the Academy. We will also try to determine which additions were needed to accommodate the contents to its trilingual character and to the fact that it was the first Basque dictionary.

Hiztegi bat defini dezaketen ezaugarrien artean bada multzo bat sarrera barruko informazioari dagokiona: zer jasotzen den sarrera bakoitzean, eta nola. Esku artean ditugun bi hiztegiak oso ñabarrik dira alde honetatik, eta hau bereziki azpimarratzeko da *HH*-an, ereduak baino hizkuntza bat gehiago jasotzen duenez gero: hirueladuna izan arren, ez da erdarazko sarrera-hitza eta haren euskal eta latinezko ordainak huts-hutsean jasotzen dituztenetako, Larramendik ezagutu zituen aurreko hiztegiak —Landucci, Etxeberri eta Harriet— bezala; ez da, labur esanda, hiztegi

(1) Lan hau J.A. Lakarrak zuzendutako UPV 033.130-HA005/98 eta J. Gorrotxategik zuzendutako PI97/49 ikerkuntza proiektuen barnean kokatzen da.

itzultzale hutsa, itzulpenarekin batera era askotako osagarriak eskaintzen baititu. Ñabartasun honen alderdi batzuk —gehiengoa— gaztelaniazko ereduau aurkitu zituen: ez zen mugatu, beraz, *DAut*-eko nomenklatura (sarrera-hitzaren zerrenda) kopiatzera; aitzitik, sarrerak osoki irakurri eta, buruan zeukan hiztegi egitasmoaren bahetik igaro ondoren, beharrezko edo interesgarri iruditu zitzaien guztia berera aldatu zuen, gauza asko alde batera utziak, jakina, baina baita bere aldetik tatu bereko edo bestelako osagarriak erantsiaz ere.

Ereduarekiko erkaketaren bitarte, hortaz, honek zer eskaini zion, eta nola eta noraino baliatu zuen deskubritzen has gaitezke, baita zer erantsi behar izan zion eta, bide batez, batera eta bestera jokatzera eraman zuten zioez ere jabetzen.

Ezer baino lehenago, aurkezpen grafikoa dela eta antzemandako ezberdintasunek *HH*-ko sarrerak nola eragiten dituzten aztertuko dut, *DAut*-eko sarreren osagaiak eta haien antolakuntza *HH*-koen erkatuaz (§ 1), eta bakoitzaren sarrera kanonikoa —ohiko osagaietan osatutakoa— deskribatuko (§ 2). Ondoko ataletan, berriz, batean eta bestearen diren osagai ezberdinak aztertzeari ekingo diogu: gramatikazko informazioa (§ 3), edozertariko azalpenak (§ 4), adibideak (§ 5) eta errefrauak (§ 6). Sarreren eduki osagarrietara mugatuko naiz oraingoz, gaztelaniazko sarrera-hitzak eta definizioak, hala nola euskarazko eta latinezko ordainak azterketatik kanpora utziak, arreta berezia —eta azterketa oso bana— eskatzen dute eta.

Gertakari bakoitzaren maiztasuna eta hedadura neuritzen lagunduko digun corpus bat eratu dut. A letran antzemandako funtsezko ezberdintasunengatik (*Urgell* 1998-1) iruditu zait zati jakin bat —letra bakar bat, adibidez— hautatzea arriskutsua izan zitekeela eta, horregatik, hiztegi osoko lagina lortzearren, alirritzira lehenengo liburukian 6. orrialdetik eta bigarrenean 21. etik hasita, 50 orrialdero bat haurtatu dut: orotara 17 orrialde oso eta 13 letra ezberdinak adibideak izango ditugu, era honetara: A (I, 6, 56 eta 106), C (I, 156 eta 206), D (I, 256), E (I, 306 eta 356), G (I, 406), I (II, 21), M (II, 71), O (II, 121), P (II, 171), R (II, 221), S (II, 271), T (II, 321) eta V (II, 371). Dena dela, behar eta ahalen arabera, *HH*-an zehar egindako bestelako ibilaldietan erdietsi ditudan xehetasun jakingarriak ere erabiliko ditut noizean behin.

1. Makrosarrerak vs mikrosarrerak

DAut-ek “makrosarrerak” dei ditzakegunak ditu, grafikoki hierarkizazio estu xamar baten arabera (1) adiera ezberdinak bata bestearen jarraian, (2) esapideak^{1 bis} bi sailtan (lehen hitzaz beraz hasten direnak eta gero bestelako hitzak hasten direnak) alfabetikoki ordenatuta, eta (3) errefrauak alfabetikoki ordenatuta jasotzen dituztenak.

Ez da horrelakorik Larramendiren hiztegian, grafismoaren aldetik item ezberdin artean inolako bereizkuntzarik egiten ez delako, hain zuzen, ikusi dugun bezala (*Urgell* 1998-1). Beraz, beti grafismoari begira, Larramendiren hiztegia bereizkuntzarik gabeko eta maila ezberdinetako item segida bat da, “makrosarrera” “mikrosarreratan” zeharo barriatuta geratzen delarik.

(1 bis) Oraingoz “esapide” hitza adiera ez tekniko batean erabiliko dur, benetako esapideak zein egun “kolokazioak” deritzenak barruan hartuaz.

Honi gaineratu behar zaio alfabeto hurrenkerari jarraitzeko *HH*-an dagoen malgutasuna. Alde batetik, mikrosarrera direlako horiekin jadanik hausten da hurrenkeria, besterik gabe, jatorrizko makrosarreraren osagaiak (esapideak, errefrauak, etab.) hasiera ezberdinekoak diren oro. Bestetik, hitzak familiaka eta familien barruan adieraka biltzeko joeragatik, baita bestelako arrazoiengatik ere (grafi aldaketak, etab.) hurrenkeria kolokan geratzen da sarri. Labur bilduz, esan daiteke *HH*-ko mikrosarrerak, barraiatuak izateaz gainera oso mugikorrik direla, agertuko diren lekua alfabetoaren hurrenkeraren baino hiztegigilearen behar eta asmoen araberakoago baita, eta haren edo inprimatzailaren hutsek erraz eragin dezaketena.

Inpresio hori areagotu daiteke gauzei gertuagotik begiratuaz: izan ere, *DAut*-ek gorderzen duen esapideen arteko alfabeto hurrenkeria estua, sarritan hautsita agertzen da *HH*-an; ondoko adibidean aurrez aurre ditut hiztegi bietan agertzen diren *pie* hitzaren esapideak,² *DAut*-en dagoen ordenaren arabera; zenbakiek *HH*-an daukaten ordena, batuetan ezberdina, adierazten dute:

PIE DE ALTAR.	1 Pié de Altar.
PIE DE AMIGO.	2 Pié de amigo.
PIE DE GALLINA.	3 Pié de gallina.
PIE DE GALLO.	4 Pié de gallo.
PIE DE LIEBRE.	5 Pié de liebre.
A los <i>pies</i> de V.m.	6 A los pies de v.m.
Al <i>pié</i> .	7 Al pié de un roble, &c.
Al <i>pié</i> .	8 Al pié de, casi.
Al <i>pié</i> de la letra.	13 Al pié de la letra.
A <i>pié</i> .	9 A pié.
A <i>pié</i> enxuto.	10 A pié enxuto.
A <i>pié</i> firme.	11 A pié firme
A <i>pié</i> quedo.	15 A pié quedo.
En <i>pié</i> .	12 En pié, de pies.
En un <i>pié</i> de tierra.	14 En un pié de tierra.
Irse por <i>pies</i> .	16 Irse por pies.
Poner <i>pies</i> en pared.	17 Poner pies en la pared.
Poner <i>pies</i> en polvorosa.	18 Poner pies en polvorosa.

Larramendik hurrenkerari jartzen zion arreta eskasa oraindik hobeto antzematen da esapideen artean berak erantsitako zerbait agertzen denean, eta esan gabe doa grafi aldaketek ere ez dutela esapidea lekuz zertan aldatu:

PIEDRA	Piedra, <i>arría</i> .
_____	Piedra cenizal...
PIEDRA.	Piedra, granizo...
PIEDRA DE AMOLAR.	Piedra de amolar...
PIEDRA DEL AGUILA.	Piedra de el águila...
PIEDRA DE TOQUE.	Piedra de el toque...

(2) Larramendik hartu dituen item-ak bakarrik jasoko ditut; Urgell 1999-1-n aurki daitezke *DAut*-en orokorki ez eze makrosarreraren maila guztietan ere egin zuen inausketari buruzko xehetasunak.

PIEDRA INFERNAL.	Piedra infernal...
PIEDRA PHILOSOPHAL.	Piedra Filosofal...
PIEDRA POMEZ.	Piedra pomez...
PIEDRA PRECIOSA.	Piedra preciosa...
_____	Piedra de molino...
_____	Piedra de el saque en el juego de la pelota a mano...
A piedra y lodo.	A piedra y lodo.

2. Sarrera bakunak

HH-aren sarrera arrunta, bere izenak eta izanak eskatzen duen bezala, “GAZTELANIA, EUSKARA. LATINA” da, alegia, (1) erdarazko *input-a*, (2) euskarazko ordaina(k) eta (3) latinezko ordaina(k), ordena honetan. Adibidez:

Mañoso, el que tiene maña, industria, *trebea, cintzoa*. Lat. *Habilis, dexter*.
Océano, *itsasoa*. Lat. *Oceanus*.

Sanar, *sendatu, osatu, gueritu, erutsitu*. Lat. *Sanare, sanum facere*.
Vertedero, vertedor, *isurteguia*. Lat. *Locus quo aqua effunditur*.

Gure corpusean honelakoak 658 dira (% 73'8).

DAut-en sarrera arruntak, ordea, askoz eduki berezi gehiago dauka: “HITZA. G.K. AZALPENA. LATINA. ADIBIDEA(K)”, hots, (1) *input-a*, (2) gramatika-kategoria laburduraz adierazia, (3) azalpena edo definizioa, (4) latinezko ordaina(k) eta (5) liburuetatik ate-ratako adibideak; esate baterako:

ARVEJAL. s.m. Sítio donde se siembran y nacen muchas arvéjas. Lat. *Locus ervilia satus*. GRAC. Mor. fol. 143. El vicio de criar caballos no quiere *arvejales*, sino eras fertilissimas.

Bi hiztegion artean dagoen ezberdintasun hau erabat espero izatekoa zen: “The more languages included, the more difficult the problems become” (Landau 1989: 10). Eskuarki, hizkuntza bat baino gehiago hartzen dituzten hiztegiak bakunagoak izateko joera dute. Zer esanik ez, bitik gora hartzen dituztenetan. Adibidez, “Sbarbi-Urquijo” deitu hiztegia, laueleduna, Laramendirena baino oraindik bakunagoa da, eta normalean hizkuntza bakoitzeko ordain bakarra, bi asko jota, jasotzen du, era honetara:

tabala: tympheum, l; tambor, c; tambour, fr.

tabere: postpos praeter quam quod, l; tras que, tras de, c; autre que, fr.

Ez da honelakoa Laramendiren hiztegia, ez eta bere gaztelaniazko ereduak ere. Gorago aurkeztu ditudan sarrera kanoniko haietan jasotzen dena gutxieneko informazioa da, baina batean zein bestean gehiago agertzen da sarritan. Honela deskribatu zuen Laramendik berak (1745: liv): “He puesto en los lugares y voces correspondientes, para suplir lo que en esto falta al Arte, muchissimos irregulares, que con mas frequencia tienen uso en el Lenguage comun; muchos refranes, frases y modos de hablar”. Beraz, aditz trinkoak, atsotitzak, esaerak eta esapideak itxaron ditzakegu gutxienez, baita horiexen ondoan aipatzen dituen etimologi ospetsuak ere,

jakina. Ondoko ataletan bere esan hori zertan gauzatzen den, ereduak eskaintzen ziona nola erabili zuen eta bere aldetik zer erantsi zuen aztertzen saiatuko naiz.

3. Gramatikazko informazioa

Akademiak zenbait urte beranduago gramatika bat argitaratuko zuen. Larramendik, bere aldetik, urteak ziren kalean zuela. Bataren eta bestearen hiztegietan agertzen diren era honetako berriak ez dira, nolanahi ere, ez gutxi ez hala-holakoak. *HH*-ak oro har arreta gutxi jartzen die gaztelaniaren gorabehera gramatikalei, baina euskal gramatikazko osagarri mamitsu bat jasotzen du bere baitan, hiztegiaren eta gramatikaren arteko loturaren lekuko eta ondorio. Inondik ere, hiztegiko informazioa bildu beharko da inoiz, Larramendiren ekarpen gramatikala bere osoan neurutuko bada.³

3.1. Gramatika kategorialak

DAut-ek, sarrera kanonikoaren aurkezpenean ikusi bezala, sarrera guztietan laburdura sistema trinko baten bidez hitzaren kategoria eta are beste informazio batzuk (izenkien generoa, adizkien portaera sintaktikoa, etab.) eskaintzen ditu; hona hemen hasieran ematen duen laburduren zerrenda:

S.m. = “Nombre substantivo masculino”, S.f. = “Nombre substantivo femenino”, S.amb. = “Nombre substantivo ambiguo”, “Adj. = “Nombre adjetivo”, “Adj. de una term. = “Adjetivo de una terminación”, Pron. = “Pronombre”, V.a. = “Verbo activo”, V.n. = “Verbo neutro”, V.imp. = “Verbo impersonal”, V.r. = “Verbo recíproco”, Part.act. = “Participio activo”, Part.pas. = “Participio pasivo”, Prep. = “Preposición”, Adv. = “Adverbio”, Interj. = “Interjección”, Conj. = “Conjunción” (*DAut* 1726: lxxx).

Laburdura hauetatik, edo ordezkatzen dutenetik, ezer gutxi geratu da *HH*-an. Egon badaude batzuk baina, batetik, formaz aldakorrak dira, inoiz hitza osorik emateraino iritsiaz;⁴ eta, bestetik, *HH*-an zeregin zeharo ezberdina daukate gehienetan: adieren arteko bereizketa egiteko erabiltzen dituen baliabideetatik bat baino ez dira, eta ez inondik ere ohikoena.⁵ Ezaugarri biok iragartzan duten bazterreko papera baino ez du betetzen gure corpusean, bost ale soilekin:

“Defensivo, va, adjetiv.” vs “Defensivo, por *defensa*”.

“Guay, interjección, lo mismo que *ay...*”.

“Interrogatorio, subst.” vs “Interrogatorio, adjet.”.

“Intestino, adjet.” vs “Intestino, tripas”.

(3) Orain arteko hurbilketa bakanek, zatikazkoak —Alberdi 1989, deklinabideaz— zein orokorrak —Oiharçabal 1992, Larramendiren aurreko euskal gramatikagintzaz; Gómez 1992, Europako gramatikagintza tradizioak Larramendiren gramatikan utzi dituen axtarnez— izan, denek *Imposible Vencido* bakarrik hartzentz dute aintzat.

(4) Ikuusiko ditugun adibideen arabera, badirudi hiztegiaren bukaeran laburdurak utzi eta osorik emateko joera izan zuela.

(5) Honetaz ik. Urgell 1999-1: § 4.1.

Han-hemen aurkitutako beste adibide batzuek halakoen betebehar nagusia adiera bereizketa dela egiaztatzen dute:

Ezinbestean aipatu behar den hurrengo azterzailea Jon Juaristi da. *Obra Guztiak Poemak II liburuari idatzitako Hitzatzean* (1976: 506-517), *Maldan beherari* buruz plazaratu diren intuiziorik emankor eta interesgarrienetakoak daude bilduta. Hor errebindikatu da modu sendo batean, eta aurreneko aldiz, Elioten iturria bilbotarra-ren poesiagintza ulertzeko. Haren eragina atergabea gertatzen da *Maldan behera* poeman zehar:

Lenen aipatutako idazleak (L. M. Mujika) baiezatzen duenaren kontra Arestiren sinbolorik iraunkorrenak ez dira urbanoa. Aitzitik, askok antiprogresistatzat sailkatuko luketen pentsamendu korronte batean situatzen dira.

Lehenbizikoa, eremua dugu (...). Motibo hau Nietzschegan du etorkia (zibili-zazioa haunditzen den neurrian, zabaltzen da eremua), eta Arestik gidaritzat hartu zuen eskritore baten obran gauzatzen da poetikoki: T. S. Elioten *The Waste Land* poema liburuan, noski. (Juaristi 1976: 514)

Eta aurreraxeago, oin-ohar batean, hauxe baiezatzen du: *The Waste Land* hartu zuen *Maldan beherako* eredutzat (Juaristi 1976: 514). 1976ko intuizio haiiek ez dute orain artean garapenik izan.⁹ J. Juaristiren intuizio horri jarraikiz, honela idatzi nuen *Zirkuluaren hutsmina* liburuan:

Alabaina, Eliot-en *The Waste Land*ko basamortuak asko zor dio Nietzsche-renari, aspalditxotik aurreratua baitzuen pentsalariak zibilizazioarekin batera eremua ere zabaltzen ari zela. Basamortua, antzutasun eta lehorte sasoia, basamortua gizaki berriaren (gaingizakia) erditze latza ekarriko duen sasoia; basa-mortua, funtsean, zibilizazioaren bihotzeraino sartua dago; zibilizazioa eta bere sinbolo nagusia —ziutatea— litzateke gizaki berriaren ernaltzea eragozten duena. Ziutatea eta nihilismoa, Modernitatea... Horixe da Nietzsche-ren lanetan, behin eta berriz agertuko zaigun imajina. Jadanik *Trajetiaren jaiotza* hartatik dabil autorea lur puska osasuntsu eta emankor baten bila: 'noranahi begiratu eta hautsa, harea, zurruntasuna eta akidura... Baina majia dionisiarrak ukitzen dionerako, a ze bapateko aldaketa basamortu horrena, hain ilaun ikusi izan dugun gure kultura akituarena'. Beharbada, horrexegatik heltzen dio Nietzsche-k *Zientzia Alaia* izenekoan sasoien joan-etorri eternalari, eta zera adierazi: 'Apirlak oso gainean dauka beti neguaren oroitzapena, baina baita neguaren garaipenarena ere, gertatzean dagoen garaipena, gertatu behar duena'. Beranduxeago etorri zitzaignon Eliot gai beraren eskutik; eta, are beranduxeago, Aresti. Egia da Arestik gogoz irakurri zuela Eliot-en lana; ezingo genuke ulertu *Maldan behera* poeta anglo-amerikarra ahazturik. Nietzsche gabe ere ezingo genuke ulertu, eta, are gutxiago, *Biblia* alde batera utziko bagenu (Aldekoa 1993: 113).

J. Atienzak, 1979an argitaratu zuen liburuaren hitzaurrean, onartzen du *The Waste Land*en eragina, baina ez du uste eragin hori sakona izan zenik:

(9) Cf. "Post-sinbolismoa: T. S. Eliot" (I. Aldekoa, argitaragabea, 86-90).

Pero Juaristi (y Mitxelena lo acepta) no conceden el calificativo de ‘urbano’ para Aresti. Remiten a la insistencia en el desierto y a la lectura apasionada de *The Waste Land*, de Eliot.

Esto es verdad si nos referimos a *Maldan behera*, no si reparamos en *Harri eta Herri*. Y no cabe duda de que los críticos de la literatura en euskera prefieren la lectura de la primera de las obras, a pesar del éxito de la segunda.

Hay algo que no nos deja aún tranquilos: las deudas de Aresti con respecto a Eliot y, muy especialmente, a *The Waste Land*. A quienes conocían al poeta les constaba que Aresti era gran admirador del de lengua inglesa. Que tradujo, incluso, nuestro autor los *Cuatro cuartetos...* Esta dedicación debía incidir, en la producción arestiana en euskera. En *Maldan behera* está el escenario, no el desarrollo. Está algo de la estructura dramática..., pero la concepción difiere totalmente. En *The Waste Land* hay un planteamiento unanimista; en *Maldan behera*, es personalista. *Maldan behera* es mucho más Nietzsche y *Nuevo Testamento* que Eliot (Atienza 1979: 73-74).

Atienzaren ikuspegি hori L. M. Mujikak onartzen duela dirudi, II Euskal Mundu-Biltzarrean irakurri zuen komunikazioan:

Atienza, berriz, hurbilagotik jota (eta bere lana orain arte Aresti-ren poesia-gintzak eduki duen detenituenetako da), Nietzsche-ren eraginean aztarrikatzen ahalegintzen da, Testamendu Berri-ko hari ideologikoaren tartekadurak ere (Arestiren mesianismoa dela-eta) argitan ezarriz. Bain, baita bien arteko berezitasunak edo desberdintasunak (...).

Beste autore zenbaitek *Maldan behera* poeman Eliot-en *The Waste Land* obraren eragina kausitu du. Gure iritzian, berriz, obra horren eragina ez da, hain hurbilekoa (...) Elioten obra hori erne irakurri dugu, eta bi liburuun arteko hariak hurbilak baino gehiago aski urrunak, generikoak dira” (Mujika 1988: 231).

A. Arkotxak bere desadostasuna agertzen du L. M. Mujikaren baieztapen horren aurrean. Gainera, ikus daiteke A. Arkotxak bere tesian maiz erabili eta aipatu duela Eliot (cf. Arkotxa 1993: 222). Tesiaren oin-ohar batean honela idatzi zuen A. Arkotxak:

Il est bon de rappeler ici l'allusion à la bête de l'Apocalypse qui est faite dans *Maldan behera* (C.f. Deuxième Partie). D'autre part, dans un texte en prose et vers fort intéressant, intitulé *Haserre dantza* (From 'Zuberotar Maskarada: Suite de danses souletines et mixaines'), publié pour la première fois par J. S. Martin in *Egan*, 1986: 1-2, et qui aurait davantage été à sa place au sein de l'oeuvre poétique d'Aresti plutôt que dans la partie narrative (...), nous avons une mention explicite de l'Apocalypse de Jean à propos d'un passage où l'on nous parle de 'candélabres d'argent' (*zilbarrezko kanderailuak*) (mais les candélabres dans l'Apocalypse sont en or, ainsi que nous les verrons). Aresti, imitant en cela T. S. Eliot, indique en note les différentes œuvres qui l'on inspiré: Blues of Mary's colour d'Eliot, l'Apocalypse "ou La Révélation" de Jean, Hamlet de Shakespeare et 1984 de Orwell (1993: 71).

Gorago aipatu dugun *Haserre-dantza* lanaren amaiera gisa poema bat dator; poema horrek adierazten digu, berriz ere, Arestik Elioten aurrean jasan zuen trasferentzia poetikoaren tamaina norainokoa izan zen. *Lur Eremuak* bete-betean dauka harrapatuta poeta (edo, Lur Antzua deitu nahi ez bazaio, dei diezaiogun Lur Eremua). Poema hori Arestiren lehen-lehenengoetako poema bat da, 1954-1955ean idatzitakoa.

Maldan beheraren bigarren zatiari buruz I. Sarasolak esandakoa (cf. 1976: 80) aintzat hartzen duelarik, honela idazten du J. Atienzak:

Pero nos tienta recoger la antorcha de Ibon Sarasola (...) Hay que conectar esa segunda parte, sin duda. De lo contrario, nos quedaremos con 11 poemas que pueden cerrar formalmente un posible libro, pero que incurren en contradicción... (1979: 75).

Aurelia Arkotxak ere Atienzaren erronka beraren aurrean jartzen du *Imaginaire et poésie dans Maldan bebera de Gabriel Aresti* tesi-azterketaren asmoa:

L'objet de cette étude est de proposer une lecture qui permette d'envisager *Maldan bebera*, l'oeuvre le plus énigmatique de G. Aresti, dans son unité, sans prétendre pour cela, donner la clé une et définitive de l'oeuvre (1993: 3).

Arkotxak, bere azterketaren zedarriak argitu asmoz, K. Mitxelenak¹⁰ 1978an idatzitakoa gogorazten digu, alegia, *Maldan bebera* poemak ilun irauten duela oraindik. Aurrerago, tesiaren lerro nagusien nondik norakoak seinalatzen dizkigu:

Notre analyse débutera par une étude morphologique de *Maldan bebera* qui nous permettra de dégager avec plus de netteté la structure sémantique essentielle. Pour cette étude morphologique, nous nous appuierons sur les observations faites en 1976 por I. Sarasola¹¹ dans son prologue à *Obra Guztia/Obras Completas*, observations que nous complèterons et remettrons en question à chaque fois que nous l'estimerons nécessaire. Dans la partie consacrée à l'approche sémantique proprement dite, nous rappellerons, tout d'abord les diverses conclusions auxquelles sont arrivés I. Sarasola et à sa suite J. Atienza; ensuite, avec J. Azurmendi, nous ouvrirons le chapitre délicat des traductions de *Maldan bebera*, puis nous nous pencherons assez longuement sur *Zuzenbide debekatua* (Miren eta Joaneren historiarene hasiera)¹² à cause du lieu évident qui l'unit à *Maldan bebera*; nous aurons, à cette

(10) Honela idatzi zuen K. Mitxelenak: "Aún después del ensayo de Sarasola, no veo qué está por qué o, sus otras palabras, cuál es el sentido que da consistencia y raíz profunda a los nítidos pero lineales diseños superficiales" (1978: 408).

(11) Egia esan, A. Arkotxak burutu duen azterketa formala (1993: 13-30) bikaina da oso. Sarasolak bere azterketan eskainitako bertsotako kontaketa bertsotako bertsotako eransten dizkio: "*Maldan bebera* forme une longue fresque subdivisée en vingt et un chants lesquels rassemblent deux cents vingt deux strophes et une totalité de mille neuf cents seize vers" (1993: 12).

Maldan bebera poemaren izenburuei I. Sarasolak eskainitako garrantziari ere gehiegiz deritzo Arkotxak: "C'est pourquoi le décodage primaire des titres tels que Hariztia: Aresti, Iratze ederra: Iratzeder, etc. (Sarasola 1976: 69), nous paraît, certes important, mais secondaire" (1993: 76).

(12) Bikaina da, baita ere, *Zuzenbide debekatuaren* eta *Maldan bebera* poemaren arteko loturak aztertzen dituen zatia (1993: 41-76). Bi poemaren arteko balizko hartzemanak sakon eta zorrotz daude aztertuta. Nire aldetik, Arkotxaren lan hori bere osotasunean neuire eginik ere, "karta-jokua" poemak direla eta, zera planteatuko niroke, Calvino eta urrutietako iturrietara jo aurrelik, bazuela Arestik oso gertutik ezagurzen zuen poesia liburu baten berrikirik: G. Celayaren *Las cartas boca arriba* (Madrid, 1951). Poema liburu horretan poemaren egiturara errenditzen ditu Celayak bere inguruko poetei zuzendutako gutun/kartak (estilo epistolario eta karta jokoarena bateratuz). Edo, *The Waste Land*eko karta/patu irakurlea ere hor dago: "Madame Sosotris famous clairvoyante" (Eliot, 60).

Ezkutu eta Dukat banatan poemari buruz ekarri erabakigarriak egiten ditu Arkotxak, orain arteko poema horren inguruko iritziak aldatzeraino: "Un autre argument de poids prouvant que la rédaction de *Ezkutu* et de *Dukat banatan* est ultérieur à *Zuzenbide debekatua* et même à *Harri eta Herri...*" (1993: 57).

occasion, l'opportunité d'apporter des informations nouvelles et de remettre en question certaines idées préconçues. Les observations une fois faites, nous tenterons de décoder la signification des titres des vingt et un chants de *Maldan bebera* et d'analyser la symbolique de quelques nombres clés. Nous consacrerons enfin la deuxième partie dans son entier à l'étude de la dynamique interne de *Maldan bebera*. (Arkotxa 1993: 13)

Arestiren *Maldan bebera* dela eta ezin dugu gehiago atzeratu J. Azurmendiren saio honen aipamena: "Aresti: sensibilitate konkretu bat" (1985: 5-30). Saio horretan J. Azurmendik zabaldutako bideei asko zor die A. Arkotxak. Estate baterako, Apokalipsiko "bestia"ren irudia Azurmendik argitu zuen, eta horren ondorioak izugarri aberatsak gertatu dira *Maldan beberaren* zentzua argitzeko orduan. Lan horren meritorki handienetako, ondorioetan bikainena, "bestia" irudiaren argitzean kokatuko nuke nik. Aipagarria da, bestalde, *Maldan beberaren* itzulpenei buruz idatzitakoan ere gauzak bere lekuak uzten dituela Azurmendik.

Une honetatik aurrera, eta zuzenean *Maldan beberari* buruzko azterketa sinboliakoan sartuta gaudelarik, nik neure bidea eraman dut, parean suertatzen baldin bagara beti ekarriko dut, legezko aipamenen bidez, Arkotxarena nirera. *Maldan beberaren* azterketan bete-betean sartuta gauden honetan, bada, aitortu behar dut bakoitzak bere bidea eraman duela. Nireak ez du zer ikusirik Arkotxaren planteamenduarekin:

Si la Première Partie de notre étude se veut une analyse de la structure morpho-sémantique de *Maldan bebera*, la Deuxième Partie sera axée sur une lecture initiatique des vingt et un chants. Les apports de la psychologie analytique, de même que les travaux d'Eliade, de Bachelard et de Durand, sans oublier ceux du préhistorien et anthropologue basque Barandiaran, ni ceux de l'ethnologue Caro Baroja, nous ont constamment servi de référence au moment d'étudier l'ensemble des images et des relations d'images (Durand 1979: 11) qui surgissent de la trame de *Maldan bebera* (Arkotxa 1993: 4).

1.3. Maldan Behera poemaren inguruko gorabeherak¹³

Denbora luzez ari da Aresti, oraintxe neure buruan imajinatzen dudan poeta, *Maldan beberako* poemako testua harilkatzen. Arestik berak aitortua du poema hori ez zela osotasun betekoa, frakzionarioa baizik. Zergatik zioen hori? Beranduago idatzitako beste poema baten (*Zuzenbide debekatua*) historiaren bukaera ere bazelako, edo han dabiltsan ideia eta intuizioak, idazkera une eta dinamika ezberdinatan sortu zirelako? Galdera gehiago ere egin daiteke. Estate baterako, zein izan zen poemaren hasierako asmoa? Poemaren egiturari erreparatzen badiogu, nik neuk ez nuke dudarik egingo: *Untergangetik Requiemera* (I-XI). Are gehiago, ez nago batere ziur orain eskura dugun poemaren bertsioa ote zen Arestik Loramendi sariko epaimahaiaren eskuetan jarri zuena: zergatik "Besarkadaren ondoren" edo "Malda Goran" bezalako eranskiak? Eta zer da bien artean joan behar zuen *Mirenен koplategia* delakoaz? Noiz bururatu zitzaison Arestiri "Joan eta Mirenen historiaren bukaera" azpititulatzea poema? Ez al zeukan ordurako lehen zatia (I-XI) amaituta? Galdera horien guztien

(13) Cf. Aldekoa, 1993: 48-49 eta Arkotxa, 1993: 9-13.

erantzun dokumentatua nahi luke ikertzaileak, baina ez dago halakorik. Hara zer ondorio atera duen A. Arkotxak zalantza oraingoz konponezin horien inguruan:

Dans sa version définitive, *Maldan behera* nous est présenté comme un ensemble de vingt et un chants dont un seul porte un titre identique à la troisième partie: le chant D20. Tous ces faits montrent bien qu'Aresti remettait vingt fois sur le métier son ouvrage et que la version parue dans *Euskera* ne peut être le fruit que d'un travail long et minutieux (1993: 11).

Koldo Mitxelenak 1978. urtean honako hau idatzi zuen:

Por la razón que sea —ya no la recuerdo con exactitud— había leído ya este poema de más de 1900 versos, cuando aún no llevaba firma o, en otras palabras, antes de que fuera premiado: desde entonces, por alguna oscura afinidad, ha sido uno de mis favoritos en la literatura vasca (1978: 407).

K. Mitxelenaren hitz horiek ahultzen badute ere gorago planteatu dugun hipotesia, ez du inondik ere auzi gaizto horretaz dudan zalantza isiltzen. Ez dut gainera uste hitzez hitz hartzekoak direnik Mitxelenaren hitz horiek; izan ere, gogoratzan ez baldin bada zer zela eta iritsi zitzaiion *Maldan behera* eskuetara, nekezagotz gertatu behar zitzaiion poemaren luzera zehatzaz oroitzea. 1959ko abenduaren 14an N. Tauverri idatzitako gutunean honako hau zioen Arestik:

Horregatik hasi nintzen poema luze bat idazten, *Joane eta Miren* izenekoa. *Maldan behera* poema horretako lehendabiziko partea. Hirugarrena badaukat amaiturik, *Azkenengo besarkada*, eta bigarrena garai honetan egiten ari naiz: *Mirenen Koplategia*. Hiru zatiak luzeera berdinekoak dira, 677 puntu bakoitzak. Amorio baten istorioa da, hobeki esanik, amorioaren historia eta arrazoia. Lehendabiziko partean mutilaren sentimentuak adierazten dira, Miren ezagutu eta hil arte. Hirugarrenean hil eta amorioa bete arte. Bigarrenean neskatalaren sentimentuak adierazten dira. Akabatzen dudanean liburu batean argitaratuko dut, norbaitek laguntasuna eskeintzen badit hala egiten (Aresti 1986: 10, 140-41).

Nik ez dut uste erabateko loturarik dagoenik “sendan, estratan, galtzadan eta kaminoan eginiko gogoeta eroak”en eta *Maldan beherako Hariztia, Lizardia, Iratze ederra, Lore-mendia eta Herri-bitartea* poemaren artean. Areago aintzat hartzen baldin badugu *Arratsalde urduri baterako* izenburupean argitaratu zirela poema horiek gehie-nak *Olerti* aldizkarian:

Poema hauen arteko lotura hertsiaaren lehen seinale formala izenburuetan datza: lau poemok ‘gogoeta eroak’ dituzte gaitzat, sendan, estratan, galtzadan eta kaminoan eginikako gogoeta eroak hain zuzen. Hildo honetatik, poema hauen arteko harremana areago doa: gerraondoko euskal poesiaren antologiarako¹⁴ materialak estudiatzen ari ginela, ‘sendan eginiko gogoeta eroak’ eta 1959an *Olertin* publikatu zen ‘Arratsalde urduri baterako’ poemaren artean harreman bat nabaritu genuen, eta horrela adierazi genuen, lan hura bildu zuen liburuaren argibidean. Aurrerago, eta beste arrazoirengatik, azken poema hori irakurtzen ari ginela, bigarren estrofako lehen ahapaldia —‘goiko basoan elurra, zuria eta motza da’—, beste nonbaiten irakurria iruditu zitzagun. Uste horrek eraginda MALDAN BEHERA jo

(14) I. Sarasola: *Gerraondoko Euskal-Poesiaren antologia* (1945-1964), Donostia, Lur, 1973.

genuen, eta bi poemen konparaketak ikusarazi zigun C egiturako lau poemen hasierak ARRATSALDE URDURI BATERAKOREN estrofen berrordenaketa sistematikoa baten ondorio zirela. Edo, hobeki, 'Arratsalde urduri baterako', lantzen ari zen poema zabalago baten, hots, gero MALDAN BEHERAN gauzatuko zen obraren zirriborro bat litzatekeela: formaren aldetik denak adierazten bide du Arestik lau poemak batera landu zituela. Hildo berean, poemon batasuna, azaltzen duten karakter diskurtsiboagatik, B egiturako multzoari oposatzen da.

Orain arte esan dugunaren arabera, lehen parte honen estruktura hau litzateke: ABCBCBCBCBA" (Sarasola 1976: 256-258).

Andoni Kaierori zuzendutako gutunean, Arestik *Maldan beheraren* bigarren zatia aipatzen dionean, guk ulertuko genukeen zati beraz ari al da poeta? Izan ere, errezeleoa dut bigarren zatia aipatzean *Lore-mendia*, *Herri-bitartea* eta *Requiem-ari* buruz ari ez ote den poeta, eta ez gaur egun ulertuko genukeenaz, *Requiem* eta *Maldan goraren* bitartekoaz alegia. Horra zer zioen Arestik Kaierori zuzendutako gutun hartan:

En estos momentos estoy llevando a cabo la segunda parte de *Maldan bebera*; como te expliqué, es el mismo asunto, incluso la misma poesía, pero tomado desde otra perspectiva, desde otro ángulo, pues el narrante, el poematizador que llamaría yo es la muchacha 'eta baratzainak izena dauka Miren' (Aresti 1986: 10, 137).

Horixe guztia da ezin konprobatu izan dudana:¹⁵ 1960an *Euskara* (1960: 189-234) aldizkarian argitara eman zen bertsioaz harago ez baitago inongo beste daturik. Garbi badago testu finkatua 1960koa dugula, edo Arestiren inguruko ikerketaren egoerak gehiagorako ez badu ematen, *Euskara* aldizkarian argitaratu zen bertsioa dagoen-dagoenean onartu beharrean gaude.

Zalantzok gorabehera, dagoena dago; eta horri buruz I. Sarasolak (1976: 52-62) aspalditxo eskaini zuen azterketa formalia neurea egiten dut. Hona zer zioen bigarren zatiaz: "Poemaren bigarren parteaz ezer guti dugu esateko. Beharbada lehena baino gutiago eta azalkiroago estudiatu dugulako, ez diogu oraingoz berezko nortasun bat atzematen: lehen partearen imitazio errepikataile bat iruditzen zaigu, zentzu nabarmenik gabeko joku baten antzeko zerbait" (Sarasola 1976: 80). Honaino iritsi ondo-

(15) Nire ahaleginean, aurren-aurreneko urratsek Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzara eta Donostiarriko Foru Aldundiko liburutegira eraman ninduten. Izan ere, bai bainekien batetik Loramendi saria-ren erabakia Donostian hartu zela (*Euskera*, 1959), eta bestetik, inon egotekotan Euskaltzaindiak antolatutako sari baten orijinalak, Euskaltzaindiaren egoitzan bertan egon beharko zutela. Horrekin batera, epaimahaikideetako bi lagun *Egan* aldizkariko arduradunak ziren: K. Mitxelena eta A. Irigarai. Hirugarren epaimahaikidea A. M. Labaien izan zen. Nire ikerketak bide horretan jarri ninduenerako hirurak zeuden hilda, eta Donostiako Diputazioan ez zen balizko orijinal horren (*Maldan bebera*) inongo berririk. Orduan Alfontso Irigoiaren eta J. San Martinengana jo nuen, lehenengoarengana interes bereziarekin, garai hartan, 1958-59ko urteetan Arestiren mundutik oso gertu ibilia zelako. Bai Irigoiarenek bai S. Martinek ez zuten gordetzen *Euskera* aldizkariko bertsioaz haragoko ezerren oroitza penik. Hurrengo saioak Irigaraien semearengana eraman ninduen, baina hark ere esan zidan ez zuela uste bere aitak eskuizkribu hori inoiz etxearen gorde zuenik. K. Mitxelenaren alargunak alderantzizkoa adierazi zidan, bere senarrak guztia gordetzen zuela, ez zuela ezertxo ere botatzen, eta emateko pare bat eguneko epea. Halaxe egin nuen, eta handik bi egunetara deitu nuenean, esan zidan, inon egotekotan ere oso zaila zela garai hartako uesteko bertsio bat aurkitzea. Dena den, aitortu zidan, J. M. Satrustegiri enkarigua agindu ziola, eta ibili zela bazterrak arakatzen, baina ondorio pozgarririk gabe. Horraino iritsi ondoren etsi behar izan nuen, eta beste berririk ezean, 1960ko bertsioa onartzera makurtu.

ren, lehenbailehen jakin beharrean gaude zer kontatzen zaigun *Maldan beheran*, ezen hain poema luzeak behar zuen nahitaez hezurdura narratibo bat.

Ukaezina da modu asko dagoela poema baten irakurketa bati ekiteko. Poemara hurbiltzeko modu egoki bat litzateke autoreak berak poema buruan bildu zituen aipuak aintzat hartzea, eta ikustea norainokoa den aipu horien pertinenzia poemaren ulermenerako. Aipu horien arabera lau iturri desberdinan norabideak zabaltzen dizkigu Arestik: Nietzsche, Biblia, Eliot eta Salinas (autoreak jarritako ordena bera-ri eutsiz).

1.4. Azal-azaleko hurbiltze saioa

1.4.1. Nietzsche, Eliot, Biblia

Nire ustez, *Honela mintzatu zen Zaratustra* liburuko hitzaurreak asko lagunduko liguke *Maldan beherako Lizardia* eta *Iratze ederra* izenburuko poemak ulertzen. *Honela mintzatu zen Zaratustrako* hitzaurre hori hamar urratsetan garatzen da, eta urratsez urrats betetako ibilbideak menditik herriko jendaurrera ekarriko du poemako heroia. Honez gero zaila da ezkutatzeari *Honela mintzatu zen Zaratustrak Maldan behera* poemari gertatzen den peripeziarekin duen paralelismo maila. Izan ere, honako honetan ere, *Maldan beheran* alegia, mendi gailurretik herriko jendaurrera (*Herri-bitartea*) egindako jaitsiera baizik ez baitzaigu kontatzen. Eta, egia bada ere, “gogoeta eroak” beren autonomia propioa ere badutela, poemaren hasieratik jendaurrera ibilitako urratsak hamar dira hemen ere. Beraz, hamarreko zenbaki hori ezingo da, inolaz ere, alde batera utzi: hamar urratsez beteko da heroiaaren *Maldan beherako* jaitsiera, eta hamar urratsez ibilikor gero *Malda goran* izango dena, bienbitartean *Requie*ma dagoelarik.

Maldan beherako Lizardia Zaratustra-ren jaitsierako “zuhaitzia”¹⁶ ere bada. Hara zein galdeketa egiten dion Zaratustrari basoan aurkitu duen agureak:

Ez zaidak arrotz ibiltari hau: duela zenbait urte igaro huen hemendik. Zaratustra zian izena; baina aldatu egin duk.

Orduan heure errautsak heramatzan mendira: gaur heure sua eraman nahi al duk ibarretara? Ez al diok beldurrik suemaile-zigorri?¹⁷ (Nietzsche 1992: 30).

(16) Cf. Aldekoa 1993: 50-51. Horra zer dioen A. Arkotxak urte berean argitaratu zen tesian: “La présence de la forêt est loin d'être innocente et, indépendamment de sa signification symbolique que nous étudierons ultérieurement, nous devons noter qu'elle figure dans Zarathoustra: "Quand l'aube se mit à poindre Zarathoustra se trouva au cœur d'une profonde forêt et plus aucun chemin ne s'offrait à ses yeux" ou encore ces mots du vieux sage qui avertit Zaratustra: "Ne vas pas auprès des hommes, reste dans la forêt! Mieux vaut encore aller avec les animaux" (1993: 78).

(17) Gogoratu zer dioen *Untergang*: “Honera etorri baino leen ongi/ezautu nuen herria/.../Honera ekarri nuen handikan/nire tristura handia/gizon doilorrek egin zidaten/bidegabe itsusia” (*M.b.*, 190). (Cf. *Prelude a la musique de la dance*, 1986: 98-100). Ipuin horretan gertatutakoak balio lezake aurreko bertsoei zentzua emateko. Edo *Lizardia*ko suemailearen beste hau: “Gorputz eta fruituak/pilatu nituen/ospel legorrez/fobera handi/bat nien/irakezi/tributu zikin/guztiak erre/zitezken (...) zuzi batekin erre nuen arboladia dongero (...) zimutaltea su-garretan/zen kiskalduko benetan” (*ib.*, 197). Ekintza horren ondorioz: “Nire atzean nenkusan nik/errauts mehea bakarrik: hondamendia, bakartate nardagarria, basorik desegi-nena, hondatuena...” (*ib.*, 198) Eta: “... zeruan distizari / zauri gordin bat ageri” (*ib.*, 187).

Horrekin batera, eta testuinguru honetan, derrigorrezkoa iruditzen zait aipatzea *Testamentu Zaharreko* tradizioan hamar zenbakieren balio sinbolikoak: hamar izan ziren Yaveh-k, Moisesen bitartez, Israelgo herriari agindutako bizi-legerako arauak. Aurrerago ikusi ahal izango dugun bezala sasoi hartako (1957-60) Arrestiren mundu imajinarioan leku garrantzitsu bat betetzen zuten irudi horiek. Zaratustrak eta Jesukristok ere badute beren artean trukagarri liratekeen bereizgarri asko, arrantzarena esate baterako. Biak dira giza-semeen arrantzale: "Benetan arrantza bikaina egin du gaur Zaratustrak!" (Nietzsche 1992: 39). *Maldan behera* poeman, bi arrantzale profetiko horiei hirugarren bat ere erantsiko zaie: *Haritzia* poeman, *The Waste Landen* eraginpean, agertzen zaigun "Errege Arrantzalea" edo "the Fisher King" eliotarraren itzala. Azken hau ere lehorte garaietan iragarle.

Ibilbide osoan heroikoa "eginiko gogoeta eroak"eko sail guztiaren iturri nagusitzat ere Zaratustra-ren liburua hartu beharko genuke. Baieztapen horren frogagarri Nietzsche-ren aipu asko ekar daiteke. Izan ere, "Zaratustra-ren hitzaurreak", Zaratustra ere ume bilakatu zela dioen moduan (cf. 1992: 30), halatsu gertatzen da "Galtzadako" heroiarekin ere: "Haurrok dugu gogorako, / askozaz nahiago. / Borobiltasuna emea, / zorroztasuna baino." (M.b., 203) Nork ukatu "gogoeta ero" horien "pathos" aske, irreberente eta umoretsua "Iratze ederreko" arnasa berekoa dela.¹⁸ Hori guztia, ordea, xehekiago aletu zain gelditzen da, gure hipotesia lantzeko froga sendoen zain.

Bibliari dagokionez, begibistan dago *Testamentu Berriak* lan honen hezurduran duen berebiziko garrantzia. Dena den, Arrestiren unibertso poetikoan *Testamentu Zaharrak* ere bete izan zuen lekurik. Gogoratu bestela 200 puntu poema, eta bertako protagonista dugun Moisesen historia. Moiseseik ere izan baitzuen bere jaitsiera, lehenik Egiptokoak,¹⁹ eta Sinaikoa hurrena. *Maldan behera* honetan pasadizo horien nolabaiteko islarik izatekotan Exodoaren ingurukoak lirateke. Zeintzuk dira, gure ustetan, horrelako baieztapen bat bermatzen duten irudiak: Moisesena, gaingizaki profetarena, desertualdia ("Ez naiz biziko zapaldu arte / zeruetako zolua.") (ib., 217), sutan dagoen Sinaiko larra ("piztu zen laharra") (M.b., 196), eta egunaz Israelgo herriari konfiantza eta babesera ematen zion su edo argi habearen irudia ("Eta zeruan ditzizari / zauri gordin bat ageri.") (*ibidem*). Dena dela esan beharra dago, *Lizardia* poema honetan, beharbada Moisesen abartxoa baino, Zaratustra gaingizakiaren makila maizago erabili izan dela, "belea" eta "barea" kolpatu zituena.

Testamentu Berriko oihartzunak garbiak dira oso, eta *Maldan behera* poeman nonahi barreiaturik aurkituko dira, Kristo izango delarik betiere protagonista bakarra.²⁰

(18) Zaratustraren herritar masiartzaleak ez bezala —"gure eskuak garbiagoak daude" (ib., 57)— *Iratze ederreko* heroikoa "eskuak zikinak" dauzka etabar luzearekin jarrai nezake: "dantzak", "geziak", "ostiralikia" ...

(19) "Jaitsi, Moises / joan egipiarren lurretara / eta esaiozu Fruradi zaharrari / aska dezala nire herria" (*Exodoa* 3: 10).

(20) Dena dela, erreferentzi garbiak *Loramendia* poeman hasten dira: "Oroitu zitzaidan hil zena gurutzean" (M.b., 205) edo "Eztut gaur ezer jan: eztut horren beharrik". (ib., 191) (baraualdia), "Ken hadi hemendik (Ib. 191) (tentaldia), "Nire ezpaineran dagoen ur gazia". (ib., 191), "badator ordua" (ib., 226), "Odolezko izerdi gazia isuri nuen" (ib., 205), "Kaliza hau bete/gainez egin arte" (ib., 219). Eta gero, *Herri-Bitartea* poema osoa.

Zenbat eta zibilizaziotik gertuago, orduan eta nabarmenagoa izango da Kristoren figura. Hau da, *Maldan* beherako aurreneko poemetan ez dago, aurrerago, *Herri-bitartea* poeman agertuko zaigun heroi otzan eta ahulik. Progresio garbi bat dago heroitasun gaingizakizkotik gurutzean josita hiltzen duten gizaki handiagokora.

Testamendu Berrikoa da poema luze honen argudio bibliko hau ere: "Mahats-ondoa naiz ni, zuek, berriz, xirmenduak" (Juan 15: 5). *Herri-bitartea* poema bere luze-zabala osoan Kristoren nekaldi eta heriotzari emana dago. Aurrerago Kristoren berpiz-kundearen²¹ motiboa ere nabari agertu zaigu.

1.4.2. G. Arrestiren Maldan behera eta Unamunoren El Cristo de Velázquez

1957an poeta bilbotar baten poesi lan bat berrargitaratu zen: *Velazquez-en Kristoa*. Unamunok idatzitako lan horrek 1920an ikusi zuen argia aurrenekoz. *Ebanjelioak* eta *Testamentu Zaharra* oinarri harturik, Kristoren irudiaren birkreazio bat eskaintzen digu Unamunok lan horretan. Arrestik lan hori ezagutu bazuen, ziur nago, Kristoren inguruko zenbait irudirekin aurkituko zuela non konparatua. Idazten ari naizen honako pasarterako aukeratu dudan titulua bera ere, Arrestiren argudioetako bat, Unamunoren irudi-harrobi horretatik jasoa da: "Ego sum vitis, vos palmites" (Ju 15, 5). Esate baterako, aipu hori bi aldiz agertzen da Unamunoren poeman: "de la vid de que somos los sarmientos" (1987: 369) eta "yo soy la vid vosotros los sarmientos" (*ib.*, 398).

EL CRISTO DE VELAZQUEZ	MALDAN BEHERA
<p>(...) del Leviatan al escamoso cuero; como una espada de vencer combates (...) con la que hay que cortar de nuestra vida el cordón terrenal (376)</p> <p>"que de pez se mantiene hijo del agua de mundo pez de los abismos frío" (389).</p> <p>por ti riñen los hijos con sus padres, entre sí los hermanos, los esposos: (...) eres acero que divide y junta (375).</p>	<p>Gauerdi batekin agertu zen arraina zilarrezko ezkatak eta buztan apaina (...) ebaki zizkidan tenorean kordelak</p> <p>geldiro libraturik nire orkatilak (192)</p> <p>Gatazka hamarratua burrukaldi hertsia (...) Amak amoriotsuak, aitak bihotz-gogorrak. Gurasoak elkarrekin bake ondoko gerrak. ... Eztira konforme izanen andrea eta gizona Burnia trabailatzeko... (194)</p>

(21) "Eta ez nuen aurkitu barruan ezer" (*ib.*, 229). Badira oihartzun bibliko gehiago ere, baina "Genesikoak" izango dira: "Madarikatua izan zaitez betiko" (*ib.*, 200) (Paradisuko kondena) eta Aliantzaren sinbolo izan zen ortzadarrarena: "Jainkoaren usteltasuna / dugu ostrailikia" (*ib.*, 208)

"el torno sigue tornando" (377)	"Egunean iraulten egon da gorua, (...) Gauean dornua eztago lotua" (222)
"comer tu corazón" (379)	Goizaldean bazkaldu nahi nuen plater bete bihotz ustel apaltzeko gibel batzuk... (220)
el mar del cielo (380)	Gorbeia baino gorago askozaz gorago (...) Izena jarri diore apaizek itsasoa" (208)

EL CRISTO DE VELAZQUEZ	MALDAN BEHERA
"... por el barro de que nos hizo Dios" (405)	"Buztina hilaren kontra" (194)
"(...) brizó tu último sueño con su cántico ..., el mismo con que primero a Adán, cuando soñara su carne teñida en flor y al despertarse le sonreía la mujer desnuda" (387)	"(...) arrosadi bateko aihenaren kontra. Neskatila honen besartean esnatu nintzen, zidalako baltza bat kantatu, egungo oilaritean, txorien gisara" (205)
"mientras tu pecho... quedo cual tierra se quedó" (387)	"Zure arima motz horri" (216)
"De la zarza que ardía en el desierto" (397)	"Eta zimist batek piztu zuen laharra" (196)
"...; blanco cual la nube que en la columna guiaba por el yermo al pueblo del Señor mientras el día duraba" (364)	"eta zeruan distizari zauri gordin bat agiri..." (198)
"quedó en tinieblas todo" (389)	"Eguerdian dena zegoen ilunik" (196)
"... cual sol percude del Sinaí las nubes y nos muestra la sonrisa del cielo" (398)	"orain eztago itzalik. Ezta zeruen goibeklik" (225)
"... lavándose las manos Pilatos preguntaba..." (425)	"nire esku zikinok eznituen ikuzi" (199)
"Pobre Luzbel, estrella de la tarde, en sombra de tinieblas convertidas caído desde el cielo como un rayo!" (375)	"Eta ikusten dute han goian bestia, (...)
"... Satanás, que es el caótico Archidragón, ..." (391)	hamiltegi batean azkar eroria" (226)

Azken finean Unamunoren *El Cristo de Velázquez*, Testamentuen —Zaharraren eta Berriaren— sintesi esentzial bat litzateke. Bertan aletu du Unamunok Mendebaleko kultura hezurmamitu duen misterio nagusia. Poema hori, azken finean, gure kultura biblikoaren entziklopedia llabur bat litzateke, Kristoren figuraren baitan zentzua bildu nahi izan duen Tradizio baten xurgaketa. *Harri eta Herri* zein *Euskal Harria* poemarioetan agertzen diren irudi bibliko gehienak ere Unamunoren poema horretan daude bilduta: hala nola “Kanaango ezteiak”, “hitza haragi bihurtu”, “hau ez da nire erreinua”, “Noeren untzia”, “aitaren etxea”, eta abar.

1.4.3. Poeta sinbolistak: Salinas eta Eliot

Hasiera-hasierakoak dira Kristoren eta Elioten aztarnak Arestiren idatzietan. Kristoren itzala Arestiren ibilbide osoan aurkituko dugu; poesia sozialean ere, Kristo, Lenin eta proletalgo mixerableena batera jarriko baititu. Elioten itzalak, ordea, gorabehera gehixeago jasan zuen; hasierako poemetan eta, batez ere, *Maldan beherako Hariztia* poeman tonua eta imajinarioa Eliot-en *The Waste Land*ekoa zen bete-betean; *Maldan beheraren* hurrengo poemetan estrukturalagoa da *The Waste Land* poemaren presentzia: Elioten poemak zabaldutako intertestualitateari esker fertilitatearen erritualizazio eta naturaren joan-etorria, Frazerren *Urrezko Abarra* obratik jasotako hainbat erreferentziarekin nahastuta agertuko zaizkigu. Haren arrastoa jarrai daiteke *Harri eta Herrin* ere, baina jada oso ezkutukoa izango da; azkeneko urteetan, Arestik Elioten *Lau Kuartetoak* poema itzuli zuen. Elioten poesiei Arestik erakutsi zien atxikimendua izugarria izan zen; ikusi besterik ez dago poeta euskaldunak hari buruz gutunetan esandakoak: 1957an atzerriko poeta sinbolisten artean gorenetakoztat zeukan,²² eta 1959an S. Onaindiari hari buruzko saio bat ere agindu zion (Zelaieta, 1976: 35). Elioten iritziz Mendebaleko kulturak eman zuen poetarik gorena Dante²³ izan zen, eta saio luze bat ere eskaini zion poetari. Nahiz eta poema hasierako argudioa Eliot-en *Katedraleko Heriotza*²⁴ antzerkitik jasoa izan, autore beraren *Lur Eremuaren* lehortea edo sikutea izango da Arestiren *Maldan beherako Hariztia* gertutik ukitu zuena: hasi lehen ahapaldiarekin “orain hemen nago, eremu latz honetan/Nire gurariak galdurik...”, segi bigarrenarekin “Eztago zeruan egun hodei bate-

(22) Txomin Peilleni zuzendutako gutunean honela dio: “Irakurri dut ‘Parka Gaztea’, eta txitx gogoko izan zait, Andoni Totorik Baionatik ekarri zidan *Charmes* (Lilurak) baino askozaz gehiago, baina dena dela sinbolisten artean ez da garaiena, behin baino gehiagorat entzuten den bezala, ezta Elioten herena ere, eta gutxi gora-behera Pound-en haltura hartzen du, behar bada, apur bat gorago” (Aresti 1986: 10, 132).

(23) Arestik Danteren “Infernua”ren lehen kantu itzuli zuen. Itzulpenean hori datarik gabe dator, eta J. Zaitegi zenaren paperen artean agertu omen zen. Itzulpenean darabilen euskara ikusita baiezta daiteke 1964a baino lehenagokoa zela. Hala ere, askozaz esanguratsuagoa da itzulpenea Zaitegiren eskuetan egon izana; segurueneik *Euzko-gogoan* argitaratua izan zedin bidali zitzaison, eta hori horrela izatekotan, 1959rako beranduenez itzulia zuen Arestik “Infernua” lehen kantu hori.

Badago *Maldan behera* honetan Dante-ren *Komediar Jainkotiarren* oihartzunik: “Eztizu penarik eman / hortik ikusteak / barkazio gabeko / kondena-gai tristeak?” (*M.b.*, 223). Eliotek berak *The Waste Land*eko Zubian ikusitako irudia bera. Edo, “Gure maisua izan da / esperantza gaiztoa / aspalditik da hori gure amonatxoa.” (*ib.*, 213) (Virgilio maisuari amonatxoa kontrajarri?). Edo, “Amonarik eztauak / horregatik otsoa / hurbildu zitzaidan / niri, makurturik lepoa.” (*ib.*, 213) Eta gero, *Lore-mendia* poema osoa. Hau, hala ere, aurrerago ikusiko da.

(24) *Murder in the Cathedral*, Faber and Faber, 1982, 11.

re/Denbora sikuak..." eta hirugarrenarekin hurrengo "Azken eremuan natzalako atinik...", *The Waste Land* poemaren presentzia kontuan hartzeakoa da. Liburu horretako oihartzunak irudi xumeagoetan²⁵ ere aurki daitezke.

1957ko gutun baten arabera Salinas²⁶ poeta oso gogoko zuen Arrestik, Spainiako poetarik hoberentzat zeukan, baina berehala eterri zen hora ordezkatzena Blas de Otero. Azken honetaz, 1959an, zera esango du: "El mejor poeta castellano desde que murió Salinas" (Aresti 1986: 10, 139). Harrezkero Arrestiren poesiagintzan Oterok izan zuen pisua izugarria izan zen. Ez dut uste inoiz lortu zuenik haren itzaletik erabat libratzea. Hori guztia, halare, hurrengo atalean landuko dugu.

1.5. Azterketaren nondik norakoa

Poemaren uretan egindako lehen murgilketak eta gero, komeni zaigu arnasa hartzea, eta, berriz ere, geure buruari poemaren hari narratibo nagusia gogoratzea. Metodologiaren atalean esaten genuena hona ekarri, esan, komeni dela tarteka gogoraztea "zertaz hitzegiten ari garen" hora (Eco 1992: 119). Uste dut, oraingoan bai, egokieira hobexegoan geundekeela horrelako erronka bati erantzuteko. Ezen, gauza jakina da, hari narratibo bakoitzak berarekin dakarrela poema osoaren interpretazioa, eta, seguru asko, hari narratibo bat baino gehiago ibiliko da trabatuta gure honetan. Oraintxe bertan ikusi ahal izan dugu poetaren hasierako argudioek zenbateraino lagun dezaketen; ziur nago, halaber, argudio horien banakako garapenak berak ere poema osoa bere inguruan biltzeko adinako argibiderik eman dezakeela.

Nire planteamendua garbia da: Elioten poesiatik hasi eta Eliotek berak zabaldutako intertestualitatera jo. Horrek ez du esan nahi beste iturri batzuk alde batera utzi behar ditudanik, ez eta gutxiagorik ere; bai, ordea, erreferentzia horiek betiere justifikatu beharko direla neuk aldez aurretik planteatu dudan mugen barruan. Jokorik izango bada, arauak derrigorrezko gertatzen dira: araurik gabe ez dago jokorik.

(25) Hango "pasak" Arrestiren *Hariztiako* "mahats geza bigunak" (*M.b.*, 191) bihurtuko dira. Elioten poemaren ardatzean legokeen Tiresias itsuaren oihartzun bat ("ugatz zimurtutako agure zaharra") izan liteke *Hariztiako* "gizon zen emazte urrikarria" (*ib.*, 191). Baita Filomelaren ("hain zakarki borrotxatua") oihartzuna izan liteke *Maldan* beherako "Dontzeillarrak ezta aurkitzen/gizonen jorantzan" (*ib.*, 199). Eliotenean ("Urertzean eseri nintzen/arrantzten egitera") eta Arrestirenan, berriz, "Gauerdi batekin agertu zen arraina..." (*ib.*, 191). Eliorentzat "Apirla zen hilerik krudelen", eta *Hariztiako* poeta-rentzat ere halatsu gertaruko da: "Udaberriko gau ederra/bihurtu zaigu gogorra.../.../lore guztia usain gabe geratu dira hementxe" (*M.b.*, 192). Elioten "Kartago" Arrestiren "Kartago" (*ib.*, 233) izango da; begibistakoa da, bestalde, Antzinako hiri suntsitu horrek Gernikarekin izan lezakeen paralelismoa. Beste hiri zahar batzuen izenak ere agertzen dira, hala nola Palmira (Arrestik berak itzuli zuen Baude-laire-ren poeman agertzen dena), edo Babilonia biblikoa: herri txikiagoen (Israel) gatibuleku emblematikoa, oraingoan ere euskaldungoarekin paralelismoa lortu nahian.

(26) Salinas, Pedro: "Estoy al borde de tu sueño", *Razón de Amor* (Madrid, Cátedra: 147). 1959an Arrestik idatzitako gutun batean honela dio *Maldan* behera poemari buruz: "Amorio baten historia da, hobeki esanik, amorioaren historia eta arrazoia" (Aresti 1986: 10, 141).

Aurreraxeago oin-ohar batean Adan eta Ebaren Paradisuko kondenazio hitzak entzungo dira. Paraisu galduaren isla genuke *Maldan* beherako *Loramendia*: amodiozko paradisu lurtarra. Amodiozko paraisu horretantxe du abiapuntu eta erreferentzi gune ezinbestekoa *Maldan* beherako bigarren zati osoak. Beraz, *Lore-mendia* poema osoa bi bikote sinboliko eta erreferentzialen gainean taxuturik dago: Adan/Eba, Dante/Beatrice. (Baina erreferentzia lurtarrik bai ote? Arresti bera eta Meli?) *Lore-mendia* honetan hasten da egiazko amodio istorioa eta amodio hori Paraisu birsortu bat bilakatuko da.

Horregatik saiatu naiz ahalik eta garbien azaltzen zeintzuk diren nire planteamenduaren mugak, muga horien barnean erabaki beharko baita interpretazioaren funtsa.

Ikusi ahal izan dugu, bestalde, nahiz eta soka ezberdinetako oihartzun narratibo horiek trabatu samar ibili, nola *Maldan beherako* lehen zatiko bost poema nagusiak erreferentzi gune edo soka narratibo nagusi bat erantzuten zioten orokorrean: *Hariztia* (Eliot), *Lizardia* (Zaraustra), *Iratze ederra* (Zaraustra demonikoa), *Lore-mendia* (Eliot/Dante) eta *Herri-bitartea* (Kristo). *Hariztia* poemak ziklo bat zabaltzen du eta *Lore-mendiak* hertsia: *Hariztia — Hariztia/Lizardia/Iratze ederra — Lore-mendia*. Hau da, *Hariztia* poematik *Lore-mendia* poemara hiru aro, edo hiru etapa, edo berpiztu baino lehen hiru eguneko nekaldia igaro behar izan du naturak, eta harekin batera salbazioa lortu bide duen heroikak.

Lore-mendian, nahiz eta zikloa osatua egon, zibilizazio mailara jaitsi eta berriz erre-pikatuko da nekaldi osoa: heriotza, hiru eguneko infernualdia eta berpizkundea: *Partiera — Partiera, Judizioa, Mendekantza — Azkenengo besarkada*. Horri eransten baldin badizkiogu, batetik ibilbideak aroz aro barrena izan dituen agerpenak — senda, estrata, kaltzada eta kaminoa —, eta euskal poeten izen andana bestetik, aspaldianik, Sarasola-ren (1976: 62) azterketatik alegia, poemaren lehen zatiari ikusi izan zaion batasunarekin bat etorri behar nahitaez. Eta bigarrenaren zikloari beste hainbeste deritzogu.

Lehen zikloan kontatu zaigun hari narratiboa²⁷ hauxe besterik ez da: profeta edo heroi erromantikoa (Kristo, Zaraustra) jaitsi da goialdetik (zerua, mendia) herri-hirira berri ona zabaltzen, bidean aurkitu du bere mezua ulertu eta konprenitu duen emakumea, eta hirira heltzen direnean biak gurutze batean josiko dituzte. Hiritarzte unean, profeta hori Jesukristoren tasun guztiez hornitura agertu bada — jada *Lore-mendian* gertatuko da hori — ez da horrela izan haren *Hariztiako* ibilbidearen abipuntuau, ezta bigarren zatiko heroi mendekatzailearen “pathos”ean ere. Hango zein hemengo profetak gehiago du Zaraustraren izaeratik; bortitzagoa da eta bere ekin-tzetan gizakiarenenganako mesprezu harroa erakusten du. Bestelakoa izango da *Lore-mendiatik Herri-bitarteara* dabilena (Jesukristo). Ziklo horren arketipo nagusia *Biblia* bera da: hasiera batean jardin bat zen, hurrengo erorketaren ondoren basamortua edo Eremua, eta, poemak aurrera egin ahala ikusiko da, berriz ere jardin bilakatuko den arbola eta ur asebetearekin (Frye 1963: 112).

Zaraustraz ere ari naizelarik, ezin ahaztu Nietzschek, eta Arestik berak, hainbes-te goratu zuten Hölderlin poeta trajikoaren *Enpedoklesen heriotza*,²⁸ tragedia honetan ere herritarrek edo giza taldeak, herriari halako onura ekarri diona kondenatu egiten bai-tute. Bainazken horren kasuan ere badugu aitzindari mitikorik: Prometeo. Nahiz eta erdijainko/erdigizon hori jainkoek berek epaitu, garbi dago Enpedoklesen eskutik (hau ere erdijainko/erdigizon) Zaraustraren sinbolikari elementu ugari etorri zitzaiio-

(27) Metodologiarren atalean, poemaren ulergarritasuna ziurtatzeko lagungarri gerta zitezkeen ele-mentu fabulistikoak aipatzen ziren (Eco 1992: 175). *Maldan behera* bezalako poema luzeei buruz, horra zer zioen T. S. Eliotek: “No hay poeta que pueda escribir un poema largo, a no ser que sea un maestro en prosa” (Frye 1963: 56). Ez dago dudarik, prosa aipatzen duenean Eliotek, narratibilitateak bereak dituen hezurdura edo egituraketa bereziaz hitzegiten ari zaigu. Hau da, poema luze batek bere gara-nenerako derrigorrezkoa duen barne-egituraketa ari zaigu.

(28) Honela dio Arestik 1959ko otsailean: “Estoy leyendo estos días a Hölderlin, la muerte de Empédocles, macanudo, muchacho” (Aresti 1986: 10, 134).

la maileguan. Adibidez, Enpedoklesen leiendak dioenez, bere burua Etna-ko sutara egotiz desagertu zen gizakien artetik. Prometeo, sua opari zuela presentatu omen zitzaion gizakiari. Zaraustrak gizakiari zekarkion oparia, berriz, gaingizakiaren iragarria zen, eta honekin batera “betiereko itzuliaren” mezua. *Maldan beherako* lehen zatiaren mezua aski garbia da: zenbat eta zibilizaziotik gertuago, orduan eta gizakia ahulago. *Hariztian* landatutako euskaldungoaren sinbolorik iraunkorrena den Arbola historiaurreko hartatik aroz aro zibilizazio garai honetaraino ekarri gaituen ibilbidea *Maldan behera* erortze bat izan da: Euskaldungoaren *Unterganga*, gainbehera (Azurmendi 1985: 9-10), O. Spengleren “best-seller”aren titulu eta mamiari eutsiz. Horra zer dioen N. Frye ikertzailak *The Waste Land* poemaz ari zaigularik:

Nos vemos remitidos a la *Decadencia de Occidente*, de Spengler, un ‘best-seller’ en Alemania por el tiempo en que Eliot escribía *The Waste Land*, que considera a la historia como una serie de culturas que se comportan como organismos, de suerte que su decadencia es un proceso inevitable de envejecimiento. Eliot pudo tomar, sin duda, únicamente la interpretación más atenuada del libro de Spengler, pero la explicación de Spengler es la más coherente de la teoría de la decadencia occidental, y todo escritor que adopta una versión de esta teoría se ve envuelto en metáforas spenglerianas. (...) La decadencia real se opera a partir de un ideal que puede ser simbolizado por la cultura medieval, pero que permanece en el presente condenando y desafiando al mundo contemporáneo. El mito histórico se proyecta así a partir de una concepción de la vida humana a dos niveles que se hallan siempre simultáneamente presentes (1963: 17-20).

Arestik 1964rarte bere idatzietan Spenglerren izena inoiz aipatu ez bazuen ere, garai hartako giroan oso sartua zegoen autorea izan zen. Kontutan hartu, bestalde, nori eskaini zion *Maldan behera* poema hau: Jon Miranderi.²⁹ Jon Mirande O. Spenglerren ideien mezulari liluratua izan genuen.

Arestiren heroiak bete duen itzulera biribil hori konpara daiteke, halaber, eguzkiak egunero betetzen duen parabolarekin. *Untergang*-ek dekidentziaren esanahia baduen arren, okasoa ere adierazten baitu: eguzkiaren beheraldi geldia da, Eguerdiaren nagusitasunaren ahitzeko motela, eguzki argiaren itzaltze osorainoko akidura (*Requiem*); ez dago, ordea, deuseztapenik, hurrengo jiran indartsu altxatuko baita zero gaineraino. Ez dezagun ahantz Zaraustrak ezagutu ziola eguzkiari berea ere bazuen ezaugarririk: gaingizakiaren maisua da; Jainkoaren heriotzaren ondoren, munduak behar zuen argi berria. Ez gara geldituko, berezko iluntasunik ez duten imajina sare- etan (ziutate kristaua eguzkiaren ibilbidearen aldirik ilaun eta ahulenarekin batera agertzea, argiaren eta itzalaren —lainoa egoera zaharraren babesle— arteko borroka, eta abar). Gainbeheraren azken mailan nabarmen agertuko da tirania zaharraren indarra, hortxe gertatu behar zuen Kristoren heriotzaren parodia oso hori. Baina ondoren pizkundeak dator, birloraldia —Nietzsche-k profetizatu bezala—, Izate berriaren oilaritea. Inorentzat ez da, berriz, sekretua Arestik ez zuela Bilborekin oso

(29) 1960a inguru arte nabaria da Miranderen eragina Arestiren poesiagintzan. Poema honetan bertan ikus daiteke hori zenbait baliapideren erabileran: itsusiaren gordintasunean, izadiaren eta gizonaren arteko irudi makabroetan, eta abar. Esate baterako: “Nire errai guztiak usteldu dirade/barrabilak, ugatzak, giltzurrunak ere” (*M.b.*, 214). Edo, “Lore guztiak aginka/edan zidaten odola”... (*ib.*, 215). Bertsoren bat kalkatua ere agertzen da: “Bizirik eztuena ezin liteke hil.” (*ib.*, 230)

hartueman gozoa bizi izan, nahiz eta bizitza osoa bertan eman; poetaren ametsak goialdera begiratzen zuen, orain *Lore-mendiara*, hurrena Gorbeian gora. Hori guztia, baina, bigarren atalean jorratuko da.

2. T. S. Eliot eta G. Aresti: *The Waste Land* eta *Maldan Behera* aurrez aurre

2.1. *Hariztia*

The Waste Land poemaren ardatza antzutasuna da, eta antzutasun hori eraldatzeko ezinbestekoa den ur falta. Poema horretan agertzen zaizkigun paisaiak antzuak, lehorrrak, soilak eta harritsuak dira, uraren arrastorik ere ezagun ez zaion lur madarikatua. Aldera ditzagun bi poemen zenbait ahapaldi. Eliotek honela dio:

What are roots that clutch, what branches grow
Out of this stony rubbish? Son of man,
You cannot say, or guess, for you know only
A heap of broken images, where the sun beats,
and the dead tree gives no shelter, the cricket no relief.
And the dry stone no sound of water. Only
There is shadow under this red rock
(Come in under the shadow of this red rock)³⁰ (Eliot, 53).

(Zeintzu dira atxekitzten diren sustraiak, zer kimu sortzen da / Harrizko zarama honetatik? Gizasemea, / Zuk ezin dezakezu esan, ez asmatu, eguzkia dirdiratzen deneko / Irudi hautsi andana ezagutzen bait duzu soil, / Eta zuhaitz hilak ez du babesik ematen, ez kilkerrak atseginiak, / Eta harri lehorrok ere ez du ur hotsik ematen. Soilik / itzala arroka gorri hauen azpian / (Sar zaitez arroka gorri hauen itzalpera) (1983: 128).

Arestik honela irudikatzen du antzutasun egoera larria:

Orain hemen nago, eremu latz honetan.
Nire gurariak galdurik, lur honetan
arbola adar-gabeen parea naiz orain.
Landare zekenek baitaduzkate eremuak,
erratzak haren, haitzetan kalamuak,
nire arima dago mirari baten zain
(...)
Eremuak ere dauzkalako mareak,
behera eta gora egiten du hareak,
eta nire gorputzak ezin egon zutik.
Arroken ostean agertu den etsaia
ene beginan da baratzeko galaia
itsuki baitiotsat: ken hadi hemendik!³¹ (M.b., 190-191)

(30) "Hitzatzea" in *Obra Guztia* (Juaristi 1976: 514)

(31) Cf. Aldekoa, Argitaragabea. Honela idatzi nuen orduan: "Ahapaldi honetan berriro suge antzaldaturat, lehen gizona bekatura eraman zuen paradisuko deabru galaiaren aipamena. Era berean Kristok desertuan gainditutako tentaldien alusioa. Deabruaren hirugarren eta azken tentazioaren ondoren honela erantzun zion Jesusek: "Orduan Jesusek esan zion: ken hadi hemendik. Saranas!, zeren idatzita bait dago...!" (Mateo, 4, 10). Modu berean aztertu nuen ahapaldi hau:

THE WASTE LAND	MALDAN BEHERA
<p>"Here is not water but only rock (Eliot 1991: 66) Rock and no water and the sandy road The road winding above among the mountains Which are mountains of rock without water If there were water we should stop and drink... (66) (And the dry stone no sound of water)... (53)</p> <p>If there were only water... (...) (66) But sound of water over a rock (...) With the turning tide (63)</p> <p>Here one can neither stand nor lie nor sit." (66)</p>	<p>"Eztago zeruan egun hodei batere Denpora sikuak garantzen ditu bere ordu miragarriak sekula batean. Zerura begira egoten naiz luzaro, izarren esnetik edaten dut oparo, baina egarri bizia daukar bihotzean... entzun eztelako ur lasterraren hotsa,</p> <p>apur bat busti dezan lurreko kolkua... Eremuak ere dauzkalako mareak behera eta gora egiten du hareak, eta nire gorputzak ezin egon zutik."</p>
<p>(Hemen ez dago urik arroka hutsa baizik Arroka eta urik ez eta bide hareatsua Bide hau goian mendieranbihurka Urrik gabeko arrokazko mendietan Urrik balego edaten geldituko ginateke (...) (Eta harri lehorra ere ez du ur hotsik) (...) Uraren hotsik balego soilik (...) Arroken gainean ur hotza baizik (...) Marea aldakorren gora behera Hemen ezin daiteke gelditu ez zutunik, ez etzanda...) (Eliot 1983: 147-148)</p>	
THE WASTE LAND	MALDAN BEHERA
<p>In this decayed hole among the mountains Dry bones can harm no one... ³² (ib., 68)</p> <p>over the tumbled graves, about the chapel There is the empty chapel, only the wind's home... (ib., 68) (Supine on the floor of a narrow cause)...</p>	<p>"Azken eremuon natzialako atinik, hezur-lekuetan eztaukat zer-eginik... (Cf. Elioren oharrak) Hermita eroria, hobietako lauza..." (M.b., 191)</p>
<p>("Mendiarteko zulo galdu honetan kanoa hostu baten hondoan atinik Inor mindu ezin duten hezur lehorra (...)" Hilari abaiduen gainean, kaperaren inguruan Hutsik dago kapera, haizearen etxe sortik (1983: 149)</p>	

Eztut gaur ezer jan: eztut horren beharrik.

Eta gau osoan egondu naiz itzarrik,

...

Barauetan eztut oinazerik aurkitu" (M.b., 191).

Berrogei egunez eta berrogei gauez eginko desertuko barau horretan..." (Argitaragabea: 68)

Arkotxak ere honela idatzi zuen bere tesian: "A partir de cet instant, Joane va devoir affronter ses premières épreuves annoncées par sa nuit de veille. Joane voit apparaître l'ennemi derrière les rochers: *Arroken ostean agertu den etsaia*, dit-il, avant de prononcer ces mots énigmatiques: *ene begin da baratzeko galaias*. Aresti utilise en fait le substantif *galaias* que nous avons préféré traduire par 'séducteur' car tout laisse à penser qu'il se réfère à la serpentine de l'Eden qui séduisit Eve, c'est à dire bien à l'ennemi: has-satant (= l'adversaire), Satan." (Arkotxa 1993: 92)

(32) Cf. "Hitzatzea" in *Obra Guztiaik* (Juaristi 1976: 514).

Orain arte ikusi ditugun irudi gehienak naturatik hartutakoak dira: arbola sikua, harea, euria, ura, haitza. Eta horiekin batera hondamendiaren eta suntsiduraren adibide liratekeen zenbait irudi: hezur-lekuetan, hobietako lauza, hermita edo kapela eroria.³³ Dena den, badira gehiago ere, Elioten poemaren artean, Arrestireneta arrastoa utzitakoak. Aurren-aurren aipatu beharko nukeen irudia Tiresias-ena da. Ez da erraza frogatzen *Hariztiako* ahapaldiak dakarren irudia, “gizona zen emazte urrikkaria nauk” (*M.b.*, 191), Elioten poemako “I Tiresias, old man with wrinkled dugs” (Eliot, 61) (Nik, Tiresias honek, diti zimurrak ditudan agure honek (1983: 139), den ala ez. Ni baietzean nago, eta horrexegatik ekarri dut hizpidera. Funtsean, bi istorio nagusi daude Tiresiasen mitoaren oinarrian. Lehenengoak Hera eta Zeusen amodio gozamenaren inguruko eztabaida dakarkigu kontagai. Eztabaida horretan Zeusek esan zuen gizon-emakumeen hartueman sexualetan emakumearen tamainako gozamenik ez zuela gizonezkoak inoiz ezagutu. Hera, bere emaztea, kontrako iritzikoa zen. Auzia konpontzeko Tiresiasengana jo zuten, ezen Tiresias bi sexuak ezagututakoa baitzen. Izan ere —eta betiere mitoari jarraikiz—, ba omen zihohan halako batean Tiresias basoan eta bi suge elkarrekin lotuta ikusi zituen; makila bat hartu eta kolpeka biak banatu zituen. Ekintza horren ondorioz emakume bihurtu zen. Handik zazpi urtera, baso berean suertatu zelarik beste bi suge elkarrekin lotuta aurkitu zituen, makila hartu eta horiek ere bereizi egin zituen. Ekintza haren ondorioz jatorrizko izaera berreskuratu zuen Tiresiasek.

Tiresiasek bazekien bi sexuen gozamenen berri, eta oraingo auzian Zeusen aldeko erabakia hartu zuen. Herak, umiliazioa jasan ezinik, mendekua hartu zuen, Tiresias itsututa utziz. Zeusek, harekin kupiturik, etorkizuna aurrikusteko dohaia oparituzion. Ordudanik Tiresias Antzinateko aztirik ospetsuena da. Eta izan zuen non frogatu bere dohai Jainkotiarra, Tebasen alegia. Izan ere, Tebaseko hiria *The Waste Land* poemako antzutasun berberak zuen errenditura. Ediporen gurasoen gorabehererek sekulako izurritea ekarri zuten Tebasera. Gatibu zen gizaki horrek, ordea, onurarrak ere ekarri zion hiriari. Izan ere, Tebas hiriaren inguruan ba omen zegoen esfinge ikagarri bat, eta Edipok hango hiritarren kontura bizi zen esfingearren morrontzatik libratu zuen hiria. Esfingeak galderak egiten omen zizkien bidaiariei eta erantzuna asmatzen ez zutenean irentsi egiten zituen. Edipo izan zen bakarra esfingearren galderari erantzun zuzena ematen; ondorioz, ez zen harrezkero Esfingerik izan, amildegian behera betiko desagertu baitzen. Horixe da Arrestiren honako bertso hauek ulertzeko testuingururik egokiena:

Ezpaitzekidaten benetan erantzuten,
mugitu ezineko itxura hartu zuten
herio geldiaren mustur zimeldua. (*M.b.*, 191)

The Waste Land izeneko poeman agertzen da goragoko orrietara bildu dudan Tebasko izurritearena:

(33) Fryek honela interpretatu du irudi hori: “En la sección final de *The Waste Land* la capilla peligrosa representa el mundo subterráneo de la muerte y del enterramiento, la tumba de la que Cristo resucita” (1963: 101). Nik gehiago uste dut sinismenaren faltaz eta fede sekularizatu baten egoera modernoaz diharduela Eliotek.

... I who have sat by Thebes below the wall
And walked among the lowest of the dead (Eliot, 62).

(Nik, *Thebas hiriko harresiaren barrenean eseri nintzena eta hilik azpikoenekin ibili nintzen honek*) (1983: 140).

Baina Tebas hiriko harresiaren barrenean eseri zen horixe bera da, eremu lehorra gibelean zuela, *The Waste Land*eko urertzean arrantza egite aldera eseri zena:

THE WASTE LAND	MALDAN BEHERA
I sat upon the shore Fishing, with the arid plain behind me Shall I at least set my lands in order? (Eliot, 69)	"Gauerdi batekin agertu zen arraina, zilarrezko ezkatak eta buztan apaina: Eznuen konprentu nundik etorri zen. Goizaldean, noski, paratu zen marean, ta gero sartu zen jarri nion sarean, ihesi neuganantz ahalik lasterren." (M.b., 192)
(Ur bazterrean eseri nintzen Arrantzan, ene gibelean landatu idorra ordenatu ahal izanen ote ditut inoiz ene lurralteak?) (1983: 151)	

Bere gurariak galdurik dagoen *Hariztiako* heroia ere badaki arrantzaren berri. Arrainari buruz aspaldi esana du I. Sarasolak, Kristoren sinbolo ezaguna dela, kris-tautasunaren lehen iruditeriakoa. Hortik aurrera ez da harrezkero ezer gehiago aurreratu. Arrainarena ere Eliot poemaren testuinguruau kokatuko nuke nik. Izan ere gure protagonistaz ere esan baitaiteke angloamerikarraren poesiakoak zioena: "I too awaited the expected guest" ("Etortzean zegoen gonbidatua igerikatu nuen nik ere") (1983: 140): *The Waste Land*en ez da iritsiko halakorik; bai, ordea, Arrestirenean. Fryek modu honetara azaldu zuen arrantzaren ausia:

The Tempest emplea el tema del romance del príncipe que llega a tierra extranjera y se casa con la hija del rey. En las historias del tipo de San Jorge o Perseo el rey es viejo o sufre de una herida misteriosa que simboliza la impotencia sexual; el país que gobierna es un país desolado, con principios de simpatía mágica, y está asolado por un monstruo marino por la misma razón. El héroe mata el monstruo y hereda el reino (1963: 100).

Era guztieta, *Hariztia* poemako heroia indarge agertzen zaigu, hurrengo poemetan hartuko duen indar eta kemen gaingizakiaren aldean kuxkur eta errenditua. Eliot-en "Sweney agonist" (Eliot 1991: 49, 60) bezala, ahuldua agertzen zaigu, eta horregatik pairatzen du bi animaliek sofriarazten dioten infernua: "koba sakonetik irten duen sugeak/egunero dizkit moztatzen bost erpeak" (M.b., 191). Arraina iriste-arekin batera, ordea, askatasunaren brintzak ere iritsi dira *Hariztiako* heroarentzat:

Bere aginekin eman zidan dolore,
kolore denetan: gorri, beilegi, more,
ikusten bainizkion begi biribilak,
guztiarekin, bere hegal zimelak
ebaki zizkidan tenorean kordelak,
geldiro libraturik nire orkatilak (M.b., 192).

Arraina elementu anbigua da oso poema honestan; izan ere, batetik torturatu egiten du heroia, bestetik askatasuna dakarkio. Hori bai, azken hau gerta dadin, beste animaliekin batera³⁴ heroik hil egin beharko du arraina.³⁵ Batetik, beraz, infernuko tortura giroan dabil heroia; bestetik, berriz, infernu horretatik ihes egiteko ahalmena emateko gai den elementua da arraina.³⁶ Bigarren hari honi tira egingo bagenio, goragoko ahapaldian agertzen diren koloreak aztertzen jarri beharko genuke: gorri, beilegi eta more. Hiru kolore horiek Espaniako Bigarren Errepublikako banderaren koloreak dira. Arrasto horri jarraituz, hurrengo asoziazioak esaten digu, Errepublikaren eguna noiz ospatzten den: apirilaren 14an. Zergatik dio Eliotek “April is the cruellest month?” (Eliot, 53). Negutik udaberrirako igarotze edo sasoi erdi-tezarekin batera, Mendebareko kulturak badu beste arrazoirk horrela izan dadin: Kristoren heriotza. Ez ahaztu, bestalde, Bazko³⁷ igandean ospatzten dela Euskal Herrian Aberri Eguna. *Lore-mendiako* naturaren berpizkunde eta negu antzuaren heriotzarekin batera, udaberria dator, Errepublika errenditu baten infernualdiaren ondoren, berpizkundearen eta amets gogo-betearen garaitza dator:

Baratz honestara atzo nintzen etorri.
Kolore guztiak, beilegi, more gorri,
lilietan zaizkigu agertzen hemendik (M.b., 204).

Hariztiako gatazka-zelaian sofrikario izan diren koloreak, argiaren eta garaitzaren eredu gisa haizatu dira *Lore-mendian*. Horra, berriz ere, Frye-ren interpretazio sinbolikoa, betiere Elioti buruz ari zaigularik:

(34) Gogoratu, bestalde, Danteren poeman, Infernuaren hasieran, hiru piztia agertu zitzazkiola protagonistari.

(35) “Pour ailleurs, la forme même du poisson rappelle la forme du phallus et laisse certainement entendre ici que la castration symbolique causée par le serpent/dragon, surgi des profondeurs de la terre et de la nuit, va prendre fin, que Joane a passé, avec succès, la première épreuve et qu'il recouvre sa qualité de mâle” (Arkotxa 1993: 95).

(36) A. Arkotxak ere jaso du tortura edo kastrazioaren errituala: “Nous avions déjà noté dans *Hariztia* la mutilation rituelle que subissait le héros significativement mordu par le serpent chthonien, nous remarquons cette fois qu'un rituel similaire apparaîtra, de façon beaucoup plus évidente, dans le chant B10. Anticipons légèrement sur les évènements pour indiquer seulement que le parallélisme entre l'épreuve endurée par Joane et la Passion endurée pour le Christ sera la conséquence naturelle de toute une constellation d'images dont l'arbre est le centre” (Arkotxa 1993: 121).

Arbolaren balio sinbolikoaren hausnarketan ere, ez datoz bat Arkotxaren bidea eta nirea. Oraingoan ere, bere lan guztian zehar metodologikoki egin ohi duen gisa, arbolaren maila arketipikora joan zaigu Arkotxa. *Hariztiako Arbotatik*, gurutzeko arbolara. Eta, egia da, maila sinboliko batean zilegi dela halako parekotasunik. Honetan ere, Arkotxa Durand-en jarraitzaile dugu.

Nire bidea bestelako da. Ohartua nago, halere, arbolaren inguruak egindako ibili-inguru luzea dugula *Maldan behera*: hasi *Hariztian* heroiaaren borondatez landatu den arbolarekin, eta poemaren amaiera aldera Paradisuko arbola birsortu berriarekin bukatu.

(37) “La pascua representa el final de un largo período de simbolismo religioso en el que se pensaba que ‘un dios agonizante’, un espíritu que representa la fertilidad de la Naturaleza, movía y resucitaba de nuevo, normalmente en una fiesta de tres días. La información sobre los cultos de Adonis, Atis, Osiris y otros, colecciónados en *The Golden Bough*, de Frazer, es citada por Eliot en las notas. En estos ritos se asociaba una rosa roja o púrpura con la sangre del dios: esto aparece en los jacintos de *The Waste Land*” (Frye: 1963: 95).

El fondo está constituido por un mito de la Naturaleza, el paso del invierno a la primavera, del mar y de la nieve a la lluvia primaveral, de la edad avanzada a la juventud, la belleza durmiente despertada por un príncipe encantador. Pero si el monstruo es el invierno, el héroe ha de entrar en él y salir de él, como Jonás en la Biblia, ha de morir y renacer. No hay monstruo en Eliot, pero hay vestigios de sus fauces abiertas en las referencias a las 'fauces muertas de la montaña con dientes cariados' (gogoratu *Maldan beberako 'bere aginekin eman zidan dolore'*) (...) Con el tema de la muerte y de la resurrección la historia del matador del dragón se funde con la historia del dios muriente (1963: 100).

Oso anbiguoa gertatzen da, baina, arrainaren irudia, bi alderdi kontrajarriak biltzen dituelako bere baitan. Gure asoziazio hariari jarraituz, pentsa liteke, modu simboliko batean, eta gainera sinbolo ilaua eta nahasien artean Spainiako Guda Zibilaren ondorioak ere ez ote zituen poetak testuaren mataban bilbatu: Errepublika errenditu bat, eta bururik altxatu ezinean legokeen Euskal Herria Infernuko indarren menpe. Zerk zilegiztatuko luke horrelako interpretazio bati ere arnasa uzten hartzea? *Hariztia* poema berean agertuko zaigun Arbolak litzateke gure interpretazio honi babesia emango liokeen elementu sinbolikoa. *Hariztiako* basamortuan honako hau da Arbolaren egoera:

THE WASTE LAND	MALDAN BEHERA
"(...) what branches grow (...) and the dead tree gives no shelter" (Eliot, 53)	"arbola adar-gabeen parea naiz" (<i>M.b.</i> , 190)
"(...) zer kimu sortzen da (...) eta zuhaitz hilak ez du babesik ematen" (1983: 128)	

Heroiaren ekintza borondatetsu eta kementsuaren bidez arbolari odol-bizitza eman zion:

THE WASTE LAND	MALDAN BEHERA
"(...) What have me given? My friend, bood shaking my heart" (Eliot, 68)	"(odola) bihotzetik ugari atera nuena" (<i>M.b.</i> , 192)
"(...) Zer eman dugu? Adiskide enea, odola ene bihotza eragiten" (1983: 150)	

Hariztiatik Lore-mendiaraino, "urte beteko arnegazioa" (*M.b.*, 205) sofritu behar izan du naturak, sasoien joan-etorri horretan:

That corpse you planted last year in your garden,
Has it begun to sprout? Will it bloom this year?
Or has the sudden frost disturbed its bed? (Eliot, 55)
(“Igaz zure lorategian landatu zenuen gorpu hura,
Hari al da kimatzen? Aurten loratuko ote da?
Ala ustekabeko ihintzagarrak³⁸ hondatu zion ohantzea?”)

(38) Cf. *Hariztia*: “Gaueko izotzak / arantz zorrotzak / mertxiketan sartu ditu” (*M.b.*, 193).

Eliotek ere honela zioen *The Waste Landen*: “You gave me hyazinths first a year ago” (57) (“Duela urtebete eman zenizkidan lehenengoz hyazinthoak”) (1983: 128). Bai, *Loramendiarekin* loratu da: “Armenda loratuen parea naiz orain” (*M.b.*, 204). Beraz, badakigu jada, arbolaren loratzeark bizitzaren ernaltzea irudikatzen duela, baina beste mailako sinbologiarik besarkatzen al du arbolak gure kasuan? Bistan da, “arbola adar-gabea”k (*M.b.*, 190), gero heroikak bere baitatik ateratako odo-laz zipriztitzen duenak, alegia, baduela zer ikusirik euskaldungoaren sinbolo den arbola bedeinkatuarekin. Horra zer idatzi zuen Arestik *Godalet-Dantza* poemaren giltzarrian:

Eta badira orain mila eta ehun urte, Iainkoak iar zezanetik bere herrikin mai-teenaren (Maite ditunak zigortzen ditu Iainkoak. Berak esana.) Zuhaitza den sin-boloa. Bertutez berpiztu zen Bildots iainkotiarra. Bertutez darraio oraino zutunik, gerla tamalgarri baten ondoan ere (bertutez, mirariz) Haritz gizatiarra (Aresti 1986: 1, 13).

Beraz, nire lanari ezarritako muga metodologiko batzuen ondorioa da honako bide hau: *Maldan behera* > *Eliot, Maldan behera* > Arestiren beste poesia lanak, *The Waste Land* > *intertextualitatea*. Aurrerago Gernika-ren eta Picassoren aipamenak agertuko zaizkigu; eta, horiekin batera, beste guda bateko lekuko aipagarriena: Goya. Haren Maiatzaren 2ko fusilaketaren oihartzuna ere testuak eskaintzen dituen irakurketaren mugen barruan bil daiteke.³⁹ Beraz, hiru kolore, hiru piztia eta hiru urteko guda. Maila tematiko batean, elkarren alboan joan daitezkeen elementu horiei, maila sinbolikoago batean Jesukristok infernuetan iragandako hiru eguneko epealdia gaineratu behar litzaike. Azken finean, Arestik darabilen iruditeria ez al da Lizardik ere, bere poeta kuttunak, erabili zuen berbera? Izan ere, sasoien joan-etorriaren metafora unibertsala baita, ba al dago lekurik irudi horrekin poesiarik egin ez denik? Lizardik honela irudikatu zuen etorkizun itxaropentsua:

Orain eguzkiz yautzi zan
asaba zaaren baratza;
ordin, zuaitzak igaliz;
ordin baratza leeneratu zan
mugak berriro zabaliz.

Ta leen ikusi-gabeko
zuaitz berri bat zegoan
erdian, guzien buru...
Aren gerizak erri-baratzak
ezin-ilkor egin ditu.

(X. Lizardi, *Olerkiak*, Donostia, Erein, 1983, 195-196)

(39) Hauxe da *Judizioa* deritzan poemako lehen ahapaldia:

“Arima penatuak afusilatuko
dituzte arratsaldean. Eta belaunbiko
Goya miragarri bat kemen gabe dago;
eta bere kapela zuen erauntziko
burutsik balego...” (*M.b.*, 218)

Eremuko heroiaren eta Jesukristoren nekaldi/desertualdiaren solasa atergabea da *Hariztian*⁴⁰ hasi eta *Lore-mendaraino*. Horixe da, ordea, Jesukristoren hiru eguneko infernualdia: *Hariztiatik Lore-mendaraino* egiten den ibilaldiaren oinarri sinbolikoa. Aurrerago aztertu ahal izango dugun bezala, hiru dira *Hariztiatik Lore-mendiarai* igarotzen diren egunak. Infernaldi eta negualdi sinboliko baten fresko oparotzat har daiteke guztia. Eta, Jesukristoren pairamenak eta berpizkundeak une honetan, *Hariztiako* poema honetan hain zuzen, aipatzea ez zait inondik ere gehiegikeria iruditzen. Izan ere, kontuan hartu beharrean gaude Jesukristoren inguruko pasadizo eta nekaldiak direla poemaren ardatza. Eta ardatz horren inguruan sortu eta garatutako asoziazio eta irudi sinbolikoez ehundutako poema dugula *Maldan behera*. Dantek ere, hiru egun behar izan zituen infernutik Paradisura zeraman bidea betetzeko. Hona zer dioen N. Fryek:

El viaje de Dante a través del infierno comienza en la tarde del Viernes Santo, y emerge en la otra parte de la tierra el Domingo de Pascua por la mañana. Así, su viaje se acopla dentro del ritmo de tres días de la redención, en que Cristo es sepultado el Viernes por la tarde, desciende al infierno el sábado y resucita el domingo por la mañana. De manera semejante a lo que ocurre en la primera sección de *The Waste Land, The Brial of the Deed*' (1963: 94).

Horra, Eliot gogoan, zein konklusiotara iristen den Frye:

Otro monstruo es matado por Jesús en su victoria de Pascua sobre la muerte y el infierno: el leviatán del Antiguo Testamento, un monstruo marino que es el mar, en cuanto que es la muerte y el infierno, y también el maligno, la serpiente del Paraíso, que se describe en *The Rock* como "la gran serpiente en el fondo del abismo del mundo". En la Biblia, ella o un monstruo semejante se identifica también con el reino de la tiranía, Egipto, Babilonia y la ciudad fenicia de Tiro. Así, el mundo necesitado de redención ha de concebirse como prisionero en el vientre del monstruo, adonde desciende el Mesías, como Jonás, para librarlo. (...) El mundo a redimir está simbólicamente bajo el agua lo mismo bajo tierra, lo que da pie al simbolismo del pescar en los Evangelios, estableciendo un parentesco con el "rey pescador" del romance. El rey pescador de Eliot, sentado melancólicamente en la ribera al final del poema con la 'árida llanura' detrás de él... (1963: 101-2).

Nik atal honetan, aurreko lan interesgarri guztiak estimu handitan hartu ondoen, Eliot-en eragin zuzen eta zeharkakoei arreta berezia jarri nahi nieke. Izan ere, Eliot-en *The Waste Landek Maldan behera* poeman izan duen eragin zuzena handia baldin bada, nago ez dela izan ahulagoa zeharkakoak izan duena. Zeri deitzen diot zeharkako eragina? Bada, Eliot-en poeman zantzuk besterik ez liratekeen zenbait intuizio, eta Arestik gerora garatu egin dituenak. Alegia, intuizio horien jatorria Elioten poeman legoake, Eliotena litzateke aurkikuntzaren iturria, edo beste modu batera adierazita, Eliotek zabaldutako bideetatik dihardu Arestik.

Irudipena dut badirela *Maldan Behera* poeman zehar irudi asko, oso zailak liratekeenak azaltzen ez bada ritualizazioaren eta majiaren iturrietan arretaz begiratuz. Alde horretatik laguntza bikaina eskaini didan liburua da gorago aipatutako Fraze-

(40) Zantzuak: "Barautan", "ken hadi hemendik", "Nire ezpainen dagoen ur gazia / oraintxe kentzeko, egin zaidala grazia" (*ib.*, 191).

trena. *The Golden Bougben* orrietau aurkitu dut, esate baterako, Haritzari buruz oraindartean inon irakurri ezin izan ditudan moduko azalpenak. Honela zioten *Maldan beherako* bertsoek:

Haritz bedeinkatua
adoratu nuen
Nire belaunak
lurrean jarri
nituen.
Ordu hartan
nik ezneki
zerk iharrosi
ninduen.
Haritz bedeinkatua
adoratu nuen (*M.b.*, 192).

Eta, zer egokiago, lerro horien muinera iristeko, Frazerren azalpenak baino:

‘Tenplu’ adierazteko hitz teutoniarrak aztertzean, Grimmek dio beharbada germaniarren artean jainkotegirik zaharrenak basoak izango zirela. Nolanahi ere den, zuhaitz-gurtza ondo frogatuta dago ariar enborreko europar familia handi guztietan. Zelten artean, ezaguna da druidek haritza gurtzen zutela, eta badirudi jainkotegi izendatzeko hitz zaharra jatorriz eta esanahiz latineko *nemus* hitzaren berbera dela (...), denek batera gurtzen zutela zuhaitz hori, eta haien sorlekua haritzit esatalako lurralte bat izan behar zuela (Frazer 1995: I, 166).

Ez dezagun ahaztu T. S. Elioten saio libururik ospetsuenaren titulua: *The Sacred Wood* (Boso Sakratua, 1920an argitaratua). Danteren eta Virgilioren iturrietan dago, ziur asko, titulu horren zergatia. Frazerren *The Golden Bougben* ere baden iturrian: Virgilioren *Eneida*. Horregatik zaigu hain oparoa Frazer, Errroma aurreko, garaiko eta ondorengo naturaren eta Jainkoen inguruko deskripzioetan. Arestik izan zuen, zalan-tzarik gabe, non ilustratu:

Haritzaren adarrak
mugituz biziro,
aita nirea
balitz bezala
emaro,
behar nuen
bendizioa
partitu zidan
luzaro.
Haritzaren adarrak,
mugituz biziro (*M.b.*, 193).

Bertso horien ondoren Arbolarena da hitza, eta heriotzak, orakulua bailitzan, eremu latz eta antzu hartatik alde egiteko bidea seinalatzen dio. Hona Frazerrek gaineratuko lukeena:

Zuhaitzi sakratuak arruntak ziren antzinako germaniarren artean, eta zuhaitz-gurtza apena desagertu den haien ondorengoen artean gaur egun arte. (...).ez

ziren kristautu ia hamalaugarren mendearen azkenera arte. Batzuek haritz nabarmenei eta beste zuhaitz itzaltsu handi batzuei egiten zieten adei, hietatik erantzun orakularrak jasotzen baitzituzten. (...). Haizeak hostoak murmur jartzen dituenean, bertakoek izpirituaren ahotsa dela jotzen dute; eta inoiz ez dira pasatzen zuhairtz hauetako baten ondotik burua adeiki apaldu eta haren atsedena urratzeagatik barkamena eskatu gabe (Frazer 1995: I, 166).

Arbolak bere gurtzaile edo sazerdoteari zuzendutako aginduetako bat guztiz aipagarria iruditzen zait: "Senda luzea har ezazu, begiratu gabe atzera."⁴¹ Oraingoan, *Prelude à la musique de la dance* (Egan, 1986: 98), 1954-1955an idatzia eta J. S. Martinek argitaratua, ekarriko dugu gure esparrura. *Prelude à la musique de la dance* horretan hiria utzi eta desertuko bideari ekiten dion pertsonaia baten istorioa kontatzen zaigu.

Sarr nendin ene etxeen, ilhun eta armarme-sarez eta hautsez beterik zegoen nire etsean, eta nehorri ezer esan gabe, lot nitzan ene liburuak, harr nezan orduan nuen ianzki apurra, eta arbuozko keinu atzipekorr batekin ene ezpain bihurrietan, padurarrantz ihoarten den bideari ekin niezaion...

Bideko herrixka zorrotzeten behaztopaten nintzen artean, nire hauzoen soak nituen nabaritzen, nire lepoan, iltze-mailuaren azpian, gabieren azpian, zerraldo beltzeko zur-oletan sartzen den iltze bat bezala... finkaturik,⁴² nola baita ezarri Iainkoaren kopeta ukigaitzean gizonaren asturuaren prolemata.

—Zoro da; bai, zoro. Egitan du alde bere familietarik, gutiziatu ahal dezakeien onura eta probetxurik desiragarriena eskeinent draukotenean. (...)

Irauten dut bidean, ebilten eta ebilten, ... (Aresti 1986: 6, 98-99).

Eremuko bakartasunera erretiratzen edo ihes egiten du ipuin poetiko honetako heroikak. Aurrerago ikusiko dugun bezala, Jesukristo, Zaratustra eta Elioten irakaspenak bere baitan dauzka jada ahots poetiko horrek. Interesgarria da, ordea, gorago ikusi dugun Tiresiasen mitoaren antzera, bertso horrek guztiz ezaguna den beste mito baten oihartzuna dakarkigulako. Orfeoren mitoaz ari naiz, hain zuzen. Bai Tiresiasen istorioak bai Orfeorenak, iturri bera dute aspaldiko mendeetan: Ovidioren *Metamorfosiak*. Orfeoren amorante kuttuna, Euridize, suge batek ziztatuta hil da. Euridize Hadesera jaitsi da. Eta bertaraino iritsi dira Orfeo kontsolaezinaren negarrak. Hain zen handia Orfeoren sofrimendua non Hadeseko jainkoak berak ere kupitu egin baitziren. Euridize Hadesetik ateratzeko Orfeok baldintza bat bete behar zuen: Euridizeren aurretik abiatuko zen eta Hadeseko ateak zeharkatu baino lehen ezingo zuen atzera begiratu. *Lizardiako* atalaren lehen ahapaldiak ere horren berri ematen digu: infernu imajinario batetik mundurako urratsa ematean, "ez nuen bihurtu bururik atzera" (M.b., 195).

(41) Horra Frazerrek zer duen horri buruz: "Animalia emakumeek eramatzen dute ibai ertzera, eta hura zeharkatuz beste aldera, eta han mortuan uzten dute noraezean piztiek jan dezaten. Gero emakumeak isilik itzultzen dira, atzera begiratzeko; begiradatxo bat egingo balute atzealdera, zeremoniak ez omen luke ondoriorik" (Frazer 1995: II, 225).

(42) Horra *Lizardia* poemako lehen ahapaldian ere agertzen zaiguna: "Senda erpinetik hartu nuen bidea; sentitu nuen han lepoan ingudea, baina eznuen bihurtu bururik atzera" (M.b., 195).

Egia esan, ez darabil Arestik *Maldan behera* poeman Antzinate klasikotik jasotako erreferentzia mitologiko askorik. Gure azterketa honetan Esfinjearena eta Orfeo aipatu ditugu, erreferentzia mitologikoen artean oso ezagunak. Tiresiasena Ediporen zikloan agertzen zaigu, eta gainera Arestik oso eskura aurkitu zuen Elioten poeman. Horrekin batera gaineratu behar da, poeta batengan nahiz irakurlearen eta kritikariaren baitan ezinbesteko dela asoziazioaren bidea. Harira itzuliz, *Hariztia* poeman ba al dugu Orfeoren istorioaren inguruau ehuntzeko moduko elementu gehiagorik?

Beharbada badago bertso bat maitalearen heriotzaren oihartzun izan daitekeena: "eta maitalearen gorputz usteldua" (M.b., 191). Izan ere, honez gero esan beharrik ere ez dago, *Hariztia* poema hau *Lur Eremua* dela eta Infernua ere badela: "Batzutan diotsat ilunpeko jaunari" (M.b., 191). *Hariztia* poema *Lore-mendiaren* erabateko inbertsioa da. Gainera bi poemen artean paralelismo handiak daude, ez bakarrik formalak, baita mamizkoak ere. Hori bai, betiere inbertituak dira guztiz. Leon Bloyk esango zukeen moduan, mundu honetako gozamenak infernuko oinazeak lirateke, alderantziz ikusita ordea, ispi luzeen ikusiak bailiran. Frazerren laguntzarekin *Hariztiako* arbolaren nondik norakoak aztertzera jarri naiz, baina arbolaren beraren sorreraz ezer gutxi esan dugu orainartean:

Hiru gorputzakin egin nuen arbola
sikuari, gero, eman nion odola,
bihotzetik ugari atera nuena.
Arrainen hegala ziren bere sustarrak,
arrano zurien lumak ziren adarrak,
eta bere tronkua sugeen buztana. (M.b., 192)

Seguru asko *Maldan beherako* ahapaldirik ilunenetarikoen artean gaude. Gorago idatzi berri dugun ahapaldian ("*Hariztia*" saila, 12.a/13.a), aurreko bi ahapaldiekin batera (11.a eta 12.a), sail honetan jaso diren bertsorik zailenak biltzen dira. Zaila esatean, interpretazioaren ikuspegitik hitz egiten ari naiz. Oso zaila da zehazten honako hau edo harako hora den, edo hau edo beste sinbolizatu nahian dabilen poeta. Auziari bizkarra emateko modurik dotoreena honako hau izango litzateke: iniziazio borroka baten aurrean gaude, eta heroikak, ohorezko titulu hori eskuratu ahal izateko, nahitaez igaro beharra dauka frogatzen. Bachelard, Jung, edo G. Durand-en bideari on deritzotenez erraza dute hemen. A. Arkotxak ere bere tesian halaxe egin du. Gure interpretazioa ere motz geldituko da, baina saiatuko da metodologikoki onartutako arau eta bideei leialki eusten. Egia da, baina, erritualizazioaren adibide bat delakoan gaudela. Hori bai, erritualizazio horrek naturaren emankortasunean edo antzutasunean ditu bere bi muturrak. Alde horretatik lehia berean ari gara "*Hariztia*" sail osoan zehar: nola bihurtu emankor lur lehorra. Eta horretarako, Eliotek halaxe aginduta, behin eta berriz gida-liburu bihurtu dugun Frazerren gara jo dugu:

Beste urrats bat Klaudio enperadoreak eman zuen, zuhaitz sakratuaren frigiar gurtza, eta beharbada Attisen errito orgiazkoak ere bai, Erromako erlijio ofizialari erantsi zizkionean. (...). Eta ez zen bakarra odol-sakrifizioa egiten..(...), harik eta, asalduraren eroaldian eta minik sentitu ere egin gabe, beren gorputzean eba-kiak egiten zitzuzten buztinontzien puskez edo labanez, aldarea eta zuhaitz sakratua odolez ziprutzteko (Frazer 1995: I, 459).

Eta aurrerago honela dio Frazerrek:

Aldi berean, odoletan dauden bi gizonek lumatzak jaurtitzen dituzte eskutadaka, eta batzuk gorputz odolduei itsasten zaizkie eta gainerakoak airean hegaztatzen dira. Odolak euriarena egiten omen du, eta lumatzek hodeiena (*ib.*, 109).

Beraz, garbi dago Frazerren ustetan, pasarte gehiagotan ere gauza bera azaltzen duen bezala, odola isurtzeak, zentzu majiko batean, euria erakartzeko asmoarekin zuen lotura zuzena. Eta guk badakigu *Hariztiak* duen premiarik larriena ur falta dela: landatu duen arbola sikuak (*M.b.*, 13) edo gorpuak, ura ezinbestekoa du ernalduko bada. Ahapaldi horrek guztiak Elioten *The Waste Landeko* bertso baten oihartzuna dakarkit irakurtzen dudan bakoitzean:

“That corps you planted last year in your garden”,
Has it begun to sprout? Will it bloom this year? (Eliot, 55)
(Iaz zure lorategian landatu zenuen gorpu hora,
Hasi al da kimutzen? Aurten loratuko ote da?) (1983: 130)

Galdera horri erantzuteko sasoien gurpilean aurrera jo beharra dago eta *Lore-mendiara* iritsi. Badirudi, naturak bere ernaltze-hiltze gurpil atzeraezinean *Lore-mendiara* garamatzala, basamortu eta lur antzu zena baratze eta lur emankor eta oparo bihurtuz. Bainaz ez gaitzen aurreratu.

Zerbait erants al dakioko animalien zatiekin eratu duen arbolari? Zein irizpide asoziatibori jarraituz antolatu du poetak gisa horretako arbola? Zein imajinario irizpideri jarraituz? Begiek agintzen ziotenari bakarrik jarraituz irits daiteke horrelako banaketa batera? Ze, sinbolikoki edo Mendebaleko kulturan aspalditik datorren iruditeri usadioari jarraituz eratu izan balu poetak, sugeak arbolaren zuztarretan egon beharko luke. Bainaz ez beti, zeren egia da arbolari kiribilduta ere, Genesiko arbola berari lotuta alegia, ezaguna duela sinbolo hori Mendebaleko kultura kristauak. Sugearen lur propiala, ordea, lurra da; lurraren azpiak direla gaineratuko bagenu, are zuzenago ibiliko ginateke. Zaratu strarentzat ere lurreko animaliarik zuhurrena omen sugea. Sinbolika kristauan infernuko indarren aliatua da beti. Lur azpiko ilunetik altxatu eta argira, jainkoaren jabetza litzatekeen esparrura, abiatu ohi da sugea. Frazerrek ere jasotzen du bere majia eta erlijioari eskainitako liburu eder horretan bes-telako erritualizaziorik:

Narrasti horietako baten larria esekitzentz dute, isatsa behera duela, herriko plazako zuhaitz garaienetik, urteroko zeremonia batean (Frazer 1995: 147).

Kontua da badugula Arbola. Heroiaren borondateak sortutako emaitza da arbola hori. Arbola fundazional horrek, haritz bedeinkatu horrek, badu asoziazio mailan loturarik Arestik berak egingo duen bidearekin ere. Izan ere zer da *Hariztia?* Aresti bera jaio den sorterria? Horra *Maldan behera* idatzi zen garai beretsuan idatzitako *Bizkaitarra IV*-ko bertso hauek:

Katigu neuken ekatxa
Area peko sustar sakonak
egin nabenak aretxa. (Aresti 1, 1986: 63)

Baina nola lortu du hori? Nondik datorkio, baina, gurariak galdurik eta “gizona zen emazte urrikarri” genuen heroiarri ekintza hori burutzeko kemenet? Zeren *Hariztiako* 6. ahapalditik aurrerantzean heroiarri buruz dauzkagun berriak, ezindu eta errenditu bati buruzkoak dira:

Haitz gorri⁴³ beltzetik datorren arranoak
moldegazki lotzen dizkit anka-besoak,
eta laket bizian etzaten da lotan.
Koba sakonetik irten duen sugeak
egunero dizkit moztutzen bost erpeak;
hegaztinari zaio hurbiltzen narrasten. (*M.b.*, 191)

Batzutan diotsat ilunpeko jaunari:
Pozetan negarrez, doloretan kantari,
gizona zen emazte urrikarria nauk.
Nire ezpainenetan dagoen ur gazia
oraintxe kentzeko, egin zaidak grazia:
Ezin paira nitzake premia gogor hauk.

Bere aginekin eman zidan dolore,
kolore denetan: gorri, beilegi, more,
ikusten bainizkion begi biribilak
gutiziarekin, bere hegal zimelak
ebaki zizkidan tenorean kordelak,
geldiro libraturik nire orkatilak.

Eta indarrarekin eman zuen bizia.
Nire sabelean mendekuzko zuzia
izar baten moduan izeki zitzaidan.
Nire etsaiak zeuden lekurantza joan nintzen;
biak nituen hil, eta eguzki-brintzen
edertasun zabala argitu zen nigan.⁴⁴ (*M.b.*, 191-192)

Hariztiako 8. ahapaldiko lehengo bertsoak dio arranoa eta sugea kontalari poetikoaren lagunak direla. Sail bereko 6. ahapaldiak, ordea, bestelakorik adierazten digu, ezen sugeak egunero jaten baitizkio heroi makalduari bost erpeak. Beraz, gutxienez aurrera genezake Zaratustraren mendiko lagunen motiboa beste nahasiago batzuekin batera agertzen zaigula bertso honetan, Kristoren gurutze inguruko pairamenarekin, besteak beste:

(43) Honela dio Arkotxak bertso horiei buruz: “L'évocation du rocher rouge renvoie sans nul doute, à l'origine, au désert évoqué par Ezéchiel dans la *vallée des ossements*” (1993: 92).

Kontus da irudi hori *The Waste Land*eko dela, eta oin-oharretan Eliotek argiro azaldu zuela nongo iturrietatik ibili zen: Ezekiel profetaren irudikazioetan. Cf. Aldekoak (Argitaragabea: 65) kordelak eta Ezekiel elkarren ondora ekartzen zituen.

(44) Honela dio A. Arkotxak bere tesian: “Nombreux sont dans ces vers les termes appartenant au même champ sémantique: la lumière. Images de la torche (cf. chant EI5), de l'étoile, du soleil, verbes brûler, s'illuminer. L'expression métaphorique ‘et la grande beauté/des rayons du soleil s'illumina en moi’, marque le renouveau de Joane et fait apparaître le soleil comme une puissance bienfaisante qui a vaincu les forces maléfiques des ténèbres. Joane est un homme debout, il n'est plus attaché et humilié, il est, à ce moment du récit, tel le ‘Christ sol salutis’ (Durand 1978: 167). Il y a, par conséquent, un isomorphisme évident entre le soleil et l'homme victorieux” (1993: 96-97).

Nire ezpainenetan dagoen ur gazia
oraintxe kentzeko, egin zaidak grazia:
ezin paira nitzake premia gogor hauk. (M.b., 191)

edo, *Hermita eroria, hobietako lauza*. (ib., 191) edo, *bibotzetik ugari atera nuena (odolaz ari zaigu)* (ib., 192). Gauzak horrela, ezin ukatu poemako kontalariaren ahotsean eta egoeran, Jesukristoren sofrikarioa eta nekaldia gogorazten digun imajinarioa.

Galdera honako hau litzateke: zergatik ari da sofrizten *Hariztiako* protagonista hori? Poemaren testuingurua aintzat hartuz gero erantzuna bat eta bakarra da: lehortea eta antzutasuna lirateke arrazoia. Gauzak horrela, esango nuke euria erakartze-ko erritualizazio baten aurrean gaudela. Gatozen, berriz, Frazerren hitzetara:

Alde honetatik, erregearen herio-epaiari bide ematen omen dion ezaugarria oso adierazgarria da: bere emazte ugarien sexu-grinak ase ezin dituenean; bestela esan, partez edo osorik bere askazia ugaltzeko gai izateari utzi dionean, heltzen zaio hilutzeko eta ondorengo indartsuagoari lekuaz uzteko ordua. Erregea hiltzeko ematen diren beste arrazoien aldean, beste honek zera iradokitzen du, gizonen, ganaduen eta uztaren emankortasuna erregearen sormen-indarraren menpe dagoela sinpatiaz, hala non indar horrek erabat huts egiteak gizon, abere eta landareetan ere pareko hutsegitea lekarkeen, eta horrenbestez berandu baino lehen bizitza osoaren iraungitzea ekarriko lukeen: bai gizonena, bai abereena, bai landareena. (Frazer 1995: I, 362)

Ez al dago *Hariztiako* protagonista —“Nire gurariak galdurik”, “nire arima dago mirari baten zain”— Elioten *The Waste Landekoaren* egoera animiko beretsuan?

By the waters of Leman I sat down and wept (...)
while I was fishing in the full canal (...)
Musing upon the king my brother's wreck
And on the king my father's death before him. (Eliot, 60)
(Lemango uren bazterrean eseri nintzen negarrez (...)
Ni kanale uherrean arrantzan ari nintzen artean (...)
Ene anaia erregeren hondamendiaz eta bera baino lehengoko
Ene aita erregeren heriotzaz gogoetan) (1983: 137: 138)

Nor da, ordea, erregearen seme hori? Hona erantzuna:

Eliot concibió el poema de acuerdo a la leyenda del santo Grial⁴⁵ que Jessie L. Weston recoge en su libro *From Ritual to Romance*. En las notas que acompañan al poema, Eliot expresa personalmente su agradecimiento a la señora Weston por haberle facilitado la idea para la estructura de la obra. El libro en cuestión trata sobre la conocida leyenda iniciática y medieval del santo Grial, y de los ritos mágicos de fertilidad que subyacen bajo su trama, siendo posteriormente absorbido por el ritual cristiano. La historia dice así:

(45) *Haserre-dantza* ipuin poetikoan “zilharrezko kanderailuak” agertzen zaigu. Elioten estilora idatzitako oin-ohar batean adierazten zaigu *Ihoannes Theologianoaren Apocalipsea edo Rebelazioneatik* jasoa dela. T. S. Eliotek, *The Waste Landen* “sevenbranched candelabra”z mintza zaigu. Elioten kasuan Grialaren erritualetik jasoa da. *Maldan bebera* poeman “kandeletan ikusiz eulien hegalkak” (M.b., 191) bihurtu zaigu.

Existió una vez un reino llamado La Tierra Baldía, cuyo rey quedara estéril como consecuencia de una herida sufrida durante el transcurso de una batalla en sus órganos genitales. Simultáneamente, esta Landa Gastada que se extiende casi desde Burdeos a las cercanías de San Sebastián, se tornó también estéril en analogía a la herida del Rey Pescador. La forma más particular en que se manifiesta esta esterilidad es en la escasez de agua; las gentes sufren el azote de la sequía. Sólo la llegada de un héroe puede acabar con este lamentable estado de cosas. (Avantos Swan, *La Tierra Baldía*: 28)

Arestiren poemako *Hariztiako* ahots poetikoak zera adierazten digu: "nire arima dago mirari baten zain." (M.b., 190). Zer da, baina, bi poemetako bertso horiek hain gordin oihukatzen duten eskaria? Elioten kasuan berpizkunde da eskari horren izena. Izpiritualitate sendo baten eskaria da berea. Zibilizazioaren norabide baldar eta okerra aldatzeko modu bakarra atzean utzitako izpiritualitate iturriira itzultzea litzateke Eliotentzat zuzena. Kristautasun tradicionaletik Mendebaleak mendeetan zehar edan duen izpiritualitate erlijiosoaren eskaria da. Horregatik *The Waste Landen* agertzen diren Elizak daude hutsik, haize danbatekoen kapritxora. Soilik erlijioak eskain lezakeen sendotasun moralik ez dagoelako da amodioa ere antzua. Danteren garaitik aurrera gero eta noragabetuago dabil gizartea, horixe da Elioten mezuaren oinarria.

Elioten kasuan, berpizkunde hori gerta dadin, erregearen antzutasun sexualak desagertu egin beharko du; eta Arestirenean berriz, protagonistaren kemen eraberritu eta indarberriituak soilik ahalko du irauli, ahuldadeari amore ematearen ondorioz, protagonistak bizi duen egoera antzu eta agonikoa. Tenore horretan iristen da arraina, heroien lokarriak askatzen dituena. Arestik, 200 puntu izeneko poeman, badarabil lehendabiziko ahapaldietan gizakiaren antzutasunaren oihartzunik:

Nire erresuma, handiaren herena.
 Orain emanen nuke, lo-aldi baten truk (...)
 Ukatu zidan bein, niri gizontasuna
 Hautatu nau errege eremu batean
 Leporatu zidan, zama horren astuna.
 Lur eder honen jabe, egin nauenean
 Ez nuen ikusi, hemen ezein arbola
 Etzegoen urikan, hemengo lurrean." (Aresti 1986: 1, 166-167)

Arestirenean nahiz Eliotenean kemenak eta ahalmenek hartueman edo lotura zuzena dute naturaren eraberritze edo ernaltzearekin, berpiztearekin alegia. Eliotek iturri antropológikotzat erabili zituen Frazer nahiz Weston anderearentzat, gaitasun sexuala korrespondentzia estuan dago naturaren eraberritzearekin. Horregatik dio Frazerrek buruzagien arte eta ahalmenik miresgarriena "Euriaren egile" izatean zetzala:

Buruzagi batek euririk eragin ezin badu, ahal duen beste norbaitengandik lortu beharko du. (...). Horregatik, tribu horietako buruzagi gehienak eurigileak dira, eta herritarrei sasoia denean euria emateko boterearen araberako ospea izaten dute (1993: 134).

Hain zen hori horrela, non erregea kateekin edo sokekin lotzen zituzten lehorte garaietan:

Bereegal zimelek
ebaki zizkidan tenorean kordelak,
geldiro libraturik nire orkatalik. (M.b., 192)

Gorago “*Prelude à la musique de la dance*” (From “*Suite des dances soulettes et mixaines*”) ipuinaz jardun dugu. *Godelet-dantza* eta *Haserre-dantzarekin* batera ikusteko da ipuin hori, guztiak ere Arestiren zuberotar sasoikoak baitira. Nietzscheen Zarustra pertsonaiaren bakarzaletasuna eta hiriko jende arrunt baina krudelaren konpаниatik ihes egin beharra, norbere baita garatzeko lehen baldintza gisa dator ipuin horretan. Baina horrekin batera, begibistakoa da, baita ere, *The Waste Land* eta Eliot-en poesiaren igurtzia. Horra Eremuaz egiten den deskripzioa:

Maurtuan ezkero, edireiten dut, uste nuen baino laketgarriago, gorkugarriagoa dela. Igeritan dut haren gelditasunean, haren eihartasunean. Ikazten naiz han eztagozin zuhaitzetako enborretarik, aspalditik ebagi diren adar kimudunetara igaitekotz, zumarr batek ezin iasan ditzakeien madari, marrubi, gerixe eta mertxike, umo, zorhi, gozo eta ezti batzuk dastatzekotz. Hau dut gonburua, mukarua. (Egan, 1986: 99)

Garbi antzeman daiteke ere Zaraustraren eragin errromantikoa, desertura erretiratzea, benetako salbazioa han dago, desertuan, zibilizazioari ihes egite horretan. Ez da hori gehien axola zaiguna hemen. Nire hipotesia da, jada, ipuin horrentxe berrian umotzen hasi zirela, urte batzuk geroago *Maldan behera* poeman bilduko zituen irudiak eta imajinarioa. Esate baterako, kanpora ditzagun irudi hauek: “han eztagozin zuhaitzetako enborretarik, aspaldi ebagi diren adarr kimudunetara” (1954/55) eta “arbol aadar-gabeen parea naiz ni” (1959). Eliotek, berriz, honela dio *The Waste Landen*: “... What branches grow.../...And the dead tree gives no shelter” (Eliot: 53).

Nire ustez, zilegi litzateke 1986an argitaratu ziren ipuin horien eta *Maldan beherako* zenbait irudiren arteko konparaketa, esate baterako:

"PRELUDE A LA MUSIQUE DE LA DANCE"	HARIZTIA
<p>"Zerarren etorr hedin nire bakartegira? Hemen eremuaren elkorrean egunaren zigorrian, gauaren hotzean, eztiagon aterperik. Zerarren etorr hedin? Gose eta egarri izaitekotz? (...) Ihoa, ihoa, laisterr, hadi itzul lehen-baino-lehen, hire huriaren ugaritara, nire huria eta ugaria lehen zanetara, huria inguratzeten duten zelaietara." (1986, 1954-55an idatzia)</p>	<p>"Horko bidea gaitza dela, ezta kamino zabala (...) Basamortua arantz-ortua laga zazu berehala Etorri zinen haranetik estrata luze batetik: orain zu zara itzuliko gauza guztiak utzirik (...) Bihurtu zaitez haranera, hemen asperru bazara. Senda luzea har ezazu... zure gogoa ezta, gajoa, itzuliko eremura." (M.b., 193)</p>

Eremura “bustirik ene adatsa” (1954/55) iritsi da Arrestiren heroia. Eliotek, berriz, “and your hair wet” (Eliot, 54) zioen bere poeman.

2.2. Lore-Mendia

Gure azterketarako balio digu ispiluaren jolasak. *Hariztia* eta *Lore-mendia* aurrez aurre jartzea litzateke egokiena, bien arteko harreman estuaz ohartzeko. Nik uste bi egoeren arteko oposizioa erabatekoa dela: infernuari paradisua kontrajartzen zaio. Horra zer dioen N. Fryek sinbologia mota horri buruz:

Para los poetas con imaginación religiosa hay también cielo e infierno, las realidades paradisíacas y demoníacas que existen en la mezcla de lo bueno y de lo malo de la vida humana. El cielo y el infierno sólo pueden ser representados en poesía mediante imágenes de algo existente; de aquí que las imágenes de inocencia, el jardín, la primavera perpetua, la juventud eterna estén íntimamente asociados con el cielo o paraíso, y las imágenes de experiencia repulsiva, el desierto, el mar, la prisión, la tumba, con el infierno. Pero para todo poeta que sigue esta estructura de simbolismo, incluyendo a Eliot, hay cuatro mundos, estando tan diferenciados como asociados el cielo y la inocencia, el infierno y la experiencia. (1963: 74-75)

Beraz, egia da *Hariztiak* nola-halako infernu sinboliko baten aldeko hipotesia defendatzeko zantzu ugari ematen dituela aditzera: gatibutasuna, baraualdia, tortura... Alderantziz gertatzen da *Lore-mendiarekin*, nola-halako paradisu sinboliko baten inguruko zantzu ugari biltzen dituelarik. Gainera, urteko sasoien gurpilean dabil natura, bere heriotza eta berpizkunde sinboliko geldiezinean. Edo, alderantziz azalduz, naturaren etengabeko eraldaketa hori dugula imajinario poetikoan unibertsala den urtaroen metaforaren altzoa. Ze, egia bada, maila desberdinetan koka daitezkeen irakurketak bil ditzakeela poema honek —hala nola lau poeten ezizenak kontuan harturik, euskal poesiari egin zaion omenaldia dela, edo euskal gizartearen aro desberdinaren garapena dela...—, gure orainarteko azterketaren norabideari jarraituz onartu beharrean gaude naturaren eraldatzearena, sasoien joan-etorri etengabea alegría, funtsezkoa baita hori *Lore-mendia* poemarinoko ibilbidea uler dadin. *Hariztiako* hitz esanguratsuena “basamortua” eta “arantz-ortua” baldin bada, *Lore-mendikoa* ortua edo baratza izango da. Lehenengoa antzutasun, barau eta bakardadearen esparru naturala; bigarrena, berriz, oparotasun betearen eta txirula eta dantzaz girotutako alaitasunarena. *Hariztiatik Lore-mendira* beraz, “urte beteko arnegazioa” igaro behar izan du naturak, sasoien gurpilean bizi den naturak utzi... Horra nola irakurri zuen N. Fryek hori guztia Elioten poemagintzan:

Los poetas tienden a identificar, por metáfora, los diferentes aspectos del movimiento cíclico de la Naturaleza. El invierno, la muerte o la vejez, la noche, las minas y el mar tienen entre sí asociaciones hechas, y así ocurre con la primavera, la juventud o el nacimiento, la aurora, la ciudad, la lluvia o las fuentes. La inclinación de Eliot a la imaginería cíclica nos sale al encuentro a cada vuelta (1963: 73).

Ikus dezagun nolako paralelismoak dituzten, hau da, nola bi poemek bata bestearren ispilu diren, nahiz eta ispiluak berez inbertituta itzuli bere aurrean jarritako irudia:

HARIZTIA	LORE-MENDIA
<p>Orain hemen nago, eremu latz honetan Nire gurariak galdurik, lur honetan arbola adar-gabeen parea naiz orain. (...)</p> <p>nire arima dago mirari baten zain</p> <p>Eztago zeruan egun hodei batere</p> <p>Landare zekenak baitaduzka eremuak erratzak harean, haitzetan kalamuak</p> <p>eta maitalearen gorputz usteldua</p>	<p>Orain hemen nago, Lore-mendi honetan⁴⁶ Nire gogoetak eginik, gailurretan armenda loratuen parea naiz orain. (...)</p> <p>nire arima eztago miraren baten zain.</p> <p>Hodei eta errainu guztiak urraturik</p> <p>Arrosa politak, krabelin-liliak, orkideak eta gardeni-begoniak</p> <p>uhin urrintsuok usteltasuna jan du</p>

HARIZTIA	LORE-MENDIA
<p>Kolore guztietañ eman zidan dolore, kolore denetan: gorri, beilegi, more.</p> <p>(Arbola mintzatzen da)</p> <p>"Etorri ziren haranetik estrata luze batetik: orain zu zara itzuliko gauza guztiak utzirik, lehengo estrata itzal da-ta, bide-zihor horretatik. (...)</p> <p>Bihurtu zaitez haranera, hemen aspertu bazara. Senda luzea har ezazu, begitu gabe atzera. Zure gogoan ezta, gajoa, itzuliko eremura." (M.b., 193)</p>	<p>Baratz honetan atzo nintzen etorri kolore guztiak, beilegi, more, gorri</p> <p>(Neska mintzatzen da)</p> <p>"Aire aurrean duk zabaldu kaminoa; eztuk ogia jan, eztuk edan arnoa, bazekiat haizela egarri ta gose. Mila legoako camino hau, luzea, ibili behar duk orain, ene maitea, arinki, galdu gabe denpora batere."</p>

Lore-mendiako lore bat nabarmendu beharko banu, lore hori arrosa izango litzateke. Arrosa da maiatzeko lorea.⁴⁷ *Lore-mendia* honetan, hala ere, klase askotako loreak

(46) A. Arkotxa ere ohartua zen bi poemen egituren arteko paralelismoaz, nahiz eta agerian egon egitura horien barruko mamia guziz kontrajarria gertatzen dela: "La relation entre les deux fragments est évidente. Cependant, l'état du héros est très dissemblable dans l'un et l'autre poème. Nous pourrions même aller jusqu'à dire que tout oppose les deux fragments cités. La métaphore de l'amandier en fleurs est à l'opposé de celle du désert aride. La dimension antithétique de ces images a pour fonction de souligner les progrès accomplis par le héros durant le voyage" (Arkotxa 1993: 120).

(47) Horra zer kontatzen digun Arestik *Prelude à la musique de la dance* ipuin poetikoan: "Eta agorrik dagoen lats bateko errekatik ikusten dut, eneganatzen, emazteki-tankera bat, paduraren pairuetako ezau-garriekin haren begitarte erdi-zimurtuan (behin bolizkoa zena), aize kiskaltzailearen sakiekin haren kaderetan (behin behorr batenak bezain mehe eta azkar zirenak). Haren oinak ortutsik, haren adatsa burutsik, haren gorputza bilutsik. Bekatu bat dirudi mila bertute artean. *Larrosatze ernai-berri bateko leben lorea dirudi*, mila urtez beilegitutako, eta anthropologiaz eta arkheologiaz mintzatzen diren paper urratu asko artean" (Egan, 1986: 99). (Jokin Zaitegiren paperen artean aurkitua *Haserre-dantzarekin batera*).

ditugu, baita barazki eta landare ugari ere: arrosak, krabelin-liliak, orkideak, garde-ni-begoniak, garia, artoa, kipula, arbia, ilarrak eta abar... Oparotasun eta emankortasunaren aldeko adibideak: ahardia, neska pottola.

Benetan dela ausardia
benetan dela garbia
polit, galant eta dotore, gorotz artean arbia:
Bere arreba,
bere izeba
izorra den ahardia.

Egiazki da iraunkorra
moztu gabeko ilarra.
Badirudi hortz-agin gabe eme-galdu bat, zaharra.
Neska pottola
badabil nola
aingeru bat zerutarra. (*M.b.*, 207)

Frazerrek adibide eta pasarte luzeak dakartzza ahardiari buruzko erritualizazioaz, ahardia alearen edo bihiaren izpiritu gisa hartzen duelarik. Ilarrak ere hor daude eta baita, “neska-sorginak” ere (*M.b.*, 207), emankortasun alaitzu baten testuinguru batean kokatuta. Ugariak dira, baita ere, usteltasunarekin zerikusia duten irudiak: “maitalearen gorputz usteldua”, “uhin urrintsuok”... *Lore-mendizko bertso* batek berak ematen digu naturaren misterio horren berri: “Usainen dator niregana bizia” (*M.b.*, 204). Zaharra hil eta ernetu den naturaren lege estuari eusten dio tinko iruditeria osoak. Fertilitate⁴⁸ erritual baten aurrean geundeke.

Eguzkia ere ez da ahitzentz, dena da bizitza eta argia. Gogoratu *Hariztiako ibilbideari* ekiterakoan adierazten zaigun hora: Biak hil nituen, eta eguzki-brintzen / edertasun zabala argitu zen nigan. (*M.b.*, 192)

Maldan beherako protagonistarik gorpuztuena Kristo bera da, eta Zaratustra haren kontrafigura baino ez da. Ez du hala nahi izan, hala ere, Arestik, egoskor agertzen baita, aurrerago ikusiko denez, Zaratustrari lehentasuna eman nahian. Horixe baizik ez digu adierazten poemaren hasierako argudioen lehentasun sailkapenak.

1954 urtekoa den pasadizo horretan, *Dance dans la prière* eta *Godalet-dantzarekin* batera aztertu beharko liratekeen horretan, argi azaltzen da jada, *Maldan behera* poemaraino atergabeara izango den basamortuaren/jardinaren (*Lore-mendia*) arteko imajinarioa. Kontu egin dezagun, *Dance dans la prière-ren* sail bereko dugula ipuin hori. Eta aurreko poemaren aipua T. S. Eliotena zela: “Mother, sister and Spirit of the Garden”. Ordurako bere baitan daramatzta Arestik Nietzsche zein Eliot. Aurrerako ikusi ahal izan dugun moduan, ipuin poetiko horretako elementu batzuk *The Waste Landekoak* dira zalentza izpirik gabe. Antropologiaz eta arkeologiaz egiten duen aipamen hori ez al dagokio Frazerri? Litekeena da.

(48) *Maldan behera* poeman zehar ezin konta ahala dira halako irudiak, horra *Partiera* poemako adibideak:

“Nire errai guztiak usteldu dirade:
Barrabilak, ugatzak, giltzurrunak ere.(...)
Lore guztiak aginka
edan zidaten odola;
haragi-ustu ninduten geto...” (*M.b.*, 214-215)

T. S. Elioten *Lur Eremua* gizon modernoaren egoera triste eta hutsalaren irudia litzateke. Elioten *The Waste Land*ek darabiltzan irudi indartsuenak, basamortua, ur falta etab., zibilizazioaren deskalabroa iragartzera dator, eta Eliotek, basamortua ziutatearen bihotzean erroutz, poesiaren imajinario modernoaren sinbolo nagusietako bat eraiki bazuen, Nietzsche izan zen poeta angloamerikarraren iturria, nahiz eta Eliotenean Grial Sakratuaren motibo paganizantea ere presente egon.

Urak, *Maldan behera* honetan, funtzi sinboliko nabarmena bereganatuko du. Beraz, maila primario batean ezin ura eta hodeia bereizi. Naturako bi elementu horiekin batera, esnea eta odola ere hementxe aipatuko nituzke. *Lur Eremuak* uraren behar larria izan, urak —euriak— ernaraziko baitu lur lehorrean bizitza, soloak eta zelaiak emankor bilakatuz. Izan ere, eremu latz horren zergatia begibistan dago: Entzun eztelako ur lasterraren hotsa / apur bat busti dezan lurreko kolkua. (*M.b.*, 191)

Ur faltak izango du halaber eraginik umeen elikaduran, oraingoan ere bizitzaren ukazio delarik:

Kartagoko errautsetan
etzen aurkitzen urik.
Hango amen ditietan,
esnea baitzen urri.
Haur txikiak hil ziraden
gosez eta egarriz. (*M.b.*, 233)

Euriarekin lotuta dagoen beste elementua hodeia litzateke. Ez du hodeiak, ordea, balio unibokoa *Maldan behera* honetan; lehen zatiko hodeiak naturaren antzutasunarekin lotuxeago bazeuden, bigarrenekoan egoera ilun eta gatibua konnotatu nahi du. Zerua estaltzen duten lainoek bizitza iraunkorra izan dute kristautasunaren sinbolican, Jainkoaren argiari itzala egiten agertuko baitira lainoak. Azken zentzu horrentxe jaso zuen Nietzschek ere lainoen esanahi sinbolikoa Zaraustraren ahotan. Heroiaren soluzioaren zain dago *Maldan beherako* unibertsoguztia: Zeru gorena dago hodeiez betea / Gure barnean ere badago hodeia. (*ib.*, 221)

Zereginabe bete ondoren, ordea: *Orain eztago itzalik / ezta zeruan goibelik.* (*ib.*, 225) Edo beste hau:

Orain ezta problema, ezta misterio
Joanerentzako:
Argitan dago oro,
agiri eta klaro. (*ib.*, 228)

Hodeiarekin batera aipa daitezke itzala eta iluntasun kutsua duen oro: lauzak, hilobiak e.a. Izan ere elementu horiek guztiak baliokide izango baitira *Lore-mendia*-ko amodio-argitasun betearen aurrean. Dena den, badu Lur Eremuak naturaren sasoi aldaketarekin zerikusirik. Neguak —izotza eta elurra— bizitza duen oro estaltzen du, eta izadiak ere badaki, beraz, ernaldiaren sofrikarioaren berri, bizimina duen orok iragan behar baitu bere nekaldi eta borroka berezia. Naturak ere hil egin behar du udaberrian, berpiztu ahal izateko:

Udaberriko gau ederra
bihurtu zaigu gogorra;
elur zuriak estali du hemengo mendigailurra,
ta krabelina
apain ta fina,
orain ezta mundutarra.
Lore guztiak usain gabe
geraru dira hementxe;
sasietako orri motzak ikusten duzu kolorge,
eta limoiek,
laranja hoiek,
zaporea galdu dute. (M.b., 193)

Zergatik, Elioten kasuan bezala,⁴⁹ Arrestirentzat ere *April is the cruellest month* (Apirila hilik kruzelena da)?: Jesukristo ere udaberriaren iristearekin batera gurutze batean iltzatuta hil zelako. N. Fryek aurkitu du halakorik T. S. Elioten *The Waste Landen*:

La pascua representa el final de un largo período de simbolismo religioso en el que se pensaba que 'un dios agonizante', un espíritu que representa la fertilidad de la Naturaleza, moría y resucitaba de nuevo, normalmente en una fiesta de tres días" (Frye 1969: 95).

Lizardik ere halaxe deskribatu zizkigun negua, udaberria eta udako uzta oparoa, udazkenaren gainbeherarekin amaitzeko. Ikusi ahal izan dugu zein garrantzitsua izan den ura eremuko Lur Eremuari ihes egin eta bizitzaren gurpilean *Lore-mendaraino* iristeko. Beste sinbolo batzuk, naturako elementu horietaz harago, poetaren unibertsio mitikoaren oinarri-oinarrian egongo lirateke, eta ezinbestekoak dira poema ongi uleratzeko. Horietako sinbolo funtsezko bat litzateke Arrestirentzat odola: *Hiru gorputzakin egin nuen arbola / sikuari, gero, eman nion odola / bilotzetik ugari atera nuena.* (M.b., 192)

Euskaldungoaren sinbolorik sakratuena litzatekeen arbola hori iharra eta antzutua dago, heroikak txertatzen dion odolarengan poderioz noiz eraberrituko zain. Zaharberritua den arbola hori euskaldungoaren abiapuntu eta erreferentzia fundazional nagusi bat litzateke. Arbola hori Euskal Herriaren sinbolo nagusia da, Arrestiren poesiagintza osoan zehar agertuko den irudia eta poetaren sinbolorik iraunkor eta erro-tuentetakoak.

Soberan legoke emankortasunaz, lau urtaroez eta naturaren ernaltze-ahitzeen binomioaz gehiago jardutea. Nik uste ondo azalduta gelditu dela, batez ere *Hariztia* eta *Lore-mendia* poemen arteko barne loturaren eta dinamikaren gure ikuspuntua. Bi atal horiek elkarren ondoan ikusita, guk hemen egin dugun bezala, naturaren ziklo-ekin alderatuta bakarrik eduki dezaketa funtsezko esanahi bat. Besterik da, irakurketa maila horren gainetik, beste hari narratibo edo diskurtsibo batzuek ere aukeran

(49) "April is the cruellest month, breeding
Lilacs out of the dead land, mixing
Memory and desire, stirring
Dull roots with spring rain." (Eliot, 53)

zilegi agertzea. Eta, seguru asko, bigarren poemak ikuspegi horrek zentzu progresibo bat edukiko lukeela, *Herri-bitartearaino* ibili den garai desberdinetako esperientzia baten kronika izango delarik. Halaxe agertu zuen aspaldi I. Sarasolak bigarren ikuspegi hori:

Gure ustez, Arestiren poemak bere lehen partean, giza kolektibitatearen, eta konkretuki euskaldungoaren, ibilbide historikoaren ebokazio sinboliko bat mamiñten eta gorpuzten du, lehen gizonetik gizarte hirutrera. Poeman gertatzen den gaibide honi kontrajarririk, edo hobeki, hartan kontraispilaturik, euskal poesiaren aurrerabidea adierazten da. Gaibide honek bigarren mailakoa dirudi besteari buruz, eta lehengoaren eratze-beharretara makurtzen da (1976: 76).

Ikuspegi hori bermatzeko zer egokiagorik I. Sarasolak C erakotzat hartu dituen poemak baino: "Hauen funtzioa, funtsean, bidaiaren etapen artean bitarte bat sortzea da. Bitarteok osatzen duten gorputz lagungarri honek bide baten forma hartzen du, "zibilizatz" doan bide batena, hain zuzen" (*ib.*, 68). Beraz, senda, estrata, galtzada eta kaminoa ditugu ibilbide horren izenak. Honela jarraitzen du Sarasokak ikuspegi beretik eta beste motibo nagusi bati tira eginez:

Zibilizazioarentzako ibilbide baten aurrean gaudeneko susmo hori egiaztatzeria, etapaz etapa gertatzen den giza egoeraren aurrerabidea dator.

Lehen etapa, "eremu latz" batetan jasotzen da. Ez dugu han egiazko bizitzaren arrastorik aurkitzen: soilik arranoaren, sugearren eta zimuaren sinboloak. Eremu honetan sortzen da haritza, hau da, euskaldungoaren sinboloa, zeinak protagonista bedeinkatzen baitu abiaorduan (...). Bigarren etapan, lizardian, arranoa eta sugea, bele eta baretarra degradatzen dira. Bestalde, gaingizakiak zimutzat hartzen dituen izakiak (m), berez gizon primitiboaren ezaugarri guztiak dituzte (...). Hirugarren etapan, "zezen azkarrak zeuden" iratze ederrean, protagonistak aurkitzen dituen artzainak, behortzainak, zerrizainak eta unaiaik,

Ardien artean agertu zen artzaina;
zaldiaren zelan zetorren behor-zaina,
...
zerri-zainek ere irain egin zidaten;
unaiaik zebiltzan arnaguak esaten:

artzai-zibilizazio batetara heldu garela jakinerazten digute. Laugarrenean, lurra lantzen duen gizarte laborari bat suspertzan da (...)

Azken etapan zibilizazio hiritarraren erakundea gauzatzen duten elementuekin egiten du topo protagonistak:

Herri-bitarteko alkate nagusia
etorri zitzaign; senideen hauzia
ekaririk: Baneukan judizio berria.
Berekin zetorzan: arotza, igeltserua,
zapataria ta baita erlojerua,
lege-gizona eta errementaria
Bakoitza jezarri zen kadira batean:
Lege-gizona ta alkatea ezkerrean
apaiza, dendaria, berriz, eskumatik. (1976: 70-76)

Kristoren sinbolikak heriotza eta infernuko antzutasuna ekarriko lizkiguke, nahiz eta aurrerago Paradisuko berpizkundea ere berarekin ekarri. Lehen loraldiak, lehen udaberria ere berarekin dakar. Lehen loraldi hori, lehen udaberria, *Lore-mendiakoa* da; hiru eguneko infernuko negualdiaren ondoren —*Hariztia, Lizardia* eta *Iratze ederra*—, *Lore-mendiako* naturaren oparotasun betea biziko du poemak. Oso garbi antzeman daiteke naturaren sasoia eta Jesukristoren hil ondoko hiru egunetako infernualdi edo ‘negualdia’ elkarren osagarri direla, ardatz sinboliko berberaren gainean eraiki direla. Eta ardatz sinboliko hori etengabean itzulika dabilen Kristoren nekaldi eta hiru eguneko infernualdia da, ondorengo berpizkunde zoriontsua bete baino lehen. Horixe da *Hariztiaren*, *Lizardiaren*, *Iratze ederraren* eta *Lore-mendiaren* arteko barne kateaketa; horixe, baita ere, *Partieraren*, *Judizioaren*, *Mendekantzaren* eta *Azkenengo besarkadaren* artekoa: negualdia, infernualdia eta hirugarren egunean berpizkunde. Horixe da *Maldan behera* poemaren giltzarria, horixe bi aldiz errepikatzen den eskema arketípicoa. Lehen zatiko hiru poematan argiro ematen du aditzera hiru egunekoa izan dela *Hariztiatik Lore-mendiara* heroikak egin duen ibilaldiaren iraupena: “Eguzki brintzen/edertasun zabala argitu zen nigan”. (*Hariztia*, 192); “Egun berriaren argiaren heltean”. (*Lizardia*, 196); “Laster sentitu nuen/egunaren hotza”. (*Iratze ederra*, 201)

Naturaren zikloa zibilizazioarenarekin lotuz gero, ez da *Maldan beheran* aurrera-pauso positibotzat baloratu kristautasunaren presentzia. Alderantziz gertatzen da, Fryeren ustetan, *The Waste Land* poeman:

En *The Waste Land* la llegada del cristianismo representa el paso de la cultura clásica de su invierno a una nueva primavera, ya que el ciclo de la Naturaleza está asociado también con los ciclos de la civilización. (1969: 98)

Maldan beheraren kasuan, sinesgarriagoa iruditzen zait J. Juaristik adierazitakoa:

Para Ibon Sarasola ‘constituye una evocación simbólica de la evolución histórica de la especie humana, y, más concretamente, de la colectividad vasca desde el primer hombre al hombre urbano’ (Sarasola 1976: 77). Sarasola concede una importancia especial a la progresión ‘civilizadora’ de los tipos de caminos recorridos por el protagonista de este poema narrativo (senda-estrada-calzada-carretera) y de los estratos sociohistóricos que atraviesa, desde la horda de cazadores de la ciudad, pasando por las culturas de pastores y agricultores: la concepción de la historia que subyace en *Maldan behera* no es ‘progresista’. Los términos inicial y final del pueblo son equivalentes: el yermo y el cementerio. El esquema de la obra es análogo al que Lewis Mumford propone para la evolución de las ciudades: eópolis-polismetrópolis-megápolis-tiranópolis-necrópolis (Mumford 1959: 359, 369), aunque en Aresti, cuya hostilidad al mundo urbano ha pasado sorprendentemente desapercibida a sus críticos, el paso de la polis a la necrópolis se da directamente sin mediaciones. (Juaristi 1987: 26)

3. F. Nietzsche-ren *Honela mintzatu zen Zaraustra* eta G. Areztiren *Maldan Behera*

3.1. *Lizardia*

Lizardiaren lehenengo bertsoak heroikaren urrats eta paraje berriaren jakinean jar-tzen gaitu: “Orain ez nago hor, eremu latz horretan” (*M.b.*, 195). Atal horren hasiera-

tik ohartzen gara gizaki arrunten ahalmenez gain hornitua den gaingizaki/erdijaineko baten aurrean gaudela. Errukirik gabe noiznahi astinduko du makila heroi askatu berriak:

Makila batekin beleari kolpea
eman nion, eta heriotze dorpea
errezibitu zuen nigandik txoriak.
Handik berehala zapaldu ere nuen
nire abarrarekin barea, eta eznituen
behatzetan sentitu adur itsusiak. (M.b., 195)

Lizardiako gaingizakiaren ahalmena are eta handiago eta jainkotiarroga azalduz doa, ezen bere aurrean giza irudiko zimuak eta antzeko basatitxo beldurtiak baizik ez baitira biltzen:

Astiro nenbilen lizardi zaharrean,
haltura handiko arbola baten pean,
trankil jezarri nintzen, atseden hartzera.
Giza-itxurako zimu batzuk, haundiak,
ikusi nituen, eta beren geziak
jaurtikitzen zituzten zeruaren kontra. (M.b., 195)

Frazerrek gezi jaurtitzaleen inguruko adibide asko dakartzan: euria erakartzeko zeruko hodeiak lehertu nahi lituzkeen geziarena, edo eguzkiaren argiari eusteko jaurtitako... The *Golden Bough* liburuan horrelako adibide asko aurki daiteke; dena den, orainarte gure lanari eman diogun norabideari eustearren, euri erakarleak soilik hartuko ditugu aintzat: hodeiak zulatzu euri tantak lortzea helburu lukeen ahalegina. Dena dela, *Lizardia* atalak beldur "panikoa" ere irudikatu nahi lukeela dirudi:

Aldarri batzukin dantza bat egin zuten.
Zeru goibeletik trumoia zen entzuten;
haren oihartzunean ikusi ninduten.
Halaz ikaratu ziren denok bizi;
haien artetik bat etorri zen astiro,
eta nire aurrean belaunikatu zen. (M.b., 195)⁵⁰

Trumoiaren, tximistaren eta euriaren oinarrian dagoen jainkoa Jupiter da. Eta nahiz eta *Lizardian* ibili, Jupiterren berezko esparru izpirituala *Hariztia* da. Berriz ere Frazer jakintsuaren esanetara jarriko gara:

Erromako erregearen apaiz-betekizunak haren oinordeko zen Errito Sakratuen Erregeak bereganatu zituen. Goiko azterketak honako ondorioetara ekarri gaitu. Erromako erregeak Jupiter ordezkatzen eta pertsonifikatzen zuen, ortziko jainko handia, trumoiarena eta haritzarena; eta hainbestean euria, trumoia eta oinaztarria eragiten zituen bere menpekoen onerako (Frazer 1995: I, 217).

(50) Hara zer dioen Frazerren liburuko pasarte batek: "Ez da harritzeko, beraz, ekipse batek izulaborria sorraztea eta, baldin eta oihuka eta gezi ahulak airera jaurtika hasten ez bada argizagiak jateko mehatxu egiten duen mustroarengandik defendatzeko, eguzkia edo ilargia hil egingo direla pentsatzea" (Frazer 1993: I, 426).

Aurrerago honelaxe jarraitzen du Frazerrek:

Eta nola bete itxaropen horiek Zeus senidearena, hots, haritzaren, trumoiaaren eta euriaren jainko handiarena eginez baino hobeto? Dirudinez, pertsonifikatu egiten zuten hora, italiar erregeek Jupiter pertsonifikatzen zuten bezalaxe. Antzinako Italian haritz bakoitza sagaratzen zitzzion Jupiterri, Italian Zeusen pareko zenari; eta Erromako Kapitolioan, haritzaren jainko soil gisa ezezik, euriaren eta trumoiaaren jainko gisa ere gurtzen zuten jainkoa. (*ib.*, 227)

Lizardiaren jainkoia izan ordez, Jupiter hariztiarena izateak ez dakarkio atalari kalte handirik; izan ere, interpretazio hari bat baino gehiagorekin aldi berean aritzearren ondorio baita desajuste xume hori. Mendiko gailurretik *Herri-bitartera* heroik urratzen duen ibilbidea honako hau da: senda, estrata, galtzara eta kaminoa. Ibilbide horrek antropologikoki aztertzeko moduko aurrerabidearen hari interpretatibo bat utziko luke aidean. Poeten izenei bagagozkio, berriz, I. Sarasokak aspaldi idatzitakoa hona biltzea nahikoa delakoan nago:

Lehena eta azken etapa geratzen dira. Ibilbidearen hasera suposatzen duen *Hariztiak*, ildo bertatik, Aresti poeta, poemaren egilea adierazten du. Beraz eta honez gero, badirudi protagonistak egiten duen bidaiaiak euskal poemagintzaren ibilbidearekin zerikusirik baduela (1976: 68).

Lore-mendia, azken finean, Aresti poetaren kontsakrazio unea baldin bada, *Lizardi* gerraurreko eta *Iratze eder* gerraondorengo agertu behar nahitaez. Baino horrek guztiak ez du esan nahi poeta horiek liratekeenik Arestirentzat euskal lirikorik handienak. Izan ere, Mirande ere hor zegoen, neurri batean Aresti parentezat erreferentzia gune bazterrezina: komenientziaren arabera hartu eta erabili zituen Arestik poeta lirikoen izenak. Honekin zera esan nahi dut, ez zuela Arestik hainbesterainoko kezkarik eduki, *Lizardiaren* aterbean berez *Hariztiari* zegokion imajinario poetikoz hornituta zetorren ala ez zaintzeraino. Koherentziaren aldetik huts horrek ez dio ukatzen arnasa zabalagoaren eta luzeagoaren barnean ondo txertatuta egotea.

Gure irakurketaren harira itzuliz, zergatik ikaratu ote dira giza itxurako zimu horiek eta heroiaren aurrean belaunikatu? Erantzun bila Frazerren obra bikainera joko dugu:

Honek erakusten du begiramenez hartzen dutela tximistak irazekitako sua, eta begiramen hori ulertzeko da, zeren eta Jainko munduratutzat baitauzkate trumoia eta tximistak. (...) sinesten dute gizon handi batek egin zuela mundua eta bere biztanle guztiak, eta tximista gizon handi hori bera besterik ez dela, bere beso garrezkoaz zuhaitzak eraistera zerutik bizkor jaisten dena. (Frazer 1995: II, 399)

Izan ere:

Nire hitzarekin erortzen zen euria,
adarren artean ere oinasturia:
Ekaitz amorratua zoan edonondik.
Eta zimist batek piztu zuen laharra;
urak amatatu zioten bere garra.
Eguerdian dena zegoen ilunik. (*M.b.*, 196)

Frazerrek badu oraindik ere zer esanik Jupiterren hariztiari buruz:

(...) emanez ortziko jainko handiak, zein gurtzen baitzuten eta zeinen ahots beldurgarría entzutenean baitzuten trumoiaaren hotsean, basoko beste zuhaitzen gai-netik maite zuela haritza, eta sarri jaisten zela laino goibeletik tximista-izpi batean, enbor zartatu belztuan eta hostotza ihartuan bere presentziaren edo pasaeraren arrastoa uzten zuelarik. Egia da grekoek eta etromatarrek, basati askok bezala, identifikatu egiten zutela ortziko eta haritzaren jainko handia lurra jotzen zuen tximista-izpiarekin; jotako leku haien hesitu egiten zituzten, eta handik hara sakratutzat izaten zituzten. (Frazer 1995: II, 399)

Motibo bera aitzakia hartuta, poema asko idatzi izan dira. Tximista batek suntsitako haritzaren motiboa topos bat izan zen Erdi Aro eta Errenazimenduan zehar, J. Juaristiren esanetan. Seguru asko Arestik ere ezagutu zituen Unamunok nahiz Sabino Aranak oinasturia eta haritza gai zituzten poemak (cf. Juaristi 1987: 226-227).

Elioten *The Waste Land* V zatiaren izenburua honako hau da: "What the thunder said" (Eliot, 65) ("Trumoia esan zuena"). Eta, oihana belaunikatuta zegoela, trumoiak hitz egin zuen:

THE WASTE LAND	LIZARDIA
"The jungle crouched, humped in silence. Then spoke the thunder." (Eliot, 68)	"Aldarri batzukin dantz bat egin zuten. Zeru goibeletik trumoia zen entzuten: haren oihartzunean ikusi ninduten. Halaz ikaratu ziren denak biziго; haien artetik bat etorri zen astiro, eta nire aurrean belaunikatu zen." (M.b., 195)
("Oihana makurtu, konkortu egin zen isiltasunean, Orduan trumoia mintzatu zen.") (1983: 159)	

Honainoxe, bestalde, antzinako giza erritoen hainbat pasadizo ilustratzeko lagungari ezinbestekoa izan dugun Frazeren ekarria. Baino atal honetako protagonista ez da Jupiter, Zarautzaren eskolako heroia baizik: haranera mezua zabaltzera datorren gain-gizaki errukigabea. Halako trantze batean iritsi zen heroia oihanera, eta haren aurrean belaunikatuz, jainko baten edo traszendentziaren mezularitzat hartuko dute basatitxoek:

Gizon edo andre, harnasa edo gogoa,
mintzatu zitzaidan zimua aho,
begiak aldatzera ausartu gaberik.
Goitik haserreak honera ekarri zaitu,
zeruko bularra guztiz zauritu baitu
gure sineskeriak, itsu gaudelarik.

Zimua bazara orduan ni gizona,
baina hau bazara, ni naiz jaungoiko ona,
esan nuen tristerik nire kolkorako.
Zutik jarri zaitez, egizu faborea;
orain esaidazu zergatik hau jentea
egun eder honecan dabilen hain txarto. (M.b., 196)

Badute antzik bertso horiek, garai beretsuan idatzitako *Bizkaitarra IV* poeman, oposizioz eratutako beste bertsookin:

Zeu zaraz Jaungoikoa
 Ni gizon pobrea
 zeu zaraz egillea
 ni kreatorea
 zeu juezik artezena
 ni kulpa bagea. (Aresti 1, 1986: 69)

Heroi zaratustriar horri eskaini diote bitinak basatitxoek, Jainko bat bailitzan: "Jainkoari bitina eskainiak ziren" (M.b., 196). Eta, "Auspez belauniko letariak kantatu" zizkieten, "zimuak ziruditen abere mutuak" (M.b., 196). "Abere mutuak" irudia Barrutiaren *Gabonetako Ikuzkizuna* antzerkitik jasotakoa dirudi: "Abere mutu bien erdian xai dana / Bera adoratzera zeruti xasi gara." (*Euskeria*, 1960, 287) Barrutiaren antzerkian abere mutuak behia eta astoa dira, eta jaio berria Belengo Jesus. Jesusen kontrairudia izango den protagonistak ordea, ez du bere ondoan bildutako oparirik onartzen, eta horregatik:

Eskuetan nuen hartu nire makila
 erakutsi nien mehatxuz ukabila,
 ahotik hitz zakarrak zitzaitzidan irten.
 Esperantzarekin zimutxo lotsatiak,
 otsoaren larruz zebiltzan basatiak,
 alde guztietatik eskapatu ziren. (M.b., 196)

3.2. Iratze Ederra

Iratze ederra zeharkatzen duen heroikak, funtsean, aurreko atalekoaren izpiritua du. Lizardiako azken ahapaldiaren galderak honako hau zioen: *Zergatik doa beberantza ibil-taria aguro; / guztiz tristerik, / bizi gaberik, / uzten duzu dena gero* (M.b., 198). Galdera horri erantzunik gordinen *Iratze ederrako* azkeneko ahapaldiak dakar, hain justu:

Nire gogoetan,
 azioetan,
 eztago zuzenbiderik. (M.b., 203)

Egia da, gorago aipatu dugun bezala, artzain, behorzain eta unaiak nagusi ziren garai batean kokatzen dela *Iratze ederra* hori. Horra nola iritsi den heroia giza aro berri horretara:

Bidean eznuen eguzkirik ikusi
 nire esku zikinok eznituen ikuzi
 iheri igaro nuen hibai gardenean. (M.b., 199)

Aurelia Arkotxak bere tesian "esku zikin" horien inguruko hainbat iturri interesgarri biltzen ditu: J.-P. Sartreren *Les mains sales*,⁵¹ Pilatosen esku garbiketa...⁵² Baita ere, garbi ikusi du esku zikinen arrazoia non dagoen:

(51) Honela idazten du A. Arkotxak oin-ohar batean: "s'agit-il d'un clin d'oeil adressé à Sartre? Il semble que oui, puisque dans *Karta Jokoa*, il mentionne aussi *Les mains sales*" (1993: 111). *Karta-Jokoa* poeman, karta baten izenburua J.-P. Sartrerri eskainia da.

(52) "Dans le refus de ce laver les mains, nous pouvons percevoir une attitude qui consiste à ne pas suivre l'exemple de Pilate qui avait voulu ainsi signifier qu'il ne se sentait pas concerné par l'injustice commise envers le Christ; cela tendrait à démontrer que Joane se voit responsable de ses actes" (1993: 111).

La saleté des mains de Joane a, ainsi que nous l'imaginons et que la suite des événements pour nous le confirmer, une relation directe avec les actes perpétrés dans *Lizardia*, mais elle peut aussi nous renvoyer, plus généralement, aux vers énigmatiques de *Untergang*:

Orain zikina, zitala banaiz,
orduan nintzen garbia. (*M.b.*, 190)⁵³

Lizardian barrena gaingizaki / erdijainkoak giza itxurako zimutxo taldearekin egindakoa espiazio erritual bat izan da. Bere aurrean agertzen zen oro suntsitzeko barne agindua zuen borondate. Hori ote gaingizaki izatera iristeko gizaki arruntak iragan beharreko gurutze-bidea? Ezen, Jesukristori buruzko oihartzunek ibili gabiltzan maldaren jaitsiera osoa zipriztintzen baitute:

Nire odol beroa zerura igon zenean
ugari zitzaidan geratu bularrean:
Burutik oinetara zitaldu ninduen. (*M.b.*, 199)

Frazerrek deskribatzen duen Atis-en euritearen aurrean al gaude berriz ere?:

Lore-sortaz apaindutako zezen bat, bekokia urrez dizdizka, zurajearen gainean jartzen zuten eta han labankadaz hiltzen. Odol bero ketsua turrustaka isurtzen zen zirrituetatik eta irrikaz jasotzen zuen gurtzaileak bere soin eta jantzi guztieta; ondoren zulotik irteten zen, blai, odola zeriola, eta burutik oinetara gorrituta, kideen omena, are gehiago, gurtza hartzeko, betiereko bizitzara jaio zelako eta bere bekatuak zezenaren odoletan garbitu zituelako. (Frazer 1995: I, 463)

Iratze ederrean dabilen herioren profeta moduko horri horra nolakoak leporatzen dizkieten behortzain, zerrizain eta unaiek:

Etoia, doilorra:
Hil duzu gizon bat, eta haren odola
oraindik daukazu esku bietan. Nola
pagatuko diozu orain zure zorra? (...)
Nundik etorri zara, haragi-jalea?
Madarikatua izan zaitez betiko?
Halako lehoiak inun ezta ikusiko
Dezagun hil oraintxe odol-edalea! (*M.b.*, 200)

Adanengandik hasi (“Madarikatua izan zaitez betiko”) eta Kainen motiboarekin jarraitu, ez du amaierarik nonahitik egotziak izan direnen oihartzunak. Haragi-jalea (“sagar-jalearen” oihartzun?) gizaki bat baldin bada, munduko giza piztiarik beldur-

(53) Op. cit., 111. or. Nire ustez, beste askoran bezala, interesgarria da Frazerren liburuak zer dakaren begiratzea: “Esate baterako, juduek eskuak garbitzen dituzte eskritura santuak irakurti ondoren. Bekatuen barkamenerako eskaintzaren ondoren tabernakulutik irten aurretik, apaiz nagusiak bere burua garbitu behar izaten zuen, eta leku santu hartan soinean izandako arropak erantzi behar izaten zituen. Grekoen erritualean arau bat zen, pekamenezko sakrifizioa eskaintzean, sakrifikatzaleak ezin zuela opagaia ukitu, eta eskaintza egin ondoren, gorputza eta arropak garbitu behar izaten” (1995: 538). Bestalde, ez nuke aipatu gabe utzi nahi *The Waste Landeko* bertso hau: “The broken fingernails of dirty hands” (Eliot, 64) (“Esku zikinetako atzazal hautsiak”, 1983: 142).

garriena dateke; eta odol-edalea⁵⁴ beste horrenbeste, Drakula higuengarri guztien artean gizatxarrena. Zergatik baina horren salaketa gogorrak? Zaratustraren iturrira hurbiltzen bagara, ohartuko gara munduan ezer gorrotagaririk gertatu bazitzaion, herio zela zer hori. Alabaina, hildako baten gorputua bere bizkarrera bota eta hiritik aldegin zuen Aurremintzaldiako VII kapituluan:

Benetan arrantza bikaina egin du gaur Zaratustrak! Gizonik ez baizik hilotza harrapatu duk! Zaratustrak hau bere bihotzari esan ondoren, hilotza bizkarrean hartu eta bideari lotu zitzzion. Eta ehun urrats ozta emanak zitueenan, gizon bat isilka hurbildu eta zerbait xuxurlatu zion belarriba... “Alde egik hiri horretatik, oi Zaratustra”, esan zion; “gehiagi gorrotatzen haute hemen. On eta zintzoek gorrotatzen haute, eta beren etsai eta arbuiatziale aitortu haute (1992: 39-40),

Gizateriaren aldetik izpiritu gizatxar horren aurka jaurtitako aldarriek honako erantzun hau jaso dute:

Gizonen eskuak eztu hartzen jainkorik:
lurrauen gainean egintza ezinagorik
gure pentsamentuan ezta bururatu.
Iraen artean gantzu batekin nintzen
ezkutatu laster, eta arratsekohi hintzen
freskura politean nintzen desgorpuztu. (*M.b.*, 200)

Hemen ere Drakularen antzeko infernu-indarrez hornitutako gaingizaki baten aurrean gaude. Izan ere, hark ere bai baitzuen gizateria arruntari ukatua izan zaion ahalmen hori. Baina jainkoei eta deabruel soilik oparitu izan zaien ahalmen gaingizakiar horren xehetasunak ezin hobeto jaso ditu Frazerrek: “Lan honen beste parte batean ikusi dugunez, jende primitiboaren iritziz, arimak alde egin dezake aldi baterako gorputzetik, heriotzarik ekarri gabe” (1995: II. 348). Eta aurrerago horrela jarraiten du:

Beraz, halako zirkunstantzietan, gizon primitiboak gorputzetik ateratzen du arima eta leku erosoren batean ezartzen bere segurtasunerako, eta arriskua pasatukoan atzera gorputzean ezartzen du. Edota, baldin eta erabat segurua den lekuaren bat aurkituko balu, pozik lego ke bere arima han betiko uzteko. Horren abantaila zera da, arima berak utzitako leku hartan dagoen bitartean, kalterik jasan gabe, gizona bera ezin hilko dela; ezerk ez dezake haren gorputza hil, bizia ez baita bertan. (*ib.*, 349)⁵⁵

(54) Frazerrek haragi-jaleen eta odol-edaleen errito asko jaso du bere liburuan: “Orobak, hildakoen haragia eta odola jan eta edan egiten dira, hildakoa famatu duten ausardia, zuhurtzia edo beste tasun batzuk norberaganatzeko, uste baita tasunok jandako parte horretan dutela beren egonleku berezia” (1995: 564-273).

(55) A. Arkotxak M. Eliaderen testigantza dakar: “En quittant son corps..., Joane acquiert des pouvoirs que M. Eliade qualifierait de chamaniques: “les chamans et les sorciers, précise-t-il en effet, peuvent jouir de la condition des âmes des désincarnés, alors que cette condition n'est accessible aux profanes qu'au moment de leur mort” (1993: 113).

M. Eliaderen pasadizo hori sartu badut hemen ez da izan Arkotxak aipatzen duelako, edo poemako bertsoekin zerikusirik duelako. Hori guztia horrela izanik ere, arrazoi funtsezkoa bestelakoa da, soilik Frazerrengan aurkitu dudalako heldulekua aipatu dut Eliade. Aurrekoaren aipurik gabe ez nuen hemen sartuko. Zergatik? Jakin badakidalako Eliade eta Jung-en artean direnak eta ez direnak azaltzeko gai direla. Neure buruari ezarritako hierarkizazio metodologikoak ez lidake beste modu batera jokatzen utziko. Frazerren pertinentzia, tesi honen hasiera-hasieratik utzi dut garbi azalduta: Elioten poeman eta poemak sortutako intertestualitatean ondo iltzatuta dago Frazer.

Horregatik,

Eskuan gañibet, akuilu eta haizkora,
hiltzeko asmoekin zetorzkidala albora,
baina etzuten aurkitu gorputz hila baizik.
Nire arima berriz, lorez lore kantari,
barre egiten zion jentatze gaiztoari,
ezpaitzutene gorpuzta kausitu bizirik. (*M.b.*, 200)

Hurrengo ahapaldietan⁵⁶ ilunbeko izpiritu kaltegarriak jasandako jazargoa kontatzen zaigu.

Gurekin dabil deabrua,
sutan baitoa zerua.
Arima gaizto etoi batek irauli digu dormua.
Ezin gehiago
egun baitago
lur gainean infernua.
Deabruarentzat bakarrik da
heriotze bat, polita:
Bilo guztiak tiratuka sustrai beretik kenduta,
lepotik hartu
ahoan sartu
urregorrizko taketa.
Deabru beltza hil dezagun!
Egon gaitezen fededun!-
zioten, eta haien esanak entzuten ziren edonun.
-Gizon ortutsa:
haren gorputza,
arin erre dezaigun!
Handik joan ziren iratzera,
nire gorputza hartzera.
Kantu ederrak ezpaineratik, otoitz luzeak zerura
poliki zoan
bide gaiztoan
gizaldea ni hiltzera. (*M.b.*, 202)

- (56) Erori zen gaua abereen gainean,
izotza berekin ekarririk soinean:
Espiritu guztieng bildurgarria zen.
Nire arima ere animalietatik
sarru zen, biluzik ez egoteagatik;
gauerdioko jeleri ihes egin zien. (*M.b.*, 200)

A. Arkotxak honela interpretatu du azken ahapaldi hori: "Cet épisode rappelle celui du démoniaque gérésien de l'Evangile où les esprits impurs quittèrent le corps d'un possédé pour entrer dans les porcs: "Et les esprits impurs supplièrent Jésus en disant: Envoie-nous vers les porcs que nous y entrions. Et il le leur permit. Sortant alors, les esprits impurs entrèrent dans les porcs et le troupeau se précipita du haut de l'escarpement dans la mer, au nombre d'environ deux mille, et ils se noyèrent dans la mer" (Marc V. 12-15) (Arkotxa 1993: 116).

Horixe bera da Frazerrek bere liburuko “Gaitza publikoki kanporatzea” izeneko atalean azaltzen saiatu dena. Horra zer dioen “Gitzak noizbehinka kanporatzea” azpiatalean:

Garai horretan izpiritua gaizto batek leku hora betetzen duela jotzen da, eta hartaz libratzeko, gizon, emakume eta haurrak prozesioan ibiltzen dira herrian zehar, eskuetan makilak dituztela, ehizagairen baten bila bezala, kanta basatia kantatuz, eta oihu handiak egin, harik eta izpiritua gaiztoak hanka egin duela seguru egon arte. (Frazer 1995: II, 214)

Giza arbasoen beldur sakon horien bertsio gaurkotuetako bat Drakularen litzateke. Nik uste *Iratze ederrako* ahapaldietan zehar badirela nahikoa zantzu, Drakularen istorioa ere beste balizko interpretazioen artean aintzat hartzeko: “ahoan sartu / uregorrizko taketa” ez ote da Drakularen “bihotzean sartu taketa”ren oihartzun? Dena den, ez da hainbeste interpretazio berrietan barrena abiatzea, nola eraikitzen saiatu garen interpretazio zabalaren baitan kokatzea. Izan ere, Zaratus-traren istorioa nahiz Drakularen eraiki dugun bide zabalaren bidexka gaurkotu edo modernoagoak baizik ez baitira. Talaia honeratik zaila da dagoeneko Frazerren eraginari uko egitea, eta ustez behintzat azaldu dugu *Maldan behera* idazterakoan Arestik izan zuen iturri nagusietako bat. Iturri atergabe horretatik nahi adina errito eta majia argibide jaso bide zituen. Hori bai, ez zuen poetak bilbatze lanean inoiz ahaztu zein edo zeintzuk ziren poemaren ardatz nagusiak: Jesukristo / Zaratustra.

4. *Herri-bitarte* Testamentu Berriko protagonista

Herri-bitarte poema osoak Testamentu Berria du sostengu: Jesukristori egindako judizioa eta ondorengo gurutzeko heriotza du kontagai:

Agure-biltzarrak mandatari, honera
bidaldu grauzkitzu, zerorri galdetzera
Jainkoaren semea egiaz bazara.
Eztut inoiz ere esan horrelakorik,
baina munduetan gizon gertuagorik
kausituko eztuzue, ez joan aurrrera
Apaiza altzatu zen berehala hasarrez.
—Birao egin baitu—, esanik deiadarrez,
—apurru behar ditut ene soinekoak.
Gero niri esan zidan: —Zeruetako
ateak eztira ideki zuretzako.
Zure ugazabak dira jaungoiko faltsoak.
Errege bazara, edo Jaungoikoa;
zure predikua mundu honetakoa
ezpada, orain bertontxe esan behar duzu
zure potereak, gizon-gainditasunak,
eman nork zizkizun. Eta nire erantzunak
gutxi tardatu zuen: Ez nik, zuk diozu
(....)

—Gurutze batetik zintzilik hil artean
josiko zaitugu biharko goizaldean,—
mintzaru zen hozenki epai-emalea.
Etzaitezen egon bakarrik tormentuan,
beste aldetikan josiko dugu orduan,
burnizko lokarriez, zure maitalea.

—Geiegi duk, Jauna, ene oneritza;
bildurgarria duk, ezain, heriotza,
indak indar haundia, ahul duk uso!

—Aingeru guztien, bizitegi erdian,
izanen naiz betiko zure esposoa. (*M.b.*, 209-210)

Ez du inork jaso ez ulertu, Jesukristorekin bat egin duen protagonistaren salbazio mezua, eta Golgota mendian gurutze bati josita hilko dute herritarrek: “Golgota-mendian, hain biluz / haretan.” (*M.b.*, 230). Poema honetako oihartzun biblikoak garbiak dira, berehala ezagutzen diren horietakoak. Beraz, hitz horiei ez diegu arreta gehiagorik eskainiko. Badago, ordea, poemaren lehen ahapaldietan Kristoren nekaldiarekin zuzeneko zerikusirik ez lukeen istorio xume baten arrastoa. Hala dirudi behintzat lehen begiratu batean. Izan ere, zergatik Miren delakoaren senideek beren salaketa egiten dute Kristoren ordezkoa genukeen horren aurka? Gainera sei iloba agertzen zaizkigu, izebareن bahiketa dela eta beren lekukotza agertzeko. Zer gertatzen da hemen? *Herri-bitarteko* lehen ahapaldia honela hasten da:

Ezkutatu ginene gaztelu gaitz batean.
Maitaleak ziren etzan ohe berean,
baina guk ezkenuen bekaturik egin.
Gure oneriztea eztator haragitik;
larruko orduetan ezta gauza politik.
Bakarrik nai genuen egon elkarrekin. (*M.b.*, 208)

Ahapaldi horretan hitzik aipagarriena beharbada “bekatua” hitza litzateke. Zergatik? Ze, badirudi “bekatu” hitz hori “haragi” hitzarekin lotuta dagoela; eta “haragi” hitza “larrutako orduekin”. Eta hartuemanean jarri ditugun hitz horiek badirudi kondenagarriak direla, edo, ahapaldiko ahots kontalariaren arabera, “bekatu”. Ez ote dago hemen, ohizko haragi tratuaren aurkako salaketarik? Ez ote da izpiritualtasun jasoago baten aldarria? Hona bilduko ditu *Maldan behera* idatzi zuen garai berekoaren *Bizkaitarra III*-tik jasotako bertsoak:

Parkatu istazu nobia maitea
zeu ezagutu baño len
Enbren atzetik modu gaxean
Arin banintzan ibiltzen.
Arito itsuak arroken kontra
Adarrak dauz apurtutene
Eta gizonak bere griñea
Tristurazko Sabel batean. (Aresti 1986: 1, 60)

Azken bertso horietan gizonaren larru griña aberearen parean zaigu jarri. Hau da, abere-tratua edo emakume-tratua gizartearen alzoan ondo errututako morala da. Ez

dut uste prostituzioaz soilik ari denik, seguru asko normalean prostituzio zentzuak metonimikoki funtziona zezakeen ahapaldi honetan. Ezkontza arrunt bezain zeremoniatsu asko eta asko ezin al dira gure aurreko zentzura hurbildu? “Abere-tratua” edo “famili-tratua” honetara?:

... Jaunak! Abere-tratuetan
bazatorzkidate, esanen dut benetan:
Eznaiz merkataria, eztut erosten nik. (M.b., 209)

Bertso horiek zuzen ulertzeko ez al da *Bizkaitarra* poemara jo behar? Baietzean nago. Izan ere, *Bizkaitarra III* poema Meliri eskainia da, eta bertan “Nobia neurea” ri kontatzzen dizkio poetak bere aurreko amodio gorabeherak. Eta halaxe dio 27. eta 28. ahapaldietan:

Nire bihotzak ulertu eban
Egun arretan ederto
Zergaitik neska buru bako arek
Tratatu ninduan ain txarto
Pentsatu eban dirurik baga
Enebala maitatuko
Euskaldunaren Jangoiko altuak
Urrezko ipurdia dauko

Neure amodioa
Probadutearren
Bear nebazen itzi
Al baño lasterren
Nire pentsamentuak
Eta oindikarren
Nire ukaarea
Ezteust parkatuten. (Aresti 1, 59)

Hara zer digun kontatzen A. Zelaietak *Gabriel Aresti* liburuan:

Gabriel, beste emakume batekin ere ibili omen zen, Meli ezagutu aurretik. Emakume hau abertzaleen famili hoietakoa zen, eta Gabrielena baino aberatsagoa. Pisua ere prestaturik omen zeukaten neskaren gurasoek, ezkontzarako bidea erraztutzekotan. Baino amodio honek ezin izan zuen luzaroan iraun. Itxuraz, Gabriel bildurrak eta ikerak hartu zuen, emakume haren gurasoen abertzalesunak eta diruak bere independentzia galazo eta puskatuko ote zuen edo. (Situazio honen ezaugarririk badago 1959.ean publikatzen duen *Bizkaitarra* poeman) (1976: 25-26).

Gorago bildu ditugun *Bizkaitarrak III*-ko bi ahapaldien ondoren honako hau dator:

Gaztelu atako torre fuerteak
lurrera jausi zirean
Neure fedea zaratagaz
Deungaro apurtu jatan
zeru gorena urraturikana. (Aresti 1: 60)

Ahapaldi horretan gehien interesatzen zaigun bertsoa lehenengoa da, eta “gaztelu” hitza bereziki. Izan ere hitz horixe bera baita *Herri-bitarte* poemari hasiera ematen dion ahapaldiko lehen bertsoan agertzen den hitza: “Ezkutuan ginen ‘gaztele’ gaitz batean”. Gaztelu biak iturri edo erreferentzia gune beretik al dator? Hala izango balitz ere, esanahiaren atzetik badirudi bi gazteluen artean badagoela alderik. *Bizkaitarra* poemakoa diru eta giza zutabe sendoenetan errotuago legoke. Bigarrenaren sostengua, aldiz, amodio garbia litzateke, interesik gabea, hain zuzen. Merkatarien edo abere-tratanteen moraletik urrutti legooken amodioaren sentipen izpiritualagoa.⁵⁷

Prelude à la musique de la dance (Aresti 1986: 98-100) ipuinean ispilukeria baten gisa agertzen zaion neskaz honela dio Arestik: “Bekatu bat dirudi mila bertute artean”, eta honela jarraitzen du ipuinak:

Etortzen zait eta irriparre hezi batekin:

—Hemen niagok— dinost. Baldin maurtuak atseginik emaiten badrauk, neuri-ere emanen diraudak; baldin bakea eta mukurua kausitzen badituk hemen, neuk-ere kausituko ditikeat.

Bat-batean, eztakit nun ote zegozin soinulariak, zisneen aintziraren balleta hasi zen inardukiten, eskuragarri, errax, edozein zentzuntarako egina bezala... kulunkatzen geundela haren rithmuan. Besarka nezan gerrian, iarr ziezatan besoa sorbalda gainean, eta eskuak elkarturik, abia ginten dantzatan.

Mihia eta aho-sapaia garrattz, mingots nituelarik (nire ezpainak haren belarri eskuinean), mintzo nintzen, erraiten neraukola:

Zerarren etorr hendin nire bakartegira?

Hemen, eremuaren elkorrean

...

Ihoa, ihoa, laisterr, hadi itzul lehen-baino-lehen,
hire huriaren ugaritara, nire huria eta ugaria

lehen zanetara, huria inguratzen duen zelaietara.

Igarri dun-a, hemengo urrikeriaz
asperr hadinean, gertatuko dakinane?

Zoriona eta dostaldia iraun-ahal;
maitetasuna ezin-irauna.

Eztun iasanen beti.

Buru indarrik ezpaitun.

Buruaren indarra elkarrena baino

iraunkorrago dun

Bihur hadi orain. (1986: 100)

(57) “Ainsi, ce qui était naturel et spontané dans le jardin édénique, ne l'est plus dans cet univers où existe la notion de péché avec, en particulier, l'allusion au sixième commandement. Dans *Herri-bitarte*, la vie est réglementée par des lois, et l'amour, à partir du moment où s'introduit la notion de péché, ne peut être que vulnérable. Dès la seconde strophe, d'ailleurs, les représentants de l'ordre bourgeois et de la société bien-pensante (maire, avocat, artisans, clergé) pénètrent dans le château, ce qui prouve bien, pour reprendre une idée chère au sociologue Alberoni, la capacité révolutionnaire du sentiment amoureux et le danger qu'il représente pour toute société organisée. Les premiers mots de Joane révèlent l'opposition idéologique fondamentale qui toute le confronte aux membres de la société” (Arkotxa 1993: 129).

Importantea da oso arreta jartzea nondik datorkion ipuineko protagonistari desa-
sosegu hori:

...nola gogaitzen bainintzen dantzariak zorabilagarrienean, atsegin zitzaidan neskati
tila besoetan edukiagatik-ere; hala, bada, aspertu izan naiz argi eta zabal aintzinean
nuen bide malgu eta lauaz. Sar nendin ene etsean, ilhun eta armarme-sarez eta
hautsez beterik zegoen nire etxearen, eta nehorri ezer erran gabe, lot nitzan ene liburuak..., eta arbuzozko keinu atzipecor batekin..., padutarantz ihoaten den bideari
ekin niezaion...

Bideko harrixka zorrotzeten behaztopatzan nintzen artean, nire hauzoen soak
nituen nabaritzen, nire lepoan, iltze-mailuaren azpian... finkaturik. Nitaz oldozen
direla badakit (...) Eta dinotela:

—Zoro da; bai, zoro. Egiten du alde bere familiatarik, gutiziatu ahal dezakeien
onura eta probetxurik desiragarriena eskeinent draukotenean... (1986: 98)

Gure ustetan balio dezake ipuin honek, azaldu nahian gabiltzan auzia soluziona-
tzen. Nire ustetan, iragandako amodio esperientzia baten inguruuan dabil Aresti.
Badu, gure ustez, Zelaietak aipatzen zuen neska burgesarekiko loturarik, eta hango
frakasuaren arrazoiekin. Balio dezake, baita ere, *Herri-bitarteko mandatari eta bur-
gesek erakutsi duten jarrera ere hobeto ulertzeko: Jaunak! Abere-tratuetan / bazatorz-
kide, esanen dut benetan: / Eznaiz merkataria, eztut erosten nik.* (M.b., 130). Hori dela
eta kontu eske joango zaio herri zuhurra:

*Herri-bitarteko alkate nagusia
etorri zitzaignun; senideen hauzia
ekarririk: Baneunken judizio berria.
Berekin zetortzan: arotza, igeltserua,
zapataria ta baita erlojerua,
lege-gizona eta errementaria
-Etor bitez orain honera lekuoak;
hontaz pietatea euki beza Jainkoak.
Preso dagoenañ betorzkigu ilobak.
Zetortzan- sei ziren, sei aingeru dotore,
eta etzidaten eman ezein amore.
Hain antza dohatsurik etzaukan izebak."* (M.b., 209)

Ez dut uste oraingoan A. Arkotxa zuzen dabilenik sei zenbakaren iturria azter-
gai hartu duenean:

Outre le nombre six qui pourrait rappeler le chiffre de l'Antéchrist marqué au nom
de la Bête (Apocalypse XII, 17), ces six personnages féminins semblent incarner
les puissances hostiles et destructrices qui désirent la désintégration de l'amour,
c'est à dire du grand élan vital..." (Arkotxa, 131)

Nire ustetan, horren urrutti joatea, eta testuarekiko bestelako lotura estuagorik
frodatzen ez den bitartean, gaininterpretazio bat dela esatera narama. Izan ere, ba al
dago froga sakonagorik bere aukeraren alde esango banu, sei horiek ez direla aurreko
ahapaldi batean agerturiko arotza, igeltseroa, zapataria, erlojerua, lege-gizona eta
errementaria baino?

Imajineria horretan Kristorena berarena da erreferentzia gunerik aipagarriena, hark ere bere odol isurketa medio eraberritu baitzituen gizakumeen arimak. Ura eta odola hain lotura estuan egon arren, ez daude, inolaz ere, maila berean. Ez da hemen odola poeta sinbolisten araberako sinestesia maila batean agertuko, maila mitiko batean baizik; Jesukristoren eran gurutze batean hilik lortuko da soilik *Herri-bitarteako gizarte modernoaren giza antzutasuna gainditzea: Gurutze batetik zintzilik bil artean / josiko zaitugu bibarko goizaldean.* (M.b., 210). Honela zioen poetak *Bizkaitarrak IV*-ko ahapaldi batean:

Ikusi noan gizon argal bat
krutze batetik josia
zeñagaitikan mundu gustia
gaur dagoen erosia

Aren oïñetan andre triste bat
Maria dolorosea

Biak arteztu egingo ebanak
Gizonen malezia. (Aresti 1: 67)

Gorago aipatu dugu *Maldan beheraren* bigarren zatiari buruz Sarasolak zuen iritzia (cf. 1976: 80). Eta horretan ere, ez zitzaien Sarasolari arrazoirik falta. Zergatik? Bada, bigarren zatiko poema luzeenek badutelako zerikusirik lehen zatiko poema luzeenekin. Eta, gainera, lehen beherakoa zen ordena beraean gertatzen da orain bigarren zatiko istorio edo ekintza nagusiaren progresioa. Hau da, *Partiera* poemak *Hariztiarekin* badu paralelismorik, *Judizioa* poemak ere badu bera *Lizardiarekin*, eta beste hainbeste gertatzen da *Mendekantza* eta *Iratze ederrarekin*. Eta azkenik, *Azkenengo besarkada* poema daukagu, fisikoki *Maldan* gora bat izango litzatekeena bere bigarren zatian; *Lore-mendiarekin* dago paralelismoan bere lehenengoan. Horregatik idazten al zizkion poetak hitz hauek Kaierori?:

En estos momentos estoy llevando a cabo la segunda parte de MALDAN BEHERA; como te expliqué, es el mismo asunto, incluso la misma poesía, pero tomado desde otra perspectiva, desde otro ángulo, pues el narrante, el poematizador que llamaría yo es la muchacha ‘eta baratzainak, izena dauka Miren’. (Aresti 1986: 10, 135)

“Eta baratzainak izena dauka Miren”, horixe da *Lore-mendia* poematik abiatzen den bigarren hari narratibo nagusia. Hari narratibo horrek, aurreko hariarekin hausaten ez badu ere, funtsezko elementu bat eransten dio: amodioa. Bigarren zati honetan, lau poema luze dauzkagu, eta ez bost lehen zatian bezala. Ez da bigarren zatia poema luze batekin hasten, “bitartez” poema laburretako lemapean baizik. Lehen zatian ez zen horrela gertatzen, “...eginiko gogoeta eroak” poema luzeen ondoren hasten baitziren beren bidea ibiltzen. Lehen zatian lau “gogoeta ero” izan ditugu, bigarren honetan berriz bost “bitartez”ko.

5. Bigarren itzulera

5.1. Partiera eta Hariztia / Lore-Mendia

Zein mailatakoa da *Partiera* poemak *Hariztia* poemarekin izan lezakeen hartuemana? Maila sinbolikoan jarri beharko genuke erkatze lan hori. Izan ere, *Hariztia* basamortua edo Lur Eremua zela erabaki dugu gorago, honako hau berriz heriotza

ondoko istorio baten jarraipena litzateke. Zergatik orduan bien arteko lotura maila hori? Ba, gorago ere erabaki dugulako *Hariztia*ren esanahi sinbolikoa infernuarenarena ere bazela, infernu horrek antzutasun, sofrimendu eta askatasun eza adierazten duen neurrian. Eta, egia esan, hemen ere, *Partiera* poeman alegia, badugu halakorik.

Nonbaitetik hasi beharra dago, *Partiera* eta *Hariztia* poemak elkarrekin solasean jartzeko asmo honetan. Honako bertso hauekin hastea proposatuko nuke:

PARTIERA	HARIZTIA
"Atabute honetan ehortzirik nago Nire gaiñean lauza pisu bat baitago (<i>M.b.</i> , 214) Erori da behera berri z lauz-harría estaldurik betiko neure maitalea (217) "Zure gorputza dago orain atinik hor: usainik zakarrena kanporantz dator" (216) Nire errai guztia usteleku dirade (...) Nire hezur oriak agirian daude (...) ⁵⁸	"Ermita eroria hobietako lauza eta maitalearen gorputz usteldua (191) "Azken eremuan zatzalako atinik hezur lekuetan ez daukat zer-eginik" (191)

PARTIERA	HARIZTIA
Hezurroko egon dira hilobiz hilobi (214) "Izarretatik keinu batere ikusiko". (<i>ibidem</i>) (ez dut) "haragirik jango" (<i>ibidem</i>) "Aginetatik irten didan hortz garraska" (215) "Nire kateak apurtu: Libertarea aho zabalk ederki nuen gozatu, argi bizia nire begiak zituenian urratu" (<i>ibidem</i>)	"Hezur lekuetan eztauak zer-eginik" (191) "izarren esnetik edaten..." (190) "Eztut gaur ezer jan" (191) "Bere aginekin eman zidan dolore" (192) "ebaki zizkidan tenorean kordelak, geldiro libraturik nire orkatilak, ... eta eguzki-brintzen edertasun zabala argitu zen nigan (<i>ibidem</i>)

Gorago *Hariztia* poema aztertu dugunean ohartu gara *Lore-mendia* poemaren irudi inbertitua baino ez zela. Hau da, batean lur antzu, borroka eta sofrimendu lekuaren, lur emankor, oparo eta atsegintoki paregabea bihurtu zaigula bestean. *Partiera* poema honek ere ezin dio ihes egin binomio horri. Oraintxe antzutasun, usteltasun eta amodioaren ezintasun dena, hurrengo ezintasun eta gabezia horietatik erredimitzten dituen *Lore-mendiako* usaimenen eta melodien oihartzuna izango da:

PARTIERA	LORAMENDIA
"Eztut ene laguna iratzarri egun; melodi atsegina hau etzaio ezagun (...) ezen bere sudur motzak eztuen egia usainik kontentuz (<i>ib.</i> , 216) "Zure usainak kendu dit..." (<i>ibidem</i>)	"Neskatala honen besartean esnatu nintzen, zidalako baltzeo bat kontatu, egungo oilaritean, txorien gisara" (<i>ib.</i> , 205) "Nire sudurra da osorik liluratu (...) usainen dator nireganantz bizia (...) intzentsu berriaren arima zait usandu; uhin urrintsuok usteltasuna jan du: ederki dit bizia ematen begira (<i>ib.</i> , 204) "Loramendi maitea milikatu nuen" (<i>ib.</i> , 206)
"Amorioak egun honetan eztu niretzat balio" (<i>ib.</i> , 214)	

(58) Elioten ildotik aztertzen du A. Arkotxak "hezurren irudia": "Par ailleurs, la vision des ossements renvoie à nouveau au chapitre trente sept de la vision d'Ezéchiel et au *Mercredi des Centres* de T. S. Eliot: "Sous un générvier les os chantaient, épars, brillants..." (Arkotxa 1993: 141). Ezekielen irudirik bada Elioten poesiagintzan 1930ko *Hausterre Eguna* baino lehen: *The Waste Land* poeman.

Partiera poeman ahapaldi osoak *Lore-mendiaren* inguruko motibo nagusi batzuen garapen baizik ez dira, lehenago esaten genuen ildotik, hain zuzen ere, antzutasunaren eta iluntasunaren irudi inbertituak. Adibide gisa, horra bertsook:

Zimaurra bortitzarekin landuriko ortua,
honek oparo digu emanen fruitua,
ta da udaberrian guztiz loratua. (*ib.*, 217)

Ez dago dudarik, bai motibo, bai irudi, nola hainbat eta hainbat lexiko mailako aukeratan buruan izan zituela poetak *Hariztia* eta *Lore-mendia* poemak, *Partiera* honen idazketa unean. *Hariztian* eta *Lore-mendian* daude poema horren motibo, irudi eta sinbolo asoziazio nagusiak. Bestela esanda, *Hariztia* eta *Lore-mendiarekin* ehundutako jantziaz garatzen da *Partiera* poemako istorio xumea. Ez dezagun ahantz gaingizaki baten ekintzen lekukoa dela istorio horren nondik norakoa. Alde honetatik bada poeman Zaratustraren oihartzunik ere: "Hamar urte hauetan eztut dantzan egin" (*ib.*, 216).

5.2. Judizioa eta Lizardia

Judizioa poema funtsean *Lizardiarekin* batera, edo haren ispiluan, aztertu beharko genuke. Izan ere, *Partiera* poemarekin gertatzen zen hein berean, *Judizioa* poemako motibo nagusiak ere *Lizardiarekin* baitaude solasean. Zein da, baina, bi poemak aurrez aurre jarriko lituzkeen motibo nagusi hori? Erdiainko edo gaingizaki den heroiaengandik gizaki errukigarriengana dagoen aldea. *Herri-bitartean* Golgota mendian gurutziltzatuta hilarazi duten gizon-emakumeak epaitzen dira *Judizioa* poeman; *Lizardia* poeman, berriz, gaingizakia jainkotzat hartu eta hora gurtzeko prest zegoen zimutaldea epaitzen da. Zein da bi judizioen arteko muina? Gizon-emakumeen nahiz zimutxoen aldean zein harandikoa den erdiainko / gaingizakiaren bote-rea. Bi poemen funtsa horixe baizik ez da; giza zimutxoez harago dagoen ahalmen handi baten exhibizio luzea.

Zimua bazara orduan ni gizona
baina hau bazara, ni naiz jaungoiko ona. (*ib.*, 196)

Maldan beberako lehen zatiko beste poema batzuen oihartzunik ere badago, nahiz eta esan digun bezala *Lizardia* poemaren baitan egon *Judizioa* poemari arnasa emango liokeen motibo nagusia. Esate baterako:

Eztakit ongi zergatik eman
nuen bizitza hain merke;
orain eznuke mendira igoko
nire etsaiak hil gabe. (*ib.*, 218)

Bertso horietan, nahiz eta *Herri-bitartean* gertatutakoari buruz ari solasean, bada go egituraren paralelismoaren aldetik *Hariztian* gertatutako lehen ekintza biolentoaren oihartzunik. Gertatua den aldetik, protagonistak *Lizardiatik* oroitu beharko lituzke ekintza horiek, nahiz eta hemen *Judizioa* poeman oroitu, berez *Herri-bitartean* gertatutakoak zirenak. Hau da, poemaren lehen zatian *Hariztia/Lizardia* zena, honako honetan *Herri-bitartea* / *Judizioa* da.

JUDIZIOA	LIZARDIA
"Gora-galea ematen didade beti gizonek" (220)	"Nik hartu nion osotoro lizardi hari gorroto" (197)
"Heldu nintzen haraino, eta begiratu nion nire bizitza hain doilorki hartu zidan eskribau hari, eta nuen damu, hain jente makur hora bainuen tratatu" (220)	"Gauzok ikusten diren lizardi dollorra! Munduan zerbait bada zu zara zaharra!" (197)
"Belaunika zaitezte! Edo bestela nik, heriorze osteko eremu beltzetik pausu geldiaren honera etorririk, eztizuet emanen batere atsedenik" (...)	"Goitik haserreak honera ekarri zaitu, zeruko bularra guztiz zauritu baitu gure sineskeriak, itsu gaudelarik!"
"Para zaitezte zutirk! Etsakuskitet damurik. Eztakizue zuek egiten nire aurrean otoitzik?" (221)	"Halaz ikaratu ziren denak biziro; haien artetik bat etorri zen astiro, eta nire aurrean belaunikatu zen... mintzatu zitzaidan zimuaren ahoa begiak altzatzera ausartu gabekoan"
"Haek zeuden negarrez, igurkitzen noiz deskargatuko nuen haizkora hain zorrotz hora beren buruen gainean, ..." (221)	"Eskuetan nuen hartu nire makila, erakutsi nien mehatxuz ukabila, ahotik hitz zakarrak zitzaiak idan irten. Espantuarekin zimutxo lotsatiak, otsaaren larruz zebiltzan basatiak, alde guztiak eskapatu ziren." (196)
"Erramu freskoekin eginez koroa apainduko didana gogorki burua, ezten inor ni bezain ohoreztatua" (221)	"Nire bekokian etzegoen izotza. Teilitu batean erramu eta ereinotza, nire gorputz gainean, zeuden hedatuak."(196)

JUDIZIOA	LIZARDIA
"Bihotzean sarturik daukat mendekantza: haserre handiz noa orain haiengana besapean zuzia, ..." (219)	"Nire sabelean mendekuzko zuzia nire etsaiak zeuden lekurantza joan nintzen (192)

Poema honetan *Herri-bitartea*ko gizartea bakarrik epaitzen da. *Herri-bitartea* gizarte moderno osoaren irudi bat da. Horregatik ez dira *Judizioa* poeman alkate, abokatu eta igeltseroak bakarrik epaitu, baizik eta bertako gainestruktura artistikoak ere ez dio epaiari ihes egingo.

... Eta Dostoiefskii
jaio ezpaledi,
eznioke Prousti
barkatuko hori:
zergatik gizonari eztion jarraiki.
Picassok ere Goyari
kentzen dizkio humilki
mundu honetan bizi izateko
izan zituen gurari
guztiak, eta beste hainbeste
gertatzen zaio Mozarti. (*ib.*, 219)

Horra zer dioen A. Arkotxak artearen epaiketa horri buruz:

Nous aurons l'occasion, ultérieurement, de revenir sur le thème de l'engagement de l'écrivain qui est évoqué ici, pour Aresti, la fonction de la littérature est, en effet, comme pour Frye, "de doter la société d'une vision imaginaire de la condition humaine" (apud Todorov préface). La voix d'Aresti occulte momentanément ici celle de Joane en s'attaquant aux membres du "nouveau Parnasse" symbolisés par Picasso, Proust et Bartok. (1993: 160)

Horraino ados nago A. Arkotxak dioenarekin. Oin-oharretan ordea Parnasianismoaren arte liturgiaz edo "L'art pour l'art" i buruz hitz egiten du; eta hori bai iruditzen zai-dala urrutiegi joatea, edo gaininterpretazioaren atzaparretan erortzeko arriskutan jartzea. Ezen, egia bada ere berak dioen horren azalpena, ez dut uste Arestik "Parnaso" hitza darabilenean parnasianismoaren epairik egiten ari denik. Aitzitik, Parnaso hitza modurik zabalenean darabil, inongo zehaztapen eta mugimendu programatik urrun; poema honetan Arestirentzat "Parnaso" hitza "artearen" baliokidea da; Antzinako klasikoen tradiziotik iritsi zaigun zentzu orokorrean darabil: Artearen Olinpoa.

Zein da Proust, Dostoievski eta Bartok kondenatzeko funtsezko arrazoia? Humanismoaren bideetatik aldenduxe dabiltzala: "Zergatik gizonari etzion jarraiki" (*ib.*, 219). Seguru asko bazuen Arestik, urte batzuek lehenago, Ortega y Gassetek argitarra eman zuen liburu baten aditzerik: *La deshumanización del Arte* (1925). Entzute handia lortu zuen liburu horretan Arte Modernoaren joera berriak aztertzen dira, eta badirudi joera nagusia ez zela justu gizakiarengan bere arreta jartzen zuena, alderantzizkoa baizik, gizakia baztertuz bere baitan barnebiltzen zen joera.

Aipagarriak dira, bestalde, bi poemen arteko elkar hurbiltze saio honetan, Exodoaren oihartzun biblikoak. Moises ere gaingizakiaren ahalmen izugarriz hornitura zegoen. *Bibliaren* oihartzunak aztertu ditugu atzerago, eta bertan susmatu ahal izan ditugu Moisesen eta Sinai mendiaren inguruko zenbait oihartzun. Iruditu zaigu *Lizardiaren* pasadizoetan barrena, menditik behera jaisten den gaingizakiak bekatu giroan nahasiak aurkitu dituela bertako bizilagunak. Gurtu behar ez zuten Jainkoari bakarrik zor zaion begirunez belaunikatu eta eskaini zizkioten bitinak gaingizakiari. Gaingizakiak zigortu egiten ditu, portaera hori idolatriatzat harturik. Hortxe kokatzen dugu Moises profeta eta askatzailearen motibo nagusia. Ikuspegi horixe bermatzera dato Exodokoak ere izan daitezkeen honako irudiak: "piztu zen laharra" (*ib.*, 196) edo "Eta zeruan ditzirari/zauri gordin bat ageri" (*ib.*, 217).

Judizioa poeman ere ageri da motibo nagusi horren oihartzunik: gaingizakiaren haserrea eta gizartearen kokildura eta arrenkura. Horra Moises-en irudiaren edo taula-berrien egile litzatekeen gaingizaki zaratustriaren adibidea:

Orain apurtu dute gure kodizea
Epai-emalea
datorkigu, ea
nolako fedea
daukagun. (*ib.*, 221)

Baina *Lizardian* ez bezala honetan gaingizakiak gurtu dezaten exijituko die bere hankapean dituen gizakiei eta estatua bat ere jasotzera behartuko: "Nai dute

estatua / bat oso haltua / herriko plazan jaso, benedikatua / izan dadila maisua." (*ib.*, 222). Zergatik ez dut Kristo aipatu taula berrien egile gisa, eta bai Moises eta Zaratustra? Horra *Mendekantza* poemak dakarkigun erantzuna:

... egiten nuen gogoeta;
nolako gastigua zen egokiena
nire borreroari emateko; eta
ezin nuen pentsa
beste ezein gauza:
Talion izanen da! (*ib.*, 224)

A. Arkotxak ere horrelaxe jaso du:

Joane, à nouveau, s'écarte donc de la nouvelle loi prêchée par le Christ: 'Vous avez entendu qu'il a été dit: Oeil pour oeil et dent pour dent' (Mateo V).

Le héros bafoue le précepte évangélique. Il se dresse même contre lui haut et grand (*haltu eta handi*), comme un arbre, une colonne, une statue de pierre, comme un défi.... Pas de pardon, pas de pitié et surtout pas d'amour pour l'enemi, ainsi que Yahvé l'ordonne à Moïse sur le mont Sinaï: (...) tu donneras vie pour vie, oeil pour oeil, dent pour dent... (Exode XXI, 23 à 25). (1993: 167)

Hori guztia ezezik, oin-ohar batean A. Arkotxak gogorazten digu ere 200 *puntu* poeman agertu den Moises.

5.3. Mendekantza eta Iratze Ederra

Mendekantza poema *Iratze ederra* poemaren alboan jarrita balego ikusiko genuke bien arteko lotura maila noraino iristen den. Inon baino garbiago eta krudelago agertzen zaigu heroiaren gaingizakitasuna:

Etzaitezte, pobreak, oraintxe defendi;
nire goikotasuna eztadin ofendi
dezazu ederki zer naizen entendi;
dezazu agintzen dudana obedi." (*ib.*, 224)

MENDEKANTZA	IRATZE EDERRA
<p>"Errezatzen ari zarete, gero nadin zuetaz urriki. Ezer ez eska jaunari! Biotza daukat hain urri... Zuekandikian eznabil-eta egun honetan ihesi, nire haizkora, nire arbuaoa, doakizue hegazi" ... (224)</p> <p>"zer zen jasoko gizon artera haizkora gabe banentor." (226)</p>	<p>"Handik joan ziren iratzera, nire gorputza hartzen. Kontu ederrak ezpaineran, otoitz luzeak zerura, poliki zoan bide gaitzoan gizaldea ni hiltzen" (202)</p> <p>"Eskuan gañibet, akiuil ta haizkora, hiltzeko asmoekin zetorzkidan albora, baina etzutene aurkitu gorputz hila baizik. Nire arima berriz, loez lore kantari." (200)</p>

MENDEKANTZA	IRATZE EDERRA
"Orduan hasi nuen, gogor eta itsu, nire burukaldia: Geratzeko kitu. Bere larruetatik arin nintzen sartu, eta errai guztiak nizkion altzatu: Garunea kendu, hestea ohostu, bihotza zabaldu, giltzurrunak moztu." (224)	"Nire arima ere animalietatik sartu zen, biluzik ez egoteagatik;" (<i>ibidem</i>) ... "Heldu nintzen gero zerrien gorputzera eta kendu nion apoari mekera;... Buzkantza, lupua, odoloste gozoa. jan nien.hiltzurrun latz batean, animali guztiak akabatu ziren." (201)
"Ehertz dezagun bein da betiko gizasemeen etsaia!" (226)	"Deabru beltza hil dezagun!" (203)
"Nire gorputza eta odol berotsua... hezur batzuk oraindik." (226)	"Nire odol beroa zerura igo zenean ugari zitzaidan geratu bularrean." (199)

Iratze ederra ihesi ibili behar izan zuen heroia bera dugu *Mendekantza* honetan mendekua hartuko duena. Egia bada ere heroiaaren haserre eta gorrotoa *Herri-bitarte-ako* heriotza lazgarriaren ondorio dela, protagonistak eta bere maitaleak pairatu zuten heriotza iraingarriaren ondorio hain zuzen, *Mendekantza* poemako oihartzun askok *Iratze ederra* dute non ispilatua; huraxe da, besteak beste, poetak bere aurrean izan duen erreferentzia iturri atergabeara.

Mendekantza poema honetan ere gaingizaki zaratustriaren tamainako aldarrikirik ez da falta: "Inork eztaki negarrez / bere garaitza ospatzen" (*ib.*, 225). A. Arkotxak ere honelaxe ikusi zuen auzia:

Les vers précédemment cités (*Barnean duten oro nahi diet atera*) qu'il faut prendre à la lettre, puisque Joane rentrera réellement dans les corps de ses ennemis, montre que nous avons affaire à une nouvelle interprétation du "démoniaque gérasénien" dont nous avons eu une première version dans *Iratze ederra*. Ici, il existe cependant des différences importantes. Le héros a, à présent, vaincu la mort ce qui explique que l'épisode ait lieu de jour alors que dans *Iratze ederra*, l'âme errante du héros prenait possession du corps des animaux parce que'elle était précisément terrorisée par la nuit; mais surtout, les corps possédés sont, cette fois, humains ce que, curieusement, concorde avec l'observation suivante de M. Eliade:

"Toujours en rapport avec l'idée que le magicien peut quitter son corps à volonté est un idée strictement chamanique, (on rencontre, aussi bien dans les textes techniques que dans le folklore, un autre pouvoir magique, celui d'entrer dans un autre corps" (1988: 325) (1993: 168).

Iratze ederra poemako kontalari poetikoa gaingizaki demoniako bat da, bere ibilbidean zapaltzen duen guztia hankazgora uzten duena. Gaingizaki/erdijainko horren borondate ahalsua gizateria arruntarekin buruz buru dator:

"Demonio batek sartu dio buruan,
...
harnasa bat bezala, infernuko galtza...
Gurekin dabil deabrua
sutan baitoa zerua." (*M.b.*, 200/202)

Mendekantza poeman, ordea, beste mota bateko demonioaz dihardugula dirudi; izan ere, Satan eta bere gaizkia itsusienaren gorpuzdura litzatekeen “bestia” apokaliptikoaren aurrean geundeke. Bestia horren iturria J. Azurmendik 1985ean *Jakineko* 36. alean argitara emandako saioari zor diot: “Aresti: sentisibilitate konkretu bat”. Saio horretan Azurmendik Leizarragaren “bestia” biblikoa gogorazten digu, Apokalipsiako bestiaren arrastoan jarriaz:

Eta ikusten dute han goian bestia,
lengo gizon beteek hamorruz jarria,
oraingo gizon hutsek bera jaurtikia,
hamiltegi batean azkar eroria,
lepo ebakia,
buru itzulia,
hatzamar gabea,
agin aterea,
antolatzen duela infernu berria.
Ahora dator barrea,
ezpainenetara irria.
Errez izan da higuinduaren
harmak lurrera jotea.
Ehortz dezagun bein da betiko
gizasemeen etsaia! (*ib.*, 226)

A. Arkotxak, 1991ko *Hegatsez* aldizkarian “*Maldan beberaren irakurketa baten inguruau*” izeneko lanean etekin bete-betea atera zion J. Azurmendiren aztarnari, eta tesian ere beste hainbeste. *Bibliaren* eta N. Frye-ren *The great Code* liburuaren laguntzaz, Babilonia (lurreko emagaldo eta higuingarrikarien ama) eta totalitarismoa, eta Bestia: Franco erlazioan jarriko dizkigu. Honela dio N. Frye-k *The great Code* liburuan:

Es evidente que las imágenes aquí provienen de la ‘abominación’ de Daniel. En el Apocalipsis (13, 18) se hace referencia a una ‘bestia’, figura del tipo Anticristo, con una clave, el número 666 que por lo general se piensa encubre el nombre de Nerón, aunque es posible que el autor del Apocalipsis haya vivido bajo un emperador posterior (...). Cierta línea polémica protestante del siglo XVI consideraba a la Iglesia Romana como una prolongación del Imperio Romano, e identificaba a la Iglesia con la Ramera, y al Papa con el Anticristo. (1988: 121)

Horraino guztiz ados. Baino “bestia” hori soilik Franco da, edo Elizaren aparatu guztiak jasotzen du heroi edo “aingeru matxinatu” berriaren aizkorakada? Aizkorakada horretan Jainko tradizionalaren heriotza ere iragartzen da, eta eliza berri baten egarria ere bai, aurreraxeago. Nire irudirako Elizaren aparatu ofiziala eta faxismoa batera daude “bestia”ren irudi horretan.

Kristoren odolak Adanengandik gizakumeak gainean daraman zamaz arindu bazuen, Paradisurako ateak berriz ere zabalduz, horixe berori izango du helburu poemaren heroikak, antzutasunera errendituta gauzkan kristautasunaren hiru zutabe nagusien kontra oldartzen denean: *Fede, karitate, esperantza kentzen / ausartu nintzen nire nekearen ordez.* (*ib.*, 225). Eta borrokaldi estu horren ondorioz:

Ezta egon gizona inoiz hain bizirik:
 ni hil arte ezta egon halako gizonik,
 hain bizitzen denik,
 eztute nekerik,
 daudelako hutsik. (*ib.*, 17)

Eta borrokaldi horren ondorioa izango da gizartearen salbabidea, edo euskaldun-goarena behinik behin, eragozten zuen “bestiaren” suntsidura. Izan ere “bestia” hori, “lehengo gizon beteek amorruz jarria” (*M.b.*, 226) izan baitzen, eta “oraingo gizon hutsek” bera jaurtikia... antolatzen duela infernu berria” (*ibidem*). Gertaera heroiko horiek gertatzentz ari ziren unean “iraulten egon da gorua” (*ib.*, 232). Beraz, goia eta behea, zerauk eta infernuak irauli dira, oreka zaharrak suntsitu: “Aingeru Serafinek akerra dirudi / deabru Belialek epetxa kantari” (*ib.*, 219). Ehule zaharrak edo Antzinatze klasikoko Parkek ere lan nekosoa izan dute. Izan ere, antolamendu berri eta iraultzaile bat ehundu baitute beren “goruan” edo mundu-oihalean. Eta egoera berri baten aurrean paratzen gara: “gizarteria salbatua”, euskaldunak aske, edo, bestela esateko, *Lore-mendiako* paradisu lurtarra, Aginduriko Lurraren eta Jerusalen berriaren aiduru.

Gizarteria izan dadin salbatua (...)
 Bildots berria, mantsoa;
 Jainko bortitzta, haltua:
 Zuri eskerrak, ordu honetan
 dago geugana heldua
 joran bizian eduki nahi
 genuen salbamentua. (*ib.*, 226)

Honela dio A. Arkotxak bertso horiek gogoan:

Dans *Maldan behera*, Joane oppose d'un côté la douceur de l'Agneau à la sévérité et à la suprématie du Dieu de l'Ancien Testament et c'est à celui-ci qu'il rend grâce (*Zuri eskerrak*, dit-il). Il prône ansi la loi du Talion, de la fureur et de la vengeance, au lieu du pardon et de l'amour universel. Le salut est à ce prix car c'est avec des armes que l'on triomphe de la bête, du dragon...

Mais il n'y a pas mention d'aucune trascendance, l'homme est seul maître de son destin. Le salut dont parle Joane est une *Jérusalem terrestre* opposée à la *Jérusalem céleste* de l'Apocalypse. (1993: 176)

5.4. Azkenengo besarkada

Horra zer zioen Arestik poema horri buruz:

El *Maldan behera* no es en sí un poema completo, es fraccionario. Por ello escribió después el *Azkenengo besarkada*, que muy bien pudiera llamarse *Maldan Gora*, aunque en un principio lo bauticé como *Miren eta Joane*. (Aresti 1986: 10, 140)

Poema honetan barrena han eta hemen entzuten diren oihartzunak ugari dira; gehienak, espero bezala, *Maldan behera* bertatik sortuak: “Hermita hau ehor / bezate trumoiek”, “Atzean da betiko arbola sikua” (*Hariztia*), “eznekien zer egin, arima nun

ortus” (*Iratze ederra*), “Negar egin dute / larrosek, ez barre”, “Azkenengo mendia: Badakit ortua” (*Lore-mendia*).

*Maldan beheratik bertatik sortuak ez direnean, Maldan behera idatzi zuen sasoiko zenbait irakurketaren zipriztinak dira: “Atsegin guzti guztien madre / orijinala, ...”, “Orain ezta problema, ezta misterio, / Joanerentzako: / argitan dago oro, / agiri ta klaro” (M.b., 228). Konparatu Barrutiaren *Gabonetako Ikuskizuna* antzerkiko beste hauekin: “Denbora luzean gabiltza isurik / Desegindu beiz zeure argiak / Gure bio-zetako odoi guztiak” (*Euskeria*, 1980: 288). *Judizioa* poeman ere bertso hau dator: “Gure barnean ere badago hodeia” (M.b., 221).*

Azkenengo besarkadakoak dira, bestalde, Miranderen poesia nihilistik *Maldan beherara* bildu diren oihartzun zuzenenak:

Hau da nire gurutz
pisuena! Jesus!
Jainko gabe zeruz
zeru gurutzatzu! (...)
Inoiz eznezan bertan utz!
eskatu nizun, humilduz,
lore-mendian, ta baita ere
Golgota-mendi hain biluz
haretan... (ib., 230)

Mirandek ere gogorazi zuen Kristoren heriotza aurreko bakardade larria: “Josu bar-Joseph, deithu zaitut haizeen arteetik /.../ zeure zerutik deus ez duzu, ihardetsi”. Miranderen poesia-mundutik gertu dabil honako beste bertso hau ere: “Bizirik eztuena ezin liteke hil”. (M.b., 230). Dena den, Azkenengo besarkada poemako bertso-rik importanteena honako hau da: “ETA EZ NUEN AURKITU BARRENEAN EZER” (M.b., 229). Mendekuaren ondoren, eta Jesukristoren infernualdi arketipikoari men eginez, hirugarren egun sinboliko batean (*Partiera, Judizioa eta Mendekantza*) berpiztu eginda Miren. Eta *Lore-mendian* abiada hartu zuen amodiozko historiak amaiera zoriontsua izango du, komedia on guztiekin bezala.

6. Amodiozko historia

6.1. “Eta barazainak izana dauka Miren”

Begibistan dago *Maldan behera* poeman amodiozko historia bat ere kontatzen zai-gula. Arestik berak dioen moduan, amodioaren historia eta arrazoia. Baieztapen horren funtsa ez dago Pedro Salinas poetaren *Razón de Amor* poema liburuaren izenburutik urrun. Amadio istorio horren hasiera *Lore-mendia* poema dugu, nahiz eta *Hariztia* urrun hartan aurkitu amadio horren ondorioaren estraineko hitzak. Dena dela, *Lore-mendia* poemara iritsi aurretik ezertxo ere ez da jakingo poemako Miren pertsonaia femeninoari buruz. Hortxe egingo du estraineko agerraldia, eta hortik aurrera bera izango da Joane protagonistaren urratsen eta ekintzen zentzuemailea. Miren horixe izango da, halaber, orainarte kontatzen saiatu garen hari narratibo heroikoari (nietzschearra), bigarren hari narratibo nagusiari arnasa eta garapena eskainikoa diona. Hau da, *Lore-mendiaraino* pathos heroiko baten gurpilean bidaiatu

baldin badugu, pathos heroiko hori eten egiten da bigarren zatian barrena berreskutatu izateko. Hala eta guztiz ere, berreskurapen soila ote da? Ezetzean nago, tartean funtsezko gauza asko gertatu baitira. Ez dut esan nahi lehenaldiko pathos heroiko eta boteretsuari uko egiten zaionik; bai, ordea gertaeren muinean eta sostengu bakartzat Miren dagoela. Nor dugu, orduan, Miren hori, bere amodioagatik hainbeste sofrikario eta mendeku merezi badu?

Lehenengo eta behin, esan dezadan *Lore-mendia* honetantxe mamitzen direla simbolika kristauaren ildoko lehen adierazpen garbiak. Alde horretatik esan dezakegu Miren eta Joaneren elkar hartzearekin batera eman zaiola hasiera lehen zatiaren amaierari eta bigarren zati osoa baldintzatuko duen amorio istoriari. Are gehiago, *Lore-mendia* baino lehen ikusitako guztia ez da guztiz ezinbestekoa hemendik aurrerako poemaren garapenean. Beraz, *Lore-mendia* hau arketipia kristau baten zedarriak funtsean hautsiko ez dituen hari narratibo berri baten abiapuntu dugu. Baieztagen horren frogagarri, honako hiru elementuok: gurutzea, berpizkundea eta zerua (paradisua). Operazio horretan aurreko saileko zentzu trajikoa komedia heroiko bilakatu zaigu. Eta komedia honetan badu zeresana Mendebaleko literatur tradizioan ohorezko lekuak bete duen Danteren Jainkozko Komediatik. *Lore-mendia* Edenaaren bertsio mundutarra genuke, Eden paradisukoaren islada mundutarra. Izan ere, Danteri jarraituz bai baitakigu Edenaeko baratza Purgatorioko azkenengo mendian dagoela: “Azkenengo mendia: Badakust ortua” (*M.b.*, 231). Hari honi jarraituz badirudi Joan Adanen traza osoarekin hurbiltzen zaiola Mireni; edo, alderantziz, Mirenek Ebaren traza osoz bere magalean hartzen duela Joan, hora goialdetik herrirantz doala. Garbi dago menditik herrira bitarteko *Lore-mendia* hori oasi baten antzeko atseden leku paregabea dugula. Inoiz pentsatu izan dut Lizardik ere antzeko soluzioa bilatu ziola uda beroaren zigorrari ihes egin nahian dabilen bidaiairiari, “Itzal”aren babesean, “Boso”ren ume jaukalaren magalean maitekiro jarri zuenean. Bidaiaiarentzako atsendaldi eta pausaleku segurua dugu. Bai Arestirenean eta bai *Lizardiaren*, “topos” imajinario bera ari da irudiak antolatzen, biak ere gozamen edeniko baten islada direlarik. Miltonek ere bere *Paradisu galduan* Edenaeko baratza Ebaren gorputzean biltzen du, emakumearen irudia eta baratza gorputz berean bat eginez: Emakumeak (Eba, Miren) izaera metonimiko bat bereganatuko du.

Bere besartean baratz zoragarria:
ugatzak arrosaz, krabelinaz gorria;
arreba nausi baten nengoan altzoan.
Loramendia zen bere gorputz bikaina.⁵⁹ (*M.b.*, 205)

Lore-mendiaren altzoan ezagutuko du estrainekoz poemako protagonistak bitzitzera oparotasun eta betetasun osoan. Oparotasun hori baratzako animalia eta elikagai guztien da. *Lore-mendiaren* aurreko barne zatiketaren sofrikarioa gaindituz, “gorputza eta arima egin”go ditu mainatu, “ezlezaten eduki orbantxo batere” (*M.b.*, 204). Protagonistak arimako amodio egarria aski asetu ondoren, “baratz laztangarría/har-

(59) Horra Arkotxak idatzi diguna, goragoko bertsoak gogoan: “Ces derniers vers font irrésistiblement penser au personnage féminin central du *Cantique des Cantiques*, personnage apocalyptique d'épouse” (1993: 73).

turik eskuan” (*ib.*, 206) herrietara bidean jarriko dira. *Herri-bitarteko jendeak*, ordea, “elkarrekin egotea” (*ib.*, 218) galaraziko die, ez die halako hartuemanik onartuko, eta jarraian Kristoren nekaldiaren eta gurutzeko heriotzaren parodia zuzen-zuzena eskaintzen zaigu. Eta, berri zere, gorputza eta arima banatuak izango dira. Amodioa eta heriotza ezagutu ondoren bakarrik jakingo da “Joane eta Miren” ditugula bi maitaleen izenak. Ez ote dago hemen *Maldan beherako azpitituluaren justifikazioa?* Hemendik aurrerako poema guztia galarazitako amodio ezindu baten mina litzateke. Joan bere arima eta maitale den Mirenengarri izango da gainerako orriean. Nonahi barreiatutik dabil Mirenengarri memoria eta irudia, maitale galduari eta amodioari buruzko aipamenak ugari baino ugariagoak dira. Eta Joane zeruminez agertzen zaigu; Mirenengarri inguruan paradisu bat sortu, ez du beste ametsik. *Ditxaren bitarte* izeneko poeman lortuko du Mirenengarri bat izatea. Amodioaren kontsumazio horren ondorio dugu paradisuan “sustraitu den arbola” (*M.b.*, 232); beraz, “Arraza berri” (*ibidem*) horri ez zaio inoiz faltako egarriak oro asetuko dituen urik. Bien bitartean, Joane epaitu eta kondenatu aritu da, Azken Judizioa bailitzan.

Amodiozko istorio honen musa Miren da, eta bere erreferente biblikoak poeman bertan aitortzen zaizkigu: Maria Matxalena eta Maria Birjina. Alabaina, ikuspegi zabalago baten barnean, Danteren alegoriaren antzekotasunik ere igar dakiok egituraren garapenari. Danterenean, poema honetan bezala, Beatrice-ren amodioak kilikatuta joango da poeta herrestan infernutik zeruraino. Han Beatricek betetzen duen salbatzaile funtzioa, honako honetan Mirenek⁶⁰ beteko du; izan ere:

Bera da salbatorea, (Miren)
ni Beronika berria.
Birjina Miren dultze gozoa,
gurutze bati josia,
zeru berrira igo zenuen:
Hauxe da nire gloria. (*ib.*, 231)

Eta Mirenengarri bila doa, lehenik hilobira; han, ordea, ohartzen da Miren berpiztu egin dela; handik maldan gora hartuko du, atzean utzirik munduari loturik zeukan gorputzeko azken hezurrak. Danterenean ere bidaiaaria bekatuaren zamaz erabat arintzen delarik baizik ez du iritsiko helmuga, ordurako “Pekatuaren” azkeneko letra (P) eroria izango du:

...cuando las P que quedan
aún en tu rostro a punto de borrarse,
estén, como una de ellas, apagadas,
tan vencidos los pies de tus deseos
estarán, que no sólo sin fatiga,
sino con gozo arriba han de llevarte.

Eta, azkenik, 20. poeman, *Ditxaren bitarte* deiturikoan, Joaneren ametsa gauzatuko da:

(60) “L'apparition de Miren a un caractère magique, il s'agit presque d'un rêve où l'on pourrait imaginer que le rosier se transforme en femme. La rose évoque, bien Béatrice de Dante, image de l'amour et du don rosier de l'amour” (Arkotxa 1993: 124).

Besarkada eder baten
orain juntatu gara;
horregatik nintzen
igan zeruetara. (M.b., 231) (Ezkontza berri bat, Eliza berri bat, etab.)

Bigarren hari narratibo nagusiak hementxe du amaiera. *Bitartez* instrumentalala izenburutzat duten poemek askoz ere lotura estuagoa dute hari narratibo nagusiarekin, “gogoeta eroak” sailak zuena baino. “*Bitartez*” sailean ere gertatzen da, *Maldan beheraren* bigarren zati osoan azaltzen saiatu dugun eran, lehenengo zatitik jasotako zenbait oihartzunen edo irudiren errepikapena: “abere mutuak”, “esku zikinak”, eta abar. Bainan esan bezala, poema horien ulerpenna ezin da inondik ere bereizi bigarren zati osoa biltzen duen tematika nagusitik. Hala ere, esan beharra dago, badirela bertso asko eta asko ildo nagusi horri ihes egiten diotenak, eta, “gogoeta eroak” saileko-ekin gertatzen zen moduan, “*bitartez*” bertso askok zail dute disimulatzen betelanaren itxura. Izan ere, gorago esan bezala, hari narratiboaren arrastora erakarri ezin diren bertso asko baitago hor, alegia, poema bere osotasunean ulertu ahal izateko ekarririk ez duten bertso ugari. Amodiozko istorioa hementxe bukatu bada ere, poemak aurrera darrai. Nire ustez, garbi dago azkeneko poema hori, *Malda goran eginiko gogoeta eroak* izenekoa, soberan dagoela, eranskin huts bat baino ez dela. Gorago aipatzan genuen bezala, Aresti obsesionatu samar zebilela bere zikklikotasun eta betiereko itzulera nietzschearrarekin, eta horregatixe itzultzen da berriz lehen zatiko gogoeta ero eta nietzschearrretara. Alabaina, bukaera honek ez du zerikusirik azken istorioarekin; are gehiago, kontatu den amodio istoriaren ukazioa ere bada. Ez dut uste bigarren narrazio hori lehen hari narratibo zabalagoaren barnean integratuta gera daitekeenik. Kontua da, intentzioak intentzio, kontraesan bat dagoela hor; eta Arestik eskaini digun egitura orokor hori sakoneko kontraesan baten morroi dela. Izan ere, bigarren narrazio horrek poema osorako beste egituraketa bat proposatuko nahi lukeela dirudi: *Untergang-a /9 zirkulu/Requiem/9 zirkulu/ Maldan gora.*⁶¹

(61) 1986an nik neuk idatzitako lan baten atala honako hau zen: “Dante eta bere komedia”. Atal horretan hauxe agertzen da: “*Maldan beheraren* lehen zatiaren egitura, Dantek bere ‘Komedia’n infernutilik paradisuko egindako ibilbidea bera litzateke. Danteren komedian Virgilio da infernuetako eremutik paradisuko Beatrice-ren eskuetaraino gidatuko zuen poeta. Ez dago dudarik Danteren paradisuko Beatrice eta Arestiren *Lore-mendiako* Miren ezaugarriri bereko emakume gidariak ditugula. Mirenek, Danteren Beatrice-k bezala, poetaren urratsak bideratuko ditu. Beharbada, halako parekotasun bat nabaritu ahal da komedian eta *Maldan beherako* poetek betetzen duten funtzioan. Komedian Virgiliori zuzenean gomendatu zitzzion funtzio ez ote dute, zeharka ez bada ere, lehen zatiko lau poetek beteko? Nabari da ez dutela *Hariztia*, *Lizardia*, *Iratze ederra* eta *Lore-mendiak* kontzienteki bereganatu duen funtzi eta ardura. Hala ere, formalki onar daiteke halako parekotasunik”. Eta horrekin batera *Maldan behera* poemaren egituraren eskema ematen zen:

- | | | | |
|---------|-------|----|---------------------------------|
| Sarrera | _____ | 1 | UNTERGANG |
| | | 2 | Hariztia |
| | | 3 | Sendan eginiko gogoeta eroak |
| | | 4 | Lizardia |
| | | 5 | Estratan eginiko gogoeta eroak |
| | | 6 | Iratze ederra |
| | | 7 | Galtzadan eginiko gogoeta eroak |
| | | 8 | Lore-mendia |
| | | 9 | Kaminoan eginiko gogoeta eroak |
| | | 10 | Herri-bitartea |

Ezkonezina dena ezkondu nahi izan da: Zaratustraren pathos trajikoa eta Kristoren komedia Jainkotiarra. Batetik, betierekotasunean urtzen den pathosa eta, bestetik, bukaera nahitaezkoa duen "telos": ikuspegi biribila eta lineala: Zaratustraren ildotik trajediaren egarri abiatu eta komedia heroiko batean amaitu.

6.2. Maldan Beherako heroia eta *Bizkaitarra*

Horra *Bizkaitarra IV* poemako bertso hauek:

Bilbo honetako euskalduntasun
zikotxaren señalea
zeuek zarie arrokartean
Agertu dan arbolea
Eu baño beste mutiko batek
Etxok zapaldu kalea
Nondik dabilen sorterrirantz
Gaurko tabernazalea. (Aresti 1986: I, 63)

Beraz, lot daiteke *Lur Eremua* eta *Eremu latza* Bilboko euskalduntasunaren uka-zioarekin. Eta horrela Arestik are gertuagotik jarraituko lioke Eliotek *London* eta *eremuarekin* lortu nahi duen asoziazioari. Han Londres dena, Arestiren honetan Bilbo izango da. Bestela, zein ote bertso honen esanahia?

Katigu naukan ekatxa
Area peko sustar sakonak
Egin nabenak aretxa. (*ibidem*)

- | | | |
|----------|-------|--|
| Sarrera | _____ | 11 REQUIEM |
| | | 12 Deskantsuaren bitartez |
| | | 13 Partiera |
| | | 14 Arbuioaren bitartez |
| | | 15 Judizioa |
| | | 16 Adorazioaren bitartez |
| | | 17 Mendekantza |
| | | 18 Grinaren bitartez |
| | | 19 Azkenengo besarkada |
| | | 20 Ditxaren bitartez |
| Itzulera | _____ | 21 MALDA GORAN EGINKILO GOGOETA EROAK" |
| | | (Aldekoa, argitaragabea) |

1990an, "Maldan beheraren irakurketa baten inguruan" izeneko lanean, egituraketa hau eskaintzen zuen A. Arkotxak: "Argi dago 9 zenbakia ez dela erranahi gabekoa eta baduela simbolismo berezi bat, kultura anitzetako ikonografia, ipui, mito eta literatur kreazioetan duen bezala: 9 dira zeruetako eta infernuelako esferak. Danteren Komedia Dibinoan 9 ez da bakarrak Zeruaren zenbakia, baizik eta Beatrice, bere maite inspiratzailearena ere" (Arkotxa 1990: 148).

1993an *ASJU*-n argitaratutako tesiaaren azpisail batean honela dio Arkotxak: "Si nous reprenons le schème général de *Maldan behera* (Cf. début 1ère partie), nous nous rendons compte qu'une structure numérique s'y révèle:

(Untergang)	1
Cycle 1	9
(Requiem)	1
Cycle 2	9
(Malda goran...)	21

Eta *Bizkaitarra IV* poemaren hurrengo ahapaldiak honela jarraitzen du:

... zek bultzatu ninduan
Olango bidean
Aldapa latzagorik
Etxagok mendian
Mendi altuagorik
Etxagok munduan (...)
Orain igoten dodan
Eremu baltzean. (*ib.*, 64)

Poetak haritzarekin bat egiten du: *Hariztiako* (Arestiren sorterriko) eremu antzuaz dihardute bertso horiek. Biografia moduko bat kontatzen digun *Bizkaitarra III*-ko bertso honetan protagonista Jesukristoren hipostasi bat litzateke:

Umanidadeari
Fabore emateko
semea prestau nintzen
Gure Euskalerriko
Ainbeste borondate
Nebala eukiko
zeren nire odola
Argati emoteko. (*ib.*, 57)

Ez al da horixe bera *Maldan bebera* gertatzen? Beti pentsatu izan dut ezinbesteko dela *Maldan bebera* taxuz ulertzeko bere arrimoan idatzi izan ziren zenbait poema arreta handiz kontuan hartzea. J. Azurmendik esana zuen *Maldan bebera* ulertzeko behar-beharrezko dela *Zuzenbide Debekatua* poemarekin alderatuz leitza. Nago ordea, ez dela horrenbestekoa *Zuzenbide Debekatuak* *Maldan beberaren* ulerkuntzari eskain liezaiokeen laguntza; *Bizkaitarrak* poemarena, aldiz, ezinbestekoa da. Horrexegatik ari naiz *Bizkaitarrak* poemako hainbat eta hainbat adibide azalpen honetara biltzen, uste baitut asko lagun diezagukeela poemaren argitze lanetan. Horra zer digun esaten *Bizkaitarra II*-ko honako bertsoetan:

Beste lagun bateri
Entzunda deukotsat
Laster bear dugula
Eukin mesias bat
Beste erremeriorik
eztela guretzat
Mutiko arekin eskatu eustan
Bere biotz zabalean
Euskal Mesias prestadutea... (*ib.*, 42)

Goraxeago esan berri dugu *Bizkaitarra III*-ko zenbait bertsotan Kristoren beraren hipostasi bat bailitzan agertzen zitzaigula ahots poetikoa. Baino ez dugu ahaztu behar *Bizkaitarrak* poema osoa krisialdi garai bateko poema dugula. Oraindik bere ingurugiroa nagusiki hornitzen duen iruditeria biblikoa da; gainera salbatzaile edo askatzaile baten inguruaren biltzen den iruditeriaz dago hornituta. Eta, hala eta guz-

tiz ere, poetak ez du dagoeneko federik, gertakizun horren egian ez du sinisten, bere egiatasunaren indarrean. Horregatik da imajinario; horregatik *Maldan behera* poemak ezin hobeto irudikatzen du Arestirenganaino indarrean egon zen fedea eta herri baten esperantza, poetak berak ere konpartitu eta bizi izan zituen fedea eta esperantza. *Maldan behera* poemak imajinario hori barneratuta eskaini digu. Poemaren zentzu apokaliptikoa ez da errealtitatean gertatzen, poetaren barne-imajinarioan baino. Horra inon baino hobeto azaldurik fedearen gainbehera hori:

Eztot deseо eztot espero olantxe pasadu daiten
 Baña biotza sartuta daukat negarrez ukabil baten
 Nire bizitzta gusti-gustia pasadu gendun entzuten
 Urte danetan libertadia etorriko jaku aurten
 Non-nai orduan entzungo dozu euskeraz berba egiten
 gure alde etorri egingo dana jaiota dago nonbaiten
 Orain eztot siñistutene
 Asko deseadu arren
 Onegaitikan bzikaitarrari kantaduten deutsat amen. (Aresti 1986: I, 78)

Euskal poesiaren alfabetoa sinismen horrek alderik alde zeharkatuta aurkitu zuen Arestik. Halaxe adierazita utzi zigun 1960an Donostian eman zuen hitzaldian: “Inork eztu oraindik asmatu, baina nik helburu asmatu behar banuke ezagutzen ditugun euskaltzaleentzako, hau izanen litzateke: “Fedearekin pentsa” (Aresti 1986: 10, 25). Egia esan, aipatutako estalpe horretan Lore-jokoetatik hasi eta Arestirenganainoko euskal poesiagintza gehiena bil genezake: Arrese-Beitiaren arbola eta baratza, Gernikakoa eta Euskalerria sinbolizatzeaz gainera, paradisuko arbolarekin eta Eden biblikoarekin ari da solasean. Eta ildo horretatik *Bibliako* tradizio zaharrenari eutsiz, herri “aukeratua”ren (Israel = Euskal Herria) etsaiak —“belarri motzak”, Sabino Aranaren ahotan— suntsi ditzan eskatuko zaio zero goi eta guztiahaltsuari, edo bidal diezaien bertatik zigorra. Honelaxe kantatzen zuen Sabinok bere poesietan: “Bota, bota / azurbaltzok eta / euren lagun guztijok.” (cf. Aldekoa 1993: 24)

Aurreko mendeko azken herenetik mende honetako gerra ingurura arteko poesia-gintzak *Bibliaren* tradizioko ikuspegি zaharrean irudikatu zuen —Salbatore Mitxelenarena (Golgota: Arantzazu) ahaztu gabe— Euskal Herriak bizi zuen zapalkuntza eta ezina. Salbatore Mitxelenak lutzerako txertatu zion Arantzazuri maila sinboliko hori. Izan ere, Arantzazu poemaren (1948) ondoren, Oteizaren apostoluak ere “Arantzazu: Euskalerriaren” gurutze-bidean baztertuta egon baitziren 50eko urteetan. Eta 1968an jada baimenarekin aurrera egin zutenean Arantzazuko lanak, Oteizak Tx. Etxabarrietaren gorpua sinbolizatuko lukeen eskultura jarri zuen amabirjinaren beso-estan. Arestik honela zioen urte batzuk beranduago bere *Zuzenbide Debekatua* poema luzean:

Ipui zaharra da euskaldunen artean
 nolaz egun batez etorri behar duen
 jainkoaren semea gu gobernatzen (...)
 Eta egun batez Sion berri batera
 heltzen bagara gu, gezurrezko juduok,
 Jainkorik eztauagun populu triste hau. (Aresti 1986: I, 289-294)

Aurreko bertso horiek idatzi zituenerako hartua zuen Arestik zuzen-zuzen poesia sozialaren bideetara eramango zuen abiada. *Zuzenbide Debekatua* poeman oraindik bere aurreko imajinarioarekin atzera eta aurrera dabil. Baino Arestik bazekien jada imajinario horrek eman behar ziona emana ziola dagoeneko. Imajinario horrek ez baitzuen jada indarrik, agortua zegoen jada, Arestiren beraren eskuetan agortua egon ere. Horrek ez du esan nahi aurrerago imajinario horretatik ez duenik hartuko, hori beti egingo baitu. Baino imajinario eta sinbolika horrek beste formulazio bat erabat berria eskatzen zion poetari, hitz poetikoari indar eta mezu bat itsatsiko zion formulaketa berri bat. Hori *Harri eta Herri* poema liburuak ekarri zuen lehen aldiz Arestiren poesiagintzan, eta baita euskal poesiagintza solora ere.

Orduan nola bete zuen Arestik bere hizkuntza poetikoak eta jarrera bitalak era-kusten duten defizit hori? Nola gainditzen du, poesia sozialaren bideetan ezinbestez lerratu baino lehen *Bizkaitarrak* poemak erakusten duen transizio garai hori? Arestirenganinoko tradizio poetiko osoarekin zorra kitatzea da *Maldan behera* poemarekin egina. Baino poema horrek gaiaren tratamenduan nobedade ikaragarri bat erantsi zion aurreko guztiari, poetaren aurreko guztia zilipurdika uzten zuelarik. Nobedade ikaragarri hori Zaratustra da. Jesukristo eta Mesias delako batenganako fedea eta esperantza ahituta —Aresti ere fededun izan baitzen—, eta poesia sozialera, fede eta esperantza eraberritu eta antzaldatu batera iritsi aurretik, soluzio bakarra tradizio errromantikoan murgiltzen zen. Gauzak horrela, Nietzscheren eskutik horren ospe-tsua bihurtu zen Kristoren kontrairudi eta kontrairaultza iritsi zitzaison: Zaratustra (cf. Juaristi 1987: 118-119).

Esan bezala, Zaratustraren gaingizakiak imajinario zaharrari hustutako indar berria / odol berria eskaini zion, eta *Maldan behera* poema luzean zehar Kristoren odolari Zaratustrarenak egingo dio itzala. *Maldan behera* idazten zuen garaiko iruditerian ukaezineko indarra izan zuen gaingizonak Arestiren transiziozko imajinarioan.

Etxeparengandik
Deutsagu itetan
Gizon fuerte bateri
Balzosoz eta su
Orrek egingo euskun
Zeruko gloria eman
Beste tema bategaz
Ezgara iños egon. (Aresti 1: 46)

6.3. Gaingizakia eta Jesukristo

Sail honekin amaitu aurretik, azpimarratu nahiko nuke bete-betean harrapatzentz duela *Maldan behera* hau, gerraurreko proiektuaren jarraia genuen *Euzko-Gogoaren* izpiritua jadanik gainditura, Krutwig eta, batez ere, Miranderekin batera hedatutako indarkeriaren “pathos”ak. Txema Larreak bere “1956eko belaunaldia”n (1989: 9) azaltzen duen moduan, politikan eta kulturan 1959tik aurrera agertutako eduki berriak aurreko hamarkadakoak ziren, 1950eko hamarkadakoak, hain zuzen. Abe-riaren mistikaren alde bide guztiak onartzea, indarrarena barne; fedea euskaldunen

ezaugarri nagusitzat ez hartzea, “Euskaldun Fededun” leloaren suntsidura eta euskaraaren erabateko garrantzia dirateke eduki berri horien artean aipagarrienak.

Dena dela, Arestiren lan horretan, gaingizakiaren nihilismoaz harago, gurutzearen sinboloaren gainean sortu du poetak Kristo mendekatzale eta antikristaua. Batera zein bestera, bi *pathos* trabatuz osatu du Arestik poemaren tramazo hori. “Pathos” horiek elkarrezinak izan, ordea. Zaratustrak eta Nietzschek ez dute inoiz onartuko ez gurutzearen sinbolika numenikoa, ez, berpizkundearena. Norbaitek pentsa lezake mendekua hartzen duen heroia Zaratustraren “pathos”ari jarraitzen zaiola, edo, konparazio batera, Dostoivesky-ren *Inkisidore handian* kontatzen zaigunaren pareko zerbaitei; alegia, hango profeta isildu eta kondenatu zuen Elizaren aurka mendekua hartuko zukeen “pathos”ari. Arestik motibo nagusi horren inguruuan erakutsi zuen jardunak garai hartako poetaren funtsezko *leit-motivetako* bat adierazteria garamatza. Izan ere, Dostoievskiren Inkisidoreak, Hölderlinen Empedoklesek eta Nietzscheren Zaratustrak ildo beretik garatutako motiboa dute oinarrian: herriko jendeak profetaren mezuari uko egiten diote. Gauza bera gertatzen da geroxeago Aresti hainbeste zirraratu zuen nobela batean: Kazantzakisen *Kristo berriz gurutziltzatua*. Nietzschek, ordea, gorroto zion gurutzeari, ezen behin baino gehiagotan esango du odola dela egiaren testimoniorik kaxkarrena. Nahiz eta hori horrela izan, badirudi *Maldan beherako* poetari eskapo egin zion ikuspegia izan zela; izan ere, bai baitago poema horretan intuizio poetiko nagusi bat, Zaratustrak zabaldutako ildo trajikotik itsu-itsuan ibili nahi lukeena. Trajikotasun horren ardatzean poemaren planteamendu ziklikoa dago, bere baitan naturaren gurpilak etengabeko itzulian dihardu. Betiereko gurpil horrek animaliak, zimutxoak, gizonak eta beste gaindituko lituzke, iragana errauts eta ezerezean amilduz. Gurutzearekin ere halako zerbait egin nahi izan da, Nietzschek ere bai baitzekien apaizek ez zutela Jainkorik gurtu, gizona gurutze batean josi aurretik. Bide beretik joko du, geroxeago, Freudek ere, Moises eta Monoteismoari buruzko lanean. Horregatik, *Maldan beherako* apaiz eta eskribauet (gizon-satorrak Nietzsche-rentzat) “zure memoriak egin/dituzte gaur elizan” (*M.b.*, 225), eta horregatik, orobat, “Errezatzen hari/zarete, gero nadin zuetzaz urriki” (*ib.*, 224), azken finean, eliza gurutzearen gainean eraiki zuten: *Amaitu ginen lekuau / egin dute kapera.* (*ib.*, 222)

Badago, beraz, Arestiren intuizio poetikoan kristautasunaren zikloa gainditzeko nahia, hau da, gurutzearen eta bere ondorioak gainditu eta deuseztu nahiko lituzkeen ahots arestiarrar. Ez ditzagun ahaztu kristautasunaren hiru zutabe tinkoenei — fede, karitate eta esperantza — egiten zaien erasoa. Honainoxe, bada, *Maldan behera* honetan azaleratzen saiatu garen hari eta “pathos” nietzschearra, gorago aipatutako kontraesan eta guzti. Bada, hala ere, beste hari bat, beste intuizio bat, bete-betean kristautasunaren kosmogonia eta “telos”arekin bat datorrena; esan gabe doa, “telos” horixe izango dela goiko ziklikotasun trajikoari buruz buru kontrajarriko zaiona.

Ez dago berriz errepikatu beharrik sinbolismoaren oihan imajinarioan eraikitako poema dugula *Maldan behera* hau. Nahiz eta oihan sinboliko horretan egiazko ziuttea, eguneroko bizitza alegia, bahituxe egon oraindik, jada badator ate joka Arestiren hurrengo lanetan mamitz joango den errealsismo hurbila. Sinbolismo mitikoaren sare horretan ez baita posible poesia sozialak nahitaezko zuen errealsismo historiko eta

narratibo hurbil hori. Egia bada ere jada bultzaka datozkiola geroago mamituko dituen kezka sozial eta ideolojikoak, (luze gabe gainera, Donostian 1960an eman zuen hitzaldian giza konpromezu Oterozale samar baten oinarriaren ikuspegia plazatu baitzuen), Arestik ez zuen poesia berriaren formarekin eta “gizaki” historikoaren trazarekin *Harri eta Herrirarte* asmatu. Obra horretan intentzioak eta kezkak —berri edo zahar ez dio axolarik— formulazio berri bat izan zuten. Eta hori ezin da inolaz ere ahaztu. Izen ere, eguneroko gizartean eragin zuzena eduki nahi duen poesia batek ezin du permititu *Maldan behera* bezalako mezu ulegaitzik, taxuz ulertze-ko sekulako azterketa hermeneutiko baten beharra eskatzen duenik.

Bibliografía

- AA.VV., T.S., 1983, *Eliot euskeraz*, Donostia, Hordago.
- Abrams, M. H., 1960, *English romantic poets*, New York, Oxford U.P.
- _____, 1984, *The correspondent breeze: essays on English romanticism*. New York, Norton.
- _____, 1992, *El romanticismo: tradición y revolución*, Madrid, Visor.
- Adorno, T. W., 1962a, *Prismas. La crítica de la cultura y la sociedad*, Barcelona, Ariel.
- _____, 1962b, *Notas de literatura*, Barcelona, Ariel.
- Aldekoa, I., 1998, *Gabriel Arestiren Maldan behera*, ASJU, 435-510.
- _____, 1993, “Gabriel Aresti: komedia heroikoa” in id *Zirkuluaren butsmina*, Irun, Alberdania, 43-73.
- Aranzadi, J., 1981, *El milenarismo vasco*, Madrid, Taurus.
- Aresti, G., 1960, *Maldan behera*, Bilbao, Euskaltzaindia.
- _____, 1964, *Harri eta herri*, Zarautz, Itxaropena.
- _____, 1986, *Gabriel Arestiren Literatur Lanak*, Donostia, Susa, 10 ale.
- Argullol, R., 1982, *El héroe y el único. El espíritu trágico del Romanticismo*, Madrid, Taurus.
- Arkotxa, A., 1987, “Emaztearen rola Arestiren narratiban”, *Jakin* 45, 59-78.
- _____, 1990, “Maldan-Beheraren irakurketa baten inguruau”, *Hegats*, Donostia, Euskal Idazleen Elkartea, 4. zb.
- _____, 1993, “Imaginaire et poésie dans Maldan behera de Gabriel Aresti”, *ASJU* , , 3-241.
- Arrese-Beitia, F., 1988, *Olerki sorta bat*, Zarautz, Itxaropena, E.E.E.
- Atienza, J., 1979a, “Introducción”, *Maldan behera. Harri eta herri*. Madrid, Cátedra, 9-110.
- _____, 1979b, *Maldan behera / Harri eta Herri*, Madrid, Cátedra.
- Azurmendi, J., 1964, “Gabriel Aresti: poeta arro, ero... ta biraolari”, *Zeruko Argia* III-12, 3.
- _____, 1976, “Adan 1975: azterketa saio bat”, *Adanen Poema amaigabea*, Donostia, Lur.
- _____, 1985, “Aresti: Sentsibilitate konkretu bat” in *Jakin* 36, Donostia, 5-30.
- Beguin, A., 1978, *El alma romántica y el sueño*, 2^a ed., México, F.C.E.
- Benichou, P., 1984, *El tiempo de los profetas. Doctrinas de la época romántica*, México, F.C.E.
- Benjamin, W., 1980, *Poesía y Capitalismo. Iluminaciones* 2, 2. arg., Madrid, Taurus.
- Berlin, I., 1992, *El fuste torcido de la humanidad*, Barcelona, Península.
- Biedma, G. de, 1980, *El pie de la letra. Ensayos 1955-1979*, Barcelona, Crítica.
- Bloom, H., 1974, *Los poetas visionarios del romanticismo inglés*, Barcelona, Barral.
- _____, 1988, *La angustia de las influencias*, Caracas, Monte Avila.
- Bowra, C. M., 1961, *The heritage of symbolism*, New York, Schocken Books.
- Cohen, J. M., 1968, *Poetry of this age: 1908-1965*, New York, Harper & Row.
- Cohn, N., 1993, *En pos del milenio*, Madrid, Alianza.
- Dante, A., 1988, *Divina Comedia*, Madrid, Cátedra.

- Eliot, T. S., 1963, *Collected Poems 1909-1962*, Harcourt Brace Jovanovich, New York.
- _____, 1974, "Religion y Literatura", *Principios de crítica literaria*, Wilbur Scott. Barcelona, Laia.
- _____, 1978, *Poesías reunidas 1909-1962*, Madrid, Alianza.
- _____, 1986, *Selected Essays*, London, Faber and Faber.
- _____, 1989, *The sacred wood*, London, Rontledges.
- Frazer, G., 1995, *Urrezko Abara I/II*, Bilbo, Klasikoak. (Itz. I. Iñurrieta).
- Friedrich, H., 1974, *Estructura de la lírica moderna*, Barcelona, Seix Barral.
- Frye, N., 1963a, (arg.), *Romanticism Reconsidered*, New York, Columbia U.P.
- _____, 1963b, *T. S. Eliot*, Chicago, The University of Chicago Press.
- _____, 1967, *A study of English romanticism*, New York, Random House.
- _____, 1988, *El gran código*, Barcelona, Gedisa.
- _____, 1992, *Words with power. Being a second study of "The Bible and Literature"*, New York, Harcourt Brace Jovanovich.
- Gadamer, H. G., 1991, *La actualidad de lo bello*, Barcelona, Paidós.
- _____, 1993, *Poema y diálogo*, Barcelona, Gedisa.
- Garai, K. J., 1992, "Johannes Jesus Salbagile. Gabriel Arestiren Maldan beheraz (I. parte)", *Enseiucarrean*, Bilbo, Deustuko Unibertsitateko Argitalpen Saila, 165-219.
- _____, 1993, "Johannes Jesus Salbagile, Gabriel Arestiren Maldan behera II", *Enseiucarrean*, Deustu, Deustuko Unibertsitateko Argitalpen Saila, 81-127.
